

# ELGETA LEHEN ETA ORAIN

Manolo Cainzos

**Argitalpena eta Diseinua / *Edición y Diseño:*** Manolo Cainzos.
**Gainbegirapena eta Itzulpena / *Supervisión y Traducción:*** Itziar Orbegozo.
**Inprimategia / *Imprenta:*** K-3 Inprimategia. Bergara.
**L.G. / *D.P.*:** SS-912-2018

**Azala:** Elgetako Maialde Landetxe-Jatetxearen logotipoa eta marka-irudia, liburuko azalari irudia jartzeko utzia. Lorea Elkoro artista elgetarraren lana da. Debekatuta dago bere erreprodukzioa jabeen berariazko baimena eduki ezean.
***Portada:*** *Logotipo y marca de imagen de Casa Rural-Restaurante Maialde de Elgeta, cedido para ilustrar la portada de este libro. Obra de la artista elgetarra Lorea Elkoro. Prohibida su reproducción sin el permiso expreso de sus propietarios.*

# ELGETA LEHEN ETA ORAIN

Manolo Cainzos

## *ÍNDICE*


*PRESENTACIÓN* ........ 8

*1. LOCALIZACIÓN Y ENTORNO DE ELGETA* ........ 10

*2. DEMOGRAFIA Y POBLACIÓN* ........ 14
- *EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN* ........ 14
- *POBLACIÓN LABORAL ACTIVA SEGÚN SECTORES* ........ 16
- *SITUACIÓN SOCIOLINGUÍSTICA DE LA POBLACIÓN* ........ 18

*3. UNA APROXIMACIÓN A LA HISTORIA DE ELGETA* ........ 20

*4. LA SOCIEDAD ANTIGUA DE LOS SIGLOS XV AL XIX* ........ 38
- *LOS GRUPOS SOCIALES* ........ 38
- *LA SOLIDARIDAD SOCIAL* ........ 48
- *LA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL Y PROVINCIAL* ........ 54

*5. LA SOCIEDAD CONTEMPORÁNEA DESDE EL SIGLO XX* ........ 60
- *LA REALIDAD RURAL* ........ 60
- *LOS VARIOS SERVICIOS Y ACTIVIDADES* ........ 64
- *EL MOVIMIENTO POLÍTICO* ........ 74
- *EL PROCESO INDUSTRIAL Y EXPANSIÓN URBANÍSTICA* ........ 82

*6. EL PATRIMONIO HISTÓRICO* ........ 90
- *ARQUITECTURA RELIGIOSA (PARROQUIA Y ERMITAS)* ........ 90
- *ARQUITECTURA URBANA (NÚCLEO DE LA VILLA)* ........ 122
- *ARQUITECTURA RURAL (CASERIOS)* ........ 138

*CRONOLOGÍA O FECHAS EN LA HISTORIA DE ELGETA* ........ 160

*NOTAS* ........ 165

*BIBLIOGRAFÍA* ........ 179

## AURKIBIDEA


AURKEZPENA ..... 9

1. ELGETA: KOKALEKUA ETA INGURUA ..... 11

2. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA ..... 15
   BIZTANLERIAREN BILAKAERA ..... 15
   LANGILE BIZTANLERIA AKTIBOA SEKTOREAREN ARABERA ..... 17
   HERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA ..... 19

3. HURBILKETA ELGETAKO HISTORIARA ..... 21

4. ANTZINAKO GIZARTEA XV. MENDETIK XIX.ERA ..... 39
   GIZATALDEAK ..... 39
   GIZA ELKARTASUNA ..... 49
   HERRI ETA PROBINTZIA EGITURAKETA ..... 55

5. GIZARTE GARAIKIDEA XX. MENDETIK GAUR EGUNERA ..... 61
   LANDA-EREMUKO ERREALITATEA ..... 61
   ZERBITZUAK ETA JARDUERAK ..... 65
   MUGIMENDU POLITIKOA ..... 75
   INDUSTRIA PROZESUA ETA HIRIGINTZAREN HAZKUNDEA ..... 83

6. ONDARE HISTORIKOA ..... 91
   ARKITEKTURA ERLIJIOSOA (PARROKIA ETA ERMITAK) ..... 91
   HERRIBILDUKO ARKITEKTURA (ERDIGUNEA) ..... 123
   LANDA-ARKITEKTURA (BASERRIAK) ..... 139

ELGETAKO HISTORIAREN KRONOLOGIA EDO DATAK ..... 160

OHARRAK ..... 165

BIBLIOGRAFIA ..... 179

*ANEXOS:*

*ANEXO I: CARTA-PUEBLA DE FUNDACIÓN* ........ 183
*ANEXO II: PRIVILEGIO DE CONCESIÓN DE TÉRMINOS* ........ 187
*ANEXO III: LA ÚLTIMA GUERRA EN LOS MONTES INTXORTA* ........ 188
*ANEXO IV: ALGUNOS/AS ELGETARRAS EMIGRANTES CON HISTORIA* ........ 216
*ANEXO V: LA INSTRUCCIÓN ESCOLAR EN ELGETA* ........ 222
*ANEXO VI: EL BENEFACTOR DOMINGO ITURBE* ........ 240
*ANEXO VII: LOS CAMINOS QUE LLEGAN A ELGETA* ........ 250
*ANEXO VIII: LOS RETABLOS DE LA IGLESIA PARROQUIAL* ........ 264
*ANEXO IX: LAS FAMILIAS OLAEGUI E IBARRA* ........ 276
*ANEXO X: RESUMEN CONVOCATORIAS ELECTORALES EN ELGETA* ........ 282
*ANEXO XI: MAPA DE ELGETA* ........ 292

ERANSKINAK:


I. ERANSKINA: SORRERAKO HIRI-GUTUNA ........ 183
II. ERANSKINA: BALDINTZEN EMAKIDA PRIBILEJIOA ........ 187
III. ERANSKINA: INTXORTA MENDIETAKO AZKEN GERRA ........ 189
IV. ERANSKINA: HISTORIARA PASA DIREN ELGETAR EMIGRATZAILE BATZUK ........ 217
V. ERANSKINA: ESKOLATZEA ELGETAN ........ 223
VI. ERANSKINA: DOMINGO ITURBE ONGILEA ........ 241
VII. ERANSKINA: ELGETARA HELTZEN DIREN BIDEAK ........ 251
VIII. ERANSKINA: ELIZA NAGUSIKO ERRETAULAK ........ 265
IX. ERANSKINA: OLAEGUI ETA IBARRA FAMILIAK ........ 277
X. ERANSKINA: ELGETAKO HAUTESKUNDE DEIALDIEN LABURPENA ........ 282
XI. ERANSKINA: ELGETAKO MAPA ........ 292

## ***PRESENTACIÓN:***

Este relato quiere ser una reconstrucción histórica del municipio de Elgeta en el pasado y en el presente.

Un municipio, con su núcleo urbano y sus barrios, es una unidad territorial; pero es ante todo una comunidad de personas a través del tiempo sobre la base de una cultura y un sentimiento de pertenencia.

El recorrido de este relato sigue este itinerario:

En un primer momento se busca una aproximación al entorno, demografía e historia de Elgeta. De él se pueden extraer, entre otros aspectos, el mantenimiento aún de un entorno natural, una demografía estable y reducida, y el impacto de las guerras, sobre todo en los tres últimos siglos.

Después se hace una referencia al contexto de la sociedad antigua en sus estamentos o grupos, solidaridad local y organización municipal-provincial. Al llegar a la sociedad contemporánea del último siglo, recogemos su realidad rural, vida colectiva y proceso industrial-urbanístico.

En un tercer momento se muestra un inventario del patrimonio histórico aún existente: en la arquitectura religiosa la riqueza artística conservada en la iglesia parroquial y sus nueve ermitas; en la arquitectura urbana su estructura de villa medieval con algunas edificaciones de interés; y en la arquitectura rural la presencia de sesenta y nueve caseríos, la mitad de ellos deshabitados o derruídos.

Los anexos, como complemento del texto básico, amplian la información en temas tan variados como: el documento fundacional de la villa y el privilegio de concesión de términos; la última guerra en los montes Intxorta; algunos emigrantes elgetarras con historia; la instrucción escolar en Elgeta; el benefactor Domingo Iturbe; los caminos que llegan a Elgeta; la descripción detallada de los retablos de la iglesia; las familias Olaegui e Ibarra; los resultados de las distintas elecciones democráticas.

Al recopilar la información se han utilizado varios recursos metodológicos: las múltiples fuentes orales, el valioso archivo municipal y la base documental de otras publicaciones específicas de Elgeta.

Por último, me parece obligado reconocer en la elaboración de este relato la labor de un numeroso grupo de personas, con ellos y todos los interesados quiero compartir esta memoria colectiva [(1)].

Elgeta, octubre 2018

## AURKEZPENA:

Kontakizun honen xedea Elgeta udalerriko iraganaren eta orainaren berreraiketa historiko bat eskaintzea da.

Udalerri bat lurralde unitate bat da, herribilduak eta auzoek osaturikoa baina, horrez gain, batez ere denboran zehar kultura eta lurralde baten parte sentitzen diren herritarrek osatzen duten komunitatea da.

Kontaketa honek ibilbide hau jarraituko du:

Lehenik eta behin, Elgetaren kokalekuari, demografiari eta historiari buruzko zertzelada batzuk emango ditugu. Atal honetatik nabarmentzeko alderdiak dira, besteak beste, inguru naturalaren mantentzea, demografia egonkorra eta tamaina txikikoa, eta gerrek, batik bat azken hiru mendeetakoek, herrian izan duten eragina.

Bigarrenik, estamentu edo taldeetan banatutako antzinako gizarteari so egingo zaio, baita herriaren elkartasunari eta herri nahiz probintzia antolaketari ere. Ondoren, azken mendeko historia garaikidera heltzean, landa-eremuko errealitatea, bizitza kolektiboa eta industria- eta hirigintza-prosezuak izango ditugu hizpide.

Hirugarrenik, gaur egun mantentzen den ondare historikoa erakutsiko da: arkitektura erlijiosoari dagokionez, eliza nagusian eta bederatzi ermitatan mantendu den aberastasun artistikoa; herriko arkitekturan, Erdi Aroko herribildu egitura eta interes berezia duten zenbait eraikuntza, eta landa-arkitekturari dagokionez, hirurogeita hemeretzi baserri, euretako asko hutsik edo erorita daudenak.

Eranskinak oinarrizko testuaren osagarri gisa eskaini dira eta hainbat gairen inguruko informazio xeheagoa ematen dute: udalerriaren sorrerako hiri-gutuna eta baldintzen emakida pribilejioa; Intxortako mendietako azken gerra; historian zehar nabarmendu diren elgetarrak; eskolatzea Elgetan; Domingo Iturbe ongilea; Elgetara heltzen diren bideak; elizako erretaulen deskribapen zehatza; Olaegui eta Ibarra familiak; hauteskunde demokratikoetako datuak.

Datu-bilketarako hainbat baliabide metodologiko erabili dira, hala nola, askotariko ahozko iturriak, udal artxiboa eta Elgetari buruzko beste argitalpen batzuen oinarri dokumentala.

Amaitzeko, kontaketa honen garapenean parte hartu duten guztien lana aitortu behar dut. Eurekin eta interesa duen ororekin partekatu nahi dut oroimen kolektibo hau [1].

Elgetan, 2018ko urria

## 1. LOCALIZACIÓN Y ENTORNO DE ELGETA

Elgeta es un municipio en el oeste del territorio histórico de Gipuzkoa (Euskal Herria), con una extensión de 16’9 kilómetros cuadrados. Se sitúa en la divisoria entre Gipuzkoa y Bizkaia, y en un punto central equidistante de las villas de Eibar (8 km. al norte), Elorrio (6 km. al oeste), Bergara (9 km. al este) y Arrasate (10 km. al sur). Con estas villas se comunica por dos carreteras secundarias, que cruzan el municipio: la vía Bergara-Elgeta-Elorrio-Durango (GI-2632 y BI-4314) y la vía Eibar-Elgeta-Arrasate (GI-2639).

Desde 1977 es un municipio integrado en la Mancomunidad del Alto Deba / Debagoiena, creada para la prestación y gestión común de algunos servicios (medio-ambientales, desarrollo económico, turismo, deportes...) de los ocho municipios de esta comarca: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga y Oñati.




**Elgetako Auzoak**

## 1. ELGETA: KOKALEKUA ETA INGURUA

Elgeta Gipuzkoako (Euskal Herria) antzinako lurraldearen mendebaldean kokaturiko udalerria da eta 16'9 kilometro karratuko hedadura du. Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko banalerroan kokatzen da, Eibar (8 km iparraldera), Elorrio (6 km mendebaldera), Bergara (9 km ekialdera) eta Arrasateren (10 km hegoaldera) arteko erdiko puntuan. Bigarren mailako bi errepidek lotzen dute Elgeta herri hauekin: Bergara-Elgeta-Elorrio-Durango (GI-2632 eta BI-4314) bideak eta Eibar-Elgeta-Arrasate (GI-2639) bideak.

1977tik Debagoieneko Mankomunitateko parte da. Mankomunitatea eskualde hau osatzen duten zortzi udalerrien –Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati– prestaziorako eta zenbait zerbitzuren kudeaketarako (ingurumena, garapen ekonomikoa, turismoa, kirolak…) sortu zen.




Gipuzkoako Mapa

El núcleo urbano de Elgeta se asienta en una vaguada poco resguardada, con una altura dominante en el centro del pueblo de 462 metros, y que le sitúa en el tercer pueblo gipuzkoano de altitud más elevada, después de Beizama (484 m.) y Bidania-Goiaz (489 m.). Lo rodean dos alineaciones montañosas: la de Egoarbitza con alturas inferiores a 750 m. (dos km. al norte), y la de Intxorta con 737 m. (dos km. al sur).

El resto del municipio se completa con diez barrios rurales: Aixola, Antzuategi, Arantzeta, Arrota, Asentzio, Egoetxeaga, Goimendi, Izuziaga, Larragibel y Uriarte.

La red fluvial del municipio, a su vez, se alimenta de varios pequeños arroyos: Sesto, Iparragorri, Iturritxo, Lehenengo erreka, Bigarren erreka, Zezeaga, Ibistegi, Beizu, Lasarte, Baltza, Txulo, Ibur, Arraotz, Eltxe, Agindi y Aixola con un embalse construido en 1981 para el abastecimiento de agua potable.

Las coordenadas geográficas son: latitud (43º 10′ 40′′ N) y longitud (02º 27′ 10′′ W).

El topónimo de "Elgueta", dado a la Villa en su fundación, hace referencia a su ubicación en los "Campos de Maya". Con la denominación de Maya y de Elgueta se designará tanto al lugar como a las casas que en él se asienten. Ambas pueden tener un significado semejante: "Elgueta" (*Elge* –campo cultivado– y el sufijo *eta* –lugar–) vendría a significar "el lugar de campos cultivado", y "Maya" (o maila) parece expresar "hilera de hierba segada" (para más información veáse el Diccionario General de Euskaltzaindia).
Este significado viene recogido en el escudo de armas de la Villa desde 1847: una guadaña para segar y unas gavillas de trigo, con varias aves revoloteando.

La actual denominación oficial de Elgeta (por Elgueta) es de 1980.

Elgetako erdigunea babes txikiko ibar batean kokatzen da eta garaierarik handiena erdialdean hartzen du, 462 metro, hain justu. Hala, Gipuzkoako herririk garaienen artean hirugarrena da, Beizamaren (484 m) eta Bidania-Goiazen (489 m) atzetik. Bi mendilerrok inguratzen dute: 750 m baino garaiera txikiagoko tontorrak dituen Egoarbitzakoak (bi km iparraldera), eta 737ko altuera duen Intxortakoak (bi km hegoaldera).

Udalerriaren gainerakoa hamar landa-auzok osatzen dute: Aixola, Antzuategi, Arantzeta, Arrota, Asentzio, Egoetxeaga, Goimendi, Izuziaga, Larragibel eta Uriartek.

Bestalde, ibai sarea hainbat erreka txikik elikatzen dute: Sesto, Iparragorriko, Iturritxoko, Lehenengo erreka, Bigarren erreka, Zezeaga, Ibistegi, Beizu, Lasarte, Baltza, Txulo, Ibur, Arraotz, Eltxe, Agindi eta Aixolak. Azken honetan 1981ean ur edangarriaren hornikuntzarako urtegi bat eraiki zen.

Koordenatu geografikoak honakoak dira: latitudea (43º 10′ 40′′ N) eta longitudea (02º 27′ 10′′ W).

Elgueta toponimoak, udalerriari sorreran jarritako izenak alegia, "Maiako Zelaietan" duen kokalekuari egiten dio aipamena. Maia eta Elgeta izenen bidez lekua nahiz bertako etxeak izendatzen ziren eta baliteke biek ala biek esanahi bertsua edukitzea: "Elgetak" (*Elge* –landutako lurra– *eta* -eta atzizkia –lekua–) "landutako lurraren lekua" esanahia edukiko luke, eta "Maiak" (ebakitako belarraren ilara) adiera eduki lezake (informazio gehiagorako, ikus maila hitza Euskaltzaindiaren Orotariko Hiztegian).
Toponimoen esanahi hau 1847tik udalerriaren armarria den irudian ere ageri da: belarra ebakitzeko sega bat, gari sorta bat eta inguruan biraka dabiltzan zenbait hegazti azaltzen dira bertan.

Egungo Elgeta izendapena (Elguetaren ordezkoa) 1980koa da.

## 2. DEMOGRAFÍA Y POBLACIÓN

### Evolución de la población

De la demografía antigua del municipio, incluidos aún Angiozar y Ubera, se recogen los datos de cuatro censos.

El primero conocido es de 1618, a propósito de un censo de población elaborado por la Inquisición, en el que se cifran en 250 vecinos o cabezas de familia en Elgeta. En total vivían unos 1.250 habitantes[(2)].

El segundo de 1802, según datos del Diccionario Geográfico-Histórico, muestra una población de 93 casas en el núcleo de la villa de Elgeta y 120 caseríos dispersos (se supone incluidos los de Ubera); y en Angiozar 22 casas reunidas en el casco del barrio y 82 caseríos dispersos. La totalidad del municipio era de 1.526 personas [(3)].

El tercero es un censo de 1814 con una población total de 1.665 habitantes [(4)].

En el cuarto censo de 1856 el vecindario era de 2.442 habitantes, de los que 960 vivían en el cuerpo de la villa y sus caseríos, 853 en el barrio de Angiozar y 629 en el barrio de Ubera [(5)].

El resumen de estos cuatro censos, incluidos Angiozar y Ubera, nos ofrece la siguiente evolución de habitantes: al iniciar el siglo XVII eran unos 1.250, con el siglo XIX llegaban a unos 1.500 y desde la mitad de dicho siglo ascenderá a unos 2.400 vecinos.



## 2. DEMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA

### Biztanleriaren bilakaera

Antzinako demografiaren berri ematen duten lau erroldaren datuak jaso ditugu.

Lehenengo datuak 1618koak dira eta Inkisizioak egindako errolda baten bidez iritsi zaizkigu. Datu hauen arabera, Elgetak 250 familia buru zituen bizilagun zituen. Denera, 1.250 biztanle inguru bizi ziren herrian [(2)].

Bigarren errolda 1802koa da. Urte horretan, Hiztegi Geografiko-Historikoaren arabera, 93 etxe ziren Elgetako herrigunean eta 120 baserri zeuden han eta hemen sakabanatuta (itxura guztien arabera, Uberakoak barne), eta Angiozar auzoan, berriz, 22 etxe zeuden erdigunean eta 82 baserri inguruan. Orotara, 1.526 lagun bizi ziren herrian [(3)].

Hirugarren errolda 1814koa da eta 1.665 bizilagunen berri ematen du [(4)].

Laugarrena 1856koa da. Garai horretan 2.442 biztanle zituen herriak eta haietako 960 herrigunean eta inguruko baserrietan bizi ziren, 853 Angiozar auzoan eta 629 Uberan [(5)].

Errolda hauen bidez Angiozar eta Ubera barnebiltzen zituen Elgetako biztanleriaren bilakaera atera dezakegu: XVII. mendearen hasieran 1.250 biztanle inguru ziren, XIX. mendearen hasieran 1.500era iritsi zen kopurua eta mendearen erdialdetik aurerra 2.400 biztanle baino gehiago izatera helduko ziren.



De la demografía más reciente se muestra en este gráfico la evolución de la población de Elgeta en los censos anuales desde el año 1900.

Como se aprecia entre los años 1930 a 1940 se da un punto de declive acentuado por dos motivos: uno debido a que los habitantes de los barrios de Angiozar y Ubera, con anterioridad pertenecientes a Elgeta, empezaron a formar parte de Bergara; y el otro está relacionado con los años de la última guerra, al registrarse una reducción del 17% de la población.

En el período 1960-70 hay un crecimiento poblacional de 200 personas (17%), fruto de la emigración proveniente en su mayoría de varias provincias peninsulares.

Pero a partir de los años 70, una vez finalizada la fase migratoria unida al proceso de expansión industrial, se vuelve a iniciar un período de disminución poblacional, volviendo a la etapa anterior.

Desde los años 90 la población se estabiliza, y en los últimos años es de signo levemente positivo. En el último censo de 2017 el número fue de 1.131 habitantes (569 hombres y 562 mujeres).

En cuanto a los sexos de la población, según el informe de estos censos, durante todo este período presenta un equilibrio porcentual, con una leve acentuación del sexo masculino, y que se mantiene a lo largo de estos últimos años.

## *Población laboral activa según sectores*




*Eustat.eus. Biztanleria eta etxebizitzen estadistikak* [6].

En este gráfico se recoge la evolución de la población activa según sectores en los últimos cincuenta años. Aparecen como principales indicadores:

Irudi honetan Elgetako azken urteetako biztanleriaren garapena ikus daiteke, 1900. urtetik aurrera.

1930eko erroldan gainbehera nabarmen bat antzeman daiteke, lehen Elgetaren parte izandako Angiozar eta Ubera auzoak Bergararen esku gelditzeak eraginda. Horrez gain, azken gerraren eraginez, biztanleria %17 jaitsi zen.

1960-70 urteen artean, 200 pertsonako gorakada izan zen (%17) herriko biztanlerian, batez ere penintsulatik zetorren emigrazioaren eraginez.

Dena den, 70eko hamarkadatik aurrera, garapen industrialari lotutako fase migratzailea amaitu ostean, biztanleriaren txikitze bat ikus daiteke berriro, aurreko egoerara itzuliz.

90eko hamarkadatik aitzin, biztanleria egonkortu egiten da, eta azken urteetan arinki positiboa da bilakaera. 2017ko azken erroldan agertzen denez, udalerriko biztanleria 1.131 pertsonakoa da (569 gizon eta 562 emakume).

Sexuari dagokionez, errolda hauetako datuek erakusten dutenez, bi sexuen arteko oreka mantentzen da, nahiz eta gizonezkoen ehunekoa apur bat handiagoa izan, baita azken urteetan ere.

## Langile biztanleria aktiboa sektorearen arabera




Eustat.eus. Biztanleria eta etxebizitzen estadistikak [6].

Irudi honek azken berrogeita hamar urteotako biztanleria aktiboaren sektorearen araberako bilakaera jasotzen du. Adierazle garrantzitsuenak honakoak dira:

- *El sector primario (I) (Agricultura)* de un 49% desciende progresivamente hasta un 1%.

- *El sector secundario (II) (Industria)* parte de un 42% de actividad, adquiere en los años 70 su máximo histórico del 71%, desciende en la siguiente década al 53%, y se recupera desde el año 2012 (69%).

- *El sector terciario (III) (Servicios)* aumenta progresivamente en estos años y empieza a decrecer desde el año 2012.

***<u>Situación sociolinguística de la población</u>***




*Eustat.eus. Biztanleria eta etxebizitzen estadistikak [6].*

En este gráfico se recoge la situación socio-linguística de Elgeta en los últimos treinta años.

En estos años la distribución media según el nivel de conocimiento del euskara es la siguiente:

**A. Euskaldunes (% 84):**
a) Alfabetizados (53 % ): Buena comprensión, conversación, lectura y escritura.
b) Casi alfabetizados (27 %): Buena comprensión y conversación, dificultad en lectura.
c) No alfabetizados (4 %): Buena comprensión y conversación, no leen ni escriben.

**B. Cuasi euskaldunes (10%):**
a) Alfabetizados (3 %): Dificultad en comprensión, conversación, lectura y escritura.
b) No alfabetizados (4 %): Dificultad comprensión y conversación, ni lectura ni escritura.
c) Pasivos (3 %): Alguna comprensión, no conversan, ni leen ni escriben.

**C. Erdaldunes (6 %):** No comprenden, no hablan, no leen, no escriben.

- *Lehen sektorea (I) (Nekazaritza)* desagertze bidean doa pixkanaka, %49koa izatetik %1 izatera heldu arte.

- *Bigarren sektoreak (II) (Industria)* aktibitatearen %42a osatzen zuen, 70eko hamarkadan maximo historikoa lortu zuen %71ko zenbatekoarekin, hurrengo hamarkadan %53ra jaitsi zen, eta 2012. urtean suspertu zen berriro (%69).

- *Hirugarren sektorearen (III) (Zerbitzuak)* igoera mailakakoa da urte hauetan zehar, harik eta 2012an beheraka hasten den arte.

**Herriko egoera soziolinguistikoa**




Eustat.eus. Biztanleria eta etxebizitzen estadistikak [6].

Grafiko honetan, Elgetako azken hogeita hamar urteetako egoera soziolinguistikoa jasotzen da.

Euskararen ezagutza mailari buruzko azken urteotako datuak honako hauek dira:

**A. Euskaldunak (% 84):**
a) Alfabetatuak (% 53): Ulermen, elkarrizketa, irakurmen eta idazteko gaitasuna.
b) Erdi-alfabetatuak (% 27): Ulermen eta elkarrizketa gaitasuna, zailtasunak irakurmenean.
c) Alfabetatu gabeak (% 4): Ulermen eta elkarrizketa gaitasuna, ez dute ez irakurtzen ez idazten.

**B. Ia-euskaldunak (% 10):**
a) Alfabetatuak (% 3): Zailtasunak ulermen, elkarrizketa, irakurmen eta idazmenean.
b) Alfabetatu gabeak (% 4): Zailtasunak ulermen eta elkarrizketan, ez dute ez irakurtzen ez idazten.
c) Pasiboak (% 3): Nolabaiteko ulermena, ez dute elkarrizketarik, eta ez dute ez irakurtzen ez idazten.

**C. Erdaldunak (% 6):** Ez dute ulertzen, ez hitz egiten, ez irakurtzen, ez idazten.

## 3. UNA APROXIMACIÓN A LA HISTORIA DE ELGETA

### LA PREHISTORIA

De la presencia humana en las tierras milenarias, conocidas hoy como Gipuzkoa, tenemos constancia a través de las distintas fases de la Prehistoria en yacimientos, asentamientos, utensilios y restos humanos.

En el Paleolítico, los seres humanos que habitaban las cavernas y su principal modo de vida era la caza y la pesca, nos dejaron los primeros vestigios en estos lugares cercanos: Lezetxiki (Arrasate), Ekain (Deba), Altxerri (Aia), Praileaitz (Deba), Astigarraga (Deba), Irakaitz y (Zestoa), Langatxo (Mutriku)...

Con la presencia del Neolítico, los seres humanos perfeccionan las técnicas agrícolas, domestican algunos animales y se dedican preferentemente al pastoreo. Para el aprovechamiento de los pastos crean ciclos de trashumancia según el clima.

De esta época son los hitos monumentales de los enterramientos en dólmenes (tumbas en forma de cámara, delimitada y envuelta por grandes lajas de piedra), menhires (monolitos de piedra verticalmente dispuestos), y crómleches (círculos de piedras).

Nos quedan vestigios próximos de esta cultura, entre otros: los dos dólmenes funerarios alineados entre Zabaletamendi e Irutontorreta (barrio de Angiozar); el hacha de piedra pulimentada hallada en las inmediaciones del caserío Urrupain-Gainekua (barrio de Ubera); la ruta de los dólmenes con más de treinta vestigios en el cordal de Karakate-Irukurutzeta (Elosua-Plazentzia)...

### LA PRESENCIA DE OTROS PUEBLOS

La población de tribus, en lo que hoy se denomina Euskal Herria, se asentó en torno al Pirineo Occidental y tenía el euskara primitivo como señal de identidad cultural.

Al contacto con otras poblaciones, pervivió y mantuvo sus señas de identidad. Así desde el siglo II a. C. aparecen los primeros escritos referentes a esta colectividad humana (vascones, várdulos, caristios, autrigones, berones, aquitanos), primero en enfrentamiento e integración con los romanos, después en resistencia a la invasión de los pueblos germánicos (visigodos y francos, principalmente) y por último en supervivencia a la irrupción y presencia de los musulmanes.

La presencia romana se prolongó en la península ibérica durante siete siglos (218 a. C. - 418 d. C.) y sus restos dejaron huellas en el territorio gipuzkoano: las minas de plata de Arditurri (Oiartzun), la polis de Oiasso (Irun), la factoría de salazón (Getaria) y la calzada romana de San Adrián, que transita de Gipuzkoa a Araba.

## 3. HURBILKETA ELGETAKO HISTORIARA

### HISTORIAURREA

Gaur egun Gipuzkoa bezala ezagutzen dugun milaka urteko lurretan historiaurreko gizakiaren berri ematen diguten aztarnategi, kokaleku, lanabes eta giza gorpuzkiak aurki ditzakegu.

Paleolitikoan, kobazuloetan bizi ziren eta bizitzeko baliabide nagusiak ehiza eta arrantza zituzten gizakiek leku hauetan utzi zizkiguten lehenengo aztarnak: Lezetxiki (Arrasate), Ekain (Deba), Altxerri (Aia), Praileaitz (Deba), Astigarraga (Deba), Irakaitz (Zestoa), Langatxo (Mutriku)...

Neolitikoan zehar, gizakiek nekazaritza-teknikak hobetu eta animalia batzuk etxekotu zituzten. Nagusiki artzaintzan ibili zen larreak ondo ustiatzeko, klimaren araberako transhumantzia zikloak sortu zituzten.

Garai honetakoak dira trikuharriak (harlauza handiek inguratutako ganbera itxurako hilobiak), menhirrak (bertikalki jarritako harri batez egindako megalitoak) eta harrespiletako (biribilean jarritako harriek osaturiko monumentuetako) hobiratzeak.

Kultura hartako aztarna batzuk heldu zaizkigu, hala nola, Zabaletamendi eta Irutontorreta (Angiozar auzoa) artean dauden bi trikuharriak, Urrupain-Gainekua baserritik (Ubera auzoa) hur aurkitutako harri leunduzko aizkora, Karakate-Irukurutzeta zubian (Elosua-Plazentzia) hogeita hamar aztarna baino gehiago dituen trikuharri bidea…

### BESTE HERRIEN PRESENTZIA

Egun Euskal Herria bezala ezagutzen dugun lurraldeko tribuak Mendebaldeko Pirinioetan kokatu ziren eta aitzin euskara zuten beren kultur nortasunaren ikur.

Beste herri batzuekin kontaktuan biziraun zuen, eta hala ere, ezaugarri bereizgarriak mantendu zituen. Honela, K.a. II mendean azaltzen dira gizatalde honi (baskoi, bardulo, karistio, autrigoi, beroi eta akitaniarrei) buruzko lehenengo idazkiak; lehendabizi erromatarrekin liskarrean zein elkarbizitzan, ondoren herri germaniarren (nagusiki bisigodo eta godoen) inbasioarekiko erresistentzian, eta azkenik musulmanen oldartze eta presentziaren aurrean bizirauten.

Erromatarren presentzia zazpi mendez luzatu zen iberiar penintsulan (K.a. 218 – K.o. 418) eta zenbait arrasto utzi zituen Gipuzkoan: Arditurriko (Oiartzun) zilar-mehatzeak, Oiassoko (Irun) polisa, gazitze lantegia (Getaria), eta San Adriango galtzada erromatarra Gipuzkoatik Arabera pasatzeko.

## ***LA INSERCIÓN EN LAS INSTITUCIONES VASCAS***

Desde antaño las tierras de Elgeta, como parte de Euskal Herria, estuvieron integradas en las instituciones vascas.

La primera fue el *Ducado de Vasconia*, creado en el año 602, y que abarcaba desde el río Garona hasta el río Ebro. Entre godos y francos se dio el nombre de este Ducado a una circunscripción que coincidía con los límites de las antiguas provincias romanas. Esta dependencia de los francos se rompió el año 660 en sus dos mitades, la Aquitania (la actual región francesa de Aquitania) y la Vasca (las actuales Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, La Rioja, parte de Santander y Huesca), y se mantuvo con autonomía política hasta el año 768. Más tarde se conocen las incursiones de los francos carolíngios en la Navarra peninsular, que en dos ocasiones (778 y 824) fueron derrotados por los vascones en Roncesvalles (Orreaga).

A partir de esta última batalla (824) nació el *Reino de Pamplona (Iruña*), y de aquellos años de independencia tribal se dio paso a una comunidad política bajo la forma de Reino. Este reino en 1162, con Sancho VI el Sabio, pasó a denominarse el Reino de Navarra. Pronto sufrió la invasión de Castilla, primero temporalmente en 1200, y luego definitivamente en el 1512, pasando a ser un Virreinato o Estado incorporado a Castilla. No obstante, conservó los Fueros como símbolo de soberanía y autogobierno hasta el año 1620 y como reino europeo hasta 1841.

Desde 1200 la Provincia o Merindad de Gipuzkoa, a pesar de su incorporación a Castilla, mantendrá una entidad propia. La organización se inició en una Junta de Villas, después en una Hermandad General, y su máxima expresión serán las Juntas Generales y Particulares, que llegaron a tener desde 1550 una Diputación Permanente convertida en su órgano ejecutivo.

## ***LA FUNDACIÓN COMO VILLA***

Los más antiguos asentamientos medievales en Elgeta, según los datos conocidos, estarían en la parte baja del actual núcleo urbano, en torno a la antigua ermita de Andra Mari de Uriarte (siglo XIV), los caseríos concentrados de Olaegi y la casa-torre de Jalotza.

La Villa de Elgeta fue fundada el 13 de septiembre de 1335 por la carta-puebla del rey Alfonso XI. Según ese documento, el monarca la funda *«por facer bien e merced a todos los que quisieren venir, poblar e morar en la puebla nueva que se face en los campos de Maya, a la cual puebla ponemos nombre Elgueta, que es frontera de Vizcaya... E otrosi, tenemos por bien e mandamos que estos sobre dichos pobladores que hayan los fueros que han los de Vitoria e los de Mondragón»*. (Ver la carta-puebla y el privilegio de concesión de términos en el Anexo I y Anexo II).

Con esta fundación el rey castellano se aseguraba las fronteras del territorio guipuzcoano frente a las incursiones y hostilidad del Señor de Bizkaia, Juan Núñez de Lara. En ella se hace un llamamiento a poblar la villa y su

## EUSKAL ERAKUNDEETAN SARTZEA

Elgetako lurrak aspalditik zeuden euskal erakundeen barruan.

Lehendabiziko erakundea Baskoniako Dukerria izan zen, 602an sortu eta Garona ibaitik Ebro ibairaino hedatzen zena. Godo eta frankoek antzinako probintzia erromatarren mugekin bat egiten zuen barrutiari eman zioten Dukerri izendapena. Frankoen menpe zegoen barruti hau bitan zatitu zen 660 urtean, Akitanian (egungo Akitania) eta Baskoan (gaur egungo Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Errioxa eta Santanderreko eta Huescako zati bat). Dukerriak autonomia politikoa izan zuen 768. urtera arte. Beranduago izan ziren franko karolingioen erasoaldiak Nafarroa Garaian eta eraso horietako bitan (778. eta 824. urteetan) garaipena baskoiena izan zen Orreagan.

Azken borroka horretatik (824) jaio zen *Iruñeko Erresuma*, eta horrekin batera, tribuen askatasunarekin amaitu eta erreinu formako erkidego politiko bat osatu zen. Erresuma honek, 1162. urtean, hots, Antso VI. Jakintsuaren garaian, Nafarroako Erresuma izena hartu zuen. Handik gutxira gertatu zen Gaztelaren inbasioa, hasieran, 1200. urtean, denboraldi baterako izango zena, eta ondoren, 1512an behin-betikoa bihurtuko zena. Honela, Gaztelaren erregeorderri edo erantsitako estatu bilakatu zen. Dena den, Foruak mantendu zituen 1620ra arte burujabetzaren eta autogobernuaren ikur moduan eta 1841 arte Europako erresumetako bat izan zen.

1200. urtetik, Gaztelaren zati izanda ere, Gipuzkoako Probintzia edo Merindadeak nortasun propioa mantendu zuen. Erakundea Herri Batzar gisa sortu zen, ondoren Ermandade Nagusi bihurtu zen, eta horren ostean Batzar Nagusiak eta Batzar Bereziak eratu ziren. Erakundetzearen adierazpen nagusi izan ziren batzar hauek eta 1550etik beren organo betearazle bihurtuko zen Diputazio Iraunkor bat eduki zuten.

## UDALERRIAREN SORRERA

Ezagutzen ditugun datuen arabera, Elgetako biztanleen Erdi Aroko kokaleku zaharrenak, gaur egun erdigunearen beheko partea osatzen duen lekuan zeuden, Uriarteko Andra Mari ermitaren (XIV mendea), Olaegiko baserrien eta Jalotzako dorretxearen inguruan.

Elgeta 1335eko irailaren 13an sortu zen udalerri gisa Alfontso XI. erregearen hiri-gutunaren bidez. Dokumentu honetan adierazten zenez, monarkak sortzen du *«porfacer bien e merced a todos los que quisieren venir, poblar e moraren la puebla nueva que se faceen los campos de Maya, a la cual puebla ponemos nombre Elgueta, que es frontera de Vizcaya […] E otrosi, tenemos por bien e mandamos que estos sobre dichos pobladores que hayan los fueros que han los de Vitoria e los de Mondragón»*. (Ikus I. eta II. Eranskinean hiri-gutuna eta baldintzen emakida probilejioa).

Udalerria sortzearekin errege gaztelauak Gipuzkoako lurraldearen mugak babestu nahi zituen Bizkaiko Jauna zen Juan Nuñez de Lararen sarraldi eta etsaikeriatik. Hiri-gutun honetan udalerria eta inguruko lurraldeak

territorio, eximida de tributaciones, y con el privilegio de acotar sus pastos, sin que pudiera entrar ganado de otros municipios. Con ello el monarca intentaba facilitar la vida interna, con suficientes terrenos para formar agrupaciones o núcleos de alguna importancia, y así disponer de un gran contingente que defendiera su tierra en la frontera de división geográfica-política.

Desde su inicio los moradores de la Villa tuvieron dificultades para aplicar la carta-puebla, y cuatro años después, Alvaro Beltrán de Oñate, merino de Gipuzkoa por D. Ladrón de Guevara, justicia del Rey, en otro documento especificó los límites de esta nueva villa: Larrasole, sel de Asurtza, agua de Arreta, mojones de Iraegui, mojón de Arrolaraz (Aixola Erreka), mojón de Idoizarraga, Egoarribia de Yuso, sel de Ansola, río Ego arriba hasta Berengarate, Ganeremendia (Lauramendia) y agua de Epela (Epelerreka) [7].

En definitiva, esta demarcación territorial limitaba al este con Bergara en el río Deba, y por el norte hasta el río Ego de Eibar.

La Villa de Elgeta, durante los siguientes años a su fundación, mantuvo contiendas violentas y numerosos pleitos sobre los límites ante las Juntas de Gipuzkoa. Por un lado, la Villa de Bergara, erigida en 1268 con especiales privilegios, quería expandirse por Oxirondo, con su núcleo central en torno a la iglesia de Santa Marina, como así lo consiguió en 1348. Por otro lado, la Villa de Eibar, erigida en 1346, mantenía parecidas aspiraciones para anexionar terrenos limítrofes pertenecientes a Elgeta.

En años posteriores siguió el conflicto, aunque de forma más pacífica, con los municipios vecinos sobre los mojones y términos municipales, exigiendo el respeto por los privilegios dados por la corona. Fue especialmente ruidoso el pleito con Eibar en 1493, resuelto con el arbitrio de una comisión de vecinos de ambos pueblos y la sentencia definitiva de las Juntas Generales.

## ***LOS PARIENTES MAYORES***

Los primeros años de la fundación de Elgeta estuvieron marcados por las luchas fratricidas de los Parientes Mayores, que entre los siglos XIII y XV trataron de imponer el control político y económico del territorio, y se entregaron según las conveniencias del momento al rey de Navarra o al de Castilla. Según Larramendi, “se llamaron *parientes* porque en las asonadas de guerras, desafíos de bando a bando, batallas y robos e incendios que unos a otros se hacían, acaudillaban en cuadrillas o compañías, compuestas por lo común de parientes suyos de aquel lugar de donde eran, o de otros. Se llamaron *parientes mayores* desde el principio, no porque fuesen mayores de nobleza de sangre, ni aun en la adquirida, sino porque eran más ricos, de más hacienda, más belicosos, más atrevidos para promover los fatales estragos de los bandos” [8].

En Gipuzkoa pugnaron dos bandos poderosos, agrupados en torno a los Oñaz (estirpe de los Lazkao) y a los Gamboa (estirpes de los Gamboa y Olaso).

jendeztatzeko deia egiten du, zerga-ordainketetatik salbuetsiz eta larreak mugatzeko pribilejioa emanez, hots, beste herrietako ganaduari bertan sartzeko eskubidea kenduaz. Honekin, monarkak barne bizitza erraztu nahi zuen, nolabaiteko garrantzia izango zuten herribilduak sortzea ahalbidetuko zuen lursail nahikoa eskainiz. Azken finean, muga geografiko-politikoan bere lurrak babestuko zituen armada bat edukitzea ahalbidetuko zuen herribildu bat bermatu nahi zuen.

Hasiera-hasieratik, hiri-gutunean zehaztutakoak gauzatzeko arazoak izan zituzten udalerriko biztanleek, eta sortu eta handik lau urtera, Alvaro Beltran de Oñatek, Gipuzkoako merioa zenak, Erregearen justizia zen Ladron de Guevara Jaunaren bidez, udalerriaren muga berriak zehaztu zituen: Larrasole, Asurtzako saroia, Arretako ura, Iraegiko mugarriak, Arrolarazeko mugarria (Aixola Erreka), Idoizarragako mugarria, Egoarribia Behekoa, Ansolako saroia, Ego ibaitik gora Berengarateraino, Ganeremendia (Lauramendia) eta Epelako ura (Epelerreka) [7].

Laburrago esatearren, ekialdean, Deba ibaiak zehazten zuen Bergararekiko muga, eta iparraldean, berriz, Ego ibaiak banatzen zuen Eibartik.

Elgetako udalerriaren sorreraren hurrengo urteetan mugen inguruko hainbat liskar eta auzi izan ziren Gipuzkoako Batzarretan. Alde batetik, 1268an pribilejio bereziak jasotako Bergarako udalerriak Oxirondotik haratago hedatu nahi zuen, bere hirigunea Santa Marina eliza inguruan eratuz, geroago, 1348an lortuko zuten bezala. Beste aldetik, 1346an sortutako Eibarko udalerriak antzerako asmoak zituen. Hau da, Eibarrek ere bere mugan zeuden baina Elgetaren zati ziren lurrak bereganatu nahi zituen.

Handik urte batzuetara ere, nahiz eta forma baketsuagoan izan, mugarriak eta udal-terminoak zirela eta sortutako gatazkek bere horretan jarraitu zuten, udalerriaren eskaera nagusia koroak emandako pribilejioak errespetatzea zelarik. Bereziki zalapartatsua izan zen 1493an Eibarrekin izan zuen auzia. Auzi honetan, bi herrietako bizilagunek osatutako komisio baten arbitrajea eta Batzar Nagusien azken erabakia behar izan ziren.

## AHAIDE NAGUSIAK

Elgetaren sorrerako lehenengo urteak Ahaide Nagusien arteko borrokek markatu zituzten. XIII. eta XV. mendeen artean lurralde osoan kontrol politiko nahiz ekonomikoa ezartzen saiatu ziren, eta momentuko interesen arabera, Nafarroako edo Gaztelako erregeari eskaini zioten leialtasuna. Larramendik zioenez, "*ahaide* izena eman zitzaien, oro har, euren herriko edo beste batzuetako senideak biltzen zituztelako gerrako matxinada, bandoen arteko desafio, borroka, lapurreta eta batak besteari eragindako suteetarako konpainiak osatzeko. Hasiera-hasieratik deitu zitzaien *ahaide nagusi*, ez odolez nobleziakoak zirelako, ezta jasotako titulu baten jabe zirelako ere, aberatsagoak zirelako baizik, hazienda handiagoen jabeak, gerra zaleagoak, bandoen arteko liskarrak sustatzeko ausartagoak" [8].

Gipuzkoan bi bando boteretsu izan ziren, Oinaztarrena (Lazkaotarren leinukoak) eta Ganboatarrena (Ganboa eta Olasotarren leinukoak).

La Villa de Elgeta se alineó con los Parientes Mayores del bando gamboíno, que eran partidarios preferentemente del rey de Navarra. En estos años participó activamente en acometidas cruentas, como en la quema de la casa-solar de Marzana (Duranguesado) (1387) o en el ataque y quema de Mondragón (1448) con la participación de setenta y tres vecinos, todos ellos miembros de treinta y tres familias de la villa de Elgeta [9].

Por esta última quema estas familias, en los años sucesivos, tuvieron que resarcir económicamente a los de Mondragon los daños ocasionados [10].

De esta época tuvieron presencia tres casas-torre: la de Iturricastillo en el barrio de Arantzeta, la de Torre-Zar a la entrada de la Villa, y la ilustre casa y mayorazgo de Jaolaza (Jalotza) que durante mucho tiempo dio nombre al valle de Ubera. Esta fortaleza, hoy caserío, guarda algunos vestigios del pasado. En sus muros oriental y septentrional conserva sillares de fortaleza de más de un metro de espesor; en la fachada norte se aprecia una puerta de altura, para uso con escalera levadiza, y por debajo de la misma una saetera protegiendo el paso.

Las luchas entre ambos bandos, durante más de dos siglos, causaron innumerables destrozos y muertes. A partir de 1457 la Hermandad de Villas de Gipuzkoa, después de años con reiteradas disposiciones para terminar con esta anarquía, consiguió del rey Enrique IV de Castilla el desmochar o derribar la parte superior de todas las casas-torre, entre ellas las de Elgeta (Jaolatza y Torre-zar), y el destierro de los parientes mayores por un plazo de cuatro a diez años para combatir contra los moros en la frontera andaluza. Este mismo rey favoreció a esta Hermandad fortaleciéndola con leyes y privilegios, que serían la base para la formación del territorio histórico de Gipuzkoa.

## ***LAS GUERRAS CON FRANCIA***

La Villa de Elgeta se vio implicada en dos guerras con Francia: la de la *Convención* y la de la *Independencia*. Estas guerras, extendidas a toda Europa, estuvieron relacionadas con la Revolución Francesa (1789-99), que supuso el enfrentamiento entre dos concepciones del mundo, en cuanto a entender la política, la economía, la sociedad y el modo de vida: la vieja (Antiguo Régimen) y la nueva (Sistema Liberal).

*La Guerra de la Convención* (1793-95) surgió a partir de que en Francia se formó un nuevo parlamento, se abolió la monarquía y se proclamó la República. A aquel parlamento lo denominaron la Convención. Por eso en la guerra que las monarquías europeas, entre ellas la española, libraron contra la Francia republicana se conoce como la Guerra de la Convención.

Esta guerra se inició en marzo de 1793 y se prolongará durante dos años y medio. El ejército francés penetró en la península ibérica e invadió prácticamente toda Gipuzkoa, en número superior a 15.000 soldados.

Como una calamidad añadida, esta invasión del territorio y el movimiento del ejército francés, transmitió la

Elgeta bando ganboatarraren alde lerratu zen, Nafarroako erregeari leial zitzaion bandoarekin. Urte horietan hainbat liskarretan hartu zuen parte aktiboki udalerriak, esaterako, Marzanako etxearen (Durangaldea) erreketan (1387) edo Arrasateko erasoaldian eta erreketan (1448). Udalerriko hogeita hamahiru familiatako kideek hartu zuten parte [9].

Azken erreketa horregatik, parte hartu zuten familiek Arrasateko biztanleak ekonomikoki konpentsatu behar izan zituzten ondorengo urteetan, eragindako kalteengatik [10].

Garai horretan hiru dorretxe ziren: Arantzeta auzoko Iturricastillo, herriaren sarrerako Torre-Zar eta Jaolazako (Jalotza) maiorazkoaren etxe entzutetsua. Azken honek urte luzez izena eman zion Ubera auzoari. Bestalde, gaur egun baserria den gotorleku honek, iraganeko zenbait arrasto gorde ditu: ekialde eta iparraldeko hormetan metro pasako lodiera duten harlanduak ditu; iparraldeko fatxadan alturako ate bat ikus daiteke, eskailera baten erabilera eskatzen duena, eta honen azpian, bidea babesten duen saietera bat.

Bandoen arteko liskarrek, bi mende baino gehiagotan zehar, zenbatu ezineko hondamen eta hildakoak utzi zituzten. Anarkia honekin amaitzeko asmoz Gipuzkoako Herrietako Ermandadeak 1457tik aurrera egindako saiakera zapuztu askoren ostean, Enrike IV. Gaztelakoak lortu zuen dorretxe guztietako goiko zatia eraistea, horien artean Elgetakoak (Jaolatza eta Torre-Zar), eta horrekin batera, Ahaide Nagusiak mairuen aurkako gerrara bidali zituen Andaluziako mugara lau urtetatik hamar urterako epe batez. Erregeak ermandade hau mesedetu zuen lege eta pribilejioekin indartuz, eta lege eta pribilejio horiek izango ziren hain zuzen Gipuzkoako lurralde historikoaren eraketarako oinarria.

## FRANTZIAREKIN GERRAK

Elgeta tartean izan zen Frantziaren aurkako bi gerratan: *Konbentzio Gerrak* batetik eta *Independentzia Gerrak* bestetik. Gerra hauek Europa guztira zabaldu ziren eta Frantziako Iraultzarekin (1789-99) zuten zerikusia, zeinak mundua ulertzeko ikuskera bi jarri zituen aurrez aurre, politika, ekonomia, gizartea nahiz bizimodua ulertzeko modu bi: zaharra (Erregimen Zaharra) eta berria (Sistema Liberala).

*Konbentzio Gerra* (1793-95) Frantzian parlamentu berri bat sortu, monarkia desegin eta Errepublika aldarrikatzearekin batera hasi zen. Parlamentu horri Konbentzio izena eman zioten eta horregatik eman zitzaion Konbentzio Gerra izena monarkia europarrek (tartean espainiarrak) Frantzia errepublikarraren aurka hasitako gerrari.

Gerra hau 1793ko martxoan hasi zen eta bi urte eta erdiz luzatu zen. Armada frantsesa penintsulara sartu eta ia Gipuzkoa osoa hartu zuen 15.000 soldadu baino gehiagoren bidez.

Gainera, lurraldearen inbasioaren eta armada frantsesaren mugimenduaren eraginez, tifusa zabaldu zen,

enfermedad del tifus desde las concentraciones castrenses a la población. De modo que si en Elgeta la mortalidad media anual era de 14 personas, se elevó a 55 (en 1794) y llegó a un máximo de 81 (en 1795) [11].

Con antelación y en preparación de esta guerra, en enero de 1793 se produce un alistamiento general de todos los mozos solteros de la villa de Elgeta (incluidos Ubera y Angiozar) y se forma una compañía de 156 hombres.

A lo largo de ese mismo año se enfrentaron con los franceses en Descarga, Elgeta y Angiozar.

De febrero de 1794 está recogido en el Archivo Municipal un listado de once yuntas de bueyes de once caseríos de Elgeta para el transporte de guerra [12].

Y en junio de ese año en un manuscrito se comunica que el enemigo ha ocupado Bergara y por ese motivo los de Elgeta acudieron prestos a socorrer y sufrieron algunas bajas.

En octubre de ese año el Ayuntamiento informa del personal útil para la guerra y material disponible. Eran 405 los sujetos capaces de tomar las armas entre 18 y 40 años de edad. Pero, después del reclutamiento, se registran bastantes huidos del campo de guerra, que son requeridos sucesiva y oficialmente, y son numerosas las instancias alegando impedimentos para empuñar las armas.

En febrero de 1795 los vecinos de la villa son felicitados por la Junta Provincial por su heróica actuación al rechazar al enemigo desde el puerto de Azkarate (Elgoibar). Y poco después en las alturas del Elosua se resiste a los franceses, con la decisiva intervención de los voluntarios de Elgeta, mandados por Gabriel de Mendizabal, Sargento Mayor del Batallón de Voluntarios de Gipuzkoa [13].

La Paz de Basilea, en julio de 1795, puso fin a esta guerra, y permitió a la corona española recuperar los territorios perdidos, al ceder a Francia la isla caribeña de Santo Domingo.

También Elgeta se vio implicada durante seis años en la *Guerra de la Independencia* (1808-14). En Francia, terminada la anterior guerra, se sucedieron varios directorios al frente de la República, mientras se producían nuevas insurrecciones populares, apagadas por el ejército. El 18 de noviembre de 1799 se produjo el golpe de estado de Napoleón Bonaparte, que ponía fin a la Revolución, pero que asumía gran parte de su ideario.

Napoleón, en 1806, con la intención de frenar el poderío comercial de Gran Bretaña, decreta el “bloqueo continental europeo” contra ella. Al negarse Portugal, trata de invadirla y cuenta con la alianza del Reino de España (Tratado de Fontainebleau, octubre de 1807) para atravesar la península ibérica.

Con la excusa de llegar a Portugal los ejércitos napoleónicos ocupan militarmente los pueblos hispanos de tránsito y permanecen en ellos, con todas las exigencias del ocupante: alojamientos, bagajes, impuestos, requisas,

kastroen kontzentrazioetatik herritarrenganaino iritsiz. Hala, Elgetan hiltzen ziren bizilagunen bataz bestekoa 14koa bazen, 55era igo zen kopurua (1794ean), 81 bizilaguneko maximora iritsi arte (1795ean) [11].

Gerra honen aurrerapen eta antolaketan, 1793ko urtarrilean, Elgetako gizon ezkongabe guztiek (Ubera eta Angiozar barne) eman zuten izena eta 156 gizonek osaturiko konpainia eratu zen.

Urte horretan zehar frantsesen aurka borrokatu zuten Deskargan, Elgetan eta Angiozarren.

1794ko otsailekoa da Udal Artxiboan jasota dagoen Elgetako hamaika baserritako hamaika idi juntako zerrenda, gerrako garraiorako [12].

Urte hartako ekainean eskuizkribu batean adierazten da etsaiak Bergara hartu duela eta sorostera joan zirenean, Elgetak zenbait gizon galdu zituela.

Urte bereko urrian Udalak gerrarako prest zeuden gizonen eta erabilgarri zegoen materialaren inguruko berri eman zuen. 405 lagun ziren armak eramateko gai zirenak, 18 eta 40 urte artekoak. Dena den, errekrutatzearen ostean, dezente ziren gerra zelaitik ihes egindakoak. Behin eta berriro eta ofizialki egiten zaie dei hauei, eta asko dira armak hartzeko ezintasunak alegatzen dituzten instantziak.

1795eko otsailean Probintziako Batzordeak udalerriko bizilagunak zoriondu zituen Azkarateko portuan (Elgoibar) etsaiari ateak ixterakoan erakutsitako ekintza heroikoarengatik. Eta handik gutxira, Elosua inguruan berriro ere bidea itxi zitzaien frantsesei Gipuzkoako Boluntarioen Batailoiko Sarjentu Nagusi Gabriel de Mendizabalek bidalitako Elgetako boluntarioen parte hartzeari esker.[13]

Basileako Bakeak eman zion amaiera gerra honi, 1795eko uztailean, eta Espainiako koroak galdutako lurrak berreskuratu zituen Frantziari Santo Domingo karibetar uhartea ematearen truke.

*Independentzia Gerra* ere jasan zuten elgetarrek sei urtez (1808-14). Frantzia errepublikarrean, aurreko gerra amaitu ondoren, zenbait direktorio izan ziren, eta armadak itzaltzen zituen herriaren matxinada gehiago gertatu ziren. 1799an Iraultzaren amaiera ekarriko zuen eta, era berean, Iraultzaren zenbait ideiarekin bat egiten zuen Napoleon Bonaparteren estatu golpea etorri zen.

Napoleonek, 1806an, Erresuma Batuaren nagusitasun komertziala gelditzeko, bere aurkako “europar kontinenteko blokeoa” dekretatu zuen. Portugalek ezezkoa eman zuenean, lurraldea hartzen saiatu zen eta Espainiako Erreinuaren aliantza lortu zuen (Fontainebleauko Tratatua, 1807ko urrian) iberiar penintsula zeharkatzeko.

Hala, Portugalera iristeko aitzakiarekin, armada napoleondarrak bidean aurkitu zituen lur espainiarrak okupatu zituen militarki, eta herri hauetan geratu ziren, okupatzaileen eskaera guztiekin: ostatua, ekipajeak, zergak, ikuskatzeak,

hospitales, humillaciones y violencias repetidas. Esta ocupación fue consentida por las máximas instituciones del Estado español, entre ellas la Diputación de Gipuzkoa, que colaboró plenamente en enfrentamiento a algunos pueblos y muchos vecinos gipuzcoanos que se oponían a los dictados del ejército invasor.

En nuestra comarca del Alto Deba el centro militar estaba en Mondragón, donde residía un comisario francés (Sr. Guini), y a donde Elgeta enviaba todas las contribuciones exigidas por los ocupantes: víveres, ropa, dinero, carretas para el transporte...

Ya en mayo de 1808 se exigía desde la Diputación de Gipuzkoa 3.784 reales "para subvencionar los suministros de pan, cebada y otros utensilios con motivo del tránsito de las tropas francesas". Para hacer frente a estos gastos acordaron subir el precio del vino [14].

Napoleón aprovecha las desavenencias de la familia real española (Carlos IV, padre, y Fernando VII, su hijo y heredero) para reunirlos en Bayona y hacerles abdicar a favor de su hermano José Bonaparte.

Esta imposición humillante para todo el reino español y los sucesos espontáneos del Dos de Mayo madrileño, con la consiguiente represión francesa, fueron el inicio para el levantamiento general de todas las provincias contra la ocupación militar francesa. La defensa se organizó en cada territorio a través de las Juntas Provinciales y estas a su vez en una Junta Central, y fue decisiva como estrategia militar la guerra de guerrillas.

En un tiempo la Villa de Elgeta estuvo ocupada, siendo la casa concejil en 1810 el cuartel de la tropa francesa.

En esta guerra merece una especial mención María Angela Tellería, nativa de la villa y residente en Durango, que se convirtió en heroína al conseguir liberar en varias ocasiones a algunos soldados y patriotas antifranceses [15].

A consecuencia de estas guerras contra los franceses, el municipio se vio afectado gravemente en su economía, hipotecando muchos bienes comunales y algunos objetos del patrimonio artístico de la iglesia.

## ***LAS GUERRAS CARLISTAS***

Estas guerras tienen su inicio en 1833 por la implantación de la ley "Pragmática Sanción" de Fernando VII, que permitía a las mujeres suceder en el trono de España. Y el "movimiento carlista", seguido por gran parte de la Euskal Herria peninsular, se posiciona en una lucha sucesoria: primero a favor de Carlos V (Carlos María Isidro), hermano del fallecido Fernando VII, y en contra de la hija de éste, la elegida Isabel II con tres años de edad; y unos treinta años después a favor de Carlos VII (Carlos María de Borbón y Austria-Este), que era nieto del anterior denominado Carlos V, y en contra del elegido Amadeo de Saboya. Estos pretendientes al trono les garantizaban a sus partidarios carlistas los valores tradicionales (Dios, Patria y Rey).

ospitaleak, umilazioak eta behin eta berriz errepikatzen ziren indarkeriazko ekintzak. Okupazio hauek Espainiar Estatuko erakundeen onarpenarekin gertatu ziren, euren artean, Gipuzkoako Aldundiarenarekin. Aldundiak aurre egin behar izan zien armada atzerritarraren aginduak betetzeari uko egiten zioten herriei eta bizilagunei.

Debagoienako zentro militarra Arrasaten zegoen. Bertan bizi zen komisario frantziar bat (Guini Jn.) eta bertara bidaltzen zituen Elgetak okupatzaileek eskatutako kontribuzioak: elikagaiak, arropa, dirua, garraiorako gurdiak …

1808ko maiatzean, esaterako, Gipuzkoako Aldundiak 3.784 erreal eskatu zituen "tropa frantziarraren igarotzea zela eta sortu zen ogiaren, garagarraren eta beste erreminta batzuen beharra asetzeko". Gastu hauei aurre egiteko ardoaren prezioa igotzea erabaki zuten [14].

Espainiako errege familiaren (Carlos IV, aitaren, eta Fernando VII, haren seme eta oinordekoaren) arazoak baliatu zituen Napoleonek Baionan elkarrarazi eta, tronuari uko eginez, agintea bere anaia Jose Bonaparteren esku utz zezatela eskatzeko.

Espainiar erresumari egindako inposizio iraingarri honek, Madrilgo Maiatzaren 2ko gertakariekin eta horrek ekarritako frantziarren errepresioaren handitzearekin batera, hasiera eman zion frantsesen okupazio militarraren kontrako altxamendu orokorrari. Defentsa Batzar Probintzialen bidez antolatu zen lurralde bakoitzean eta hauek aldi berean Batzar Nagusian bildu ziren. Antolaketa hau erabakigarria izan zen gerrillen arteko gerra moduko estrategia militarra eratzerako orduan.

Denboraldi batez frantsesen esku egon zen Elgeta eta 1810ean tropa frantziarraren kuartela izan zen udaletxea. Gerra honetan aipamen berezia merezi du Maria Angela Telleriak, Durangon bizi zen elgetar batek, izan ere, heroi bilakatu zen frantsesen aurka zeuden hainbat soldadu eta aberkide askatu izanagatik [15].

Frantsesen aurka izandako gerra hauek ondorio latzak utzi zituzten udalerriaren ekonomian, herriko ondarea eta elizaren ondare artistikoaren zati ziren zenbait objektu hipotekatu behar izan baitzituen.

## KARLISTALDIAK

1833an eman zitzaien hasiera gerra hauei Fernando VII.ak ezarritako "Berrespen Pragmatikoa" zela eta. Honen bidez, Espainiako tronuaren oinordetza hartzeko eskubidea ematen zitzaien emakumeei. Hego Euskal Herriaren gehiengoak babesten zuen "Mugimendu karlista" oinordekotza gerra batean murgildu zen: lehendabizi zendutako Fernando VII.ren anaia Karlos V.ren (Karlos Maria Isidro) alde eta tronurako hiru urterekin aukeratutako haren alaba Isabel II.ren kontra, eta ondoren, handik hogeita hamar bat urtera Karlos VII.ren alde (Karlos Maria Borboia eta Austria Ekialdekoa), Karlos V gisa izendatutakoaren biloba zenaren alde, alegia, eta Amadeo Saboyaren aurka. Tronurako hautagai karlistek balore tradizionalak agintzen zizkieten euren jarraitzaileei (Jainkoa, Aberria eta Erregea).

*La primera guerra carlista* (1833-39), a favor del denominado Carlos V, se inicia con el nombramiento de Tomás de Zumalakarregi como comandante de las tropas carlistas. Con un ejército de campesinos, creado prácticamente de la nada y mal armado, desarrolla una actividad guerrillera, que primero le permitió controlar las zonas rurales del país y después derrotar sucesivamente a los ejércitos liberales que el Gobierno enviaba a su encuentro. Era una guerra de sorpresas y hostigamiento, en la que las estrategias de los carlistas se basaban en la movilidad y el perfecto conocimiento del terreno.

El Ayuntamiento de Elgeta se encontró con grandes dificultades para atender las peticiones de los dos bandos en lucha. Tanto la Diputación, aliada con el Gobierno liberal, como los carlistas, que ocuparon la Villa en junio de 1835 y en agosto de 1837, exigían víveres, forrajes y otros gastos para financiar la guerra.

Pero la urgencia de los carlistas será conquistar las cuatro capitales vascas, en manos de los liberales. En junio de 1835 comenzó el asedio a Bilbao, en el que Zumalakarregi fue herido y murió a los pocos días. Los carlistas levantaron el asedio y la guerra se estabilizó.

En este intervalo se pusieron de manifiesto las diferencias entre los mandos carlistas. En agosto de 1839, el general Maroto, máximo dirigente militar carlista, negoció con Espartero, jefe del ejército liberal, el llamado abrazo o convenio de Bergara. Con él se confirmaban los Fueros en las cuatro provincias vascas "sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía".

Unos días antes, el pretendiente Carlos V y unos ocho mil disidentes con este acuerdo abandonaron la península camino del exilio.

En ese desenlace final la plaza de Elgeta fue el escenario donde D. Carlos se dirigió por última vez a sus tropas de Gipuzkoa. Con los batallones formados, revistó y arengó a sus tropas para que siguieran fieles en la lucha, a lo que contestaron "Pakia eta Fueroak".

*La segunda guerra carlista* (1872-76), o la tercera según la crónica española por referencia a las anteriores contiendas de "Els Maitiniers" en Cataluña, surge de nuevo por la disputa dinástica a favor del denominado Carlos VII. La insurrección se inicia con varias escaramuzas y deriva a guerra abierta, mayoritariamente en forma de guerra de guerrillas, en las que destacan partidas (pequeños grupos armados) como la dirigida por el cura Santa Cruz.

Pronto el territorio vasco quedó en dominio de los carlistas, formando parte del llamado Estado Federal Carlista, con una administración paralela a la oficial, y tomada Lizarra establecieron en ella la Corte y el Estado Mayor. En esta ocasión para agosto de 1873 las tropas carlistas habían ocupado Elgeta.

*Lehen karlistaldia* (1833-39), Karlos V. gisa izendatutakoaren aldekoa, Tomas Zumalakarregi tropa karlisten komandante izendatzearekin batera hasi zen. Ia ezerezetik ateratako armada bat eratu zuen, nekazariz osatua eta gaizki armatua, eta armada honekin gerrilla estiloko ekintzak antolatu zituen. Honek lehenbizi lurraldeko landa-eremuak kontrolatzea ahalbidetu zion, eta ondoren, Gobernuak beren aurka bidalitako armada liberala behin era berriro garaitzea. Ezuste eta zirikatzez beteriko gerra izan zen eta esan daiteke karlistek hartutako estrategia mugikortasunean eta lurraldearen ezagutza ezin hobean oinarritu zela.

Elgetako Udalak arazo handiak izan zituen gerrako bi aldeetakoen eskaerei erantzuteko garaian. Elikagaiak, ganaduarentzako bazka eta gerraren gastuetarako finantzaketa eskatzen zizkioten bai Gobernu liberalarekin aliatuta zegoen Aldundiak bai karlistek. Azken hauek gainera herria hartu zuten 1835eko ekainean eta 1837ko abuztuan.

Dena den, karlisten lehentasuna liberalen esku zeuden Euskal Herriko lau hiriburuak bereganatzea izan zen. 1835eko ekainean Bilboko setioa hasi zen, eta bertan jasan zuen egun gutxitara heriotza ekarriko zion zauria. Karlistek setioa altxatu zuten eta gerra egonkortu egin zen.

Tarte horretan agerian geratu ziren buruzagi karlisten arteko desadostasunak. 1839ko abuztuan, karlisten buruzagi militar nagusia zen Maroto jeneralak Espartero jeneral liberalarekin Bergarako besarkada edo hitzarmena adostu zuen. Bertan lau probintzietako Foruak berresten ziren, testuak zioenez, "Monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik eragin gabe".

Egun batzuk lehenago, Karlos V. erregegaiak eta hitzarmenaren aurka zeuden zortzi mila bat lagunek penintsula atzean utzi eta erbesterantz jo zuten.

Amaiera hartan Elgetako plaza izan zen Karlos Jauna azkeneko aldiz Gipuzkoako tropei zuzendu zitzaien lekua. Batailoiak osatuta, tropak ikuskatu eta adoretu zituen borrokaren zergatiaren alde egiten jarrai zezaten, eta soldaduek "Pakia eta Fueroak" esanez erantzun zioten.

*Bigarren Karlistaldia* (1872-76), edo hirugarrena Kataluniako "Els Maitiniers"-eko gatazkak kontuan hartzen dituen kronika espainiarraren arabera, Karlos VII. gisa izendaturikoaren aldeko dinastia liskarrak zirela eta sortu zen berriro ere. Hainbat borrokatxok eman zioten hasiera ondoren gerra bilakatuko zenari. Gerra hau ere gerrillen arteko gerra izan zen eta garrantzia handia izan zuten Santa Cruzek zuzentzen zuenak bezalako soldadu-partidek (talde armatu txikiek).

Laster karlisten esku geratuko zen Hego Euskal Herria, eta hala, Estatu Federal Karlistaren zati bilakatuko zen. Ofizialaren paraleloa zen administrazio bat eratu zuten eta, Lizarra hartu ostean, bertan sortu zituzten Gortea eta Estatu Nagusia. Oraingo honetan, 1873ko abuztuan tropa karlistek Elgeta hartu zuten.

Avanzada la guerra a pesar del desastre liberal en la batalla de Lakar (Navarra), las tendencias carlistas y sus cúpulas se desunen, apoderándose el desánimo de la tropa.

En febrero de 1876, los carlistas, al perder Bizkaia, se retiraron a Elgeta, donde intentaron ofrecer una última resistencia. Después de una sangrienta batalla el 13 de febrero, en la que murieron unos cuatrocientos combatientes de ambos bandos, los carlistas se retiraron al no poder contener la ingente masa del ejército liberal. Esta batalla se localizó preferentemente entre el monte Intxorta y la ermita de San Esteban (barrio de Berrio), y Pagatza y la ermita de San Urbano (a la falda del monte Erdella).



*Grabado de la guerra desde el humilladero de Andra Mari en el camino antiguo de Bergara. Obra de José Luis Pellicer (1842-1901), un cronista gráfico en la segunda guerra carlista.*
Bergarako bide zaharreko Andra Mari guruztokitik gerrari egindako grabatua. José Luis Pellicer-en (1842-1901) lana, bigarren karlistaldiko kronikari grafikoa.

En ese mismo mes al caer Lizarra en manos liberales, el pretendiente Carlos VII se exilió, y con él unos diez mil de sus soldados, de los que muchos de ellos terminaron embarcando hacia América.

Como consecuencia de las guerras carlistas los representantes municipales se alternaban periódicamente, según era ocupada la Villa por uno u otro bando, y ambos exigían cubrir los gastos de la guerra. En esta situación se elevaron los impuestos, se vendieron propiedades municipales, se pidieron préstamos, y se interrumpieron drásticamente los gastos públicos en otros campos como la paga a los profesores. Y las repercusiones fueron varias: el erario público quedó arruinado por mucho tiempo, el aumento de las diferencias económicas entre agricultores ricos y pobres (tanto arrendatarios como pequeños propietarios) se intensificó, y las relaciones de deudor-acreedor entre ricos y pobres se expandieron considerablemente.

Gerrak aurrera egin ahala, Lakarreko (Nafarroa) batailan liberalek porrot latza jasan zuten arren, mugimendu karlista eta goi-karguak banandu egin ziren, eta ondorioz, gogogabetzea nagusitu zen tropan.

1876ko otsailean, Bizkaia galdu zutenean, Elgetara erretiratu ziren karlistak, eta bertan egin zuten eusteko azken saiakera. Otsailaren 13an borroka odoltsu bat gertatu zen, bi aldeetako laurehun bat soldaduren heriotza eragin zuena, eta armada liberaleko soldadu kopuru izugarriari aurre egin ezinik, atzera egin zuen armada karlistak. Gerra hau batik bat Intxorta mendiaren eta San Estebaneko ermitaren (Berrio auzoa) artean eta Pagatzaren eta San Urbanoko ermitaren (Erdella mendiaren magalean) artean gertatu zen.




Batailaren planoa / *Plano de la batalla*

Hilabete horretan bertan, Lizarra liberalen esku geratu zenean, Karlos VII.a erreregaia erbesteratu egin zen eta, berarekin batera, hamar mila bat soldadu. Hala, haietariko askok hartu zuten Ameriketarako bidea.

Karlistaldien ondorioz udaletako ordezkariak behin eta berriro  txandakatzen ziren momentuan herria hartu zuen alderdiaren arabera eta biek ala biek eskatzen zuten gerrak eragindako gastuak asetzeko. Egoera horrek zergak igotzea eragin zuen, udalaren ondasunak saltzea, maileguak eskatzea eta bestelako gastuetara bideraturiko diru publikoa, esaterako, maisu eta maistrentzat bideratutakoa, errotik gutxitu zen. Gerora, horren ondorioak askotarikoak izan ziren: altxor publikoaren porrotak denbora luzez iraun zuen, handitu egin zen nekazari aberats eta txiroen (maizter zein ugazaba txikien) arteko diferentzia eta txiro eta aberatsen arteko zordun/hartzekodun erlazioak asko hazi ziren.

## *EL DISCURRIR DEL SIGLO XX*

Al iniciar el siglo XX la población de Elgeta seguía manteniéndose rural, con dedicación a la producción agraria, la ganadería y la explotación forestal. Su forma de vida se desenvolvía en unas condiciones precarias y austeras. No obstante, en la primera mitad de este siglo se consigue que los muchos caseríos en arrendamiento terminaran siendo propiedad de los que los trabajaban, y las explotaciones se fueron reduciendo al carácter de autoconsumo y pequeña producción.

Desde 1909 la escolarización se vio potenciada con la Fundación Escolar Domingo Iturbe, que se prolongó durante cincuenta y cinco años. Terminados los fondos de la Fundación, en su edificio vacío, se creó una Ikastola, que después se unificó con la Escuela Estatal. Y en 1995 se inauguró un nuevo y amplio edificio escolar, que integró todas las necesidades educativas. (Ver Anexos V y VI).

En 1927 el municipio se vio reducido en su mitad por la desmenbración de los barrios de Ubera y Angiozar, que pasaron a formar parte del municipio de Bergara. Ya en 1814 el barrio de Angiozar había promovido la segregación sin resultado satisfactorio. Pero ahora fue posible, atendiendo a las muchas desavenencias históricas de estos barrios con el núcleo de Elgeta, y en concreto la oposición abierta ante el proyecto de la carretera Elgeta a Eibar que suponía un importante costo para el municipio sin interés directo para estos barrios. Además, eran evidentes las ventajas que ofrecía Bergara de proximidad, puestos de trabajo y mayores servicios.

Con este siglo las instalaciones comunes, servicios sociales y actividades cultural-recreativas se potenciaron y el presupuesto municipal se incrementó considerablemente.

También los avatares políticos de este siglo trajeron a la Villa nuevos partidos que se activaron sucesivamente según el ciclo cambiante del momento. Sin duda, el acontecimiento más trágico fue la última guerra de 1936 por las muertes y los efectos devastadores para la Villa, ya que el frente de guerra estuvo estacionado en sus montañas durante siete meses. Como consecuencia, la mayoría de los edificios fueron destruidos por la aviación y artillería de los aliados con el ejército franquista, siendo muchas las bajas sufridas. (Ver con amplitud su relato en el Anexo III).

En el aspecto cultural merece destacar un acontecimiento histórico: la fundación  el 18 de mayo de 1924 de la Federación Vaco-Navarra de Alpinismo, que en agradecimiento le otorgó a Elgeta dos años más tarde el distintivo de “Capital alpina de la Región Vasco-Navarra”.

Esta Federación con posteridad se tituló simplemente como “Federación Vasca de Alpinismo”, y en la actualidad se denomina “Euskal Herriko Mendizale Elkargoa”. Desde aquella fecha fundacional Elgeta quedó estrechamente vinculada a la historia del montañismo vasco con numerosas concentraciones y celebraciones, y conservó hasta 2017 el Archivo de la Federación en sus instalaciones municipales. Su plaza principal está dedicada a los montañeros como “Mendizaleen Plaza”.

## XX. MENDEAREN IRAGATEA

XX. mendea hastearekin bat, Elgetak herri nekazaria izaten jarraitzen zuen, laborantza-ekoizpenari, ganaduari eta basoen esplotazioari lotutako ekonomia zuena. Bertako bizilagunen bizi baldintzak oro har prekarioak eta gogorrak ziren. Hala ere, mende honen lehen erdian lortu zen errentan zeuden baserri asko eta askoren jabetza haietan bizi ziren eta lan egiten zuten familiena izatea. Hala, esplotazioak gutxituz joan ziren autokontsumozkoak eta produkzio txikikoak izatera iritsi arte.

1909tik aurrera, Domingo Iturbe Eskola Fundazioari esker, bultzada garrantzitsua eman zitzaion eskolatzeari, eta eskolatze honek berrogeita hamabost urtez iraun zuen. Fundazioaren funtsa amaitu zenean Ikastola bat sortu zen hutsik geratu zen eraikin horretan, eta ondoren, Estatuko Eskolarekin egingo zuen bat. 1995ean, berriz, eskola eraikin berri eta handi bat eraiki zen, heziketa emateko beharrezko baldintzak asetzen zituena. (Ikus V. eta VI. Eranskinak).

1927an herriko biztanle kopurua erdira jaitsi zen Ubera eta Angiozar auzoak Elgetatik banandu eta Bergararen zati bihurtu zirenean. 1814an ere Angiozar auzoa Elgetatik bereizten saiatu zen, nahiz eta orduan ez zuen arrakastarik izan. Baina oraingoan banaketa posible izan zen, alde batetik, auzo hauek Elgetarekin historian zehar eduki zituen liskarrei kasu eginez eta zehazki Elgeta eta Eibar arteko errepidea egiteko proiektua zela eta, zeinak gastu handia ekarriko zien auzo hauei. Bestetik, agerikoak ziren Bergarak ekarriko zizkien abantailak, bai hurbiltasun kontuengatik bai lanpostu eta zerbitzu aldetik.

Mende honek instalazio komunen, zerbitzu sozialen eta kultur eta olgeta jardueren bultzakada ekarri zuen eta udalaren aurrekontua nabarmen handitu zen.

Mende honetako gorabehera politikoek alderdi politiko berriak ere ekarri zituzten udalerrira eta, unearen arabera, indar gehiago edo gutxiago hartuko zuten batek edo besteak. Zalantzarik gabe, gertaerarik tragikoena 1936ko gerra izan zen. Elgetako mendietan gertatu zen gerra zazpi hilabetez eta horrek hainbat eta hainbat heriotza eragin zituen, baita bestelako ondorio lazgarri batzuk ere. Armada frankistaren aliatuen abiazioak eta artilleriak herriko eraikin gehienak suntsitu zituen eta heriotza asko eragin zituen. (Ikus III. Eranskina).

Kulturari dagokionez, bada nabarmentzea merezi duen gertaera historiko bat: 1924ko maiatzaren 18an "Federación Vasco-Navarra de Alpinismo" sortu zen eta hori eskertzeko, handik bi urtera, Euskadi eta Nafarroako mendizaleen hiriburutza eman zioten udalerriari.

Federazio honek gerora "Federación Vasca de Alpinismo" izena hartu zuen eta gaur egun, berriz, "Euskal Mendizale Federazioa" du izena. Elkargoaren sortze urtetik bertatik lotura berezi bat mantendu du herriak euskal mendizaletasunaren historiarekin, eta horren erakusgarri dira herrian ospatu diren elkarretaratze eta ospakizunak, eta 2017ra arte udalaren eraikin batean mantendu den Elkargoaren Artxiboa. Herriko plaza nagusiaren izenean bertan nabari da mendizaleekiko begirunea, "Mendizaleen Plaza" baita.

Desde la segunda mitad del siglo XX el municipio de Elgeta experimentó un crecimiento industrial y urbanístico, motivado por la implantación de nuevas industrias, así como por la consolidación de aquellas otras que años antes habían iniciado su andadura.

## ***4. LA SOCIEDAD ANTIGUA DE LOS SIGLOS XV AL XIX***

### ***LOS GRUPOS SOCIALES***

Entre los siglos XV-XIX la estructura socio-económica del municipio de Elgeta estuvo configurada mayoritariamente en torno a los campesinos, en su condición de propietarios o arrendatarios o simplemente cooperantes. Los otros grupos sociales fueron minoritarios, en consonancia con las dimensiones reducidas de los núcleos urbanos del municipio, y quizás sorprenderá el elevado número de eclesiásticos y escribanos. No falta una mención de los emigrados a otras tierras, que fueron muchos en determinadas épocas.

#### ***Los campesinos:***

Elgeta fue desde sus orígenes una población que vivía en torno a los recursos producidos por la agricultura, la ganadería y la explotación de los bosques comunales, entre ellos la madera y el carbón vegetal. De esta población campesina podemos diferenciar:

- *Los campesinos propietarios (etxejabeak)*, que se dedicaban personalmente a explotar los recursos de su casa solar heredada o comprada. En estos siglos se puede estimar como media porcentual, aunque oscilante según las épocas, que solo una de las terceras partes tenía la condición de propietarios.

- *Los campesinos arrendatarios o colonos (maizterrak)*, que se asentaban en caseríos ajenos y establecían con los propietarios un contrato renovable normalmente de cuatro a diez años, con unas obligaciones económicas fijas, rentas o censos anuales en especie, y se transmitía la carga de padres a hijos. La estimación media porcentual de arrendatarios era de dos de las terceras partes de las explotaciones en funcionamiento. La mayoría de los propietarios de los que dependían eran familias acaudaladas residentes fuera del municipio [(16)].

- *Los cooperantes agrícolas en su doble versión:* los criados o criadas *(morroiak)*, que trabajaban para los caseríos, a cambio de algún sueldo, alojamiento, vestido y comida; y los peones asalariados *(peoiak)*, contratados en períodos de producción intensiva, que no vivían bajo el techo del caserío, y eran remunerados con manutención y una corta paga. En algunas épocas llegaron a ser un 10% aproximativo de la población campesina.

XX. mendearen bigarren erditik hona hazkuntza industrial eta urbanistikoa jasan du Elgetak, industria berrien sartzeak eta lehenago sartutako industrien garapenak eraginda.

## 4. ANTZINAKO GIZARTEA XV. MENDETIK XIX.ERA

### GIZATALDEAK

XV. eta XIX. mendeen arteko Elgetako egitura sozio-ekonomikoa nekazaritzaren ingurukoa zen nagusiki. Neurri handi batean nekazal munduko etxejabe, maizter eta laguntzaile soilek osatutako gizartea zen garai hartakoa, eta bestelako gizataldeek gutxiengoa osatzen zuten. Datu hauek bat datoz herriaren tamaina txikiarekin. Harridura handiagoa sortzen du beharbada elizgizonen eta eskribauen kopuru altuak. Bestalde, ez ziren gutxi izan beste lurralde batzuetara emigratu behar izan zuten herritarrak.

**Nekazariak:**

Elgeta sortu zenetik nekazaritzatik, abeltzaintzatik eta herri-basoen ustiaketatik –hala nola, egurraren eta ikatz begetalaren ustiaketatik– bizi zen. Hiru talde bereiz ditzakegu hauen artean:

- *Etxejabeak:* Eurek ustiatzen zituzten oinordetzan jasotako edo erositako etxearen lurrak eta bestelako baliabideak. Mende hauetan zehar, eta garaiaren araberako gorabehera txikiak alde batera utzita, pentsatzen da bataz beste nekazarien heren bat bakarrik zela euren etxeen jabea. Euretarik oso gutxi ziren beren etxeaz gain beste baserri bat zutenak eta gauza edo txanpon bidezko urteko errenta jasotzen zutenak.

- *Maizterrak:* Eurenak ez ziren baserrietan bizi ziren eta etxejabeekin oro har 4-10 urtetik behin berritzen zen kontratua edukitzen zuten. Kontratu honetan betebehar ekonomiko finkoak (errenta edo gauzetan ordaindu beharreko urteroko kopurua) zehazten ziren, eta gurasoengandik seme-alabengana igarotzen ziren. Bataz beste, erabilitako lurren bi heren izan ohi ziren etxejabeei egokitzen zitzaiena. Etxejabe gehienak herritik kanpo bizi ziren familia aberatsak izaten ziren [16].

- *Laguntzaileak, euren bertsio bikoitzean:* Alde batetik, *morroiak* zeuden, baserrietan lan egiten zutenak soldata, ostatu, jantzi eta janariaren truk. Beste aldetik, berriz, *peoiak* zeuden. Hauek ez ziren baserrian bizitzen eta ekoizpen handiko garaietan kontratatzen ziren mantenuaren eta ordainsari txiki baten truk. Denboraldi batzuetan nekazaritzan lan egiten zutenen %10a ere osatzen zuten.

***Los eclesiásticos:***

Durante estos siglos la vida parroquial integró a la mayoría de sus feligreses en las celebraciones religiosas y en el control ideológico-moral de su vida social.

Sin otra información previa, se documenta en el año 1500 la existencia de dos parroquias con sus iglesias en nuestro municipio: la de la Asunción en el núcleo urbano de Elgeta y la de San Miguel en el barrio de Angiozar (17).

Ambas parroquias dependieron eclesiásticamente de varias diócesis. Elgeta desde su fundación como villa dependió de la diócesis de Calahorra-La Calzada, que surgió una vez desaparecida la de Armentia (Araba) en el siglo XI. Sin embargo, la mayor parte de Gipuzkoa, a excepción de su parte occidental, que coincidía con el territorio del valle del Deba, era feligresía de la diócesis de Pamplona. Después Elgeta dependió de la nueva diócesis de Vitoria-Gasteiz (1861), y por último de la de San Sebastián-Donostia (1949).

Una parroquia estaba servida por un cabildo, presidido por el párroco e integrado por varios beneficiados (clérigos auxiliares con un disfrute de un beneficio o renta, creado por alguna familia adinerada), y como independientes de ese cabildo ejercían los capellanes. La Capellanía era una Fundación, vinculada a unos bienes con renta perpetua, normalmente disfrutada por consanguíneos o continuadores del tronco familiar, o bien impuestos por la familia fundadora. Su obligación era la prestación de un servicio religioso, por el que percibían un estipendio.

A mediados del siglo XIX en la parroquia de la Asunción de Elgeta ejercían un párroco y cinco beneficiados, y este Cabildo presentaba desde tiempo inmemorial, una vez retirado el patronazgo de los Guevara de Oñati, a sujetos nativos del municipio o de la comarca para el ministerio sacerdotal y después deberían ser aprobados por el obispado. A su vez, en la parroquia de San Miguel de Angiozar existía un párroco y tres beneficiados, que eran presentados por el patrono de esta iglesia desde 1795, Duque de Granada de Ega, quién a su vez recibía la quinta parte de los frutos decimales del valle de Angiozar.

Estos cabildos tuvieron varias fuentes de remuneración según las épocas. Por una parte, el Concejo que, con aprobación y ayuda de la Diputación, solía cubrir en sus presupuestos al culto y al clero, entre ellos al sacristán y al organista. Por otra parte, recibían los diezmos y primicias de los caseríos, además de las sustanciosas fundaciones que se dejaban en los testamentos para misas y de imposición gravosa a los herederos (18).

***Los escribanos:***

En estos siglos los escribanos tenían el doble carácter de depositarios de la fe pública y de secretarios de sus Concejos. Fueron personajes de especial importancia en la vida pública de las villas, al ser una sociedad pleiteante y que regularizaba sus actos más triviales por medio de escrituras públicas. Una función principal era

**Elizgizonak:**

Mende hauetan zehar eliztar gehienak eliz ospakizun eta kontrol ideologiko-moralaren parte izatea lortu zuen elizak.

Udalerriko parrokien inguruko lehen berriak 1500. urtekoak dira. Urte hartan bi ziren herriko parrokiak: Elgeta erdialdeko Jasokundearen eliza eta Angiozar auzoko San Migel eliza [17].

Biak ala biak egon ziren gotzaindegi baten baino gehiagoren esku. Elgeta udalerri gisa sortu zen momentu beretik, Calahorra-La Calzadaren esku geratu zen, Armentiakoa (Araba) XI. mendean desagertzean sortu zen gotzaindegiaren esku, alegia. Hala ere, Gipuzkoaren gehiengoa, mendebaldea (Debaldea) izan ezik Iruñeako gotzaindegiaren esku zegoen. Ondoren, Gasteizekoaren menpe egon zen Elgeta (1861), eta azkenik, Donostiakoaren esku (1949).

Kapitulua (erretoreak zuzendua eta beronek eta errenta edo bestelako onura bat jasotzen zuten apaiz laguntzaileak osatua) eta kapilau burujabeak izaten ziren parrokia zerbitzatzeaz arduratzen zirenak. Kapilautza betiereko errentadun ondasunekin loturiko Fundazio bat izaten zen, eta errenta hauetaz baliatzen zirenak normalean odolekoak edo familia adarraren jarraitzaileak izaten ziren edo, bestela, familia fundatzaileak ezarritakoak. Beren betebeharra erlijiozko zerbitzua ematea izaten zen, eta horren truke ordainsari bat jasotzen zuten.

XIX. mendearen erdialdean Jasokundearen Andra Mari Parrokia erretore baten eta bost benefiziaduren esku zegoen. Oñatiko Gebaratarren nagusigoa desagertu ostean, kapitulu hau arduratzen zen apaiz-zerbitzuak eskainiko zituzten herritarrak aurkezteaz gotzaindegiak onartu aurretik. Angiozarko San Migel elizan, berriz, 1795etik elizako patroiak aurkezten zituen erretorea eta hiru benefiziaduak. Elizako patroia Egako Granadatar Dukea zen, Angiozarko etekinen bosten bat hartzen zuen duke berbera, hain zuzen.

Kapitulu hauek hainbat diru-iturri eduki zituzten: alde batetik, Aldundiaren babes eta laguntzarekin, Udalbatzaren aurrekontuen barruan sartzen ziren gurtza eta apaizeria (tartean sakristaua eta organista), eta bestetik, testamentuetan mezatarako uzten ziren fundazio handiez gain eta oinordekoei utzitako ezarpen garestiez landa, hamarrenak eta hasikinak jasotzen zituzten baserrietatik [18].

**Eskribauak:**

Mende hauetan eskribauek izaera bikoitza zuten. Alde batetik, fede publikoaren gordetzaileak ziren eta, beste aldetik, Udalbatzako idazkariak. Herrietako bizitza publikoan garrantzia handiko pertsonaiak izan ziren, auzilaria eta gertaerarik hutsalenak idazki publiko bidez arautzen zituen gizartea izanik. Zeregin nagusietako

levantar escrituras públicas o protocolos de asuntos muy variados: censos, compra-venta, contratos matrimoniales, testamentos, inventarios, declaraciones, memoriales, transacciones, hidalguías... Otra función era servir de traductor en asuntos esenciales de la colectividad, ya que en estos años la vida oficial y documental se hacía en castellano, y la mayoría de la población lo desconocía.

Las villas gipuzkoanas desde 1513 tenían facultad para nombrar y presentar escribanos de número (numerarios) ante el Consejo de Castilla que los confirmaba, y que normalmente eran del propio concejo.

Estas plazas se cubrían por dos procedimientos: o bien el escribano titular hacía renuncia expresa a favor de otro; o bien la dejaba vacante, casi siempre por fallecimiento, con lo que salía a público concurso.

No había unos estudios reglados ni unos exámenes que probaran la habilitación para el oficio, sino que ésta se lograba a fuerza de experiencia y trabajo en los diversos puestos. Normalmente el aprendiz se iniciaba como amanuense que pasaba a limpio ciertos documentos, ayudaba a tomar declaraciones y copiaba las partes formales de los protocolos. Cobraban por una simple escritura entre 2 y 4 reales; por más extensas se podía pagar hasta 8 ó 10 reales; y en documentos de gran complejidad la cantidad podía ser considerable. Estos honorarios podían aumentar por los desplazamientos a lugares distantes para tomar declaraciones.

También en Elgeta ejercían escribanos "numerarios", asignados como fijos y en un número determinado, que venían a desempeñar el papel de fedatarios públicos, que luego asumirían los actuales notarios. No siempre estuvieron en activo, cuando a la vez ejercían varios, pues algunos de ellos se ausentaban para dedicarse a negocios más rentables, como las mercaderías. En nota aparte hacemos una relación de los veintinueve escribanos que ejercieron en Elgeta: los primeros empiezan a ejercer su labor a mediados del siglo XVI; alternan una media de seis hasta mediados del siglo XVII; se reducen a unos tres a lo largo del siglo XVIII; y terminan con uno en la primera mitad del siglo XIX hasta la regulación territorial del notariado en 1862 [(19)].

***Los sanitarios:***

Este grupo, muy concreto y dedicado a la atención de la salud, recibía tradicionalmente una especial consideración social, aunque sus conocimientos y habilidades no fueran muchos. En Elgeta el Concejo siempre tenía dificultades para cubrir los pocos servicios sanitarios, dada la escasez de personal.
El médico presentaba su idoneidad académica, y su retribución en una mayor parte se cubría por el concejo y en una pequeña parte por el co-pago del propio paciente. En muchas épocas solo existían cirujanos, como subalternos del médico, con variedad de funciones: sangrador, barbero y diestro en ciertos remedios.

Otra persona especialmente requerida era la comadrona o partera, casi siempre vecina del municipio, y que estaba avalada con la destreza de la práctica.

bat idazki publikoak edo askotariko kontuen inguruko protokoloak egitea zen: erroldak, salerosketak, ezkontza kontratuak, testamenduak, inbentarioak, aitortzak, oroitza-txostenak, salerosketa-akordioak, kaparetasunak… Beste zeregin bat itzultzaile lanak egitea izaten zen, izan ere, garai hartan bizitza ofizial eta administratibo guztia gazteleraz egiten baitzen, eta herritar gehienek ez zekiten gazteleraz.

Gipuzkoako udalerriek 1513tik eskribau osoak (numerarioak) izendatu eta aurkezteko gaitasuna zuten. Hauek gero Gaztelako Batzordearen baieztapena jasotzen zuten eta oro har udalbatzakoak bertakoak izaten ziren.

Plaza hauek bi eratara estal zitezkeen: eskribau titularrak beste norbaiten aldeko adierazi baten bidez egin ziezaiokeen uko postuari edo, bestela, hutsik utz zezakeen postua, normalean heriotzagatik, eta hortaz, lehiaketa publikoa egiten zen postua betetzeko.

Ez zegoen norbait lanbiderako egokia zela frogatzen zuen ikasketa arauturik, ezta azterketarik ere. Horren ordez, esperientzia bidez eta askotariko postuetan lan egiteari esker eskuratzen zen lan honetarako beharrezko gaitasuna. Normalean ikaslea laguntzaile bezala hasten zen, dokumentuak garbira pasaz, adierazpenak jasoaz eta protokoloen zati formalak kopiatuz. Idazki soil batengatik bizpalau erreal kobratzen zuten; 8 edo 10 erreal ere ordain zitezkeen idazki luze baten truke, eta konplexutasun handiko agirien prezioa garestia izan zitekeen. Gainera, ordainsari hauek garestitu egin zitezkeen aitorpena hartzeko egindako lekualdatzeek eraginda.

Elgetan ere baziren eskribau “numerarioak”, langile finko gisa izendatuak. Mugatuta zegoen eskribau hauen kopurua eta fede-emaile publiko bezala aritzen ziren, gerora egungo notarioek hartuko zuten rola betetzen zuten, beraz. Ez ziren aktiboki aritzen beti, izan ere, eskribau bat baino gehiago zeuden kasuetan, euretako batzuk lan errentagarriagoetan jarduten zuten, salerosgaietan, esaterako. Elgetako hogeita bederatzi eskribauren berri dugu: lehenengoak XVI. mendearen erdialdean aritu ziren eskribau lanetan; XVII. mendera arte, bataz beste, orotara sei izaten ziren herriko eskribauak; XVIII. mendean zehar hirura jaitsi zen kopurua, eta XIX. mendearen lehen erdian, aldiz, eskribau bakarra edukitzeraino txikitu zen, 1862ko lurraldeko notarioen arautzea heldu arte [19].

**Osasun langileak:**

Talde hau osasunaz eta zaintzaz arduratzen zen eta ezagutza eta gaitasuna handirik izan ez arren, gizartearen begirunea zuen. Udalbatzak, langile eskasia zela eta, beti zituen arazoak gutxieneko osasun zerbitzuak eskaintzeko.
Medikuek prestaketa akademikoa zuten. Beren soldataren zati handiena udalbatzak ordaintzen zuen eta zati txikiago bat gaixoak edo bere familiak ordaindu behar izaten zuen. Garai batzuetan zirujauak bakarrik zeuden, medikuaren menpeko gisa, eta askotariko eginkizunak betetzen zituzten: odol-ateratzeak, barberu lanak eta beste hainbat sendabide.

Paper garrantzitsua zuen beste pertsona bat emagina zen, kasu gehienetan herrikoa izaten zena eta praktikaren poderioz ikasi zuena.

Sobre la botica un dato ilustrativo es que en 1553 solo había diez boticas en toda Gipuzkoa, y no está incluido Elgeta. Con mucha frecuencia los boticarios se continuaban por tradición sucesoria, haciendo el aprendizaje en la botica familiar, y desde el siglo XVIII se empezó a exigir un certificado académico de aprendizaje. La primera constancia de una botica en Elgeta es de 1775 [20].

***Los enseñantes:***

Hasta mediados del siglo XIX los enseñantes eran personas que ejercían esta función compaginándola con otros oficios, pues las dotaciones del municipio eran precarias. Su función se centraba en la instrucción de las primeras letras y el catecismo.

En Elgeta las primeras escuelas conocidas hay que situarlas sobre 1749, tanto en el núcleo de la villa como en el barrio de Angiozar.

Desde 1842 hay constancia que existían tres escuelas elementales mixtas, localizadas en el núcleo de la villa y en los barrios de Angiozar y Ubera. Para 1861 ya existían en el núcleo de la villa dos escuelas elementales de niños y niñas, y hasta 1893 no se crea esta duplicidad de aulas en los barrios de Angiozar y Ubera.

(Ver una relación de maestros y maestras en la nota 21 y una exposición más amplia de la instrucción escolar de Elgeta en el Anexo V).

***Los artesanos:***

Elgeta tuvo una cierta actividad artesanal, que completaba la difícil y pobre del labrantío y los ganados. Desde antiguo en el caserío se reparaba y producía una gran variedad de objetos de uso doméstico, que satisfacían de modo autosuficiente algunas de las necesidades básicas, como la cestería, el tejido, la talla o carpintería. Pero otras labores artesanales se intentaban paliar con los servicios de especializados en los respectivos oficios, que se regían por unas ordenanzas y tasas particulares.

De esta actividad artesanal en un acta municipal de 1708 se da cuenta de una tejería, que está sobre Lapurdi, en el término de Pagatza, y que amenaza ruina [22].
Y Madoz (Diccionario Geográfico) hace constar en 1847 la existencia de una industria de 16 telares de lienzos y dos ferrerías [23].

En una relación de 1857 existían en Elgeta 8 tejedores, 5 cerrajeros, 9 carpinteros, 5 herreros, 4 zapateros, 2 albañiles, 1 armero, 1 cartero [24].

Farmaziei dagokienez, datu esanguratsua da 1553an Gipuzkoa osoan hamar farmazia bakarrik egotea, eta horietako bat ere ez Elgetan. Botikarien ofizioa familiarra izan ohi zen eta jakinduria gurasoengandik semeengana igarotzen zen, nahiz eta XVIII. mendetik aurrera lan honetan aritzeko ziurtagiri akademikoa eskatzen hasi zen. Ezagutzen ditugun datuen arabera, Elgetako lehenengo farmazia 1775ekoa da [20].

## Irakasleak:

XIX. mende erdialdera arte irakasleek, irakasteaz gain, bestelako funtzioak ere betetzen zituzten, herriko diru-hornidurak eskasak baitziren. Lehenengo letrak eta katixima irakastea izaten zen irakasle hauen betekizun nagusia.

Elgetako lehenengo eskolak 1749 ingurukoak direla dirudi, eta Elgetako erdialdean nahiz Angiozar auzoan zeunden.

Badakigu 1842tik hiru oinarrizko eskola misto zeudela herrian, bata herriaren erdialdean, bestea Angiozar auzoan eta azkena Uberan. 1861ean, erdialdeko eskoletan, neskak alde batera eta mutilak bestera banatuta zeuden; Angiozar eta Ubera auzoetan, aldiz, ez zen horrelako bikoiztasunik agertuko 1893ra arte.

(Ikus maisu eta maistren zerrenda 21. oharrean eta Elgetako eskolatzeari buruzko zehaztasunetarako, ikus V. Eranskina)

## Artisauak:

Nolabaiteko artisautza jarduera ere egon zen Elgetan, betiere nekazaritza eta abeltzaintza jardueren osagarri gisa. Baserrietan konpondu eta ekoitzi ohi ziren etxerako tresna batzuk, oinarrizko behar batzuk asetzen zituztenak. Antzinatik baserrietako jarduerak ziren, esaterako, saskigintza, ehungintza, taillaketa edo zurgintza. Dena den, baserriko lan-karga arintzen laguntzen zuten artisautza zerbitzu berezituak ere bazeuden, beren ordenantza eta tasekin.

Jarduera artisauaren lekukotasun bat 1708ko udalbatzarreko akta batean jasotzen da. Agiri honetan jasotzen denaren arabera, teileria bat zegoen Lapurdi gainean, Pagatzako mugan, eta erortzeko zorian zegoen dagoeneko [22].
Bestalde, Madozek (Hiztegi Geografikoa) adierazten duenez, 1847an 16 oihal-ehundegi eta bi burdinolako industria zegoen [23].

1857ko datuen arabera, 8 ehule, 5 sarrailagile, 9 arotz, 5 errementeri, 4 zapatari, 2 igeltsero, armagin bat eta postari bat zeuden Elgetan [24].

***Los comerciantes:***

En este grupo hay que integrar la actividad de los pocos carniceros, taberneros, tenderos, mesoneros, caleteros y molineros [25].

Estas actividades estaban reguladas por el Concejo, de tal forma que vigilaba la fiabilidad de las medidas, el precio y calidad de los productos vendidos y por supuesto la garantía de aprovisionamiento de productos.

El Concejo gestionaba la Alhóndiga (almacén de pósitos o depósitos) del núcleo de la Villa y después la instalada en el barrio de Angiozar. En esos almacenes se hacía provisión de toda clase de cereales, vinos, sidras, aguardientes, carnes frescas, paños, percales, botones... Con este acopio se trataba de socorrer o comercializar en condiciones módicas a los vecinos en épocas de malas cosechas o de crisis de subsistencia. Los encargados del almacén municipal periódicamente presentaban un balance de entradas y salidas, hacían previsión de existencias, y regulaban cuidadosamente las balanzas, pesas o básculas de medida, pues eran las únicas municipalmente reconocidas [26].

En el precio de venta al público de los productos estaban incluidos los impuestos o aranceles de la *sisa* (municipal), del *donativo* (para los gastos de la Provincia), de la *alcabala* (tributo real sobre las compraventas), y los *beneficios* correspondientes al comerciante en cuestión.

***Los emigrados a otras tierras:***

Como en otros lugares de Euskal Herria, este grupo se puede considerar numeroso, sin unos datos generales precisos [27].

Las causas de la emigración fueron muchas, particulares de cada época y cada persona. Sin embargo, las más decisivas eran el sistema hereditario de primogenitura o mayorazgo y la superpoblación de las áreas rurales. Las jóvenes doncellas solo tenían las pocas salidas de servir en otros lugares y en mayor número de enclaustarse en una orden religiosa; y los jóvenes no herederos o segundones tenían acomodo en seguir también la vida religiosa, alistarse como soldados para hacer las Indias, embarcarse como marineros, o en el mejor de los casos ejercer cargos administrativos en las instituciones del reino.

Lo cierto es que encontramos algunos emigrantes de Elgeta que hicieron historia o fortuna en la diáspora, especialmente en las Indias, tanto como comerciantes o como conquistadores militares, y algunos de ellos dejaron obras o donaciones a su pueblo como en la iglesia o el hospital. (Ver anexo IV y nota 56).

**Merkatariak:**

Talde honen barruan sartzen ziren harakin, tabernari, dendari, ostalari, zamaketari eta errotari bakanak [25].

Jarduera hauek udalbatzak arautzen zituen, eta beraz, neurrien fidagarritasuna, prezioak eta salgaien kalitatea zainduta zeuden, baita produktuen horniduraren bermea ere.

Udalbatzak kudeatzen zuen hasieran herrigunean eta ondoren Angiozar auzoan kokaturiko Alondegia eta bertan biltzen ziren mota guztietako zereal, ardo, sagardo, pattar, haragi, eta baita, horrelako biltokietan halakoak aurkitzea ezohikoa izanagatik, trapu, perkal, botoi eta antzekoak ere. Biltoki publiko honek nolabaiteko laguntza eta modu onean erosteko aukera eskaintzen zien bizilagunei uzta eskaseko garaietan. Arduradunek biltegiko produktuen sarrera eta irteeren balantzea egiten zuten aldian-aldian, baita stockaren aurreikuspena ere. Alondegian biltegiratutako produktuak pisatzeko erabiltzen ziren balantzak kontu handiz doitzen ziren, izan ere, balantza hauek ziren udalaren onespena zuten bakarrak [26].

Alondegiko produktuen prezioen barruan sartuta zeuden, alde batetik, *sisaren* zerga edo muga-zergak (udalarenak), *dohaintzenak* (probintziako gastuetarako) eta *alkabalenak* (salerosketetan estatuari ematen zitzaion ehunekoa), eta bestetik, saltzaileari zegokion *etekina*.

**Atzerrira joandakoak:**

Euskal Herriko beste hainbat txokotan bezala, datu zehatzik eduki ez arren, badakigu Elgetan ere asko izan zirela beren herria utzi eta atzerrira joan zirenak [27].

Emigrazioaren arrazoiak askotarikoak izan baziren ere, arrazoi nagusiak maiorazkoan oinarritzen zen oinordekotza sistema eta landa-eremuetako gainpopulazioa ziren. Herrian geratuz gero, emakume gazteen irtenbide bakarrak beste etxe batean zerbitzatzea edo erlijio-ordena batean sartzea ziren, eta maiorazkoa izateko zorterik izan ez zuten gizonena, aldiz, bizimodu erlijiosoa eramatea, soldadu gisa Amerikak egitea, marinel sartzea edo, kasurik hoberenean, erreinuko erakunde bateko administrazioan lan egitea.

Horiek horrela, zenbait elgetarrek herritik kanpo bilatu zuten euren etorkizuna, eta horietako batzuek, Ameriketan bereziki, aberastera edo nabarmentzera ere iritsi ziren merkatari edo konkistatzaile militar gisa. Euretako batzuek, gainera, herriko elizarako edo ospitalerako dohaintzak egin zituzten. (Ikus IV. eranskina eta 56. oharra).

## ***LA SOLIDARIDAD SOCIAL***

Ante las catástrofes periódicas que asolaban a esta sociedad, tales como la guerra, el hambre, el fuego, el pedrisco y las epidemias, los vecinos expresaron una cierta solidaridad socio-religiosa con la creación de un Hospital, la Hermandad de Incendios, la Cofradía de San Sebastián y otras Cofradías u Obras Pías.

### ***El Hospital de Santa María Magdalena:***

Se conoce la historia de este hospital desde 1559. El antiguo edificio era una amplia casona, localizada en el mismo lugar de las escuelas actuales, fuera del núcleo urbano medieval, y aún hoy la calle Maala rememora su existencia. (Ver gráfico en pág. 107).

Con el tiempo el hospital tuvo otras localizaciones: antes de 1861 estuvo en la casa Zeleta, en 1890 en la calle Artekale nº 8-10, y terminó en la casa nº 11 de esta calle, en lo que aún hoy se conoce como casa-hospital en un edificio abandonado, y que los pocos asilados allí hospedados pasaron al hospital de Bergara desde 1927.

En el interior de este Hospital de la Magdalena estaba la ermita-iglesia de la santa, presidida por una imagen barroca, que aún se conserva restaurada en la sacristía de la iglesia parroquial.

Estos hospitales estaban relacionados con el tratamiento y aislamiento de las enfermedades contagiosas. En efecto, las epidemias asediaron periódicamente a la población, y, entre otras, fueron especialmente catastróficas: la peste negra o bubónica (1346), la peste intensa y mortifera del los años 1597 a 1600, la epidemia de tifus señalada con anterioridad y transmitida por el ejército francés (1793-95), el brote de viruela (1830), el brote de cólera (1855), la tuberculosis (desde finales del s. XIX), la gripe pandémica (1918)…

Ante estas epidemias, sin apenas recursos médicos, la defensa se reducía a aislar en cuarentena a las personas contaminadas, a desinfectar los lugares u objetos en contacto, a garantizar algún alimento. A ello se unía de modo generalizado el refugio en la invocación y protección religiosa, extendiéndose la devoción a dos intermediarios por excelencia: San Sebastián y San Roke.

Y estos hospitales fueron sobre todo establecimientos de beneficencia donde se atendía la mucha indigencia y mendicidad, y a los transeúntes y peregrinos carentes de recursos. En varias disposiciones u ordenanzas de las Juntas Generales se reguló la asistencia municipal. En ellas se distingue a los “pobres falsos” (“gitanos, vagos, mal entretenidos y holgazanes”) de los “verdaderos pobres vecinos” o “pobres de solemnidad”, incapacitados para trabajar y que merecían el socorro. A su vez, establecían dos tipos de marginados: los que por situación personal o familiar quedaban al margen de la sociedad, como es el caso de mendigos y vagabundos ambulantes, y los que formaban parte de un grupo rechazado por la sociedad, como los judíos, moriscos y agotes, que no estaban en posesión de hidalguía ni limpieza de sangre. Entre los criterios de actuación ordenados, se pueden

## GIZA ELKARTASUNA

Gerra, gosete, sute, harri-erauntsi eta izurriteek mehatxaturiko gizarte hartan, herriko biztanleek besteekiko elkartasuna erakutsi zuten ospitale baten sorrerarekin eta suteen kontrako anaidia, San Sebastian kofradia eta beste kofradia batzuen sorreraren eta bestelako karitatezko obren bidez.

### Santa Maria Magdalena Ospitalea:

1559koa da ospitale honen historian agertzen den lehenengo data. Eraikin zaharra etxe handi bat zen, gaur egun eskolak dauden tokian kokatuta zegoena, Erdi Aroko erdigunetik aldenduta, beraz. Ospitale honen oroigarri gisa aipa daiteke Maala kalearen izena bera. (Ikus 107. orrrialdeko irudia).

Gerora beste kokaleku batzuk izan zituen: 1861a baino lehen Zeleta etxean egon zen, 1890ean, berriz, Artekaleko 8-10 zenbakian eta azkenik kale bereko 11. zenbakian, gaur egun ere etxe-ospitale izenez ezagutzen den eraikin huts batean. 1927tik aurrera, bertan ospitaleratutakoak Bergarako ospitalera pasa ziren.

Magdalena Ospitalearen barrualdean santa honen ermita zegoen eta bertan irudi barroko bat gailentzen zen, oraindik eliza nagusian aurki daitekeena berriztaturik.

Ospitale hauek gaixotasun kutsakorren tratamenduaz eta isolatzeaz arduratzen ziren. Izurriteek noizean behin herria bere mende hartzen zuten. Bereziki kaltegarriak izan ziren izurri beltza edo bubonikoa (1346), 1597tik 1600erako izurri bizi eta hilgarria, armada frantsesak kutsatutako tifusa (1793-95), baztangaren agerraldia (1830), koleraren agerraldia (1855), tuberkulosia (XIX. mendearen bukaeratik), gripe pandemikoa (1918)...

Osasun-baliabideen eskasia zela-eta, izurrite hauen aurka egiteko modua kutsatutako gaixoak berrogeialdian jartzea eta eurekin kontaktuan egondako gauzak eta lekuak desinfektatzea izaten zen. Berrogeialdian elikagaiak ziurtatzen zitzaizkien gaixoei eta erlijiozko babes- eta laguntza-erreguak egin ohi ziren, San Sebastian eta San Rokeri bereziki.

Ospitale hauek eskale eta baliabiderik gabeko erromesak zaintzeko lekuak ziren, eta Batzar Nagusietako hainbat xedapen eta ordenantzatan arautu zen gaixoen artatzea. Ebazpen horietan “behartsu faltsuen” (“ijitoen, alferren eta denbora-pasa txarrekoen”) eta “herriko benetako behartsuen” edo “erabat pobreen” (lanerako ezintasunen bat zutenen) arteko bereizketa egiten zen. Orobat, bi motatako baztertuak bereizten ziren: egoera pertsonal edo familiarragatik gizartetik kanpo geratu zirenak, eskale eta arlote ibiltariak kasu, eta baztertutako gizataldeetako norbanakoak, hala nola, juduak, moriskoak edo agotak, zeintzuei ez zitzaien onartzen ez kaparetasun ez odol garbirik. Hartutako neurriei dagokienez, hurrengoak nabarmen daitezke: eskale atzerritarrek ezin zuten laguntzarik eskatu eta asko jota bi gau pasa zitzaketen etxe

resaltar los siguientes: los mendigos foráneos no podían pedir en la jurisdicción local, y solo se les alojaba por un par de noches en casas particulares o en el Hospital expulsándolos luego; a los pobres propios del lugar se les exigía licencia escrita de mendicantes con un "documento" que debían exhibir y se les hacía vestir una capa de pobre, y a los "pobres de solemnidad" se les dará manutención y alojamiento en la Casa-Hospital de la Villa, y si están impedidos para acudir se les suministrará el sustento en su domicilio. Con el tiempo existieron también casas-hospital de primeros auxilios en los barrios de Angiozar y Ubera.

El patronato del Hospital era la Villa, representada por su alcalde y párroco, que eran los mayordomos de la institución. Al ser nombrados estos mayorales, se hacía el inventario de las existencias y bienes con las que contaba el Hospital. Así en 1698, había dos seroras o cuidadoras, con este inventario de bienes: en la ermita se guardaban los objetos religiosos para las celebraciones, y el ajuar de vestidos y alhajas para revestir la imagen de Santa Magdalena; en el inmueble había una dotación de siete camas (con sus colchones, almohadas, sábanas y cobertores), diez arcas de madera antiguas, seis asientos de madera, una caldera y una olla de cobre, con otros utensilios de cocina [(28)].

***La Hermandad de Incendios:***

En Elgeta, al igual que otros muchos lugares de Euskal Herria, el fuego destruyó muchas viviendas a causa de algún rayo o un simple accidente doméstico. Para paliar estos desastres se crearon desde antiguo asociaciones voluntarias de seguros mutuos en las que cada uno de los socios miembros se comprometía a aportar cierta cantidad de dinero para sufragar la reconstrucción del edificio siniestrado. Una de las más tempranas fue la que fundaron un grupo de vecinos propietarios de Azpeitia en 1541 por medio de la "Escritura de Concordia en razón de los incendios de casas y sus reparos". Y otra, que tuvo larga vida y en la que incluso llegaron a integrarse algunos labradores vizcainos, fue la "Hermandad de Casas Germadas", creada en Bergara en 1657, que contaba con más de trescientos caseríos asociados a mediados del siglo XVIII. Del período entre 1744 a 1878 hay un libro de cuentas de la Hermandad que se conserva en el Archivo Municipal de Elgeta [(29)].

En 1879 se creó una "Sociedad de Seguros Mutuos sobre incendios" solo para la jurisdicción de Elgeta. En su constitución se establecen cupos voluntarios de 14.000 a 1.000 reales. La Sociedad estaba presidida por el Alcalde y otros nueve miembros, representantes en su mayoría de los distintos barrios. En caso de incendio, una vez valorado por los tasadores y probado la no intencionalidad, se hacía el reparto entre los socios contribuyentes según la cuota de participación. Entre las exigencias, al recibir la indemnización, estaban la de realizar la edificación en el plazo de un año y el mantener la calidad en condiciones parecidas a la construcción anterior. Esta Sociedad se mantuvo hasta el año 1975, en el que se disolvió al reducirse a unos 17 socios y no cumplir los fines para los que se había creado.

partikular batean edo ospitalean ostatu hartuta; herriko behartsuei eskerako baimen idatzi bat eskatzen zitzaien, hots, agerian eraman beharreko agiri bat, eta "pobreen soingainekoa" jantzarazten zitzaien, eta azkenik, "benetako behartsuei" jatekoa eta ostatua ematen zitzaien herriko etxe-ospitalean, eta hara iristeko ezintasunen bat edukiz gero, etxera eramaten zitzaien janaria. Gerora Angiozar eta Ubera auzoetan ere etxe-ospitaleak eraiki zituzten.

Ospitalearen jabetza udalak zuen, eta hortaz, alkateak eta erretoreak zuzentzen zuten. Hauek izendatzen ziren bakoitzean ospitaleko izakin eta ondasunen inbentarioa egiten zen. Horri esker badakigu 1698an bi serora zeudela eta honako inbentarioa egin zela: ermitan erlijio ospakizunetarako beharrezko gauzak zituzten, baita Santa Magdalenaren irudia janzteko soineko eta apaingarriak ere, eta ospitalean, berriz, gaixoentzako zazpi ohe zeuden (koltxoi, burko, izara eta estalkiz hornituta), egurrezko hamar kutxa, egurrezko sei aulki, galdara, kobrezko eltze bat eta sukaldeko tresnak [(28)].

**Suteen Kontrako Anaidia:**

Elgetan, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, normalean tximista batekin edo etxeko istripu txiki batekin hasten ziren suteek etxebizitza asko suntsitzen zituzten. Ezbehar hauek arintzeko asmoz sortu ziren antzina elkartasunezko elkarteak. Elkarte hauetako bazkide bakoitzak ezbeharra jasandako eraikuntza berregiteko behar zen diruaren zati bat jartzeko ardura hartzen zuen. Mota honetako elkarterik goiztiarrenetako bat 1541ean sortu zuten Azpeitian jabetzak zituen bizilagun talde batek "Escritura de Concordia en razón de los incendios de casas y sus reparos" agiriaren bidez. Gainerakoan, bizitza luzea izan zuen "Hermandad de Casas Germadas" deiturikoak. 1657an sortu zen Bergaran eta XVIII. mendearen erdialdean hirurehun baserri baino gehiagok osatzen zuten, euretako batzuk Bizkaikoak. Elgetako Udal Artxiboan gordetzen da anaidiaren 1744 eta 1878 arteko kontu-liburua [(29)].

1879an sortu zen eskumena Elgetan soilik zuen "Sociedad de Seguros Mutuos sobre incendios" delakoa. Elkarte honen sorreran 14.000 eta 1.000 erreal arteko borondatezko kuota zehazten zen. Elkarteko buruak alkatea eta beste bederatzi kide ziren, gehienak auzoetako ordezkariak. Sute bat zegoen bakoitzean, tasatzaileak kalteen balioa zehaztu eta sutea nahita eragindakoa ez zela erakusten zenean, kuotaren partizipazioaren araberako gastuen banaketa egiten zen bazkideen artean. Kalte-ordaina jasotzeko baldintzak ziren etxe berria urtebeteko epean eraikitzea eta aurreko eraikinak zuen kalitate berbera mantentzea. Elkarte honen jarduna 1975ean eten zen bazkide kopuru txikia (17) eta sorrerako helburuak betetzeko ezintasunak zirela eta.

***La Cofradía de San Sebastián:***

Esta "noble y antigua cofradía" lleva el nombre del mártir San Sebastián, que fue un centurión romano asaeteado por convertirse al cristianismo, y que con el tiempo fue invocado como protector contra la peste y las enfermedades contagiosas. Fue el santo hospitalario medieval por excelencia.

Las primeras ordenanzas de esta cofradía fueron aprobadas en julio de 1482, por el almirante Alfonso Enriquez en nombre de los Reyes Católicos. El primer Libro de Cuentas que se conserva es de 1578, con unos sesenta cofrades, y su sede será la Casa-Hospital de Santa María Magdalena de la villa.

Nació como una hermandad religioso-militar para acoger a los necesitados, hospedar a los peregrinos, y velar, al servicio de los jueces, por la seguridad de los caminos. En la actualidad se mantiene como una tradición y reducida en el día del santo a una misa en la iglesia parroquial con una comida de hermandad.

La Cofradía era regida por tres mayordomos, uno por el núcleo urbano de la Villa, otro por el valle de Angiozar y el tercero por el valle de Ubera, que eran elegidos cada año entre los cofrades. Estos ayudaban solidariamente con limosnas a los necesitados y atendían al Hospital [30].

***Otras Cofradías y Obras Pías:***

No hay noticia en Elgeta de cofradías de orden gremial y estamental, dado el número reducido de oficios y profesiones. Pero desde antiguo en muchos lugares proliferaron cofradías, de marcado sentido piadoso-asistencial, y también en Elgeta existieron, entre otras, la del Rosario, la del Santísimo Sacramento, la de la Orden Tercera Franciscana y la de Ánimas. Todas ellas tenían la función de promover las virtudes cristianas de misericordia y caridad, y sus cofrades gozaban de abundantes indulgencias y privilegios eclesiales.

La Cofradía de Ánimas, según consta en algunos libros municipales desde el siglo XVIII, era muy popular y contaba con un gran número de cofrades. De hecho en la iglesia parroquial se conserva un lienzo de la Virgen abogando por las ánimas del Purgatorio, en clara referencia a esta hermandad, y aún mantiene en propiedad dos terrenos, localizados en el alto de Karabieta, con la denominación "Animen Basoa" [31].

Esta cofradía, como la mayoría de ellas, se mantenía con las limosnas que recogían y orientaba su actividad a funerales y sufragios por las almas de los difuntos.

Existieron, asimismo, Obras Pías o Fundaciones Testamentarias, vinculadas al patrimonio eclesial, y de carácter piadoso-asistencial. Con ellas se prestaban servicios más o menos amplios, como celebrar misas por el alma, fundar capellanías, costear el matrimonio de doncellas pobres, atender a necesitados, cubrir los gastos anuales de una escuela...

**San Sebastian Kofradia:**

Antzinako kofradia noble honi San Sebastian martiriaren izena eman zioten, kristautasunera bihurtzeagatik geziak jaurtita hil zuten ehuntari erromatarraren izena, alegia. Izurriteen eta gaixotasun kutsakorren aurkako zaindari bezala Erdi Aroan ospitaleetako santu nagusia izan zen.

Kofradia honetako lehenengo ordenantzak 1482ko uztailean onartu zituen Alfonso Enriquez almiranteak, Errege Katolikoen izenean. Bestalde, gaurdaino iraun duen lehenengo kontu-liburua 1578koa da. Agiri honetan zehazten denaren arabera, hirurogei bat anaikide ziren garai hartan eta beren egoitza Santa Maria Magdalena etxe-ospitalea zen.

Kofradia erlijioso-militar hau behartsuak jaso, erromesei ostatu eman eta bideen segurtasunaz arduratzeko helburuarekin jaio zen. Gaur egun, tradizio bezala mantentzen dira santuaren egunean San Sebastian parrokian egiten den meza eta ermandadean egiten den bazkaria.

Kofradia hiru etxezainek zuzentzen zuten. Bat erdiguneko ordezkaria izaten zen, bestea Angiozar auzokoa eta hirugarrena Ubera auzokoa, eta urtero hautatzen zituzten anaikideen artetik. Etxezain hauek behartsuei laguntzen zieten limosnekin eta ospitalean ere bestelako lanekin laguntzen zuten [30].

**Beste kofradia eta egintza errukior batzuk:**

Ez dirudi Elgetan gremio edo estamentu mailako kofradiarik zegoenik, ziurrenik lanbide mota gutxi egotearen eraginez. Hala ere, hainbat herritan, antzinatik zeuden eta ez ziren gutxi laguntzarako eta sentimendu errukiorrez sortutako kofradiak. Elgetan Rosarioko kofradia, Sakramentu Txit Santukoa, Frantziskotarren Hirugarren Ordenakoa eta Arimen kofradia zeuden. Beren helburua errukia eta karitatea bezalako bertute kristauak bultzatzea zen, eta anaikideek eliza-pribilejio bereziak izaten zituzten.

XVIII. mendetik aurrera gorde diren udal-liburuen bidez jakin dezakegunez, Arimen kofradia oso ezaguna zen herrian eta anaikide asko zituen. Horren erakusgarri da, adibidez, anaidi honi aipamen zuzena egiten dion eliza nagusiko margolana. Bertan purgatorioko arimen alde egiten duen Birjinaren irudia azaltzen da. Horrez gain, bi lur sail mantentzen ditu “Animen Basoa” izenarekin Karabieta gainean [31].

Beste kofradia askoren moduan, honek ere limosnen bidez irauten zuen, eta bere egitekoek hileta-elizkizunekin eta hildakoen arimen aldeko otoitzekin zuten zerikusia.

Gainerakoan, eliz ondarearekin zerikusia zuten bestelako egintza errukiorrak ere egon ziren Elgetan. Hainbat zerbitzu eskaintzen zituzten, hala nola, arimen aldeko mezak ospatzea, kapilautzak sortzea, zerbitzari txiroen ezkontzak ordaintzea, behartsuak zaintzea, eskola baten urteko gastuak ordaintzea…

El donante, una persona acaudalada, dejaba en su testamento una cantidad de dinero en renta para pagar con las ganancias dichas obras pías. Estas no solo eran un instrumento en el más allá para acortar las penas del purgatorio con la acumulación de indulgencias eclesiales, sino también una forma de solidaridad y apoyo en el más acá con los familares y allegados. A ellos las tales buenas obras les proporcionaban un medio más cómodo de vida con rentas fijas, no estaban sometidas a carga fiscal, y en definitiva ostentaban la nobleza del apellido o el prestigio social de la familia en el lugar donde se beneficiaba de la donación (32).

## ***LA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL Y PROVINCIAL***

A nivel municipal, la Villa se regía por una junta o institución vecinal, denominada Concejo, y que tenía la doble función de administrar los bienes comunales y servir de intermediario entre el vecindario y las instituciones superiores.

Primero el concejo fue abierto (Batzarrea) con reuniones vecinales de organización y decisión, como era costumbre en torno al pórtico o interior de una iglesia. Y luego el concejo fue cerrado (Municipio) con unos cargos de representación vecinal en el Ayuntamiento.

La primera Junta conocida de concejo abierto en Elgeta es de agosto de 1339 en el "cementerio de la iglesia de Santa María", a propósito de los derechos de sus límites territoriales.

Por mandato de las Juntas Generales de Gipuzkoa (Hondarribi, 1495) todas las villas debían construir su casa concejil. Al año siguiente se debate con vehemencia y votación entre los vecinos de la "villa, arrabales y tierra llana" de Elgeta el lugar de su edificación. Se decide con la sentencia de un juez-arbitro que: la construcción se hará en un lugar cercano a la iglesia, respetando la plaza del arrabal de Yuso (en el lugar que ocupa hoy la plaza y ayuntamiento), y la edificación tendrá dos pisos para las distintas dependencias, incluida la cárcel (33).

En el año 1869 el Concejo compró la casa anexa para ampliar las dependencias municipales, entre ellas Secretarías, Archivo Municipal, Juzgado de Paz y Alhóndiga.

Con la última guerra estas dos casas quedaron destruídas, y posteriormente se procedió a la construcción de la actual casa consistorial, en un espacio próximo.

Cada municipio era independiente y se regía por sus propias ordenanzas. Las primeras conocidas son de 1510, con veintiún capítulos, para la hermandad de Elgeta, Angiozar y Ubera (34).

Están referidas a los oficios y rigen con los siguientes cargos: un alcalde, un procurador síndico (tesorero), tres regidores, un jurado ejecutor de lo municipalmente ordenado o acordado, y un carcelero. Los elegidos debían ser mayores de 20 años, vecinos y contribuyentes de la villa y su jurisdicción.

Dohaintza-emaileak aberatsak izaten ziren, testamentuan egintza errukiorretarako diru kantitate jakin bat uzten zutenak errentan. Horrelako dohaintzek beste bizitzan purgatorioko zigorra gutxitzeaz gain, familiako eta gertukoekiko solidaritatea erakutsi eta laguntza emateko helburua ere bazuten. Gainerakoan, egintza hauen bidez, karga fiskalik gabeko betiereko errentak kobratuz bizi zitezkeen, abizenaren jatortasunak edo ospe onak eskatu moduan [32].

## HERRI ETA PROBINTZIA EGITURAKETA

Udalerria udalbatza deituriko bizilagunen batzorde edo erakunde batek gobernatzen zuen. Udalbatzak eginkizun bikoitza zuen: alde batetik, herri ondasunak administratu behar zituen eta beste aldetik, bitartekari lanak egin behar zituen bizilagunen eta erakundeen artean.

Udalbatza edo batzarreak hasiera batean irekiak izan ziren eta eliza atarian edo barrualdean egiten ziren bizilagunak antolatu eta zenbait erabaki hartzeko helburuarekin. Geroago, ordea, udaletxean biltzen hasi ziren, batzar itxietan.

1339ko abuztuan Santa Maria elizako hilerrian egin zen ezagutzen dugun lehen batzar irekia, eta kasu hartan, udalerriaren mugak zehaztu beharrak bilduarazi zituen.

Gipuzkoako Batzar Nagusien (Hondarribi, 1495) aginduz hiribildu guztiek bere kontzeilu etxea eraiki behar zuten. Hurrengo urtean, Elgetako "hirbilduko, errebaletako eta lautadatako" bizilagunek, sutsuki eztabaidatuz eta bozka emanez non eraiki erabaki zuten. Arbitro-epaile baten esana betez udaletxea elizatik gertu eraikiko zela erabaki zen, Yuso errebala errespetatuz (gaur egun plaza eta udaletxea dauden lekua). Etxeak bi solairu izango zituela ere zehaztu zen eta kartzela ere bertan egongo zela [33].

1869an Udalbatzak eraikin erantsia erosi zuen udalaren menpeko guneak handitzeko asmotan. Gehitutako gune horien artean zeuden Idazkaritza, Udal Artxiboa, Bake Epaitegia eta Alondegia.

Azken gerratean bi eraikinak txikituta geratu ziren, eta ondorioz, udaletxe berri bat eraiki zen handik gertu, gaur egungo udaletxea dena, hain justu.

Udalerri bakoitza beregaina zen eta bere legeak zituen. Ezagutzen ditugun lehenengo ordenantzak 1510ekoak dira, eta Elgetako, Angiozarko eta Uberako anaidiei dagozkien hogeita bat kapituluk osatzen dituzte [34].

Ordenantza hauetan udaleko kargu eta lanbideak arautzen ziren: udala osatzen zutenak alkatea, prokuradore sindikoa (diruzaina), hiru zinegotzi, epaimahai betearazlea eta kartzelazaina ziren. Hautagai izateko baldintzak hauek ziren: 20 urtetik gora edukitzea eta herriko bizilaguna eta zergaduna izatea.

El alcalde y el procurador síndico debían ser elegidos para el primer año entre los vecinos del núcleo de la Villa, para el segundo año entre los del valle de Jalotza (hoy Ubera), y para el tercer año entre los del valle de Angiozar.

La renovación de estos cargos se hacía cada año el día de San Miguel de septiembre, convocando al vecindario a repique de campana. Los cargos salientes se ocupaban de redactar una lista completa de vecinos hombres hijosdalgos mayores de 20 años para futuros electos. Estos eran en representación de cada familia, y si en ella había más de uno, solamente se incluía el mayor.

Primero se elegía a los elegidores. Las candidaturas en tarjetas se depositaban en un cántaro y una vez revueltas, algún muchacho o mano inocente las iba sacando. El escribano procedía a nombrar a los primeros que salían en representación de la villa y su arrabal, de Jalotza (Ubera) y de Angiozar. Estos elegidores prestaban juramento sobre la cruz y el libro de los Evangelios.

A continuación, cada uno de estos tres elegidores escribía el nombre del que consideraba idóneo para el cargo de alcalde y se lo entregaba al escribano para introducirlo en un cántaro, y un muchacho o mano inocente extraía una papeleta, la del que había de ser el alcalde.

Con este mismo procedimiento extraían los demás oficiales. De esta manera todos los vecinos tenían la ocasión de tomar parte en el gobierno municipal. Los elegidos que hayan sido un año, no pueden ser elegidos durante los cuatro años siguientes. Tampoco los elegidores podían volver a hacerlo al siguiente año, ni durante la elección dar el nombre del uno al otro entre sí.

La nueva comisión ejecutiva juraba públicamente el regir y administrar justicia en los cargos que iban a desempeñar. Y estos elegidos, dentro de los diez primeros días de su nombramiento, estaban obligados a recorrer los términos de su jurisdicción, con visita a mojones de límites, así como hacer una revisión de cuentas en la administración local. Esta organización municipal desapareció con la ley de Ayuntamientos de 1845, y conforme a ella quedó así la composición: un alcalde, dos tenientes de alcalde y nueve regidores.

El primer Libro de Actas es de 1603 y durante los tres siguientes años son un conjunto de papeles sueltos y cosidos. En 1606 se inaugura un Libro de Actas, pero hasta unos treinta años más tarde no se normaliza su uso. En ellos aparecen como temas preferentes: el arreglo de caminos, y las normas de control en el uso y plantación de los bosques comunales. Sin embargo, el primer Libro de Cuentas es de 1566, lo que nos demuestra la preocupación económica-administrativa antes que la formalización de actas y acuerdos.

A nivel provincial Elgeta tomó parte activa desde un primer momento en la configuración de la Provincia o Hermandad de Gipuzkoa, que quedó definitivamente consolidada en Getaria el año 1397. Allí estaban representadas un conjunto de 25 villas, 3 alcaldías y 2 valles, que deciden perseguir libre y voluntariamente el logro del bien común de este territorio, con sus fueros y privilegios adquiridos con anterioridad [35].

Alkatea eta prokuradore sindikoa urte batean erdialdeko bizilagunak izaten ziren, bigarren urtean Jalotzako (egungo Ubera auzoko) bizilagunak izaten ziren eta hirugarren urtean Angiozarkoak.

Kargu hauen berriztatzea urtero-urtero egiten zen irailean, San Migel egunez kanpai hotsen bidez. Kargua utziko zutenak arduratzen ziren hautagaien zerrenda osatzeaz. Hautagai izan zitezkeenak 20 urtetik gorako gizonezkoak ziren, bakarra familiako, eta seme bat baino gehiagoko familietan zaharrena izaten zen hautagaia.

Lehendabizi hautatzaileak aukeratzen ziren. Hautatzaileak izango zirenen izenak txarteletan jarri eta pegar batean sartzen ziren. Nahastu ondoren, mutiko batek txartelak atera eta eskribauak ahoz gora esaten zituen herriko eta aldirietako ordezkari gisa hautatzaile moduan jardungo zirenen izenak. Horren ostean, hautatzaileek gurutzearen eta ebanjelio liburuaren aurrean egiten zuten zin.

Ondoren, hiru hautatzaile hauek alkate izateko aproposena iruditzen zitzaienaren izena idatzi eta eskribauari ematen zioten berriro ere pegar batean sartzeko, eta mutiko batek edo esku inuzente batek orritxo bakarra ateratzen zuen. Bertan ageri zena izango zen alkatea.

Prozedura berbera erabiltzen zen beste ofizialen aukeraketarako. Modu honetan gizonezko guztiek zuten udal gobernuaren parte izateko aukera. Gainera, behin aukeratutakoak ezin ziren hautagai izan hurrengo lau urteetan. Hautatzaile bezala ibilitakoek ere ez zuten gauza bera egiteko eskubiderik hurrengo urtean, eta hautatzaile ziren urtean ezin zuten beste hautatzaile baten alde bozkatu.

Osatu berria zen batzorde betearazleko kideek zin egiten zuten publikoki herria gobernatu eta kudeatuko zutela bakoitzak zuen karguak eskatzen zuenaren arabera. Izendapenaren lehenengo hamar egunetan, hautetsiak udalerrian ibili behar ziren mugarrietaraino helduz, eta herri administrazioko kontuak ikuskatu behar zituzten. Udalaren antolaketa modu hau 1845eko Udalen Legea indarrean jartzearekin batera desagertu zen. Lege honek zehazten zuenez, udala alkateaz, bi alkateordez eta bederatzi zinegotziz osatuta egon behar zen.

Lehenengo akta-liburua 1603koa da. Dena den, liburu bat beharrean, jositako orri solteek osaturiko sortak ziren, eta horrelako akta-liburuak topatzen ditugu hurrengo hiru urteetan ere. 1606an, berriz, akta-liburu bat erabili zen lehenbizikoz, nahiz eta handik hogeita hamar urtera arte ez zen ohiko gauza bilakatu liburuaren erabilera. Agiri hauetako gaien artean lehentasuna zutenak ziren bideen konponketak eta herri-basoen erabileraren eta landatzearen kontrolerako arauak. Hala ere, lehenengo kontu-liburua 1566koa izateak erakusten digu herriko egoera ekonomiko-administratiboaren ardura akten eta hitzarmenen arautzea baino funtsezkoagoa zela.

Probintzia mailan, Elgeta hasiera-hasieratik izan zen Gipuzkoaren egituraketaren parte, zeina 1397an Getarian finkatu zen behin betiko. Bertan ordezkaturik zeuden 25 udalerriek, 3 alkatetzek eta 2 ibarrek askatasunez eta euren gogoz erabaki zuten lurralde osoaren onura bilatzea, aurretiaz eskuratutako foru eta pribilejioekin jarraituz [35].

Esta asociación de las Juntas Generales asumió atribuciones ejecutivas, fiscales, militares y legislativas. Los integrantes se reunían cada cierto tiempo (por lo general dos veces al año) para deliberar y tomar decisiones. En ocasiones, ante un problema inesperado y grave, como una guerra, se celebraba una Junta Particular.

Elgeta tenía un Procurador como representante en estas Juntas, que se celebraban en villas distintas según un orden establecido [36].

Existían también los alcaldes de la Hermandad, que eran jueces especiales nombrados por los integrantes de la Hermandad, y sus competencias se extendían a diversas villas. Elgeta estaba incluida en el valle del Deba con un alcalde único que administraba justicia.

Los ingresos del Concejo y de la Provincia eran preferentemente fruto de impuestos sobre la propiedad urbana, rústica y pecuaria, industria, comercio y fogueras (vecindades o unidades domésticas).

Estas fogueras eran en el territorio gipuzkoano la unidad contributiva básica, al menos ya conocidas desde mediados del siglo XV. A cada fuego estaba asignada una cantidad que debía ser pagada y cada villa tenía un número determinado de ellos, que se fijaba en función del número de habitantes de la misma. Pero no era solo un repartimiento de las cargas tributarias, sino también el valor de los votos de cada localidad en las Juntas Generales o Particulares. Asimismo, dentro de cada municipio el fuego o unidad doméstica se repartía con ciertos criterios económicos, pues existían fogueras enteras, medias, cuartas y de medios de cuartas, según eran propietarios o arrendatarios.

En 1696 la villa de Elgeta tenía 28 fuegos, y a título comparativo se reconocían a Bergara 86 y a Eibar 30 fuegos. En cambio, en 1866 Elgeta tenía 36 fuegos, Bergara 92 y Eibar 57, con un alza importante de ésta [37].

Batzar Nagusiek bere gain hartu zuten botere betearazlea, fiskala, militarra eta legegilea. Batzar Nagusiko kideak aldian behin elkartzen ziren (urtean birritan eskuarki) eztabaidatu eta erabakiak hartzeko. Batzuetan, ustekabeko arazo larri bat gertatzen zenean (gerra bat piztea, esaterako) Batzar Bereziak antolatzen ziren.

Hurrenkera jakin baten arabera, herri batean edo bestean biltzen ziren batzar hauek eta Elgetaren kasuan, prokuradore bat bidaltzen zuten herriaren ordezkari gisa [(36)].

Anaidiko alkateak ere bazeuden. Hauek Anaidiko kideek izendatutako epaile bereziak ziren, eta hainbat udalerritara iristen ziren haien eskumenak. Elgetaren kasuan, justizia kudeatzen zuena Debaldeko alkatea zen.

Udalbatzaren eta probintziaren diru-sarrerak batik bat herri-ondasunen, landa-ondasunen, abereen, industriaren, merkataritzaren eta suaren (auzoko edo etxekoaren) gaineko zergetatik zetozen.

Gipuzkoan suaren gaineko zerga oinarrizko zerga-unitatea zen, XV. mendearen erdialdetik behintzat ezaguna zena. Su bakoitzari ordaindu beharreko kopuru bat esleitzen zitzaion eta herri bakoitzean biztanle kopuruaren araberako su kopuru bat zegoen finkatuta. Bestalde, honek ez zuen zergen banaketan bakarrik eragiten; aitzitik, Batzar Nagusietan eta Berezietan herri bakoitzeko botoek zuten balioa ere honela kalkulatzen zen. Suaren herri barruko banaketari dagokionez, zenbait irizpideren arabera banatzen zen herritarren artean, izan ere, su osoak, erdiak, laurdenak edo laurdenaren erdiak zeuden, eta etxearen jabe ala maizter izan, era bateko sua ala bestekoa egokituko zitzaien.

1696an 28 su zeuden Elgetan, eta konparazio baterako, Bergaran 86 eta Eibarren 30 zeuden. 1866an, berriz, 36 su zeuden Elgetan, 92 Bergaran eta Eibarren gorakada handia egon zen, urte horretan 57 su baitzeuden [(37)].

## *5. LA SOCIEDAD CONTEMPORÁNEA DESDE EL SIGLO XX*

### *LA REALIDAD RURAL*

Al iniciar el siglo XX la población de Elgeta se mantenía rural. El caserío seguía siendo el espacio de producción agropecuaria y en el que se desenvolvía la vida familiar en unas condiciones precarias y de trabajo duro.

Un aspecto decisivo era la propiedad de las explotaciones. En 1900 se contabilizaban unos 90 caseríos en lo que hoy es el municipio de Elgeta, de los que una mitad estaban ocupados por sus dueños y la otra mitad eran trabajados por agricultores arrendatarios. Esta dependencia se mantuvo hasta la década de los años 60 cuando la mayoría de los caseríos en funcionamiento terminaron siendo propiedad de quienes los trabajaban, ya que los antiguos dueños veían más rentable la inversión de esa venta en suelo urbano o en las nacientes empresas de las villas próximas.

Los arrendatarios eran en su mayoría campesinos empobrecidos y endeudados. Tenían que vender en su mayor parte el producto que obtenían para el pago de una excesiva renta y del diezmo eclesial, para la compra de animales, o para el gasto en abonos, simientes, herramientas u otros. En esta condición precaria debían luchar por los alimentos mínimos para la subsistencia, a pesar de producirlos. Más aún en las periódicas sequías, como la de 1906, que abocaban al hambre y la miseria.

Por otra parte, los propietarios que vivían en sus caseríos eran solo campesinos acomodados o algo más desahogados económicamente e incluso algunos endeudados, y unos pocos más pudientes negociaban préstamos de dinero a alto interés.

Otro factor condicionante era la superpoblación de los caseríos, en los que eran frecuente familias de una media de cuatro hijos. Este problema se agudizaba con la mayoría de edad por el sistema tradicional de transmisión de la explotación. Tanto si ésta era heredada como continuada en arrendamiento, se transmitía a un solo descendiente, y los demás se veían obligados a emigrar a otro lugar para buscar un oficio, o mantenerse solteros en la casa.

La vida familiar en la mayoría de los caseríos se desenvolvía en unas condiciones precarias y austeras. De la vivienda resaltaba la simplicidad en el mobiliario y menaje, y de la alimentación la frugalidad en la dieta. Era también notorio el abandono de los edificios arrendados, por falta de reparación de los propietarios.

En el caserío el espacio mayor se destinaba al ganado, al almacenaje de la producción, al trabajo de conservación de aperos y de otras labores artesanales. El espacio menor era para la vivienda, ocupada por el grupo familiar, y que se distribuía entre las alcobas (logelak) y la cocina o sitio del fuego (sukaldea), convertida en la sala de estar o centro de la casa.

## 5. GIZARTE GARAIKIDEA XX. MENDETIK GAUR EGUNERA

### LANDA-EREMUKO ERREALITATEA

XX. mendearen hasieran Elgetak landa-giroko herria zen oraindik. Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena baserritik zetorren, eta baserri horien babesean egiten zen familia-bizitza, baldintza eskasekin eta lan gogorra eginaz.

Ustiategien jabetza erabakigarria zen. 1900. urtean 90 baserri zeuden Elgetako udalerrian, eta hauetatik erdietan jabeak bizi ziren eta beste erdietan errentan zeuden nekazari langileak. Mendekotasun honek 60ko hamarkadara arte iraun zuen. Hamarkada honetan, jabeek baserriaren balioa hiriguneko lurretan edo inguruko enpresetan inbertitzea errentagarriagoa zela ikusita, baserria lantzen zuten familiek baserrien jabetza eskuratzea lortu zuten.

Maizterrak oro har pobre bihurtutako nekazariak edo zordunak izaten ziren. Baserriak emandako etekinen gehiengoa saldu behar izaten zuten gehiegizko errenta eta elizarentzako hamarrena, eta animalien erosketa eta ongarria, haziak, lanabesak eta abar ordaindu ahal izateko. Lan baldintza txarren eraginez, beraz, produktuak eurek ekoitzi arren, bizirik irauteko elikagai beharrezkoenak lortzeko borrokan bizi ziren maizterrak, eta are borroka handiagoan lehorte garaian; esaterako, 1906ko uzta eskasak ekarri zituen gosete eta miseria garaian.

Bestalde, baserri jabeak ere nekazariak izaten ziren. Batzuk dirudunak ziren edo estutasun ekonomikorik gabeak, beste batzuk zordunak ziren eta beste zenbait aberatsagoak ziren eta interes altuko maileguekin egiten zuten negozioa.

Baserrietako beste alderdi garrantzitsu bat gainpopulazioa zen, izan ere, ohikoena gutxienez lau bat seme-alabako familia edukitzea zen. Gainera, seme-alabak adin nagusitasunera heltzean maiorazkoaren sistemaren ondorioz, gainpopulazioaren arazoa larriagotu egiten zen. Bai maizter bezala zeuden familietan bai jabeak zirenetan baserria ondorengo bakarraren esku geratzen zen, eta gainerakoek lanbide baten bila beste leku batera joan behar izaten zuten, edo bestela, etxean jarraitu ezkondu gabe.

Oro har baserriko bizitza ezegonkorra eta gogorra zen, inolako luxurik gabea. Etxeko altzariak eta tresnak soilak izaten ziren eta elikadura dieta urrikoa. Errentan zeuden baserriak bertan behera uztea ere ohikoa izaten zen, normalean jabeen utzikeriak eraginda, ez zirelako beharrezko konponketak egiten.

Baserriaren zatirik handiena ganaduak, ekoizpenaren biltegiratzeak eta lanabesen kontserbazioari eskainitako espazioak hartzen zuten. Zati txikiagoa hartzen zuen bizilekuak. Hemen bizi zen familia, logelatan banatutako etxean, erdigune bihurtutako sukaldeko suaren babesean. Ez zen falta izaten asteko gari edo arto ogia egiteko labea, zeina etxeari atxikitako espazio batean egoten zen, ahoa sukaldeko

No faltaba el horno para cocer la hornada semanal del pan de trigo o de maíz, que o bien estaba adosada a la vivienda y cuya boca se abría en algún lugar de la cocina, o bien se disponía en un lugar próximo a la vivienda. Previamente se realizaba la labor de la molienda, que con frecuencia suponía un recorrido distante hasta el molino más próximo.

Una actividad necesaria era la atención del ganado, con un cálculo medio por familia de unas tres vacas, dos terneros al año, un burro de carga y tiro, el cerdo, las gallinas, los conejos. Solo una mitad de caseríos poseía una pareja de bueyes y algunos un rebaño de ovejas [38].

Otra ocupación preferente se centraba en el cultivo intensivo de trigo y maíz, su recogida y almacenaje. Para muchos arrendatarios una exigencia era sembrar una amplia superficie de trigo por ser especie de pago (lo más frecuente de 25 a 40 fanegas), aunque algunas tierras no fueran lo suficiente idóneas para este cultivo [39].

Una parcela especialmente cuidada era la huerta, que solía situarse próxima a la vivienda, y que producía las verduras y las legumbres para el consumo humano.

También los árboles tenían su importancia en la producción. Desde época remota se cultivaban los castañares y los manzanales, y en menor cantidad el cerezo, el peral, el nogal, el avellano y el ciruelo [40].

Una necesidad básica era el abastecimiento de agua para las personas y animales, lo que determinaba la construcción del caserío en la cercanía de fuentes o arroyos.

Otras necesidades como leñas, frutos, forrajes... se paliaban con la utilización de los montes comunales, pero en los montes particulares los arrendatarios se veían limitados al usufructo de los desmoches y ramajes de los árboles, porque la tala parcial o general era disposición de los propietarios.

La dieta familiar se basaba en harina de maíz, habas, castañas, legumbres... A su vez, se podía completar con otros ingredientes, como quesos, huevos, leche, miel, tocino, carne de cerdo embutido o en salazón, aves de corral y, ocasionalmente, carne de vaca, oveja u otros animales de caza; y pescado seco y curado, sobre todo bacalao y sardina vieja.

Desde mediados de este siglo la actividad campesina se limitó a algunas explotaciones ganaderas y a reducidas explotaciones agrícolas de carácter de autoconsumo y de producción para comercializar en mercados de pueblos vecinos. La explotación forestal mantuvo su importancia, ya que los montes del municipio tenían muchos bosques de árboles madereros, mayormente en los últimos años de pino insignis y hayales aislados.

lekuren batean zuelarik, edo bestela etxetik kanpoko leku batean egoten zen. Ogia egin aurretik ehotze lanak egin behar izaten ziren, eta horretarako, hurreneko errotara joateak askotan harainoko bide luzea egitea eskatzen zuen.

Ganaduaren zaintzak lan handia eskatzen zuen. Baserri bakoitzean bataz beste hiru behi, bi txekor, zamatarako astoa, txerria, oiloak eta untxiak eduki ohi zituzten, eta horiez gain, baserri batzuetan pare bat idi edo artalde bat ere izaten zituzten [(38)].

Baserriko beste zeregin garrantzitsu bat gariaren eta artoaren laborantza intentsiboa egitea, eta laborea jaso eta biltegiratzea izaten zen. Maizter batzuentzat errenta ordaintzeko moduetako bat zenez gero, euren betebeharra izaten zen galsoro eder bat ereitea (normalean 25 edo 40 anegatakoa), nahiz eta lur batzuk horretarako egokienak ez izan [(39)].

Bereziki zaindutako lursaila ortua izaten zen. Etxebizitzatik hur egoten zen eta giza kontsumorako barazki eta lekaleak ematen zituen.

Zuhaitzek ere bazuten garrantzia baserriko ekoizpenean. Antzinatik landatzen ziren gaztainondo eta sagarrondoak, eta neurri txikiagoan, baita gereziondo, udareondo, intxaurrondo, hurrondo eta aranondoak ere [(40)].

Ura ere behar-beharrezkoa izaten zen baserrian, bai pertsonentzat bai abereentzat, eta behar honek eraginda baserriak iturburu edo erreka inguruan eraiki ohi ziren.

Beste behar batzuk, hala nola, egurra, fruituak, bazka eta abar, herri basoetatik eskuratzen ziren. Baso pribatuetan maizterrek zuhaitzen adarrak soilik moztu zitzaketen, izan ere, enborraren zati bat mozteko edo osorik botatzeko eskubidea jabeek soilik zuten.

Familiako dietaren oinarria gari irina, babak, gaztainak, lekaleak… ziren, eta beste elikagai batzuk ere osa zezaketen, esaterako, gaztak, arrautzek, esneak, eztiak, urdaiak, hestekiek, etxeko hegaztiek, eta noizbehinka, behi edo ardi haragiak edo ehizako animaliek eta lehortu eta ondutako arrainak, batez ere bakailaoak eta sardina zaharrak.

Mende honen erdialdetik aurrera, baserriko jarduera abere-ustiategi batzuetara eta nekazaritza-ustiategi bakan batzuetara mugatu zen. Autokontsumora bideratutako ustiategiak ziren, produktuak inguruko herrietako merkatuetan saltzen zituztenak. Herriko basoetan zur-arbola asko zeudenez (azkeneko urteetan, batik bat intsinis pinua eta pagadiak) baso-ustiapenak ere garrantzia izan zuen.

## ***SERVICIOS Y ACTIVIDADES***

Con el siglo XX los variados servicios y actividades se incrementaron y diversificaron, ascendiendo en consecuencia el presupuesto municipal (41).

### ***Los servicios sociales y asistenciales:***

La escolarización en las seis escuelas públicas, separadas para niños o niñas y localizadas en el núcleo de la Villa y en los barrios de Angiozar y de Ubera, se vio potenciada desde 1909 con la Fundación Escolar Domingo Iturbe (Ver ampliamente los Anexos V y VI).

Los servicios sanitarios siguieron atendidos por un médico, un practicante y un o una farmacéutica, cuya botica se mantuvo abierta hasta la última guerra y se reabrió unos cuarenta años más tarde (42).

Cuando estos servicios eran de titulares, el municipio les asignaba una dotación, y el vecindario o bien aportaba una determinada cantidad anual, o bien el abono se hacía por visitas o recetas. Esta situación se mantuvo hasta que estos servicios en gran parte gratuitos fueron asumidos por el "Sistema Nacional de Salud" (1978). Con esta mejora sanitaria se instaló un nuevo ambulatorio en el núcleo de la villa (1987), con extensión especializada al Ambulatorio de Bergara y al Hospital Comarcal de Arrasate. Asimismo, el Ayuntamiento, con la colaboración de la Diputación y la Kutxa, puso en marcha en el 2004 un Centro de Día para la atención diurna de personas mayores.

Merece recoger la preocupación municipal, tal como se refleja en las actas, del control y análisis sanitario de aguas en las fuentes y lavaderos de los barrios y del núcleo urbano de la Villa. En éste las fuentes, únicas suministradoras de agua potable, estaban situadas en la calle Salbador, Plaza y Goikokale, y los lavaderos en la calle Lasao y Goikokale.

La asistencia religiosa en la parroquia de la Asunción de Elgeta, atendida por un párroco y tres coadjutores, se limitó con el tiempo a un solo párroco. Ello evidencia una nueva realidad secularizadora, pues si hasta los años 80 muchos feligreses estaban integrados en la vida parroquial, después la práctica religiosa se vio reducida a una minoría (43).

### ***Los servicios de comunicación y distribución:***

Desde 1833 estaba construida la carretera con Bergara, y en 1935 se abrió la de Eibar, posibilitando un especial intercambio socio-económico con la villa armera. Esta carretera en 1972 tuvo continuidad hasta Kanpazar y de allí a Arrasate (Ver Anexo VII).

## ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

XX. mendearen hasierarekin batera, herriko zerbitzuen eta jardueren loratzea etorri zen, eta horrek, era berean, udalaren aurrekontua handitzea ekarri zuen [41].

### Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak:

Domingo Iturbe Eskola Fundazioaren laguntzarekin 1909tik bultzatu zen umeen eskolatzea herriko sei eskola publikoetan. Herribilduan eta Angiozar eta Ubera auzoetan kokaturiko eskola hauetan banatuta egoten ziren neskak eta mutilak (ikus V. eta VI. Eranskinak beren osotasunean).

Osasun-zerbitzuen ardura zutenak mediku bat, praktikante bat eta botikari bat izaten ziren. Farmaziari dagokionez, azken gerrara arte egon zen irekita, eta itxi ostean berrogei urte pasa behar izan ziren berriro irekitzeko [42].

Zerbitzu hauek titularrek eskaintzen zituztenean udalak diru-kopuru bat ematen zien, eta bizilagunek urteko kuota bat edo bestela bisitako edo errezetako kopuru bat ordaintzen zuten. Egoerak bere horretan jarraitu zuen harik eta 1987an Osasun Sistema Nazionalak osasun zerbitzu gehienak bere gain hartu eta doako bilakatu ziren arte. Hobekuntza honekin batera, herriaren erdigunean Anbulatorio berri bat eraiki zen (1987), Bergarako Anbulatorioaren eta Arrasateko Eskualdeko Ospitalearen hedapen espezializatu gisa. Horrez gain, udalak 2004ean pertsona helduen arretarako Eguneko Zentroa jarri zuen abian Aldundiaren eta Kutxaren laguntzarekin.

Arreta berezia merezi du halaber udalaren ardurak iturri eta garbitegietako uren kontrola eta osasun analisiak egiteko, bai herriaren erdigunean bai auzoetan, aktek erakusten dutenez. Erdigunea ur edangarriz hornitzen zuten iturriak Salbador kalean, Plazan eta Goikokalen zeuden kokatuta, eta garbitegiak, aldiz, Lasao kalean eta Goikokalen zeuden.

Elgetako Jasokundearen Andra Mari Parrokian laguntza espirituala emateaz arduratzen zirenak parroko bat eta hiru lagunkide izaten ziren garai batean, eta ondoren, parroko bat bakarrik. Aldaketa honek garbi erakusten du errealitate sekularizatu berria: 80ko hamarkadara arte eliztar asko parrokiako bizitzan murgilduta zeuden, baina garai honetatik aurrera praktika erlijiosoa gutxiengo baten gauza izatera igaro zen [43].

### Komunikazio eta banaketa zerbitzuak:

1833tik eraikita zegoen Bergarako errepidea eta 1935ean Eibarrekoa ireki zen. Azken honek hiri armaginarekin hartu-eman sozio-ekonomiko berezia edukitzea ahalbidetu zuen eta 1972an Kanpazarreraino eta handik Arrasateraino luzatu zen (Ikus VII. Eranskina).

Con estas vías de comunicación abiertas se regularizaron los servicios de transporte de viajeros y mercancías (empresas Olabarria e Ibaibarriaga) con Bergara y Eibar, se autorizó un servicio de taxi y aumentaron los vehículos de motor particulares.

A esta mejora de comunicación vial acompañaron las redes de distribución en los servicios de correspondencia, teléfonos, telégrafos, alumbrado eléctrico, un depósito de aguas en Antzoategi y su conducción en tuberías a las viviendas (1922), posteriormente completada con una nueva red de distribución de aguas (1963).

En 1967 estaban registrados en el municipio estos utilitarios y aparatos de comunicación: 67 automóviles, 51 motos, 49 televisiones, 6 teléfonos.

***Los servicios comerciales y de oficios:***

Los pocos servicios comerciales y de oficios se mantuvieron, e incluso se incrementaron.

En 1901 la relación de estos servicios era de una panadería, una tienda de seda y mercería, una taberna, una tejería, una alpargatería, dos herrerías, dos confiterías, cuatro carpinterías y cuatro molinos.

En 1932 se registra esta otra relación: una carnicería, dos panaderías, dos ventas de carbón, tres tiendas de paños y percales, cinco tiendas de comestibles-tabernas (abecerías), cinco saltos eléctricos de agua y cinco molinos. Y los oficios aparecen así concretados: un zapatero, tres carpinteros, un albañil, un alpargatero, un grabador, un cartero, seis armeros, tres barberos, cuatro costureras con sus aprendices.

Para el año 1960 estos servicios se habían incrementado con dos carnicerías, una pescadería, tres almacenes de piensos, cinco tiendas de comestibles, dos mercerías, una tienda de muebles, tres supermercados, una peluquería, una zapatería, un estanco, una ferretería agrícola y siete bares. Todos estos servicios proporcionaban trabajo a unas 37 personas.

***Los servicios de control y vigilancia:***

Estos servicios estuvieron a cargo de uno o dos alguaciles municipales hasta que desapareció el último en 1980. Los mikeletes se establecieron en la villa desde la segunda mitad del siglo XIX hasta 1937 con un destacamento de dos a cuatro agentes pertenecientes al distrito de Bergara, y ocuparon en un tiempo la casa del Arco (Kataia). Estos agentes forales tenían como cometidos: el cobrar los impuestos; el controlar la entrada de los productos del limítrofe territorio de Bizkaia, en lucha contra el contrabando; y el administrar desde 1896 la sucursal de la Caja de Ahorros Provincial de la Diputación.

También existía, antes de la última guerra, un Cuartel de la Guardia Civil con un número variable de un cabo y cuatro guardias en el nº 10 de la calle S. Roke.

Komunikaziorako bide hauek ireki zirenean Bergarara eta Eibarrera zihoazen bidaiarien eta salgaien garraio-zerbitzuak (Olabarria eta Ibaibarriaga enpresak) araupetu ziren, taxi zerbitzu bat egotea baimendu zen eta automobil partikularrek ere gora egin zuten.

Errepideetan eginiko aurrerapenei esker hainbat zerbitzutako sareak hobetu ziren, esaterako, posta zerbitzua, telefonia, telegrafia, argiztapen elektrikoa eta Antzoategiko ur-biltegia etxebizitzekin lotzen zuen hoditeria (1922), gerora sare berri batek osatuko zuena (1963).

1967an honako ibilgailu eta komunikazio tresna hauek zeuden erregistraturik udalerrian: 67 automobil, 51 motor, 49 telebista eta 6 telefono.

**Merkataritza eta lanbide zerbitzuak:**

Merkataritza eta lanbide zerbitzu bakanak mantendu egin ziren, eta nolabaiteko handitzea ere ezagutu zuten.

1901ean okindegi bat, zeta eta joskintza-denda bat, taberna bat, teileria bat, abarketa-denda bat, bi errementeria, bi gozodenda, lau aroztegi eta lau errota zeuden.

1932an, aldiz, harategi bat, bi okindegi, bi ikatz saltoki, hiru oihal- eta perkal-denda, bost janari-denda, bost ur-jauzi eta bost errota. Langileei dagokienez, hauek bazeuden: zapatari bat, hiru arotz, igeltsero bat, abarketari bat, grabatzaile bat, postari bat, sei armagin, hiru bizargin, eta lau jostun eta hauen ikasleak.

1960. urtean honela hazi ziren zerbitzuak: bi harategi, arrandegi bat, hiru pentsu saltoki, bost janari-denda, bi mertzeria, altzari-denda bat, hiru supermerkatu, ile-apaindegi bat, zapata-denda bat, estanko bat, nekazaritza-burdindegi bat eta zazpi taberna. Zerbitzu hauek 37 laguni ematen zieten lana.

**Kontrol eta zaintza zerbitzuak:**

Herria zaintzearen ardura aguazil baten edo biren esku egon zen 1980ra arte.

Horiez gain, XIX. mendearen bigarren erdialdetik 1937ra arte, mikeleteen destakamendu bat ere egon zen udalerrian, Bergarako barrutiko bizpalau poliziak osatzen zutena, eta urte batzuetan zehar Kataia etxean kokatu zena. Foru polizia hauen zereginak ziren zergak kobratzea, kontrabandoa saihestea Bizkaitik zetozen produktuen sarrera kontrolatuz eta 1896tik aurrera, Aldundiaren Aurrezki Kutxaren sukurtsala kudeatzea.

Gainerakoan, azken gerraren aurretik Guardia Zibilaren kuartela ere bazegoen, San Roke kalearen 10. zenbakian, eta bertan kabo bat eta lau bat guardia.

## ***Las actividades festivas y deportivas:***

Desde antiguo la fiesta en Elgeta, como medio rural, estuvo asociada a una mezcla de significado laboral y religioso. Se festejaban los cambios estacionales y los trabajos del campo, y estos confluían con las celebraciones religiosas según las advocaciones de sus iglesias y ermitas. Las fiestas principales del núcleo de la Villa duraban tres días (15, 16 y 17 de agosto): la festividad principal era el día de la Asunción, al día siguiente San Roke, y el último de Zezen Txiki.

**FIESTAS DE ELGUETA**

**NUESTRA SRA. DE LA ASUNCIÓN**
**Y SAN ROQUE**
**14, 15, 16, 17 de agosto de 1967**

**DIA 14:**
-14 Inauguración de las fiestas
-17'30 Gigantes y cabezudos
Festival Infantil
-20 Misa y salve
-20´30 Carroza, Tamborrada y Pregón
-22'30 Grandiosa verbena (Orquesta Gares)

**DIA 15:**
-6'30 Diana con txistularis de Elgueta
-8'30 Pasacalle por la orquestina
-9'30 Gigantes y cabezudos
-10'30 Solemne Misa Mayor
-11'30 Aurresku de Honor
-12 Grandes partidos de pelota a mano
-13 Concierto por la Orquesta
-17 Recibimiento de la Banda de Elorrio
-18 Procesión Cívica Religiosa
-19 Bailables
-22'30 Gran Romería
-23 Vistosa Traca

**DIA 16: SAN ROQUE**
-8'30 Diana con txistularis de Bergara
-9 Misa en la Ermita de San Roque
-9'30 Gigantes y cabezudos
-10'30 Solemne Misa Mayor
-11'30 Partidos de pelota a mano
-12'30 Pasacalle con la orquesta Gares
-13 Sokamuturra
-17 II Concurso de Bolos
-18'30 Pasacalle y Sokamuturra
-19'30 Bailables
-22'30 Animada Romería
-23 Segunda Traca de fuegos

**DIA 17: ZEZEN TXIKI**
-10'30 Misa de la sociedad Mendi-Mendian
-11 Carrera apuesta de atletas
-11'30 Carrera de burros
-12 Pasacalle y Sokamuturra
-14 Banquete popular
-17 Sokatira y Sokamuturra final
-19 Bailables
-22'20 Romería
-1'30 Pasacalle y cohete final

***ORGANIZA: AYUNTAMIENTO Y***
***SOCIEDAD OZKARBI***

*Programa de fiestas de Elgeta.*
1967ko Elgetako jaien programa.

En los últimos años estas fiestas principales se celebran en torno al domingo siguiente de la festividad de San Pedro, durante cuatro días, y ese domingo es la feria mayor, con una exposición de ganado, productos artesanales y de caserío.

## Jai eta kirol jarduerak:

Udalerriak landako bizimoduarekin zuen lotura estuaren eraginez, ospakizunek aspalditik zuten zerikusia baserriko lanarekin edo erlijioarekin. Urtaro aldaketak eta soroko lanak ospatzen ziren, eta jai horiek bat egiten zuten herriko elizetako eta ermitetako santuen erlijio ospakizunekin. Elgetako erdiguneko festak hiru egunekoak izaten ziren (abuztuaren 15a, 16a eta 17a), jaiegun nagusia lehenengoa izaten zen, Jasokundearen eguna, hurrengo egunean San Roke eguna ospatzen zen, eta azken egunean, Zezen Txiki.



Idi probak Elgetan, 1903. Oihal gaineko olioa, 66 x 95 cm.
Urangaren margolana, Bilboko Arte Ederren Museoan gordea.
*"Prueba de bueyes en Elgeta", 1903. Oleo sobre lienzo 66 x 95 cm.*
*Pintura de Uranga, conservado en el Museo de Bellas Artes de Bilbao.*

Azken urteotan San Pedro egunaren osteko igandean ospatzen dira herriko festa garrantzitsuenak, eta lau egunez luzatzen dira. Igandean azoka nagusia izaten da; ganadu erakusketa, artisau-lan eta baserriko produktu eta guzti.

También se festeja en cada ermita el día del santo o advocación, pero es una tradición que tiende a desaparecer con una reducida asistencia.

En las fiestas no faltaba la animación del tambor y tamborilero, con un sueldo municipal estipulado. Durante el resto del año, en los días festivos, el Concejo licitaba el permiso anual para amenizar los bailes públicos de la plaza al mejor postor. Este se debía proveer de una gramola y su conexión de energía eléctrica, cobrando una entrada de dos pesetas a los asistentes al baile.

Con las fiestas se organizaban los deportes vascos, que en su mayoría giraban en torno a la vida rural: competiciones de animales (bueyes, asnos, carneros, perros pastores...) o competiciones de personas (segalariak, harrijasotzaileak, korrikalariak, sokatira...). Tuvieron especial tradición la práctica habitual del juego de pelota a mano y el juego de bolos. Todos estos deportes eran el equivalente de apuesta, prueba o juego, y requerían fuerza, resistencia y habilidad.

El juego de bolos se practicó desde antiguo, y se documenta un bolatoki localizado en un espacio al lado de la casa “Ostatu”, que el Concejo arrendaba anualmente.



*Primer frontón descubierto* / Lehen frontoia estalkigabea

Gainerakoan, ermita bakoitzak bere santua ere ospatzen duen arren, geroz eta jende gutxiago biltzen duen tradizioa da.

Festetan beti izaten ziren danbor-jole eta danbolin-jole bat, udalarekin hitzartutako soldata bat jasotzen zutenak. Bestalde, udalbatzak urtean zehar jaiegunetan egiten ziren plazako dantzak girotzeaz arduratu nahi zutenei urteko baimena lortzeko eskaintza egiten zien, eta eskaintza onena egiten zuenari ematen zion. Honek gramofono bat eta energia elektrikoa behar izaten zituen, eta bi pezeta kobratzen zizkien bertaratutakoei.

Festetan euskal kirolak antolatzen ziren. Kirol hauek baserriko bizimoduarekin estuki loturik zeuden: animalia lehiaketak (idienak, astoenak, aharienak, artzain-txakurrenak…) edo gizonen arteko lehiaketak (segalariak, harrijasotzaileak, korrikalariak, sokatira…). Gainerakoan, esku pilotarako eta bola-jokorako zaletasun handia zegoen. Kirol hauek guztiek zekarten apustua, norgehiagoka edo jokoa, eta denek eskatzen zuten indarra, erresistentzia eta trebetasuna.

Bola-jokoan aspaldidanik jarduten zen Elgetan. "Ostatu" etxearen ondoan zegoen bolatoki bat dokumentatzen da, udalbatzak urteko errentan ematen zuena.




Gaurko frontoia / *Frontón actual*

El juego de pelota era practicado en un frontón abierto situado al lado de la iglesia y detrás del ayuntamiento. Destruido éste con la última guerra, se construyó el primer frontón cubierto en 1966, y que fue renovado totalmente en el año 2006. Como anexo a este frontón se construyó el "Bolatoki", en 1987, con instalaciones y servicios de gimnasio, sauna, squash, bolatoki, pista polideportiva, bar-restaurante, campo de futbito y zona de juegos infantiles.

El auge de este deporte se consolidó entre los años 1969 y 2012 con la puesta en marcha del campeonato del cuatro y medio de pelota. Estaba promovido por la sociedad Oskarbi, con la dedicación continuada de un grupo organizador. Se celebraron 36 ediciones durante cuarenta y tres años, con pequeñas interrupciones, y fue reconocido como vivero permanente de pelotaris. En los primeros años de este campeonato los participantes no tenían límites de edad, y a partir de 1985 el torneo acogía solamente a los sub-23, y más tarde se amplió a cadetes.

***Las actividades asociativas:***

Desde mediados del siglo XX aparecieron las primeras sociedades gastronómico-cultural-recreativas como un lugar privado y auto-organizado.

La primera sociedad fue *Mendi-Mendian*, constituida en 1952. El pequeño grupo inicial de amigos se fue ampliando hasta integrar 34 socios en 1976.

El local sigue ubicado en el primer piso del nº 6 de la calle Salvador, y los estatutos y permisos de legalización, como era perceptivo en el régimen franquista, se formalizaron como una sociedad musical.

La segunda sociedad fue *Gure Borda*, constituida en 1962 por un reducido número de socios. Sigue ubicada en el parque de Asentzio, y ocupa un espacio de planta baja con unos 5 x 7 metros.

La tercera sociedad fue *Oskarbi*, legalizada en 1965 con unos 200 socios. En la actualidad ocupa un edificio de tres plantas en la calle Gudarien Bidea con esta distribución: en la planta baja un bar y un salón; en la primera planta cocina, comedor y oficinas; en la segunda planta mantiene espacios de almacén.

Fue desde sus inicios la sociedad mixta de la juventud del pueblo, organizada en torno a un grupo de dantza con ese nombre. Estaba estructurada en cinco secciones: cultural, montañismo, caza y pesca, pelota y dantza. Se encargaba de los acontecimientos sociales del pueblo, desde las primeras fiestas vascas hasta conferencias, partidos de pelota, competiciones de perros de caza y campeonatos de juegos de mesa.

La cuarta sociedad fue *Intxorta*, constituída en 1971 con unos 65 socios. El actual y renovado local situado en la calle S. Roke nº4 ocupa tres plantas: en la primera planta o sótano el almacén y bodega, en la segunda planta las cocinas y comedores, y en la tercera planta las oficinas y otro espacio amplio de salón o comedor.

Pilotan jokatzeko frontoi ireki bat zegoen elizaren ondoko eta udaletxearen atzeko gunean. Dena den, suntsituta geratu zen azken gerran eta ez zen besterik izan 1966an frontoi estali bat eraiki zen arte. Azken hau 2006an eraberritu zen guztiz. Frontoiari erantsita Bolatoki deituriko eraikina egin zen 1987an, gimnasio, sauna, squash, bolatoki, kiroldegiko pista, taberna jatetxea, futbito zelaia, haurren jolasetarako gunea eta guzti.

Pilotarako zaletasunak gora egin zuen nabarmen 1969 eta 2012 urteen artean, lau t'erdiko pilota txapelketak antolatzen zirenean. Oskarbi Elkarteak sustatzen zituen, antolatzaileen ardura etengabeaz. Pilotarientzako haztegi bilakatutako txapelketa honek, berrogeita hiru urtetan zehar, 36 edizio izan zituen orotara. Hasierako urteetan parte hartzeko adin mugarik ez zegoen arren, 1985an 23 urteetan jarri zen muga, eta geroago kadeteek ere parte hartu ahal izan zuten.

**Elkartze jarduerak:**

XX. mendearen erdialdean lehenengo gastronomia-, kultura- eta olgeta-elkarteak azaldu ziren. Hauek leku pribatu eta autogestionatuak ziren.

Elgetako lehen elkartea *Mendi-Mendian* izan zen, 1952an sortua. Hasierako lagun-talde txikia handituz joan zen harik eta 1976an 34 kide izan arte.

Elkartearen lokala Salbador kaleko 6. zenbakiko lehen solairuan dago hasiera-hasieratik. Bestalde, frankismoaren urteetan sortutakoa izanik, elkartearen estatutuak eta legeztatze baimenak musika-elkarte gisa formalizatu ziren.

Bigarren elkartea, *Gure Borda*, bazkide gutxi batzuen artean sortu zuten 1962an. Hasieratik egon da Asentzio parkeko beheko solairu batean, 5x7 metroko gunean.

Hirugarrena, berriz, *Oskarbi* izan zen. Elkarte hau 1965ean legeztatu zen eta ordurako 200 bazkide zituen. Gaur egun Gudarien Bidea kaleko hiru solairuko eraikin batean du egoitza: beheko solairuan, taberna eta sala ditu; lehenengo solairuan, sukaldea, jantokia eta bulegoak, eta bigarrenean, biltegia.

Elkarte hau hasieratik osatu zuten herriko gazteek, nagusiki izen bereko dantza-taldearen inguruan biltzen zirenek. Hori hala izanik ere, elkarteak bost adar zituen: kultura, mendia, ehiza eta arrantza, pilota eta dantza. Horrez gain, herriko ekitaldiak antolatzeko ardura hartzen zuen, hala nola, lehendabiziko euskal jaiak, hitzaldiak, pilota partidak, ehiza-txakur lehiaketak eta mahi-joko txapelketak.

Laugarren elkartea *Intxorta* izan zen, 1971an sortu zena 65 bazkiderekin. Gaur egungo egoitza San Roke kaleko 4. zenbakian dago eta hiru solairu ditu: lehenengoan, biltegia eta upategia; bigarrenean, sukaldea eta jantokiak, eta hirugarrenean, bulegoak eta sala edo jantoki handi bat.

En 1981 se formalizó la Asociación de Jubilados como *Zaharren Biltokia* y desde 2009 como *Xalbadorpe Elkartea*. Esta asociación es un espacio de encuentro, convivencia y esparcimiento para los jubilados. Tiene una organización propia y sus actividades anuales suelen estar establecidas o varían según las circunstancias e iniciativas. Comparte con la sociedad Oskarbi todas las instalaciones del edificio actual.

En 1996 nació el *Gaztetxe (Elgetako Gazte Asanblada)* como la sociedad de la juventud autogestionada y autofinanciada. Se albergó en el local del antiguo parvulario del puebo, que había quedado vacío al integrarse en el edificio de las escuelas nuevas, y dispuso en este local de dos espacios de taberna y salón. Ese momento de la apertura coincidía con un renacimiento juvenil, que reclamaba su derecho a organizarse y expresarse, en un contexto social y político especialmente convulsivo y represivo. Sus objetivos eran: impulsar la normalización del euskara; compartir ideas y proyectos; promover la participación juvenil en distintas actividades (publicación de la revista Goibekokale; celebraciónes de Asentzio eguna, Sagardo eguna, Umeen eguna, Gaztaina-erre eguna, Garagardo jaia; organización de cursos de trikitixa, txalaparta, dantza, conciertos...). De esta intensa actividad juvenil nació "Goibeko Kultur Elkartea" (2003).

***<u>Las actividades culturales:</u>***

En 1987 la actividad cultural tuvo un decisivo asentamiento con la inauguración de la Casa de Cultura. Esta se instaló en la Casa del Arco (Katia), cedida por la Diputación, y que con una reforma general se estructuró en cuatro plantas: en las tres primeras se ofrecen recintos o aulas para servicios varios (música, montañismo, nuevas tecnologías, exposiciones...) y la última planta acoge la biblioteca municipal, que ya venía funcionando en un bajo del Ayuntamiento desde 1975.

También desde el año 2004 la vida cultural tuvo una intensa y continuada presencia con la inauguración del *Auditorium Kafe Antzokia*, un espacio situado en los bajos del edificio de las escuelas públicas. En torno a este amplio local multiuso se presentó el novedoso proyecto cultural de "Goibeko Kultur Elkartea" y el Ayuntamiento. Fue un referente cultural para todo el entorno comarcal y supuso una inversión importante del Ayuntamiento (340.000 euros) y de la Sociedad Goibeko (84.000 euros) para la adaptación y equipamiento del espacio a los nuevos usos. Desde su inauguración se desarrollaron numerosas actividades culturales y artísticas, exposiciones, y acoge desde el año 2010 el "Centro de Interpretación de la Memoria Histórica" de la última guerra en Elgeta.

## ***<u>EL MOVIMIENTO POLÍTICO</u>***

Al iniciar el siglo XX se mantenía la monarquía española, con el acceso al trono en 1902 de Alfonso XIII, y la aparición de nuevas fuerzas políticas y sociales.

En esos primeros años el poder político de Elgeta era controlado por el grupo local carlista, que estaba organizado con vínculos de amistad o parentesco, más que integrado en una estructura de partido formal.

Zaharren Elkartea 1981ean sortu zen, *Zaharren Biltokia* izena zuena hasieran, eta geroago, 2009an, *Xalbadorpe Elkartea* izango zena. Egoitza hau elkartzeko eta bizikidetzarako gunea da; erretiratuen aisialdirako lekua. Bere barne antolaketa du, eta urteko jarduerak aurrez ezarrita egon ohi diren arren momentuko egoera eta ekimenen arabera ere alda daitezke.

1996an ireki zen *Gaztetxea* gazteen elkarte autogestionatu eta autofinantziatu gisa *Elgetako Gazte Asanbladaren* eskutik. Gaztetxea garai batean eskolaurrea izandako eraikinean ireki zuten, hutsik geratu baitzen eskola berriaren sorrerarekin, eta hala, bertan egin zituzten taberna bat eta sala bat. Irekieraren garaiak bat egin zuen antolaketarako eta adierazpenerako eskubidea eskatzen zuen gazteriaren berpiztearekin eta testuinguru sozial eta politiko bereziki gatazkatsu eta zapaltzaile batekin. Gaztetxearen helburuak ziren euskararen normalizazioa, ideiak eta proiektuak partekatzea, herriko jardueretan gazteen parte-hartzea sustatzea (Goibekokale aldizkaria argitaratzea; Asentzio Egunaren ospakizuna; trikitixa, txalaparta eta dantza ikastaroen eta kontzertuen antolaketa…). Gazteen ekimenerako gogotik jaio zen "Goibeko Kultur Elkartea" (2003).

**Kultur jarduerak:**

1987an Kultur Etxea ireki zen, eta horrek eragin handia izan zuen herriko kultur jardueran. Aldundiak utzitako Katia eraikina hartu zuen Kultur Etxeak, eta horretarako, guztiz eraberritu zen eta lau solairu egin ziren: lehenengo hiruretan askotariko zerbitzuetarako (musikarako, mendizaletasunerako, teknologia berrietarako, erakusketetarako…) gelak daude, eta azken solairuan herriko liburutegia dago, 1975etik ordura arte udaletxearen etxabe batean zegoena.

Bestetik, 2004ean eskola publikoen etxabean dagoen Auditorium Kafe Antzokia ireki zenean bultzada nabarmena eman zitzaion herriko bizitza kulturalari. Erabilera askoko areto honetan aurkeztu zen Goibeko Kultur Elkartearen eta Udalaren arteko kultur egitasmo berritzailea. Ibar osoan kultur arloko erreferente bilakatu zen proiektu honek inbertsio handia eskatu zuen bai udalaren aldetik (340.000 euro) bai Goibeko Elkartearenetik (84.000 euro) gunea egokitu eta ekipatzeko. Ireki zenetik antolatu dira kultur eta arte jarduerak eta erakusketak, eta 2010etik, Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa ere bertan dago.

## MUGIMENDU POLITIKOA

XX. mendearen hasieran, indar politiko eta sozial berriak sortuagatik, Espainiak erreinu izaten jarraitzen zuen, eta 1902tik Alfonso XIII.a zen erregea.

Mende hasierako urte haietan Elgetako botere politikoa talde karlistaren esku zegoen, zeinak alderdi politiko formal baten antolaketa baino gehiago, lagun eta familiarteko talde baten egitura zuen.

Hacia 1916 el PNV/EAJ hizo su primera aparición, movilizando pronto a algunos adeptos y simpatizantes, de modo que para 1920 funcionaba un "Batzoki" (en un piso de la casa Zeleta). Posteriormente aparecieron con fuerza los republicanos y socialistas.

Con la Dictadura de Primo de Rivera (1923-30), que fue una "dictadura con rey", se suspendió la Constitución, se disolvieron los ayuntamientos y sus corporativos eran designados directamente por el Directorio Militar, se suspendieron los partidos políticos y se clausuraron sus sedes.

Al término de esta Dictadura, se celebraron las elecciones municipales del 12 de abril de 1931, en las que triunfaron las candidaturas republicano-socialistas. El Rey se exilió y a los dos días se proclamó la II República española. Desde ese momento los partidos políticos se mostraron especialmente activos. En Elgeta resultaron elegidos siete concejales independientes, que respondían a ideologías carlistas y republicanas, y dos nacionalistas. Pero el Gobernador Civil ordenó la repetición por irregularidades en las votaciones. Y en una segunda votación los resultados fueron parecidos, pero la alianza de seis votos de concejales conservadores consiguió la promoción para alcalde de uno de ellos [44].

En las elecciones generales de junio de 1931, en el territorio gipuzkoano, iban coaligados el PNV/EAJ y la Comunión Tradicionalista (junto a varios católicos) en defensa del proyecto del Estatuto de Autonomía de Estella. En Elgeta hay un reparto equitativo de votos entre los bloques de derechas y de izquierdas.

En ese momento los electores de Elgeta optaban por un triángulo de tres partidos: los carlistas, la alianza de los republicanos-socialistas y los nacionalistas del PNV/EAJ.

Desde el inicio de este siglo los carlistas seguían organizados informalmente. En cambio, apareció la alianza de republicanos y socialistas, organizada formalmente en torno a un Centro Republicano (1931), con vinculación a la Casa del Pueblo de Eibar, e integrando a unos 65 simpatizantes. También ahora los nacionalistas del PNV/EAJ se volvieron a formalizar legalmente, reabriendo el Batzoki, y promoviendo la rama de su sindicato campesino "Eusko Nekazari Bazkuna".

El ascenso de este partido y su sindicato fue tan rápido que para el año siguiente ya eran unos 200 miembros. Además de contar con una entidad local de organización efectiva, les definían tres aspectos ideológicos: el ataque al Gobierno Español por corrupto e impotente; la denuncia del control y explotación de los jauntxos sobre el campesinado y en compensación ofrecían ayudas y préstamos a los integrantes de su partido; y la defensa de los valores vascos (dignidad del trabajo, religión, honradez, igualitarismo y autonomía), expresados en el lema nacionalista "Jaingoikoa eta Lege Zaharra".

Durante el período de la República el PNV/EAJ ejerció su hegemonía política en las distintas elecciones. Así en las elecciones generales de noviembre de 1933, el PNV/EAJ obtiene en Euskadi 12 diputados del total de 17. Y también en Elgeta obtienen una mayoría de votos.

1916an, EAJ agertu zenean, azkar erakarri zituen zenbait herritar. Alderdiaren erakarpen indar horren adierazgarri da herriko lehenengo Batzokiaren irekiera data, 1920a. Geroago, indar handiz azaldu ziren errepublikazaleak eta sozialistak ere.

Primo de Riveraren diktaduraren garaian (1923-30) konstituzioa eten zen, udalak indargabetu ziren, udalkideak hautatzeko eskubidea Direktorio Militarrak hartu zuen, alderdi politikoak deuseztatu ziren eta haien egoitzak itxiarazi ziren.

Diktadura amaitu zenean, udal hauteskundeak izan ziren 1931ko apirilaren 12an, eta alderdi errepublikazale sozialistak izan ziren garaile. Hala, erregea erbesteratu eta handik bi egunetara, Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zen. Momentu horretatik aurrera mugimendu handia izan zen alderdi politiko guztietan. Elgetari dagokionez, ideologia karlistako eta errepublikazaleko zazpi hautagai independentek eta bi abertzalek eskuratu zuten zinegotzi kargua, baina Gobernadore Zibilak irregulartasunak egon izana salatu zuenez, errepikatu egin ziren hauteskundeak. Bigarren aldi horretako emaitzak antzekoak izan baziren ere, 6 boto kontserbatzaileren arteko elkartasunari esker, horietako bat izan zen alkatetzara iritsi zena [44].

1931ko hauteskunde orokorretan batera aurkeztu ziren EAJ eta Komunio Tradizionalista (eta beste zenbait katoliko), Lizarrako Autonomia Estatutuaren alde egingo zutela hitz emanda. Elgetan eskuineko eta ezkerreko alderdiek pareko indarra zuten.

Garai horretan hiru alderdik eskuratzen zituzten boto gehienak: karlistek, errepublikazale eta sozialisten arteko aliantzak eta EAJko abertzaleek.

Karlistek mendearen hasieratik modu informal batean egituratuta jarraitzen zuten. Errepublikazale eta sozialistek, berriz, egitura formala zuten, Eibarko Herriko Etxeari loturiko Zentro Errepublikarraren (1931) inguruan antolatuta zegoena eta 65 jarraitzaile zituena. EAJko abertzaleak legezko egin ziren berriro ere Batzokia berrirekiz, eta *Eusko Nekazari Bazkuna* deituriko nekazarien sindikatua sustatu zuten.

Alderdiko eta bere sindikatuko jarraitzaile kopuruak oso azkar egin zuen gora: hurrengo urtean, 200 bat kide ziren dagoeneko. Antolaketa eraginkorreko lekuko erakunde bat izateaz landa, hiru ezaugarri ideologikok bereizten zituen beste alderdietatik: alde batetik, Espainiar Gobernuari korrupto eta inpotente izatea leporatzen zioten; beste aldetik, jauntxoen gehiegizko kontrola eta esplotazioa salatzen zuten eta nekazarien baldintza txarrak arintzeko laguntzak eta maileguak eskaintzen zizkieten partidukoei, eta azkenik, “euskal balioen” defentsa egiten zuten (lanaren duintasuna, erlijioa, zintzotasuna, berdintasuna eta autonomia), hots, “Jainkoa eta Lege Zaharra” lelo abertzalearen bidez adierazi nahi ziren balioak.

Errepublikak iraun bitartean EAJk bere hegemoniari eutsi zion. 1933ko azaroko hauteskunde orokorretan, alderdi abertzaleak 17 diputatutatik 12 eskuratu zituen Euskadin, eta Elgetari bagagozkio, hemen ere botoen gehiengoa eskuratu zuen.

Tras estas elecciones el Gobierno de Madrid quedó en manos de las derechas, desatándose un período convulso y represivo sin precedentes.

En ese mismo año de 1933 los habitantes de las tres provincias vascongadas aprobaron el Estatuto de Autonomía, que no entraría en vigor hasta otoño de 1936, una vez ya iniciada la última guerra. En Elgeta de 463 posibles electores, 430 fueron favorables y 1 adverso.

Para las elecciones generales de febrero de 1936, al final de la segunda vuelta, los resultados en las Provincias Vascongadas dieron 9 diputados al PNV, 7 al Frente Popular y 1 a la Comunidad Tradicionalista. También en Elgeta triunfó mayoritariamente el PNV /EAJ.

En cambio, en el Estado triunfó el Frente Popular. Apenas unos meses después, un grupo de militares, apoyados por las derechas españolas, incluido el carlismo vasco, dieron un golpe de estado, que desembocó en la última guerra. Y Elgeta tuvo un frente abierto durante siete meses, que la dejó parcialmente destruida (Ver Anexo III).

Con la Dictadura franquista se anularon las libertades y la representación ciudadana fue directamente impuesta. En Elgeta colaboraron con los dictados franquistas para mantener el poder político local un grupo de campesinos propietarios y de pequeños empresarios. Entre los primeros dictados franquistas aparecen: la prohibición de hablar euskara en público, la expropiación o requisa de los productos agrícolas para el racionamiento, la persecución de toda actividad política, que no fuera la oficial del régimen.

La elección del alcalde y de los ediles municipales correspondía al Gobernador Civil, pero los ediles eran presentados previamente para su aprobación desde tres sectores de la localidad: la agrupación familiar (padres de familia), el sindicato vertical, y las entidades (instituciones o sociedades).

En 1958 nació ETA, que también en Elgeta supuso una ruptura generacional en el discurrir histórico del nacionalismo vasco tradicional. En sus más de cincuenta años de actividad armada produjo un gran impacto político y social. Y algunos vecinos y vecinas del pueblo formaron parte activa de ella o colaboraron en la clandestinidad.

A mediados de los años 60 la situación social y política era cada vez más inestable e insostenible. Ese malestar se proyectó en la lucha contra la Dictadura, que tenía reflejo amplio en el ámbito de la cultura, y en los movimientos sindicales y ciudadanos.

En ese contexto, un grupo de vecinos, algunos de ellos integrantes de la Asociación de Padres de Familia, comenzó a reunirse en privado con la intención de recuperar el Ayuntamiento para el pueblo, y recoger las necesidades y exigencias de la gran mayoría de sus convecinos, recabando el apoyo de las sociedades populares.

Hauteskunde horien ondotik, Madrilgo Gobernua eskuinaren esku geratu zen. Garai gatazkatsu eta guztiz zapaltzailea izan zen.

Urte horretan bertan, 1933an, Euskadiko hiru probintziek Autonomia Estatutua onartu zuten, zeina ez zen indarrean jarriko gerrak eztanda egin zuen arte, 1936ra arte, alegia. Elgetan, 463 boto-emaileren artetik, 430 izan ziren estatutua onartzearen aldeko botoa eman zutenak eta kontrako boto bakarra egon zen.

1936ko Hauteskunde Orokorretan, bigarren bueltaren amaieran, 9 diputatu lortu zituen EAJk Euskadin, 7 Frente Popularrak eta bat Komunitate Tradizionalistak. Elgetan ere EAJ izan zen garaile.

Estatuan, ordea, Frente Popularrak eskuratu zuen garaipena. Hilabete batzuen ondoren, Espainiako eskuinaren (eta euskal karlisten) babesa zuen militar talde batek estatu golpea eman eta azkeneko gerra hasi zen. Elgetan irekitako frente bat egon zen zazpi hilabetez, eta ondorioz, suntsituta geratu zen herriaren zati handi bat. (Ikus III. Eranskina)

Diktadura frankistan askatasunak ezabatu ziren eta diktadurak ezarri zuen herritarren ordezkaritza. Elgetan agintari frankistei lagundu zieten herriko botere politikoa mantendu nahi zuten nekazari ugazaba batzuk eta zenbait enpresari txikik. Frankismoak ezarritako arauen artean, besteak beste, hauek zeuden: jendartean euskaraz hitz egiteko debekua; nekazal produktuen desjabetzea edo konfiskatzea errazionamendurako, eta erregimenarena ez zen edozein jarduera politikoren aurkako jazarpena.

Gobernadore Zibilak aukeratzen zituen alkatea eta udal zinegotziak. Halere, herriko hiru sektoreren esku egoten zen zinegotzi izateko hautagaien aukeraketa: familia taldearen esku (familiako gurasoak), sindikatu bertikala eta erakundeak (instituzio eta elkarteak).

1958an ETA sortu zen eta, euskal abertzaletasun tradizionalaren bilakabide historikoan, beste lekuetan bezala Elgetan ere belaunaldien arteko haustura ekarri zuen. Berrogeita hamar urtez luzatuko zen borroka armatuak arrasto soziopolitiko handia utzi zuen herrian. Halaber, aipatzekoa da herriko zenbait gaztek bertan aktiboki parte hartu zutela edo klandestinitatean lagundu zutela.

60ko hamarkadaren erdialdean egoera soziopolitikoa geroz eta ezegonkorragoa eta larriagoa zen. Herritarren ondoezak diktaduraren kontrako borroka ekarri zuen, garaiko kultur adierazpenek eta sindikatu nahiz herri mugimenduek erakusten dutenez.

Testuinguru horretan, herriko bizilagun batzuk (euretako batzuk Familiako Gurasoen Elkartekoak) pribatuan biltzen hasi ziren. Bilera hauen asmoa, alde batetik, udala herriarentzat berrekuratzea zen, eta bestetik, herriko elkarteen laguntzarekin, bizilagun gehienen behar eta eskakizunak jasotzea.

Este grupo de presión aprovechó las elecciones franquistas de 1967, en las que se elegían para el Ayuntamiento tres concejales de libre elección, y logró introducir a tres que participaban de sus mismas inquietudes y reivindicaciones.

Siguieron en la tarea, y para las elecciones de 1971 el grupo ya contaba con un notorio apoyo popular, enfrentado con los dirigentes locales franquistas. En esta ocasión el grupo utilizó como estrategia el presentar a tres candidatos adeptos para un único puesto por el sector de cabezas de familia, siendo elegido uno de ellos. Con este motivo se promovió una votación popular, que era la primera después de la guerra, con estos datos significativos: votó el 83% del electorado, y un 92% de los votos depositados fueron para estos tres candidatos. Como resultado de estas elecciones y la incorporación de nuevos corporativos, solo el alcalde y un concejal de representación sindical seguían fieles a las consignas franquistas.

Por fin, en diciembre de 1975 se celebraron las últimas elecciones de la "democracia orgánica" franquista, y en Elgeta el Ayuntamiento fue recuperado por este grupo de presión antifranquista, y que anteriormente algunos de ellos ya integraban el movimiento de "Grupo de Alcaldes de Bergara" (1975-79) con sus reivindicaciones democráticas, forales y de amnistía. (Ver en la nota 45 los alcaldes y secretarios de Elgeta desde 1850).

En el Anexo X se hace un resumen de datos en las distintas convocatorias electorales hasta nuestros días realizadas en Elgeta (1891-2016).

Desde la llamada Transición, tras la muerte de Franco, de los datos recogidos se pueden extraer las siguientes conclusiones:

- En las Elecciones Generales (Juntas Generales, Parlamento Vasco, Congreso de Diputados y Parlamento Europeo) el PNV/EAJ obtiene una mayoría de votos hasta el año 2009, y de ahí en adelante esa mayoría pasará a EH Bildu.

- En las Elecciones Municipales se desarrolla otro proceso: en las tres primeras (1979, 1983, 1987) se impone una candidatura independiente; en las cuatro siguientes (1991, 1995, 1999, 2003) es mayoría el PNV/EAJ; en las dos siguientes (2007, 2011) la mayoría es de Aralar; y desde las últimas elecciones de 2015 domina EH Bildu.

1967ko hauteskunde frankistetan udalerako hiru zinegotzi hautatu behar ziren eta aipaturiko presio-taldeak hauteskunde hauek beren kezka eta aldarrikapen berberak zituzten hiru hautagai zerrendetan sartzeko baliatu zituen.

Taldeak biltzen jarraitu zuen, eta herriko agintari frankistekin lehian, 1971ko hauteskundeak iritsi zirenerako herriaren babes nabarmena zuen. Taldeak hauteskunde hauetan hiru hautagai aurkeztu zituen gurasoen elkartetik kargu bakarrerako, eta aukeratua izan zena euretako bat izan zen. Gerra osteko lehendabiziko hauteskunde hauetako parte-hartzea %83koa izan zen eta azpimarratzeko datua da botoen %92a hiru hautagai horien aldekoa izan zela. Hauteskundeen ondotik, eta udalkide berriak sartzearekin batera, alkateak eta sindikatuko ordezkari zen zinegotzi batek soilik jarraitzen zuten agindu frankistei leial.

Azkenean, 1975eko abenduan egin ziren frankismoan zehar “demokrazia organiko” gisa ezagutu zen garaiko azken hauteskundeak, eta Elgetako udala presio-talde antifrankistaren esku geratu zen, zeinak dagoeneko Bergarako Alkateen Taldea (1975-79) osatzen zuen eta demokraziaren, foruen eta amnistiaren aldeko hainbat aldarrikapen egiten zituen (Ikus 45. oharrean 1850etik aurrera Elgetan izan ziren alkateak eta idazkaritzak).

X. Eranskinean laburtuta ikus daitezke ordutik gaur egunera arte (1891-2016) Elgetan izandako hauteskundeetako emaitzak.

Franco hil ondoren hasitako trantsizio garaitik hona jaso diren datuetatik ondorio hauek atera daitezke:

- Hauteskunde Orokorretan (Batzar Naguriak, Eusko Jaurlaritza, Diputatuen Kongresua eta Europako Parlamentua) EAJ da gehiengoa lortzen duena 2009ra arte, eta urte horretatik aurrera, EH Bildu.

- Udal hauteskundeetan bestelakoa da bilakaera: lehenengo hiruretan (1979, 1983, 1987) hautagai independente bat izan zen garaile, hurrengo lauretan (1991, 1995, 1999, 2003) EAJk eskuratu zuen gehiengoa, hurrengo bietan (2007, 2011) Aralarrena izan zen gehiengoa, eta 2015etik hona EH Bildu izan da gehiengoa lortu duena.

## *EL PROCESO INDUSTRIAL Y EXPANSIÓN URBANÍSTICA*

### *El proceso industrial:*

Desde la segunda mitad del siglo XIX se inicia en Euskal Herria la implantación de la industria moderna con el surgimiento de las primeras empresas. Esta industria naciente invade el fondo de los valles y se instala en los márgenes de los ríos, se construyen vias de ferrocarril y carreteras, transformando para siempre el territorio, su paisaje, sus casas y sus gentes.
En el siglo XX Elgeta, manteniéndose rural, se benefició en gran medida de la industrialización del triángulo Eibar-Bergara-Arrasate, asentados principalmente en los sectores de la fabricación armera, textil y metalúrgica. La mayor relación se estableció con Eibar, ya que Elgeta era una suministradora habitual de madera para la producción armera, y también porque en la villa surgió una pequeña empresa artesanal con trabajos auxiliares para esa industria. Ya en 1915 se contabilizaban cuatro sierras mecánicas movidas por energía eléctrica, varios talleres mecánicos, tornillerías y dos talleres de armas (Aranzabal y Cia. con 17 operarios, y Lamarain con 9 operarios).

Además, desde finales del siglo anterior algunos jóvenes de Elgeta acudieron a Eibar para aprender el oficio armero. Después de unos años de aprendizaje práctico, unos fijaron su residencia y negocio allí, pero otros retornaron para trabajar o instalarse en Elgeta [46].

Una expectativa para la creación de empleo surgió en 1926 con la explotación de una mina de mineral de hierro, en la que se abrió una galería cercana a la ermita de Asentzio y una excavación al aire libre a unos trescientos metros detrás de dicha ermita. El eibarrés Francisco Irusta Echeverría la registró en el Ayuntamiento como "Mina San José" y según las prospecciones técnicas eran de excelente mineral, pero el filón o veta terminó siendo muy limitado. Por eso la actividad de extracción quedó reducida a unos seis meses de trabajo y en este intervalo de tiempo llegó a ocupar a unas 20 personas.

Los primeros precursores industriales de Elgeta estuvieron en torno a algunos miembros de tres familias locales, los Elkoro, Zabala y Erostarbe.
Miembros de la familia Elkoro instalaron en 1892 un primer taller en Eibar, con la razón social de "Tornillería Elkoro". Su actividad industrial se concentró en el decoletaje para diferentes clientes del sector armero. En 1910 trasladó su producción a Elgeta en la calle S. Roke, con el objeto de ampliar su negocio a nuevos sectores industriales (herramientas, cerrajería...). Para 1986 la empresa ya consolidada se reubicó en una nueva nave industrial en el polígono de Berraondokoa.

En el año 1992 el actual grupo societario adquirió la propiedad del negocio, que fue ampliado cinco años más tarde con la incorporación de una nueva empresa ("Eibar Decoletaje", fundada en 1955).

En 1999 se constituyó como grupo con la creación de la razón social "Elkoro Decoletaje", que fusiona los

## INDUSTRIA PROZESUA ETA HIRIGINTZAREN HAZKUNDEA

### Industria prozesua:

XX. mendearen bigarren erditik aurrera lehendabiziko enpresak ireki zirenean ezarri zen Euskal Herrian industria modernoa. Ibarren erdialdean eta ibai inguruetan kokatu zen jaiotzen ari zen industria berria, eta berarekin batera, lurra, paisaia, etxeak eta herritarrak eurak eraldatuko zituen trenbideen eta errepideen eraikuntza etorri zen.
Elgeta XX. mendean oraindik nekazal gunea bazen ere, onura lortu zuen armagintza, ehungintza eta metalurgia sektoreak garatzen ari ziren Eibar-Bergara-Arrasate triangeluko industrializaziotik. Harremanik estuena Eibarrekin ezarri zen. Elgeta armen ekoizpenerako beharrezkoa zen egurraren ohiko hornitzailea zen eta, horrez gain, armen industriarako artisau enpresa txiki bat ere sortu zen herrian. 1915ean energia elektrikoz zebiltzan lau zerra mekaniko, hainbat tailer mekaniko eta bi arma tailer (Aranzabal eta Cia, 17 langile zituena, eta Lamarain, 9 langilekoa) zeuden.

Gainera, aurreko mendeko amaieratik Elgetako gazte batzuek Eibarrera jo zuten lanbide armagina ikasteko asmoz. Zenbait urteko praktikaren ostean, euretako batzuk bertan ezarri ziren eta hantxe jarri zuten negozioa, eta beste batzuk, aldiz, Elgetara itzuli ziren bizitzera edota lanera [46].

1926an lan itxaropena sortu zen mineral-meatze baten ustiategia zabaldu zenean. Hori dela eta, Asentzio ermitatik gertu galeria bat ireki zen eta handik hirurehun bat metrora indusketa gune bat aire zabalean. Francisco Irusta Echeverría eibartarrak “Mina San José” gisa erregistratu zuen udalean eta prospekzio teknikoen arabera kalitate bikaineko minerala zen. Tamalez mea zaina oso mugatua suertatu zenez, erauzketa jarduerak ez zuen sei hilabete baino gehiago iraun eta tarte horretan 20 langilek egin zuten lan.

Elgetako industriaren hastapenetan hiru familia-izen nabarmendu ziren, Elkoro, Zabala eta Erostarbe, hain justu.
Elkorotarrek 1892an ireki zuten lehenengo tailerra Eibarren. “Tornillería Elkoro” zuen izena eta armagintzarako piezen fabrikaziora zegoen bideratuta. 1910ean, industria sektoreko esparru gehiagotara (erramintagintzara, serrailagintzara…) zabaltzeko asmoz, Elgetako San Roke kalera lekualdatu ziren. 1986rako dagoeneko ondo finkatuta zegoen eta Berraondokoa poligonoko industria-nabe berri batean kokatu zen.

1992an egungo bazkide-taldea egin zen negozioaren jabe eta handik bost urtera handitu egin zen, beste enpresa bat (1955ean sortutako “Eibar Decoletaje” lantegia) eranstean.

1999an talde gisa eratu zen “Elkoro Decoletaje” izen sozialarekin. Honek Elkoro Tornillería eta Eibar

medios productivos de Tornillería Elkoro y Eibar Decoletaje en una nueva nave de 2.500 $m^2$ del polígono de Pagatza. De ahí en adelante incorpora cuatro nuevos centros productivos ubicados en varios lugares (Orcoyen, China, Vitoria-Gasteiz y Mendaro). El grupo está enfocado hacia actividades conjuntas de mecanizado, curvado de barra/tubo y taladrado profundo.

La familia Zabala comenzó a trabajar en la fabricación de escopetas de caza y tiro para comienzos de los años 30. En su inicio cuatro hermanos estaban unidos en la fabricación, pero a partir de los años 60 formaron talleres independientes, dos en Elgeta y otros dos en Bergara y Zaldibar. El taller matriz de Elgeta pronto se convertirá en una empresa extensiva, llegando a ocupar a unas cien personas en los años de máxima actividad. En ello influyó la exportación de su producción, ampliando su mercado progresivamente a varios países (EEUU, Francia, Argentina, Italia, Sudáfrica, Australia, Noruega, Canada, Chile, Nigeria...). Esta empresa cerró sus puertas en el año 2010.

La familia Erostarbe estuvo ligada a "Muebles El Modelo" en la fabricación de muebles de todos los estilos. En esta empresa tuvieron alguna participación durante un tiempo los cinco hermanos Erostarbe Olañeta (Jose Mari, Felipe, Luis, Juan y Eugenia). Iniciaron la actividad en 1932 con Felipe, que había aprendido ebanistería, y Jose Mari, el hermano mayor, en un pequeño taller localizado en un bajo de un edificio de la Plaza. A los tres años se trasladaron a una amplia nave en Berraondokoa, cuyo edificio se libró en buena parte de los bombardeos de la guerra. Al desaparecer la vida comercial con la guerra y varios años después de ella, la actividad de esta pequeña empresa no renace hasta 1943. Desde ese año su expansión es tal que para 1951 tiene una plantilla de cuarenta trabajadores y procede a una primera ampliación de las instalaciones.

En los siguientes años la empresa se ve afectada por tres incendios sucesivos, y en su reconstrucción se emplean materiales más sólidos e incluso se amplían considerablemente las anteriores instalaciones.

En 1976 la empresa se extiende a una nave de un Polígono de Zumaia, distante 30 km. Ambas instalaciones estaban pensadas para completarse, con unos ciento cincuenta trabajadores. De modo que en la fábrica matriz de Elgeta se preparaban las primeras piezas sueltas, y para ello contaba con aserraderos, esterilización y disecación de maderas; y en la nueva fábrica de Zumaia se realizaba el montaje de aquellas piezas. Esto suponía el traslado de los materiales y de algunos trabajadores de la empresa. La empresa tuvo también comercios y exposiciones de su producción, dos en Eibar y tres en Bilbao. El cierre definitivo de la empresa se produce en 1982.

En 1962 se constituye la Cooperativa "Dormicoop Muebles" con nueve socios fundadores, y con el objeto de fabricar muebles, especialmente dormitorios. La primera instalación se asienta en la casa Torre-zar, la segunda en un pabellón de la calle Salbador y allí permanecen durante trece años llegando a unos cuarenta trabajadores. La tercera instalación y definitiva se ubica en 1977 en un nuevo edifico del Polígono Jalotza, ampliando su producción a muebles de salón y armarios, y llegando a un máximo de sesenta trabajadores. Coincidiendo con la crisis económica general se produce en 1988 el cierre definitivo de esta Cooperativa.

Decoletaje enpresen ekoizpen-baliabideak bereganatu zituen, eta nabe berri batean kokatu zen, Pagatza industrialdeko 2500 $m^2$-ko lantegi berri batean. Ordutik hona ekoizpenerako lau zentro berri ireki dituzte Orkoienen, Txinan, Gasteizen eta Mendaron, eta mekanizazioko, barra eta hodi kurbatzeko eta taladro sakoneko jardueretara daude bideratura.

Zabala familia 30eko hamarkadaren hasieran hasi zen ehizarako eta tirorako eskopeten fabrikazioan. Hasieran batera egiten zuten lan lau anaiak, baina 60ko hamarkadan lau tailerretan banatu ziren, Elgetan bi, Bergaran bat eta Zaldibarren beste bat. Elgetako tailer nagusia azkar hazi zen eta jarduera handieneko urteetan ehun bat laguni ere eman zien lana. Horretan eragina izan zuen ekoizpena esportatzeak (EEBBetara, Frantziara, Argentinara, Italiara, Hego Afrikara, Australiara, Norvegiara, Kanadara, Txilera, Nigeriara…). Dena den, enpresa itxi egin zen 2010ean.

Erostarbe familia "Muebles El Modelo"-ko estilo askotako altzairugintzari lotuta ageri da. Denbora tarte batez Erostarbe Olañeta familiako bost anaia-arrebak (Jose Mari, Felipe, Luis, Juan eta Eugenia) jardun ziren enpresan lanean. 1932an hasi zuten jarduera ebanisteria ikasitako anaia Felipek eta Jose Maria anaia zaharrenak Plazako eraikin bateko etxabe batean zegoen tailer txiki batean. Handik hiru urtera Berraondokoako nabe handi batera lekualdatu ziren. Nabe honek gerrako bonbardaketetan ia ez zuen kalterik jasan. Gerraren ostean komertzioa desagertu zenez, ez zen 1943ra arte berpiztu enpresa txiki honetako jarduera. Hala ere, urte hartatik aurrera horren hazkunde handia izan zuen, 1951. urterako berrogei langile zituen eta instalazioak handitu beharra izan zuen.

Hurrengo urteetan hiru sute izan ziren jarraian eta berreraiketan material solidoagoak erabili ziren eta instalazioak haunditu ziren.

1976an enpresatik 30 km-ra dagoen Zumaia industrialdeko beste nabe bat ere hartu zuten. Elkar osatzen zuten bi lantegi hauetan orotara ehun eta berrogeita hamar bat langile ibili ziren lanean. Elgetako lantegi nagusian lehenik pieza solteak prest uzten ziren, zerrategi, esterilizazio eta lehortze prozesuen bidez, eta Zumaiako fabrika berrian piezen muntaketa egiten zen. Horrek materialen eta langile batzuen tokialdaketa eragiten zuen. Enpresak bere ekoizpenaren komertzio eta erakusketarako bi gune izan zituen Eibarren eta hiru Bilbon. 1982an itxi zen betiko.

1962. urtean "Dormicoop Muebles" kooperatiba sortu zen bederatzi bazkideren artean altzariak oro har eta logelak bereziki egiteko helburuarekin. Lehendabizi Torre-zar etxean kokatu zen eta geroago Salbador kaleko pabilioi batean ezarri ziren hamahiru urtez. Azken horretan 40 langile izatera ere iritsi ziren. Hirugarren eta azkenik, 1977an, Jalotza industriguneko eraikin berri batean kokatu zen enpresa, eta bertan zeudela zabaldu zuten ekoizpena salako altzari eta armairuetara. Hemen hirurogei langile izatera ere heldu ziren. 1988ko krisialdi ekonomiko orokorrarekin batera itxi zen behin-betiko kooperatiba hau.

Veamos a modo de resumen la evolución industrial de Elgeta a partir de la segunda mitad del siglo XX:

- Al inicio de los años 60 el número total de trabajadores era de 145 en el ámbito de actividad mayoritaria de la fabricación de muebles, escopetas y sus diversas operaciones complementarias; y más reducida en tornillerías, fabricación de géneros de punto y construcción.

- Con los años 70 aumenta la ocupación a 250 trabajadores, la mayoría residentes en Elgeta, y en la actividad preferente de fabricación de muebles y escopetas.

- A comienzos de los años 80 se mantenía un número de 215 ocupados y un parecido ámbito de actividad industrial. En esta década se comienza a favorecer desde el Ayuntamiento la revitalización del tejido industrial, ofreciendo facilidades para la ubicación, planificación y la ordenación de las empresas tradicionales asentadas en el casco urbano, y de otras posibles venidas de fuera del municipio. Con esta intención se promueven varios polígonos industriales: el polígono Pagatza, sobre una superficie útil de unas 10 hectáreas, en la vía de salida hacia Elorrio; el polígono Jalotza, en las cercanías de Ubera (Bergara); el polígono Berraondokoa, integrado en las inmediaciones del casco urbano; y otras empresas diseminadas entre las viviendas y edificaciones del casco urbano.

- Al principio de la década de los años 90 desciende la ocupación a 185 trabajadores, como consecuencia del cierre de las dos fábricas de muebles (El Modelo y Dormicoop) en la década anterior, pero se equilibra con la aparición de otras empresas en el nuevo polígono de Pagatza. El ámbito de actividad se centraba en once empresas de transformación de metales (forja y estampación, artículos metálicos, talleres mecánicos); una empresa de productos minerales no metálicos; una empresa de fabricación de productos de molinería; una empresa de construcción.

- Con el siglo XXI aumenta la ocupación a 615 trabajadores, con las empresas y trabajadores venidos de fuera del municipio. La mayor actividad se centra en el sector de la transformación de metales con una especializada diversificación [47].

En este último período, a partir de la crisis económica de 2007, la actividad industrial se reduce a una mitad de empresas establecidas en Elgeta, con un paro en el municipio de evolución creciente y que en el momento actual se mantiene en torno al 10% [48].

Ikus dezagun beraz labur-labur Elgetako garapen industriala XX. mendeko bigarren erditik aurrera:

- 60ko hamarkadaren hasieran 145 langile zeuden herrian; euretako gehienak altzarien eta eskopeten fabrikazioan eta hauen ekoizpenak sortutako lanpostu osagarrietan, eta gutxiago torlojugintzan, puntu-lanen fabrikazioan eta eraikuntzan.

- 70eko hamarkadan 250era igo zen langile kopurua. Gehienak Elgetan bertan bizi ziren eta altzari eta eskopeten fabrikazioan jarduten zuten lanean.

- 80ko hamarkadaren hasieran 215 langile zeuden eta jarduera industrialak lehengo joera jarraitzen zuen. Hamarkada honetan hasi zen Udala herriko sare industriala suspertzeko ahaleginak egiten herrigunean zeuden betiko enpresei eta kanpotik etor zitezkeenei erraztasunak emanez kokapen, plangintza zein antolaketa kontuetan. Xede honekintxe bultzatu ziren: Pagatza industrigunea, Elorrioranzko irteerako 10 hektareako azalera erabilgarri batean; Jalotza industrigunea, Ubera (Bergara) inguruan; Berraondokoa industrialdea, herriguneko aldirietan; eta herrigunean zehar sakabanatutako beste enpresa batzuk.

- 90eko hamarkadaren hasieran 185era jaitsi zen langile kopurua bi altzari lantegiak (El Modelo eta Dormicoop) aurreko hamarkadan itxi izanak eraginda. Dena den, egoera nolabait orekatu zen Pagatzako industriguneko enpresa batzuen irekierari esker. Jarduera industrial nagusia metalen eraldaketako hamaika enpresatatik (forja eta estanpazioa, artikulu metalikoak, tailer mekanikoak), produktu mineral ez-metalikoko enpresa batetik, errotarako produktuen fabrikaziora bideratutako enpresa batetik eta eraikuntza enpresa batetik zetorren.

- XXI. mendea hasi zenean zenbait enpresa eta langile etorri ziren kanpotik eta herrian orotara 615 langile zeuden. Jarduerarik handiena metalen eraldaketaren sektorean zegoen eta dibertsifikazio berezitua zuen [47].

Aldi honetan, 2007an hasitako krisialdi ekonomikotik aurrera, erdira murriztu ziren jarduera industriala zuten Elgetako enpresak, eta langabeziak gorako joera izan zuen urte batzuetan. Orain %10 inguruan mantentzen da [48].

***La expansión urbanística:***

En consonancia con esta industrialización, se produjo una expansión urbanística.

Al terminar la última guerra la Villa quedó parcialmente destruida, y la construcción de 40 viviendas era requerida como una necesidad urgente. Pero a partir de 1942 los organismos oficiales solo reconstruyeron el ayuntamiento, parte de la iglesia, la alhóndiga y algunas viviendas. Durante al menos quince años esta situación persistió, y solo a partir de 1957 hasta 1965 se construyeron 74 viviendas, de ellas 14 de iniciativa municipal y 60 de iniciativa privada. En los diez años siguientes se proyectaron otras 70 viviendas.

Y a partir de los años 90, se construyeron unas 70 viviendas privadas, unas 48 viviendas bifamiliares y chalets, también privadas, y unas 38 viviendas de protección oficial. Con esas 156 últimas viviendas se cubrieron ampliamente las demandas de la propia población, y la variada oferta atrajo a otros residentes de fuera del municipio.



*Vista norte de la villa de Elgeta.*
Elgetaren iparraldeko ikuspegia.

## **Hirigintzaren hedapena:**

Industrializazioarekin batera etorri zen hirigintzaren hedatzea.

Azkeneko gerrak herrian eragindako txikizioaren ondorioz 40 etxebizitza eraikitzeko premia zegoen. Hala ere, erakunde ofizialek 1942tik aurrera egindako eraikuntza lanetan udaletxea, elizaren zati bat, alondegia eta etxebizitza batzuk bakarrik berreraiki zituzten. Hamabost urtez luzatu zen egoera hau, harik eta 1957tik 1965eko tartean 74 etxebizitza eraiki ziren arte. Horietako 14 udalaren ekimenez eraiki ziren eta 60 ekimen pribatuei esker. Hurrengo hamar urteetan, berriz, 70 etxebizitza egin ziren.

90eko hamarkadatik aurrera beste 70 bat etxebizitza pribatu eraiki ziren, 48 bat etxebizitza bifamiliar eta txalet eta 38 bat babes ofizialeko etxe. Azken 156 etxebizitza horien eraikuntzak herritarren beharrak asebete zituzten eta herritik kanpokoak ere erakarri zituen eskaintza zabalak.



Elgetaren hegoaldeko ikuspegia.
*Vista sur de Elgeta.*

## ARQUITECTURA RELIGIOSA

### LA IGLESIA PARROQUIAL DE SANTA MARÍA DE LA ASUNCIÓN

Esta Iglesia se ubica en el centro del núcleo urbano de Elgeta, detrás del Ayuntamiento, separada por la plaza ajardinada de Andra Mari, y en una esquina de ella se levanta una estatua a un nativo del pueblo, el obispo Martin Elorza [49].

No hay memoria de la primera construcción de esta iglesia. Se documenta en 1339 una asamblea vecinal en el "cementerio de Santa María de Elgeta" para concretar los lindes del municipio. En esa referencia no se precisa cuál es esa iglesia, y si existiera alguna se habría construido al poco de fundarse la villa [50].



*Interior de la iglesia parroquial*
Eliza nagusiaren barrualdea

## 6. ONDARE HISTORIKOA

### ARKITEKTURA ERLIJIOSOA

#### JASOKUNDEKO AMAREN ELIZA NAGUSIA

Eliza hau Elgetako erdialdean kokatuta dago. Udaletxearen atzealdean dago eta bien artean Andra Mari plazako lorategiak daude. Izkina batean Martin Elorza apezpiku elgetarraren omenezko estatua dago [49].

Ez dago eliza honen eraikuntzari buruzko berririk. 1339ko dokumentu batean azaltzen denez, “Elgetako Andra Mariaren hilerrian” egin zen bizilagunen arteko bilera bat udalerriaren mugak zehazteko. Dena den, aipamen horretan ez da zehazten elizaren izena, nahiz eta pentsatzekoa den, elizarik bazen, udalerria sortu eta handik gutxira eraikiko zela [50].



Eliza nagusiaren aurrealdea
*Fachada de la iglesia parroquial*

En otros primeros escritos aparece como “Santa María de Maya”. Y desde el siglo XVI está documentada como correspondiente al linaje de los Guevara de Oñati, que durante varios siglos ejercieron su patronazgo para cobrar los diezmos y contratar a los eclesiásticos beneficiados.

La estructura gótica actual se mantiene desde su reconstrucción y ampliación en el siglo XVI, de la que son vestigios la puerta occidental, actualmente tapiada, y las ventanas ojivales. Durante la última guerra quedó parcialmente derruida por los intensos bombardeos, aunque parece que era respetada no tanto como símbolo religioso sino más bien como punto de referencia para la aviación fascista.

A los seis años años de terminada la contienda se procedió a su reconstrucción.

La iglesia presenta una nave con cabecera o ábside semicircular, una torre y un pórtico que rodea la mitad de la iglesia.

La nave es de planta rectangular de 24’5 x 18’6 metros, dividida en tres tramos, y el añadido del ábside es de 3’2 x 8’9 metros. Al final de la nave se levanta un coro de madera con  órgano, en un espacio de 5’30 x 18’60 metros. En esta nave los espacios que se forman entre los arcos formeros se unen mediante bóvedas de crucería. Estos arcos se apean en columnas cilíndricas adosadas a los muros laterales. A su vez, los nervios de las bóvedas descargan en columnas de estilo gótico, y están pintados de marrón claro, los plementos de blanco y las claves de rojo con dibujos decorativos ornamentales. Por la parte exterior, sujetan el edificio varios contrafuertes.

En el suelo de la nave se mantienen los enterramientos de tumbas familiares, delimitadas y numeradas desde el enlosado transversal anterior hasta el fondo del coro.

La torre fortificada del campanario, de planta cuadrangular y de estilo neoclásico, fue construida de sillar en 1587. Se compone de tres cuerpos, separados por medio de una moldura. En el primer cuerpo se abre un óculo, y en cada uno de los dos superiores, dos vanos de arco semicircular, para dar cobijo en el último cuerpo a seis campanas fundidas y colocadas en 1659.

El pórtico, la entrada meridional y la sacristía fueron innovados al estilo neoclásico (siglos XVIII-XIX). Con el plan de reconstrucción de Elgeta en 1946 se continuó el pórtico y ocultó a la entrada de la iglesia un amplio ventanal gótico de especial valor artístico.

Este pórtico presenta dos frentes: el principal en la plaza de Andra Mari, y el lateral que da a la calle San Roke. En el frente principal se abren cuatro vanos, y debajo de cada uno de ellos cuatro arcos semicirculares; entre el primero y el segundo, coincidiendo con la puerta de entrada principal, se abre un gran arco semicircular entre dos pilastras. Este a su vez sujeta el entablamento, con friso y cornisa, y remata en la parte superior un frontón ciego, sin imágenes ni relieves. En la ornamentación del friso se ofrecen triglifos (tres pequeños canales), alternando con treinta metopas (o paneles decorados con temas varios).

Beste idazki batzuetan, aldiz, Maiako Andra Maria (Santa María de Maya) izenez azaltzen da. XVI. mendetik Oñatiko Guevaratarrei lotuta egon zen eliza, eta hala, mendeetan zehar izan zuten eskubidea hamarrenak kobratu eta benefiziaduak kontratatzeko.

XVI. mendean berreraiki eta handitu zenetik dauka egungo egitura gotikoa eta horren ezaugarri diren mendebaldeko atea (horma bihurtua) eta leiho zorrotzak. Azkeneko gerrako bonbardaketek neurri batean suntsituta utzi bazuten ere, badirudi errespetatu egin zutela nolabait eliza, ez ziurrenik erlijio ikur izateagatik, baizik eta erreferentzia puntu gisa baliagarria zitzaielako hegazkin faxistei.

Gerra amaitu eta handik sei urtera hasi zen berreraiketa.

Elizak abside erdizirkulardun nabea, dorrea eta elizaren erdia inguratzen duen ataria ditu.

Nabea angeluzuzena da, 24'5 x 18'6 metrotakoa, eta hiru zatitan dago banatuta; aldiz, absidea 3'2 x 8'9 metrotakoa da. Nabearen amaieran egurrezko korua eta organoa daude 5'30 x 18'60 metrotako espazioan.
Nabeko arkuak gurutze gangen bidez daude lotuta. Hegaletako hormetara atxikitako zutabe zilindrikoen bidez eusten dira arkuok, eta era berean, gangen nerbioak estilo gotikodun zutabe batzuetaraino iristen dira. Gangak kolore marroi argiz daude pintatuta, plementuak zuriz eta giltzarriak gorriz marrazki apaingarriekin. Kanpoaldean, hainbat horma bularrek eusten dute eraikina.

Nabeko lurrean zenbait familiaren hilobiak ikus daitezke, mugatuta eta zenbatuta, aurreko zehar-lauzaduratik koruaren amaierara arte.

Kanpandorreko dorre gotortuak, lau angeluko forma eta estilo neoklasikoa ditu, eta harlanduz egin zen 1587an. Hiru atal ditu, moldura batez bereiziak. Lehenengoan, idi begi bat ikus daiteke, eta beste bietan, zirkuluerdi formako arkuzko bao bi, zeintzuek 1659tik goiko atalean dauden burdinurtuzko sei kanpaiak babesten dituzten.

Eliz ataria, hegoaldeko sarrera eta sakristia estilo neoklasikoaren arabera berritu ziren (XVIII-XIX mendeetan). Elgetaren 1946ko berreraiketa plana zela eta, eliz atariaren eraikuntzarekin jarraitu zen. Lan horien ondorioz, eliz sarreratik ikus zitekeen balio artistiko handiko leihate gotiko zabala ezkutatuta geratu zen.

Eliz atariak bi sarrera ditu: nagusia, Andra Mari plazakoa, eta albokoa, San Roke kalera ematen duena. Sarrera nagusian lau bao daude eta irekidura bakoitzaren azpian lau arku erdizirkular. Lehenengo eta bigarren baoen artean (sarrera nagusiko atearekin bat eginez), bi pilastraren tartetik ateratzen den arku erdizirkular handi bat dago. Azken honek, friso eta erlaizdun taulamendua nahiz irudirik eta erlieberik gabeko frontoia eusten ditu. Frisoaren apaindura triglifo batzuek (hiru kanal txikik) eta hogeita hamar metopak (askotariko gaiak dituzten panelak) osatzen dute.

En el frente lateral del pórtico, orientado a la calle S. Roke, se abren tres vanos y debajo tres arcos semicirculares, rematados con friso y cornisa. También aquí en el friso se muestran otras 15 metopas o paneles decorados.

Esta iglesia ofrece valiosas obras de arte con una reciente y especializada restauración:

*a) Obras de arte en el interior de la nave de la Iglesia:*

- *Los tres retablos de la iglesia:* mirando al crucero, el central barroco de la Asunción (1684), el lateral derecho renacentista de los santos apóstoles Santiago el Mayor y Andrés (1567), y el lateral izquierdo barroco de San Sebastián (s. XVII). A los tres retablos se hace más amplia referencia en el Anexo VIII.

- *La Andra Mari de Uriarte* del siglo XIV, traída de la ermita de su nombre, y que ahora restaurada preside el retablo central (ver página 97).
  Esta bella imagen tallada en madera y policromada, de un metro de altura, representa a la Virgen con el Niño Dios. Se sienta en un medio trono, con rostro sereno y jubiloso. Sus vestimentas policromadas realzan la armonía y elegancia de la imagen.
  La Virgen está concebida como trono del Niño Dios, en su mano derecha ofrece la flor de Jessé (profecía genealógica de Isaías), y en la izquierda sujeta al Niño en sus rodillas. Este está sentado y, más que un niño, parece un adulto diminuto, flaco y de perfil angular, que erige su mano derecha en actitud docente, y en la izquierda sostiene la manzana horadada del pecado original.

- *Los dos sepulcros monumentales:* (ver Anexo IX sobre las familias Olaegui e Ibarra).
  *El sepulcro gótico de Ochoa Donor-d-Olaegi* (1473), situado en el lateral izquierdo al lado de la puerta de la sacristía, está enmarcado en un retablo renacentista de doble arco, rematado con dos escudos correspondientes a los apellidos "Ibarra" (tres corazones) y "Olaegui" (una estrella grande dorada y siete pequeñas), que es este último el promotor del sepulcro. En ese doble arco, uno es puerta de la sacristía y el otro acoge la tumba.
  Es un sepulcro de estilo gótico en alabastro. El difunto descansa en dos grandes almohadones, viste a la usanza de la época y conforme a su categoría de "grande e vasallo del rey". A sus pies un león, con sus fauces abiertas, recibe en ellas el extremo de la lanza que Ochoa lleva en sus manos.
  *El sepulcro renacentista del Inquisidor Martin Saez de Ibarra* (1563), labrado en mármol blanco y situado en el lateral derecho, al lado del retablo de San Sebastián. El difunto viste bonete y toga, lleva en la mano un libro y un gran rosario que cae sobre el cuerpo. Apoya la cabeza en almohadones ornamentados. Un león se posa a sus pies, y junto a él aparece la balanza como símbolo de la justicia.

- *La Pila Bautismal gótica* (s. XV).

- *El Púlpito barroco* (s. XVII).

San Roke kalerantz ematen duen eliz atariaren aldean, hiru bao daude eta hauen azpian hiru arku erdizirkular; hauek ere friso eta erlaizdunak. Friso hauetan 15 metopa (edo apaingarridun panel) ikus daitezke.

Elizan artelan baliotsuak aurki daitezke, espezialistek berriki zaharberrituak:

*a) Elizako nabearen barruko artelanak:*

- *Elizako hiru erretaulak:* Gurutzadurara begira, Jasokundeko erdigune barrokoa (1684), eskuin aldeko Done Jakue eta Andres apostolu santuak (1567) eta ezker aldeko San Sebastian barrokoa (XVII. mendea). Hiru erretaulei buruzko informazio gehiago topa daiteke VIII. Eranskinean.

- XIV. mendeko *Uriarteko Andra Mari*: Izen bereko ermitatik ekarritako eta zaharberrituriko irudi hau erretaula nagusian gailentzen da (ikus 97. orria).
  Zizelkatutako eta polikromatutako egurrean eginiko irudi ederrak metro batetako luzera du eta Ama Birjina irudikatzen du Jesus Haurrarekin. Tronu erdian dago eserita, pozez beteriko begitarte bare batekin. Jantzi polikromatuek irudiaren harmonia eta dotorezia areagotzen dute.
  Jesus Haurraren tronu gisa dago Birjina. Bere eskuineko eskuan Jesseren zuhaitzeko lorea (Isaiasen profezia genealogikoa) dauka eta ezkerreko eskuarekin haurrari eusten dio. Jesus Haurra eserita dago eta, haurra baino gehiago, gizon heldu ñimiño eta argal bat dirudi, profil angeluarrekoa. Eskuin eskua irakasle jarreraz jasoa du eta ezkerrarekin jatorrizko bekatuaren sagarra heltzen du.

- *Monumentuzko bi hilobiak:* (ikus Olaegi eta Ibarra familiei buruzko IX. Eranskina)
  *Ochoa Donor-d-Olaeguiren hilobi gotikoa* (1473). Ezkerraldean kokatua, sakristiako atearen ondoan. Arku bikoitzeko erretaula errenazentistan kokatua dago eta bi abizenen ezkutuak ditu, Ibarra familiarena (hiru bihotz) zein Olaeguitarrena (urrezko izar handi bat eta zazpi txiki). Azken hori hilobiaren sustatzailea zenaren abizena da. Arku bikoitzean, bat sakristiarako atea da eta besteak hilobia hartzen du.
  Estilo gotikoko harzurizko hilobia da. Hildakoak burko handi biren gainean hartzen du atseden eta garaiko ohituren arabera dago jantzita “handi eta erregearen basailu” kategoriak eskatu bezala. Bere oinpean lehoi bat ageri da, ahutzak irekita, eta hauetan du Ochoak eskuetan daraman lantzaren punta.
  *Martin Saez de Ibarra Inkisidorearen hilobi errenazentista* (1563), marmol zurian landua eta eskuin aldean kokatua, San Sebastianen erretaularen ondoan. Hildakoak boneta eta toga ditu soinean eta eskuan liburu bat eta errosario handi bat (gorpuaren gainean eroria) daramatza. Burua burko apainduen gainean dauka jarria. Lehoi bat du oinetan eta haren ondoan balantza bat ageri da justiziaren ikur gisa.

- *Ponte gotikoa* (XV. mendea).

- *Pulpitu barrokoa* (XVII. mendea).

- *El Órgano neogótico* (romántico o sinfónico) realizado por José Amezua (1895) en el coro de madera. Tuvo una primera restauración en 1943.

- *El Paso procesional de la Sepultura de Jesús* (siglo XVII) (escultura que se presume de la escuela vallisoletana de Gregorio Hernández).

*b) Obras de arte en el interior de la sacristía:*

- *La Santa Ana de Uriarte* (s. XIV), traída de la ermita de ese mismo nombre. Es una valiosa talla del gótico-popular arcaizante, con una altura de 0'75 metros y de madera policromada. Como imagen generacional presenta a Santa Ana, sustentando en la mano izquierda a su hija (María) y ésta a su hijo (Jesús), y en la mano derecha ofrece la palma victoriosa de su fecundidad.



*Imagen de Santa Ana.*
Santa Anaren irudia.

- *Organo neogotikoa* (erromantikoa edo sinfonikoa), José Amezuak egina (1895) eta egurrezko koruan kokatua. 1943an zaharberritu zen lehendabizikoz.

- *Jesusen Hilobiko prozesio igarobidea* (XVII mendea) (ustez Gregorio Hernándezen Valladolideko eskolakoa).

*b) Sakristiaren barruko artelanak:*

- *Uriarteko Santa Ana* (XIV. mendea), izen bereko ermitatik ekarria. Arkaismo joerako gotiko herrikoieko tailla baliotsua, 0'75 metroko luzerakoa eta egur polikromatuzkoa. Belaunaldien arteko hariaren irudi gisa Santa Ana aurkezten du ezkerreko eskuan alaba Maria eusten duelarik, eta honek bere seme Jesus duela. Mariak eskuineko eskuan bere ugalkortasunaren ahur garailea erakusten du.



Andra Mariren irudia.
*Imagen de Andra Mari.*

- *El San Prudencio de Uriarte* (s. XIV), también traído de esa ermita. Es una talla, de un metro de altura, en la que el santo se viste con la indumentaria y el báculo de obispo, dando la bendición.
  Este santo nació en Armentia (Araba), vivió hacia el siglo VI sin conocer fechas concretas, y murió en Burgo de Osma (Soria). Fue anacoreta, clérigo y obispo de Tarazona (Zaragoza). Es patrón de Araba desde 1644.

- *La Santa María Magdalena* de la ermita del Hospital de la Villa con esa denominación (s. XVII).
  Esta imagen, barroca de madera policromada con suntuoso vestido, es un modelo de Magdalena arrepentida o que renuncia a su vida desordenada al encuentro con Cristo. Y presenta dos atributos muy característicos de esta santa: uno es la cabellera suelta y caída sobre sus hombros, con la que enjugó los pies de Cristo después de perfumarlos; otro atributo es la actitud de arrepentimiento con la mirada afligida hacia el crucifijo, que es el símbolo de la redención.



*Imagen de San Prudencio.*
San Prudentzioren irudia.



*Imagen de Santa María Magdalena.*
Santa Maria Magdalenaren irudia.

- *Uriarteko San Prudentzio* (XIV. mendea), ermita beretik ekarria hau ere. Metro bateko altuera duen tailla da. Santua apezpikuen jantzi eta makuluarekin ageri da, bedeinkapena emanez.
  Santu hau Armentian (Araban) jaio zen eta VI. mendearen inguruan bizi izan zen. Burgo de Osman (Soria) hil zen. Eremutarra, elizgizona eta Tarazonako (Zaragoza) apezpikua izan zen. Arabako patroia da 1644tik.

- *Santa Maria Magdalena* herriko ospitaleko ermitatik ekarria (XVII. mendekoa).
  Egur polikromatuzko irudi barroko honetan luxu handiko jantziekin ageri da Magdalena, damututa, ordenarik gabeko bere bizitzari uko eginez eta Kristorekin elkartuz. Santa honen bi ezaugarri berezgarri ageri dira: batetik, adats soltea eta sorbaldan eroria, Kristoren oinak lurrindu ondoren haiek lehortzeko erabili zuen berbera, eta bestetik, errendizioaren irudia den damu eta atsekabezko begirada, gurutzera zuzendua.



Triptiko flandriarra.
*Tríptico flamenco.*

- *El tríptico de la Sagrada Familia* (representación que se intuye en un descanso de su huída a Egipto extraída de un relato apócrifo).

  La obra fue donada y traída de Flandes por Juan Bautista de Aramburu, insigne marino y nativo del caserío Sostoa (Zesto Gainkua) de Elgeta. La autoría, catalogada desde los años ochenta, es de Marcellus Coffermans, un pintor flamenco del siglo XVI.

  Este valioso tríptico, de un metro de alto y un metro setenta de ancho, ofrece tres tablas.

  En la tabla central y mayor se representa a la Virgen sedente con el Niño en su regazo, y a su lado derecho San José ensimismado, quitándose las lentes se ha detenido en su lectura. Ante el Niño, desnudo, hay un joven ángel ofreciéndole un racimo de uvas, en clara alusión a su pasión futura y al rito eucarístico (transformación del pan y el vino en su cuerpo y sangre). Tras esta escena del primer plano se ve un paisaje de aspecto flamenco, salpicado de diversas construcciones, caminos y figuras.

  En la tabla derecha está el retrato del donante, en posición de orante, vestido a la usanza de su condición noble e identificado por una inscripción ("Juan Bautista Aramburu Aetatis Sua [...8]") y le acompaña el blasón familiar de los Sostoa (Zestoa) (en el cuartel central un árbol y cinco peras sobre fondo blanco).

  En la tabla izquierda aparece San Juan Bautista, casi de cuerpo entero, señalando al Cordero sobre su libro, y que es el santo onomástico del propio donante.

  Esta obra, según los expertos, debe situarse entre los años 1565-1575, y se conocen de la tabla central de la Sagrada Familia con el ángel varias versiones reiterativas, con algunas diferencias en los paisajes de fondo y en otros aspectos técnicos. Y en este tríptico de Elgeta aparece como particularidad en la tabla de la derecha el primer retrato conocido de este autor con la imagen del donante.

  Con la última guerra española el tríptico siguió un largo e incierto recorrido: durante la guerra de Elgeta-Bilbao-Francia; y después de la guerra de Francia-Madrid-Elgeta.

  Dado el mal estado de conservación de la tabla, a partir de 1996 se procedió a su restauración. Al realizar los análisis de su policromía, y con la incertidumbre del anterior recorrido, se llegó a pensar que era una copia.

  Sin embargo, un estudio doctoral del año 2006, realizado por la especialista en arte flamenco Ana Diéguez Rodríguez, reafirma su antigüedad "porque su factura y técnica, con un gusto por los contornos difuminados, corresponden con la empleada por este autor en otras piezas de su producción" [(51)].

- *Las tres obras de Pablo de Uranga:* San Juan Bautista bautizando a Cristo, San Roke con el perro, y un estandarte de San Francisco para su cofradía [(52)].

- *Otros varios objetos religiosos de orfebrería.*

- *Familia Santuaren triptikoa* (ebangelio apokribo bati jarraiki, Egiptora ihesean zihoazela egindako atsedenaldi baten irudikapena dirudiena).
  Artelana Juan Bautista Aramburuk ekarri zuen Flandriatik. Aramburu elgetar marine ospetsua izan zen, Sostoa baserrikoa (Zesto Gainkua). Artelanaren egiletza 80ko hamarkadan katalogatu zen, eta itxura guztien arabera, triptikoaren autorea Marcellus Coffermans XVI. mendeko flandriar margolaria da.

  Hiru taula ditu metro bateko luzera eta metro eta hirurogeita hamarreko zabalera duen triptiko baliotsu honek.
  Erdikoa eta handiena den taulan, Ama Birjina eseriaren irudia azaltzen da, Haurra magalean duela, eta eskuinetara San Jose dute, bere baitan bildua, betaurrekoak kenduz irakurketa gelditu du. Jesus Haurtxo biluziaren aurrean aingeru gazte bat dago, mahats-mordo bat eskainiz. Irudi honen bidez, zeharkako aipamena egiten zaio Kristoren pasioari eta erritu eukaristikoari (ogia eta ardoa bere haragi eta odol bilakatzeari). Lehen planoaren atzean flandriarra dirudien paisaia bat azaltzen da, askotariko eraikin, bide eta irudiekin.
  Eskuineko taulan dohaintza-emailearen erretratua dago, noble mailari zegokien jantziekin. Erretratuarekin batera bere izena ageri den inskripzio bat ("Juan Bautista Aetatis Sua […]") eta Sostoa (Zestoa) familiaren armarria daude (erdiko atalean, atzealde zuriaren gainean, zuhaitz bat eta bost udare dituena).
  Ezkerreko taulan ia luzera osoko San Juan Bautista azaltzen da (dohaintza-emailearen izen bereko santua), bere liburuaren gainean dagoen Arkumea seinalatuz.

  Adituen arabera, lan hau 1565-1575 urteen artean koka daiteke. Familia Santua eta aingerua azaltzen diren erdiko taulari dagokionez, irudiaren hainbat bertsio errepikakor ezagutzen dira, desberdistasunen bat izan dezaketenak atzealdeko paisaiari edo beste alderdi tekniko bati dagokionez. Bitxikeria gisa aipa daiteke Elgetako triptikoko eskuinaldeko taulan agertzen den dohaintza-emailearen irudia autorearen aurreneko erretratua dela.

  Espainiako azkeneko gerran eta gerraostean triptikoak bide luze eta zalantzazkoa egin zuen: gerra denboran Elgeta-Bilbo-Frantzia arteko ibilbidea egin zuen eta gerraostean, berriz, Frantzia-Madril-Elgeta. Taularen kontserbazio egoera kaskarra zela-eta, 1996an zaharberritzen hasi ziren. Haren polikromiaren analisiek zalantzan jarri zuten taularen ustezko ibilbidea, eta kopia bat izan zitekeela pentsatu zen.
  Alabaina, arte flandriarrean aditua den Ana Diéguez Rodriguezek 2006ko bere doktore tesian erakutsi zuenez, margolanaren egikerak eta teknikak zein lausotutako ingeradekiko zaletasunak bat datoz autore honen ekoizpeneko beste lan batzuekin eta, beraz, margolanaren antzinatasuna berrets daiteke [(51)].

- *Pablo Urangaren hiru artelanak:* San Juan Baustista Kristo bataiatuz, San Roke txakurrarekin eta San Frantziskoren zutoihala bere kofradiarako [(52)].

- *Urregintzako beste hainbat objektu erlijioso.*

## *LAS NUEVE ERMITAS DE ELGETA*

Las iglesias y ermitas son vestigios culturales del pasado. Fueron expresión de la religiosidad popular, una vez instaurado el cristianismo, bajo advocaciones distintas, y con la asistencia de los devotos en busca de protecciones, curaciones y otros favores. Y fueron también un centro vinculador de la sociedad dispersa de los caseríos. En las ermitas los vecinos del barrio se responsabilizaban de su construcción y mantenimiento, intervenían rotatoriamente en su administración, se reunían para planificar los trabajos del interés común (auzolan), aparecían los avisos públicos, se anunciaban con distintos toques de campana los acontecimientos mortuorios o desastres naturales, se celebraban las romerías, se utilizaban como escuelas...

Estos viejos santuarios rurales, construidos y mantenidos casi exclusivamente por los vecinos y algunas limosnas de los devotos, aún permanecen muchos de ellos a pesar de las distintas guerras, las desamortizaciónes y el abandono creciente en los últimos años.

La localización de las ermitas se situaba en lugares y puntos bien visibles, a la vera de caminos de distinta categoría y época, y así ocurre con las nueve que aún se conservan en el actual término municipal de Elgeta. Estos caminos estaban pensados y eran importantes para el desarrollo del comercio y artesanía, y a su vez daban paso a los peregrinos.

Hay una evidencia, con vestigios que la avalan, de que varios caminos de Elgeta enlazaban con las dos rutas históricas del camino de Santiago a su paso por Gipuzkoa: la ruta de la costa y la ruta del interior. (Ver una ampliación de esta evidencia en el Anexo VII).

En el recorrido por las nueve ermitas de Elgeta seguiremos este proceso:
• Número romano de localización en el mapa (ver Anexo XI)
• Descripción y características de cada ermita.
• Fotografía exterior e interior.

## ELGETAKO BEDERATZI ERMITAK

Elizak eta ermitak iraganeko kulturaren aztarnak dira. Herriaren elizkoitasunaren adierazgarri izan ziren kristautasuna ezarri zenetik, eta bertara jotzen zuten fededunek babes, sendabide edo beste mesede batzuen bila. Baserrietan banatutako gizartearen elkargune ere izan ziren. Ermitetan auzokideak arduratu ohi ziren eraikitze eta mantentze lanez, administazioan parte hartzen zuten txandaka, auzolanean egingo ziren lanak antolatzeko biltzen ziren, ohar publikoak azaltzen ziren, kanpai-hotsen bidez hildakoen edo hondamendi naturalen berri ematen zen, erromeriak ospatzen ziren, eskola erabilera ematen zitzaien…

Baserri inguruko santutegi hauetako askok zutik diraute oraindik auzokideen eraikitze eta mantentze lanei eta fededun batzuen limosnei esker, gerren, desamortiazioen eta hazten ari den azken urteetako abandonuaren ondoren.

Ermitak ondo ikus zitezkeen lekuetan eraikitzen ziren, bideen ertzean, eta horixe da gaur egun Elgetako udalerrian aurki daitezkeen bederatzi ermiten kasua ere. Bide horiek, alde batetik, garrantzitsuak ziren merkataritzaren eta artisautzaren garapenerako, eta bestetik, erromesen igarobide izan ohi ziren.

Arrastoek erakusten dutenez, Elgetako zenbait bidek bat egiten zuten Donejakue bideko bi ibilbide historikoekin: kostako ibilbidearekin eta barrualdeko ibilbidearekin (ikus VII. Eranskina aztarna hauen informazio osoago baterako).

Elgetako bederatzi ermiten ibilbidean honako hurrenkera jarraituko dugu:
- Zenbaki erromatarrari so egin mapan kokatzeko (ikus XI. Eranskina).
- Ermita bakoitzaren deskribapena.
- Kanpoaldearen eta barrualdearen argazkia.

## ***ERMITA DE SAN ROKE (I)***

La advocación es del popular San Roke (1295-1360), nacido en Montpellier y peregrino a Roma. Tiene el patronazgo de los peregrinos y de los contagiados por epidemias (especialmente pestes y cóleras).

Esta antigua ermita, de fecha no precisa, está situada al norte de la villa, y desde 1809 al construirse el cementerio es capilla dentro de su recinto amurallado. Su nivel de altitud es de 481 m., con orientación hacia el norte.

La nave principal, de planta rectangular, mide 14 m. de largo x 8 m. de ancho, más un pequeño ábside cuadricular de 2´5 m. El pórtico tiene un avance de 2´7 m., y está separado de la nave con un enrejado de madera torneada y ornamentada.

En el interior de la ermita se ofrecen tres altares: en el centro un lienzo con la figura de San Roke (representado con sus atributos clásicos de vestido de peregrino, herido en la pierna y acompañado de un perro); en el ala izquierda un lienzo de San Marcial; y en el ala derecha un lienzo de tres mártires de la fe, Santa Agueda, Santa Polonia y Santa Lucía.



*Vista interior de la ermita de San Roke /* San Roke ermitaren barrualdea

## SAN ROKE ERMITA (I)

San Rokeren (1295-1360) izena du ermitak; Montpellierren jaio eta Erromara erromes joan zen santu ezagunarena, alegia. San Roke erromesen eta izurriarekin edo kolerarekin kutsatutakoen patroia da.

Zehazki noizkoa den ez dakigun antzinako ermita hau udalerriaren iparraldean dago kokatuta eta, 1809an hilerria egin zenetik, kapera bat da bere esparru harresituaren barruan. 481 metroko garaiera du eta iparraldera begira dago.

Nabe nagusiak oinplano angeluzuzena du, 14 metro luze eta 8 metro zabal da, eta 2'5 metroko abside txiki laukitu bat du. 2'7 metroko eliz ataria du eta apaindutako egur torneatuzko burdin sare baten bidez dago nabetik banatuta.

Ermitaren barrualdean hiru aldare daude: erdian San Rokeren irudia duen margolana dago (bere ezaugarri klasikoekin, hots,erromes jantziekin, hanka zaurituta eta txakur baten konpainian), ezkerraldean San Martzialen margolana ikus daiteke eta eskuin hegalean hiru martiriren margolana dago, Santa Agedarena, Santa Poloniarena eta Santa Luziarena.



San Roke ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita de San Roke*

## ***ERMITA DE SANTA MARÍA MAGDALENA (II)***

La advocación es de Santa María Magdalena, la distinguida discípula de Cristo. Tiene también la protección de epidemias y pestes. En tiempos antiguos bajo su advocación se construyeron ermitas y hospitales en nuestro entorno para los peregrinos y enfermos, y se situaban preferentemente a las afueras de los núcleos urbanos.

Esta antigua ermita-capilla de Elgeta estaba situada en un arrabal del núcleo medieval de la villa, en el interior de la Casa-Hospital, y en el lugar que ocupan hoy las escuelas públicas. Su estructura era de 11 m. de largo x 5'5 m. de ancho, con un reducido coro, y orientada al este.

En el retablo presidía una imagen barroca de madera policromada de la Santa, que ahora se conserva restaurada en la sacristía de la iglesia.

En los últimos años con la reurbanización de esta zona del pueblo, esta ermita quedó reducida a un pequeño humilladero de planta cuadricular de 2 x 2 m., con un porche de las mismas dimensiones. En su interior el altar se sitúa en el centro y sobre él un cuadro representando a la imagen de la Santa.



*Humilladero actual de la Magdalena* / Magdalena santutxua gaur egun

## SANTA MARIA MAGDALENAREN ERMITA (II)

Kristoren dizipulu nagusienetarikoa izan zen Santa Maria Magdalenaren izena du ermitak. Santa honek ere epidemien eta izurriaren aurkako babesa ematen du. Antzina, bere izenpeko hainbat ermita eta ospitale eraiki ziren inguruotan erromes eta gaixoentzat, batez ere herrien kanpoaldean.

Elgetako ermita-kapera hau udalerriaren erdiguneko errebal batean zegoen, etxe-ospitalearen barruan, egun eskola publikoak dauden lekuan. Egiturak 11 metroko luzera eta 5'5 metroko zabalera zuen, koru txiki bat zuen eta ekialdera begira zegoen.

Erretaulan Santaren egur polikromatuzko irudi barroko bat gailentzen zen, gaur egun elizako sakristian dagoena zaharberriturik.

Azken urteotan herriko gune honek jasan duen berrurbanizazio prosezuaren ondorioz, ermita 2 x 2 metroko oinplano karratua eta neurri bereko ataria dituen santutxo bilakatu zen. Barruadeari dagokionez, erdian dago aldarea eta bere gainaldean Santaren irudia duen margolana dago.



Magdalena Ospitalearen kanpoaldea / *Vista exterior del Hospital de la Magdalena*

## ***ERMITA DEL SALVADOR (O DE LA TRANSFIGURACIÓN) (III)***

Está situada en el barrio Antzuategi, cercana al caserío Antzuategi Bazterrekoa y al casco urbano de la villa. En la pradera posterior a la ermita se levanta desde los últimos años un amplio bolatoki cubierto, construido en auzolan. Se sitúa a 478 m. de altura, y se cubre en un tejado a tres aguas, con orientación al noroeste. En el frontispicio un grabado recuerda que se construyó en 1740 y se renovó en 1978.

La nave, de planta rectangular, mide 8'55 m. de largo y 6'90 m. de ancho. En el muro izquierdo presenta dos ventanas. El altar es redondo y rodeado de dos columnas.

El atrio de entrada cubierto, de 4'30 m. de largo y 6'90 m. de ancho, se sustenta por dos columnas en la parte delantera y en la trasera está la puerta de entrada a la ermita con una ventana a cada lado, y remata en su frontón triangular una pequeña campana.

En la pared del retablo se representa en una pintura la escena evangélica de la Transfiguración de Cristo en el monte Tabor: Cristo aparece transfigurado a un lado con Moisés (portando la Ley de Dios) y al otro lado Elias (el padre de los profetas) ante unos discípulos arrodillados. Es obra del artista elgetarra Pello Alberdi.

Esta ermita también fue lugar de refugio de los defensores en la última guerra, y frente a la entrada se erigió un monolito en 1979 como memoria a los vecinos represaliados.



*Vista interior de la ermita del Salvador* / Salbatore ermitaren barrualdea

## SALBATOREREN ERMITA (EDO ANTZALDATZEARENA) (III)

Antzuategi auzoan dago, Antzuategi Bazterrekoa baserritik eta herrigunetik gertu. Ermitaren atzealdeko belardian auzolanean eraikitako bolatoki estali handi bat dago. Ermita itsas mailatik 478 metrora dago eta hiru isurialdeko teilatua du. Ipar-ekialdera begira dago. Aurrealdean ermita 1740an eraiki eta 1978an berreraiki zela gogorarazten duen grabatu bat dago.

Oinplano angeluzuzeneko nabea 8’55 metro luze eta 6’90 metro zabal da. Ezkerreko horman bi leiho daude. Aldarea borobila da eta bi zutabek inguratzen dute.

Sarrerako elizatari estaliak 4’30 metroko luzera eta 6’90 metroko zabalera ditu eta aurrealdean dauden bi zutabek eusten dute. Atzealdean, berriz, ermitara sartzeko atea eta atearenalde banatan kokatutako bi leiho ditu. Triangelu forma du atariaren frontoiak eta kanpai txiki bat dago bere gainean.

Erretaularen horman Tabor mendiko Kristoren Antzaldatzearen eszena ebanjelikoa dago irudikatuta: Kristo antzaldatuta azaltzen da, Jainkoaren Legea daraman Moisesen eta profeta guztien aita den Eliasen ondoan eta belaunikatuta dauden dizipuluen aurrean. Pello Alberdi artista elgetarraren lana da.

Azkeneko gerran babeslekua izan zen. Hori oroitzeko asmoz,1979tik ermitaren aurrean errepresialitatutako bizilagunen aldeko monolito bat dago.



Salbatore ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita del Salvador*

## *ERMITA DE LA ASCENSIÓN DEL SEÑOR (DE UDAIAGA) (IV)*

Tiene la advocación de la Ascensión de Cristo, y está situada en el barrio y collado de Asensio-mendi, al borde del camino que sube de Angiozar a Elgeta. Tiene orientación este y se sitúa a 560 m. de altura. Pertenece eclesiásticamente a la parroquia de Angiozar y territorialmente a Elgeta. Se conserva un Libro de Cuentas de dicho santuario desde el año 1672, en cuyo primer folio se da noticia de la existencia de otro libro anterior (Archivo parroquial de Angiozar). Aún hoy dos mayordomos, uno de Elgeta y otro de Angiozar, se encargan de la ermita.

Su planta es rectangular y mide 14´7 m. de largo x 9´7 m. de ancho, con un avance de pórtico cubierto de 4´3 m, apoyado en dos columnas. A un lado y otro del ábside se abren dos puertas de sacristía. En el tejado a tres aguas, remata el edificio una espadaña de piedra, con arco del que cuelga la campana.

En el interior preside el retablo un cuadro de Miguel Okina, realizado en 1953 y restaurado en 1999. La representación muestra al Señor ascendiendo al cielo y contemplado por la Virgen y los Apóstoles.

En el ábside aparecen unas pinturas con cierto deterioro: por encima del retablo el Padre Eterno, y en la bóveda una paloma (Espíritu Santo), a la que rodean tres grupos de ángeles entre nubes.

Ha tenido que reedificarse en varias ocasiones, destrozada por las varias guerras, especialmente en las batallas de los Intxorta de la última guerra, y, posteriormente, por los temporales, a los que se ve expuesta, dada su situación geográfica. Después de la guerra, en 1953, fue restaurada en su estructura original por el ayuntamiento y el barrio en auzolan, y la última restauración es de 1993.



*Vista interior de la ermita de la Ascensión* / Igokundearen ermitaren barrualdea

## JAUNAREN IGOKUNDEAREN ERMITA (UDAIAGA) (IV)

Kristoren Igokundeare izena dauka eta Asensiomendi muineko auzoan dago kokatuta, Angiozarretik Elgetara daraman bidearen bazterrean. Ekialdera begira dago, itsas mailatik 560 metrora. Elgetako lurretan dagoen ermita hau elizaren aldetik Angiozarreko parrokiaren barrukoa da. Angiozarreko parrokia-artxibategian santutegi honetako 1672ko kontu-liburu bat dago gordeta eta lehenengo orrian jartzen duenaren arabera kontu-liburu zaharrago bat ere zegoen. Gaur egun bi arduradun ditu ermitak, Elgetako bat eta Angiozarreko bat.

Oinplano angeluzuzena du eta 14'7 metroko luzera eta 9'7 metroko zabalera ditu. Atari estaliak 4'3 metroko luzera du eta bi zutabek eusten dute. Absidearen alde bietan sakristiarako bi ate daude. Hiru isurialdeko teilatuan harrizko kanpai-horma bat dago, eta bertan, arku batean eskegita, kanpai bat dago.

Barrualdean Miguel Okinaren margolana gailentzen da erretaulan. Margolan hau 1953koa da eta 1999an zaharberritu zen. Bertan Jaunaren Igokundea irudikatzen da, Ama Birjina eta Apostoluak begira dituela.

Absidean hondatzen hasitako margolanak daude: erretaularen gainean Betiereko Aita azaltzen da, eta gangan usoa (Espiritu Santua), hodei artean aingeruz osatutako hiru taldek inguratzen dutela.

Ermita hainbatetan berreraiki behar izan da gerren eraginez, eta bereziki azkeneko gerrako Intxortetako guduen ondorioz, eta geroago bere kokalekuagatik bortizki jasaten dituen ekaitzengatik. Gerraren ondoren, 1953an, udalak eta auzokideek auzolanean egin zuten lanari esker berreraiki zen. Azkeneko aldiz 1993an zaharberritu zen.



Igokundearen ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita de la Ascensión*

## ***ERMITA DE ANDRA MARI DE URIARTE (V)***

Está situada en el barrio de Uriarte, al lado del caserío Etxetxo y del antiguo camino real a Bergara.

Se considera la iglesia más antigua de Elgeta (siglo XIV), y hoy se encuentra en ruinas desde la última guerra, en que sirvió de trinchera y fue bombardeada.

Muestra una planta rectangular, de 18'60 m. de largo x 6'85 m. de ancho, incluido el pórtico. En su muro izquierdo se abren tres saeteras, y en el muro derecho una puerta de acceso dovelada y apuntada con impostas góticas, aspillera encima y aguabenditera. En el frontispicio, con orientación sudoeste, se abría una puerta gótica con aspillera. Tenía coro y encima de éste una especie de granero para guardar los diezmos.

En su interior se ofrecían tres altares: en el centro presidiendo la Andra Mari, y en los laterales San Prudencio y Santa Ana. Las tres imágenes de un valor reconocido, con un metro aproximado cada una, se conservan en la iglesia parroquial.

A poca distancia de esta ermita derruida se encuentra abandonado el humilladero, que durante un tiempo albergó una pequeña reproducción de Andra Mari y después solo un cuadro de la imagen.



*Humilladero de Andra Mari* / Andra Mariren santutxoa

## URIARTEKO ANDRA MARIREN ERMITA (V)

Uriarte auzoan dago, Etxetxo baserriaren eta Bergarara daraman antzinako errege-bidearen ondoan.

Elgetako elizarik zaharrena da (XIV. mendekoa) eta erortzeko zorian dago azkeneko gerratik. Garai hartan lubaki bezala erabili zen eta bonbardatua izan zen.

Oinplano angeluzuzena du, eta 18'60 metro luze eta 6'85 metro zabal da, eliz ataria barne. Ezkerreko horman hiru saietera ditu, eta eskuinekoan, aldiz, dobelatutako eta inposta gotikoak dituen ate bat, gezileiho bat eta ur bedeinkaduaren ontzia daude. Hegoekialdera begira dagoen aurrealdean, saieteradun ate gotiko bat zegoen. Korua zuen eta bere gainean hamarrenak gordetzeko garautegi moduko bat zegoen.

Barruan hiru aldare zeuden: erdian Andra Mari eta alboetan San Prudentzio eta Santa Ana. Gutxi gorabehera metro bete neurtzen duten balio handiko hiru irudiak eliza nagusian daude gordeta gaur egun.

Eraitsitako ermita honetatik gertu bertan behera utzitako santutxoa dago. Bertan egon zen urte batzuetan zehar Andra Mariren erreprodukzio txiki bat, eta gerora bere irudiaren margolan batek ordezkatu zuen.



Andra Mariren ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita de Andra Mari*

## ***ERMITA DE SAN ADRIÁN (SAN ANTONIO) (VI)***

En la actualidad algunos la nombran incorrectamente por la ermita de San Antonio, en referencia al antiguo caserío de este nombre “Antoniondua” en sus inmediaciones, que fue derruído para la construcción del nuevo edificio.

Desde antiguo tuvo la advocación de San Adrián y así figura citada en el libro de visitas del Obispado de Calahorra de 1556. Se restauró en 1969, y la última reconstrucción es del 2005.

San Adrián, nacido en Constantinopla, fue un soldado de la guardia pretoriana romana, y por su conversión al cristianismo fue decapitado en el año 306. San Adrián y su esposa Santa Natalia son considerados protectores de los peregrinos y tienen advocaciones en determinados lugares de los distintos caminos de Santiago.

Esta ermita está situada en el barrio de Uriarte, al lado del antiguo camino real, con una orientación al Este.

La nave principal, de forma rectangular, mide 8´10 m. de largo x 5’10 m. de ancho, más el ábside de 2´3 x 1´8 m. El interior se reviste con cubierta en armadura parhilera (formada por pares e hilera) y bóveda de arista en el presbiterio con un arco elíptico rebajado e impostas. En el muro derecho se abren dos ventanas y una de ellas a la altura del presbiterio. En la parte posterior del ábside estaba adosada la casa, hoy desaparecida, de la serora (cuidadora).

Preside el altar un gran mural, que representa en el centro a San Adrián y a los lados San Antonio de Padua y San Antonio Abad (San Antton). En la actualidad al pie de esta pintura hay una reproducción en barro de una antigua imagen de San Antton, obra reciente de Pili Arin.



*Vista interior de la ermita de San Adrián /* San Adrian ermitaren barrualdea

## SAN ADRIAN ERMITA (SAN ANTONIO) (VI)

Ermita honi gaur egun batzuk San Antonioko deitzen diote okerki. Izena bere ondoan zegoen eta egun eraikin berria egiteko eraitsita dagoen "Antoniondua" baserritik hartu zuen.

Antzina hartu zuen San Adrian izena eta horrela aipatzen da Calahorrako apezpikutzako 1556ko bisita-liburuan. 1969an zaharberritu zen eta azkeneko aldiz 2005ean berreraiki zen.

San Adrian Konstantinoplan jaio eta Pretoriar Guardiako soldadua izan zen, eta kristau bihurtu izanagatik moztu zioten burua 306. urtean. San Adrian eta bere emazte Santa Natalia erromesen babesletzat hartzen dira eta, hori dela-eta, Donejakue Bideko hainbat lekutan gurtzen dira.

Uriarte auzoan dago ermita hau, antzinako errege-bidearen ondoan, eta ekialdera begira dago.

Nabe nagusiak forma angeluzuzena du eta 8'10 metro luze eta 5'10 metro zabal da; absideak, berriz, 2'3x1'8 metro ditu. Barrualdea, batetik, (astazaldiz eta ilaraz osaturiko) goihabe armadurak eta, bestetik, presbiterioko (beheratutako arku eliptiko bat eta inpostak dituen) ertz-gangak estaltzen dute. Eskuineko horman bi leiho daude eta horietako bat presbiterioaren maila berean dago. Absidearen atzealdeari itsatsita seroraren etxea zegoen, egun desagertua.

Aldarean horma-irudi bat gailentzen da, erdian San Adrian eta alboetan Paduako San Antonio eta San Antonio Abad (San Antton) irudikatzen dituena. Egun, margolan honen azpian San Anttonen antzinako irudi baten buztinezko kopia bat dago, Pili Arin-ena.



San Adrian ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita de San Adrián*

Tiene un pórtico de entrada sustentado por postes de madera, que mide 4 m. de largo x 5'25 m. de ancho, y que da acceso al interior por una puerta dovelada de medio punto en sillería con aguabenditera a su derecha. El tejado es a tres aguas, y en él, a la altura de la puerta, se levanta una espadaña de sillería con campana y una cruz de hierro en su ático.

Se sigue celebrando la fiesta el 16 de junio, día de San Adrián, con misa, en la que antaño se bendecían los granos de la cosecha y el agua, que los vecinos recogían de un manantial próximo, al que se atribuían propiedades curativas. En ese día hasta los años cincuenta se acudía en rogativas desde la iglesia parroquial.

## ***ERMITA DE SAN MARTÍN DE TOURS (VII)***

La advocación es de San Martin, un soldado de la guardia romana, que convertido al cristianismo fue nombrado obispo de Tours en el año 370. Es un santo con gran presencia en la devoción y cultura popular. En el territorio gipuzkoano tiene numerosas ermitas y es una advocación propia del Camino de Santiago.

Esta ermita está situada en la mitad del barrio de Arantzeta, junto al caserío Ojanguren. Después de años derruída, se reconstruyó en 1979 en auzolan con la dirección del elgetarra José Arozena, artesano carpintero. Es de planta cuadricular, y mide 4´9 m. de largo x 5´6 m. de ancho, más el atrio de 1´7 m.

Preside el retablo una talla gótica-popular de San Martín obispo, que mide 85 cm. En el atrio y encima de la entrada cuelga una pequeña campana.



*Vista interior de la ermita de San Martín.*
San Martin ermitaren barrualdea.

Egurrezko zutabeek eusten dute 4 metroko luzera eta 5'25 metroko zabalera duen eliz ataria. Barrualdera daraman atea dobelatua da, puntu erdiko harlanduzkoa eta honen eskuinetara ur bedeinkatuaren ontzia dago. Teilatua hiru isurialdekoa da eta bertan, atearen mailan, kanpai bat duen harlanduzko kanpai-horma dago eta teilatupean, burnizko gurutzea.

Oraindik ere meza batekin ospatzen da San Adrian eguna ekainaren 16an, eta garai batean, ospakizun honetan bedainkatzen ziren uztako garaua eta ura. Azken hau hurbileko iturburu batetik jasotzen zen eta ezaugarri sendagarriak zituela uste zen. 50eko hamarkadara arte bizilagunak San Adrian egunez erreguteak eginez joaten ziren eliza nagusitik ermitaraino.

## TOURS-EKO SAN MARTINEN ERMITA (VII)

San Martin erromatar guardiako soldadua zen eta kristautasunera bihurtu ondoren, 370. urtean, Tours-eko apezpiku izendatu zuten. Santu honenganako debozio handia dago. Gipuzkoan hainbat ermitak daramate bere izena eta Donejakue Bidearen deituretako bat ere bada.

Ermita Arantzeta auzoko erdigunean dago, Ojanguren baserriaren alboan. Bi urtez egon zen eraitsita, 1979an auzolanean berreraiki zuten arte José Arozena arotz artisau elgetarraren zuzendaritzapean.

Oinplano karratua du, 4'9 metro luze eta 5'6 metro zabal da eta atariak beste 1'7 metro gehitzen dizkio egiturari.

Erretaulan San Martin apezpikuaren 85 cm-ko tailua dago, gotiko herrikoi estilokoa. Atarian, sarreraren gainaldean, kanpai txiki bat dago.



San Martin ermitaren kanpoaldea.
*Vista exterior de la ermita de San Martín.*

## *ERMITA DE SAN BLAS (VIII)*

Tiene la advocación del popular San Blas, que fue médico, obispo de Sebaste (Armenia) y mártir cristiano en el año 316. Es protector por excelencia de los males de garganta.

Esta ermita está situada al final del barrio de Arantzeta, formando un conjunto con los caseríos Iturri, Kastillo y Arantzabal.

Es de planta rectangular, y mide 9 m. de largo x 6 m. de ancho, con un atrio de 2 m. x 6 m. Tiene orientación noroeste.

En el retablo se muestra un lienzo barroco deteriorado, donde aparecen San Blas, Santa Lucia, Santa Apolonia, el Ángel de la Guarda y Cristo ascendiendo al cielo.



*Vista interior de la ermita de San Blas* / San Blas ermitaren barrualdea

## SAN BLAS ERMITA (VIII)

San Blas santu ezagunaren izena dauka. San Blas medikua, Sebaste-ko (Armenia) apezpikua eta martiri kristaua izan zen 316. urtean, eta eztarriko gaixotasunen babesle nagusia da.

Arantzeta auzoaren amaieran dago, Iturri, Kastillo eta Arantzabal baserrien artean.

Oinplano angeluzuzena du, 9 metroko luzera eta 6 metroko zabalerakoa, eta 2 x 6 metroko ataria dauka. Ipar-ekialdera begira dago.

Erretaulan, hondatzen hasitako margolan barrokoa dago. Bertan San Blas, Santa Luzia, Santa Apolonia, Aingeru Guardakoa eta zerura igotzen ari den Kristo ageri dira.



San Blas ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita de San Blas*

## ***ERMITA DE SANTIAGO (IX)***

Está situada en el barrio Goimendi, junto a los caseríos Azurtza, y en los límites con Eibar y Bergara. Se orienta al norte-este y a una altura de unos 540 metros.

Es conocida desde 1625, y su primera localización se situaba a unos quinientos metros al norte de la actual.

La nave es de 5 m. de largo x 5'7 m. de ancho, y un ábside trapezoidal de 3 x 3 x 3 metros.

Tiene un pequeño retablo, y en el centro una pintura de Santiago ecuestre con una espada. En la bóveda del ábside se mantienen deterioradas varias pinturas de los artistas vergareses Simón Arrieta y Fernando Azkargorta. En ellas se muestran, por encima del retablo, el Padre Eterno, y a ambos lados dos ángeles entre flores.

En los laterales de la ermita cuelgan dos cuadros: a la derecha la Virgen del Carmen, y a la izquierda Santa Ana y su hija la Virgen a la que presenta un libro, en el que se lee: "et egredietur virga de radice Jesse" ("y de la que saldrá una virgen del tronco de Jesse"). Con esta inscripción se hace alusión a la profecía de Isaías, según la cual Jesé fue el padre de David y en un sueño profético vio salir de su vientre un árbol, y sus nudos eran los descendientes, de cuyo tronco saldría un vástago que sería el Mesías prometido.



*Vista interior de la ermita de Santiago* / Santiago ermitako barrualdea

## SANTIAGO ERMITA (IX)

Goimendi auzoan dago, Azurtza baserrien ondoan, Eibar eta Bergararekin mugan. Ipar-ekialdera begira dago, 540 metroko garaieran.

1625etik ezagutzen da eta orain dagoen lekutik 500 metro iparralderantz zegoen garai batean.

Nabeak 5 metro luze eta 5'7 metro zabal ditu eta 3 x 3 x 3 metroko abside trapezoidala du.

Erretaula txiki bat du eta erdian zaldi gainean eta ezpata batekin ageri den Santiagoren margolana dago. Absidearen gangan Simón Arrieta eta Fernando Azkargorta artista bergararren hondatzen hasitako margolanak daude. Horietan, erretaularen gainean, Betiereko Aita ageri da lorez inguratutako bi aingeruren artean.

Ermitaren bi aldeetan koadro bana dago: eskuinetara, Karmengo Ama dago, eta ezkerretara, Santa Ana bere alaba Birjinari liburu bat erakusten. Bertan Isaiasen profeziari aipamena egiten dion idazkuna irakur daiteke: "et egredietur virga de radice Jesse" [eta Jeseren enborretik birjina bat irtengo da]. Profeziak dioenez, Jesek, Daviden aitak, amets batean bere sabeletik irteten ari zen zuhaitz bat ikusi zuen. Zuhaitzaren adabegiak ondorengoak ziren eta enborraren kimu batetik agindutako Mesias irtengo zen.



Santiago ermitaren kanpoaldea / *Vista exterior de la ermita de Santiago*

## ***ARQUITECTURA URBANA***

### *LA VILLA MEDIEVAL DE ELGETA*

El núcleo urbano de Elgeta presenta un modelo medieval arcaico y de interés histórico.

Las fundaciones medievales, cuando presentan un urbanismo planificado, suelen responder a tres tipos de planes, con ejemplares en Arrasate, Bergara y Elgeta: *un recinto ovalado*, con una calle central recta, las laterales curvas, paralelas a la muralla (Arrasate); *un recinto rectangular*, con tres calles paralelas (Artekale, Goinkale, Barrenkale), cortadas por cantones, y una muralla que rodea el núcleo (Bergara); y por último el tipo más arcaico de un *recinto de camino único*, en el que el núcleo urbano se construye longitudinalmente a lo largo de un camino y a ambos lados, y cercano a una iglesia.

Este tipo de planificación de *camino único* es el propio de Elgeta. Al fundarse la villa quedó guarnecida de un recinto, configurado por unas pocas casas adosadas entre sí, a modo de muralla, en la falda de un pequeño monte.

Con esta estructura, dada su situación fronteriza, se facilitaba la defensa de posibles acciones bélicas y bandoleras del exterior, así como el cobijo necesario frente a las inclemencias del tiempo. Y sería el espacio escogido por los pocos gremios que se dedicaban a otras funciones no campesinas (eclesiásticos, escribanos, enseñantes, sanitarios, artesanos y comerciantes).

Aún hoy se conservan vestigios de aquella estructura. En efecto, el núcleo urbano, construido a lo largo de una calzada principal y única, es la actual calle S. Roke, desde la iglesia hacia el norte. Este recinto estaba cerrado por las propias casas que lo constituían, y que mantienen aquel diseño antiguo en su lado derecho, pero no en el izquierdo de nueva construcción. Todo ello estaba rematado por dos puertas en los extremos de la calle: en la parte sur se conservan restos de las bisagras y goznes de sujeción del portal en los muros de la iglesia y en la casa de S. Roke nº 14; en la parte norte de la calle existía otro portal como aparece en el siguiente plano ilustrativo. Este portal de entrada fue derruido, sin que quede resto, con el permiso del Concejo en 1716 y se situaba a la altura de la casa "Marragokua".

De hecho los términos toponímicos, que aún se mantienen, como Kantoi (esquina de la calle), Kalegoen (parte superior de la calle), Uriburu (cima de la villa), y Marragokua (límite de arriba) nos evocan la zona alta de la antigua estructura de la villa.

Estas puertas, observando el espacio de la aún localizable, serían de gran tamaño con dos batientes, y solían construirse de madera y chapadas en hierro. Se cerraban con llave a la caída de la tarde y eran vigiladas por los encargados del concejo, e incluso en ocasiones rotatoriamente por los propios vecinos como veladores.

# <u>HIRI-ARKITEKTURA</u>

## ERDI AROKO HIRIBILDUA

Elgetako erdiguneak Erdi Aroko estilo arkaikoa du eta interes historikoa dauka.

Erdi Aroko herrien hirigintza prozesua, planifikatua zenean, hiru motatakoa izan zitekeen normalean, eta hiru mota horien adibideak ditugu Arrasaten, Bergaran eta Elgetan: *barruti obala*, kale nagusi zuzen bat eta albo kale makurrak dituena (Arrasateren kasua); *barruti angeluzuzena*, kantoiek moztutako hiru kale paralelo (Artekale, Goinkale eta Barrenkale) eta herribildua inguratzen duen harresia dituena (Bergararen kasua), eta azkenik, arkaikoena dena, *bide bakarreko barrutia*, hots, herribildua elizatik hurbil dagoen kale bakar baten bi aldeetara erakitzen dena.

*Bide bakarreko* hirigintza jarraitu zen Elgetan. Herribildua sortu zenean, mendi txiki baten magalean zegoen harresi itxurako barrutia zen, elkarren artean atxikitako etxe gutxi batzuek eratua.

Horrelako egituraren bidez, alde batik, herriaren muga kokalekuak eskatzen zuen moduan, errazagoa zen herria gerra erasoetatik edo bidelapurrengandik babestea, eta beste aldetik, eguraldi txarretik ere hobeto babestuko zen. Horrela, herribilduan bizitzea erabaki zuten baserriko lana ez zen beste ogibide bat zutenek (elizgizon, eskribau, irakasle, sendagile, artisau eta dendariek).

Gaur egun oraindik egitura haren aztarnak gordetzen dira. Herribildua, kale nagusi batean zehar eraikia, gaur egungo San Roke kalea da, elizatik iparraldera doana. Barrutia kalearen bi aldeetara zeuden etxeek ixten zuten, baina egun eskuin aldekoak soilik gordetzen dute garai hartako diseinua, eta ezkerraldekoak, aldiz, etxe berriak dira. Kalearen bi muturretan ate bana zegoen: hegoaldean, atea eusten zuten giltzaduren eta gontzen arrastoak daude elizako hormetan eta San Roke kaleko 14. zenbakiko etxean; eta iparraldean ere, irudian agertzen den moduan, beste ate bat zegoen. “Marragokua” etxearen mailan zegoen azken ate hori Udalbatzaren baimenarekin eraitsi zen 1716an eta ez da bere arrastorik geratu.

Toponimoek ere antzinako herribilduaren goialdeko egituraren berri ematen digute: Kantoi (kalearen izkina), Kalegoen (kalearen goiko partea), Uriburu (hiriaren burua) eta Marragokua (goiko muga).

Ate hauek, hegoaldeko aztarnei so eginez nabari daitekeenez, tamaina handikoak ziren, bi orrikoak. Burdin xaflatuzko egurrez egin ohi ziren. Arratsean giltzaz ixten ziren eta udalbatzako arduradunek zaintzen zituzten, eta batzuetan, bizilagunek ere hartzen zuten ardura hau txandaka.

Las edificaciones dentro del recinto, como se puede apreciar en las más antiguas, eran de planta baja, una o dos alturas y desván. En general eran construcciones de madera y ladrillo, tan solo algunas están construidas en piedra. Existían también postigos o puertas secundarias de acceso a la villa. Uno sería el de la puerta occidental, actualmente tapiada, que daba paso a la iglesia, y así lo parece atestiguar el término de Zerkaoste (Artekale); y otro estaría en la actual calle Domingo Iturbe, que con anterioridad se llamaba "Postiga".

En torno al recinto cerrado surgieron varios arrabales. Uno era el arrabal de la Magdalena o Maala, en el viejo y empinado camino real a Bergara, que remata en la calle S. Roke, y que rememora el antiguo hospital de la villa. Otro era el arrabal de Yuso (o Abajo), documentado desde el s. XVI, que se configuraba en torno a la plaza actual y la calle Salbador, con camino de tránsito para Kanpazar y Angiozar. Y un tercero era el arrabal de Zerkaoste (hoy calle Artekale).

En un lado se ilustra una reconstrucción hipotética de la primera villa medieval de Elgeta, y en el otro un plano de Elgeta de 1623.

Este plano, de acuarela en colores, se conserva en el Archivo de la Real Chancillería de Valladolid, y el autor es Antonio de Bolumbizar. Está extraído de un pleito entre Juan Martínez de Zabala y Pedro de Arriola, sobre la apertura de una letrina con salida de aguas a la vía pública [53].



*Reconstrucción hipotética de la primera villa medieval de Elgeta, tomada de un estudio de Arkeolan.*
Elgetako Erdi Aroko herribilduaren berreraiketa hipotetikoa, Arkeolan estudiotik hartua.

Barrutiaren barruko eraikuntzak, etxerik zaharrenetan ikus daitekeen moduan, baxuak izaten ziren, beheko solairuaz, beste solairu batez edo biz eta ganbaraz osatuak. Oro har egur eta adreiluzko eraikuntzak izaten ziren, nahiz eta harrizko gutxi batzuk ere egon. Dena den, herribildura sartzea ahalbidetzen zuten bigarren mailako sarbideak ere bazeuden. Horietako bat mendebaldeko atea zen, gaur egun estalita dagoena eta elizara zeramana, Zerkaoste izenak (Artekale) iradokitzen duen legez; eta beste sarbide bat egun Domingo Iturbe deritzon eta lehenago "Postiga" deitzen zitzaion kalean zegoen.

Barrutiaren inguruan hainbat errebal sortu ziren. Magdalena edo Maala errebala zen horietako bat, Bergarara zeraman errege-bide aldapatsu zaharretik San Roke kaleraino iristen zena eta antzinako ospitalearen izena hartu zuena. Beste bat XVI. mendetik dokumentatzen den Yuso (edo Beheko) errebala zen, gaur egun plaza dagoen tokitik Salbatore kalera zeramana eta Kanpazar eta Angiozarrera joateko bidea zuena. Hirugarren bat Zerkaosteko errebala zen (egun Artekale dena).

Alde batean, Elgetako Erdi Aroko herribilduaren berreraiketa hipotetikoa irudikatzen da, eta bestean, 1623ko Elgetaren planoa.

Planoa, koloretako akuarelaz egina, Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxibategian dago, eta egilea Antonio de Bolumbizar da. Komun bateko urak bide publikora ateratzeagatik Juan Martínez Zabalaren eta Pedro Arriolaren artean izandako auzitik atera zen planoa [53].




1623ko Elgetaren planoa / *Plano de Elgeta de 1623*

Este dibujo de gran plasticidad representa el plano de Elgeta en esa fecha con una información visual, completada por una información escrita. En la leyenda, que cubre todo el plano, se contienen estos datos concretos de interés y su localización: (1) la iglesia parroquial; (2) la casa del Concejo; (3) la plaza pública de la villa; (4) el Hospital; (5) Torrekua o la torre de Sebastián López de Mallea; (6) la casa de Martin de Unceta caballero de la orden de Santiago; (7) la casa del doctor Pedro de Arriola (a la altura de la casa Zeleta), denunciado en el pleito; (8) camino al caserio Zabale, denunciante en el pleito, con el manantial de agua del pueblo; (9) calle San Roke con diez viviendas en la parte de arriba y quince en la parte de abajo; (10) el portal de la villa en la parte alta de la calle San Roke; (11) el arrabal de Zerkaoste (Artekale) con once viviendas juntas y una separada en el camino a Eibar; (12) el arrabal de Yuso con seis viviendas juntas en la parte de abajo y nueve viviendas juntas en la parte de arriba, y otras seis separadas. En total están representadas 58 viviendas.

(En la nota 54 se hacen anotaciones sobre Martín de Unceta, Sebastián López de Mallea y Pedro de Arriola).

## *AYUNTAMIENTO Y PLAZA*

La villa de Elgeta fue arrasada en la última guerra española, y se reconstruyó con modificación de calles y habilitación de solares desde 1942 hasta 1946.

La primera casa del Concejo, destruída en esta guerra, se construyó a partir de 1496, al lado de la iglesia y en un edificio de 14 x 13 metros con sotano, dos plantas y desván. En ese mismo espacio se reconstruyó totalmente en 1856, al amenazar ruína en sus techos y paredes.

El edificio municipal actual, junto con la plaza anterior y posterior, son una muestra de la arquitectura del Régimen franquista, bajo la Dirección General de Regiones Desvastadas con el arquitecto Joaquín Dominguez. En esa reconstrucción se utilizó la mano de obra forzada de los prisioneros de los *"Batallones Disciplinarios de Trabajadores"*, que solían ser prisioneros calificados como "desafectos".

Este edificio actual es de planta rectangular, con altura de dos plantas y bajo. Presenta una portalada que abarca todo el ancho de la fachada principal y que se sustenta por seis columnas de sillería de arenisca. Un balcón corrido de hierro colado recorre igualmente toda la fachada a la altura del primer piso. El escudo heráldico de la villa remata el edificio, que sobresale sobre la línea que describe el alero.

La plaza reconstruida, en la parte delantera del Ayuntamiento, es un amplio espacio rectangular. A lo largo del último siglo tuvo tres denominaciones: como "Plaza del Alpinismo" (1926), en recuerdo de la constitución

Plastikotasun handiko irudi honek garai hartako Elgetaren planoa irudikatzen du. Orobat, irudiak eskaintzen duen informazioa idatzizkoak osatzen du. Plano guztia hartzen duen legendan,kokapenari eta abarri buruzko datuak ageri dira leku hauei dagokienez: (1) eliza nagusia; (2) udaletxea; (3) udalerriko plaza; (4) Ospitalea; (5) Torrekua edo Sebastián López de Mallearen dorrea; (6) Santiagoko ordenako Martin de Unceta zaldunarena; (7) Pedro Arriola doktoren etxea (Zeleta etxearen mailan), auzian salatu zutenarena, alegia; (8) Zabale baserrirako bidea, hau da, auzia jarri zuenarena, eta herriko iturburua; (9) San Roke kalea, goiko partean hamar etxebizitza zituena eta hamabost behekoan; (10) herrian sartzeko atea, San Roke kaleko goialdean zegoena; (11) Zerkaosteko (Artekale) errebala, hamaika etxe zituena elkarren segidan eta bat banatuta Eibarrerako bidean; (12) Yusoko errebala, elkarri atxikitako sei etxe zituena behealdean eta bederatzi goialdean, eta beste sei banatuta. Guztira 58 etxebizitza ageri dira.

(Ikus 54. oharra Martín de Unceta, Sebastián López de Mallea eta Pedro Arriolari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero).

## UDALETXEA ETA PLAZA

Espainiako azkeneko gerrak suntsituta utzi zuen Elgeta eta ondorioz herria berreraiki beharra zegoen. 1942tik 1946ra gauzatu zen berreraikitze prozesu hartan, aldaketak egon ziren kaleen antolaketan eta orubeak gaitu behar izan ziren.

Gerra hark lehenengo udaletxea suntsitu zuen, 1496an eraikitzen hasitakoa, elizaren ondoko 14 x 13 metroko eraikin batean, sotoa, bi solairu eta ganbara zituena. Teilatua eta hormak hondatu zirenean, espazio horretan bertan berreraiki zen osorik 1856an.

Gaur egungo udaletxea eta bere aurreko eta atzeko plaza, aldiz, Erregimen frankistako arkitekturaren erakusgarri dira, eta zehatzago esanda, "Dirección General de Regiones Desvastadas" zeritzon erakundearen eta Joaquín Dominguez arkitektoaren lana da. Berreraiketa hori bortxazko lanaren bidez egin zen, "*Batallones Disciplinarios de Trabajadores"-eko* "Erregimenaren aurkako" gatibuen lanarekin.

Eraikin berria oinplano angeluzuzenekoa da eta hiru solairuko garaiera du. Aurrealdearen zabalera guztia hartzen duen ataria dauka, hareharrizko harlanduz eginiko sei zutabez eutsia, eta alderik aldeko balkoia dauka lehenengo solairuan, burdinurtuzkoa. Udalerriaren armarria gailentzen da eraikinaren goiko aldean, teilatu-hegalak marrazturiko lerroaren gainean.

Udaletxearen aurreanplaza angelu zuzen zabala dago. Pasa den mendean zehar hiru izenez ezagutu da: "Plaza del Alpinismo" (1926), "Federación Vasca-Navarra de Alpinismo" elkartearen omenez jarria; "Plaza

en 1924 de la Federación Vasca-Navarra de Alpinismo; unos meses después de la última guerra, se impuso la denominación de “Plaza de España”; y en 1978 se cambió oficialmente por “Mendizaleen Plaza”, una de las pocas plazas dedicada a los montañeros.



*Casa Consistorial desde la plaza posterior de Andra Mari y en ella marcada la localización de la antigua Casa Consistorial.*
Udaletxea Andra Mariko atzeko plazatik ikusita, eta udaletxe zaharraren kokalekua markatuta.

de España", azkeneko gerra amaitu eta handik hilabete batzuetara ezarria; eta azkenik, 1978tik duena, Mendizaleen Plaza, alegia; mendizaleei eskeinitako plaza bakanetako bat bilakatzen duena.



Udaletxearen ikuspegia plaza nagusitik.
*Vista del Ayuntamiento desde la plaza principal.*

## *CASA-TORRE ABRIDIO (TORREKUA) (TORRE DE URRUPAIN)*

La casa Abridio, conocida como Torrekua o Torre de Urrupain, está situada a la entrada de la villa en la carretera a Ubera, al lado del antiguo camino real. Está declarada "Bien de Interés Cultural" (BIC) desde 1960.

Sus fundadores fueron el matrimonio Juan Ochoa de Urrupain y Catalina de Iturrao e Ibarra. Tuvo continuidad con la hija de estos, Catalina de Urrupain e Iturrao, casada con Sebastián López de Mallea y Bustinza, natural de Ermua.

Es un edificio, construido en sillería y mampostería, de planta cuadrada. Se cubre con tejado a cuatro aguas, y se asienta sobre una moldura que remata sus muros. Debido a la pendiente, las fachadas no tienen la misma altura.

Lo más interesante es su fachada principal en sillería, de buena labra, y que presenta un pórtico de estilo renacentista. El único acceso es adintelado y cuenta con dos pares de pilastras a los lados, molduradas con capiteles corintios. El dintel del vano se decora con dos discos, en el interior de los cuales se encuentra el anagrama de Cristo y otro de Maria, su madre; entre ambos existe un escudo de armas (arriba con dos ramas enlazadas y abajo con tres hojas iguales de trébol), con la palabra "Abridio" y la fecha de 1564. Encima del dintel hay un friso decorado con rombos.

Las otras fachadas carecen de interés, a excepción de un acceso en arco de media punta adovelado en la fachada meridional, por la parte más baja del edificio, y que denuncia una época anterior estilística a la fecha de la fachada principal orientada al oeste.




*Escudo de la Casa Abridio* / Abridio Etxearen armarria

## ABRIDIO DORRETXEA (TORREKUA) (URRUPAIN DORRETXEA)

Abridio etxea, Torrekua edo Urrupain Dorretxea gisa ezagunagoa, udalerriaren sarreran dago, Uberara doan errepidean, antzinako errege bidearen ondoan. Kultur Ondasun izendatu zuten 1960an.

Juan Otxoa Urrupainek eta Catalina Iturrao Ibarrak sortu zuten. Hauen alaba Catalina Urrupain Iturraok eman zion jarraipena, Ermuako Sebastián López de Mallea senarrarekin batera.

Oinplano karratuko eraikina da, harlanduz eta harlangaitzez egina. Lau isuriko teilatua du eta moldura baten gainean eraikitako hormak ditu. Maldaren eraginez, fatxadek ez dute garaiera berbera.

Dorretxearen ezaugarririk interesgarrienak ondo landutako harlanduzko aurrealdea eta estilo errenazentistako ataria dira. Sarbidea laua da eta alboetan bi pilastra pare ditu, korintoar kapitelekin molduratuak. Baoaren ateburua bi diskok apaintzen dute, eta euretako baten barnean Kristoren anagrama azaltzen da eta bestean Maria, Kristoren ama. Bien artean armarri bat dago (goian elkarri jositako bi adar dituena eta behean hiru hirusta orri) eta bertan “Abridio” hitza eta 1564eko data ageri dira. Ateburuaren gainaldean erronboz apaindutako frisoa dago.

Gainerako fatxadei dagokienez, interes berezirik izan ez arren, hegoaldeko fatxadako sarbidean, hau da, eraikuntzaren gunerik baxuenean, bada arreta merezi duen erdi puntuko arku dobelatu bat, zeinak mendebaldera begira dagoen sarrera nagusiarekin alderatuz gero, data zaharragoko estilistika salatzen duen.



Abridio Dorretxea / *Torre Abridio*

**PORTALEKUA (Vivienda nº 14 de Calle San Roke)**

Casa renacentista del siglo XVI, con fachada principal de sillería, y el acceso al interior se hace por un arco carpanel abovedado. Está situada junto al arco que originariamente permitia la entrada al antiguo recinto amurallado de la villa. Aún conserva parte de los goznes, sobre los que encajaban los ejes de giro de las hojas de la puerta, al igual que en el muro de la parroquia situada enfrente. Son de especial valor artístico algunas de sus ventanas abiertas, unas a la calle Maala y otras a la calle S. Roke de la fachada principal.

Su estructura antigua es de tres plantas: planta baja, piso principal y desván.

Conocemos que en 1623 vivía el escribano Martin Perez de Marquiegui, y en 1895 pertenecía a la familia Urquizu (Luis Gonzaga de Urquizu y Zorrillo), y era denominada "casa del herrero".



*Casa de Azkarate o Agirrecoa* /Azkarate etxea edo Agirrecoa

**CASA AZKARATE (AGUIRRECOA) (Vivienda nº 6 de calle San Roke)**

En la actualidad es conocida como "Casa Azkarate" por su último administrador y después propietario.

La primera cita documental de esta casa es de 1602, y es descrita como "la casa e torre gris de Martin Perez de Arregui e donna Ana de Ybarra, situándola en el Arrabal de Yuso" y con la denominación de "Aguirrecoa". En 1695 se cita como propietario a Juan Alfonso de Gamarra Urquizu.

**PORTALEKUA (San Roke Kaleko 14.a)**

XVI. mendeko etxe errenazentista honek harlanduzko aurrealdea dauka eta ganga formako karpanel arku batetik du sarbidea. Antzina herribildu harresitura sartzea ahalbidetzen zuen arkuaren ondoan dago, eta oraindik, pareko elizaren horman bezala, atearen orrien ardatzak sartzen ziren gontz batzuk gordetzen ditu. Balio artistiko berezia dute Maala kalera eta San Roke kalera begira dauden fatxada nagusiko leihoetako batzuek.

Antzinako egitura hiru solairukoa zen: beheko solairua, solairu nagusia eta ganbara.

Badakigu 1623an Martin Perez Markiegi eskribaua bizi izan zela bertan, eta 1895ean, berriz, Urkizu familiarena (Luis Gonzaga Urkizu Zorrillo) izan zela eta “errementariaren etxea” deitzen ziotela.



Portalekua etxea / *Casa Portalekua*

**AZKARATE ETXEA (AGIRREKOA) (San Roke Kaleko 6.a)**

Gaur egun duen izena, “Azkarate Etxea”, alegia, azkeneko administratzailea eta jabea izandakoarengandik jaso zuen.

Etxe hau 1602ko testu batean aipatzen da lehenengo aldiz, “Aguirrecoa” izenez, eta honela deskribatzen dute: “la casa e torre gris de Martin Perez de Arregui e donna Ana de Ybarra, situándola en el Arrabal de Yuso”.
1695ean Juan Alfontso Gamarra Urkizu azaltzen da jabe gisa.

Después esta casa fue propiedad de la familia Arteaga, que ostentaba el señorio y casa nobiliaria de Lazcano (Duque del Infantado). Aparecen como propietarios en el Registro de la Propiedad de Bergara: Juan M. Arteaga, hereda su hijo Juan Ramón de Arteaga y Mayora (vecino de Tolosa), y heredan los hijos del anterior, Arteaga y Azpiroz (1860).

Esta amplia casa, de 220 metros cuadrados, está construida en mampostería y presenta un arco rebajado de acceso. Es también de interés la decoración en hierro forjado de la barandilla de los balcones de la fachada.

Su estructura está construida aprovechando posiblemente la planta de una casa-torre anterior y presenta caracteres góticos. Actualmente este edificio renacentista cuenta con un anagrama de Cristo en su portada gótica. En su exterior luce una placa en recuerdo de Ignacio de Zuloaga, que vivió en esta casa en 1899 durante su primer año de matrimonio [55].

## *CASA ARCO O CADENA (KATAI ETXEA) (KATAIA) (KATAREKUA)*

Esta casa tiene varias denominaciones entre los vecinos, y sirve de paso a la carretera de Bergara-Durango, terminada en 1833. Tiene el carácter de puerta de la villa, a modo de las puertas neoclásicas, con el arco central y dos cuerpos laterales macizos, siendo el edificio más emblemático del núcleo urbano de Elgeta.

El nombre de esta casa hace referencia a la función que desempeñó como una “cadena” o barrera fronteriza con Bizkaia para pagar los aranceles de frutos, productos y transportes.

En el anexo VII se amplía que este edificio fue comprado por la Diputación en 1928. En aquel momento de la compra estaba habitado por el Administrador subalterno de arbitrios provinciales y una pareja de mikeletes de aquel puesto, y a su vez en la planta baja se hallaba instalada la Administración y Agencia de la Caja de Ahorros Provincial.

El edificio ha sufrido diversas transformaciones arquitectónicas. En los gráficos (pags. 136-137) ilustramos esta evolución: el diseño del edificio original en torno a 1833 (gráfico 1); la reconstrucción de época no precisa (gráfico 2); la reforma después de ser adquirido por la Diputación en un proyecto de 1932 y que es el exterior que aún se mantiene; la reconstrucción de 1937 trás los efectos devastadores de la guerra (gráfico 3). En la actualidad su estructura interior responde a la última reforma de 1987 para destinarla a Casa de Cultura de la Villa.

Al exterior, antes de la cornisa y rematando el edificio, lo decoran tres escudos: el de Elgeta (centro), Gipuzkoa (derecha) y Bizkaia (izquierda). En el tejado aparecen, adornando las dos chimeneas, los escudos de Bergara (derecha) y Elorrio (izquierda). Con esta decoración se hace memoria de los tres pueblos y las dos provincias promotores en la construcción de la carretera Bergara-Durango.

Ondoren, Arteaga familiarena izan zen, Lazkano etxeko jaun eta noblearena (Infantadoko Dukea). Bergarako Jabetza Erregistroan jabe bezala azaltzen dira ondorengoak: Juan M. Arteaga, oinordetzan hartu zuen bere seme Juan Ramón Arteaga Mayora (tolosarra), eta honen oinordeko Arteaga Azpiroz (1860).

220 metro karratuko etxe hau harlangaitzez egina da eta sarbidean arku beheratua dauka. Interes berezia du, halaber, fatxadako balkoietako barandan dituen burdina forjatuzko apaingarriek.

Egiturak lehenagoko dorretxe baten gainean eraikitakoa dirudi eta karaktere gotikoak ditu. Eraikin errenazentista honek gaur egun Kristoren anagrama bat du portada gotikoan. Kanpoaldean Ignazio Zuloagaren oroimenez jarritako plaka bat dauka, zeina 1899an, bere ezkon bizitzaren lehen urtean, etxe honetan bizi izan zen [(55).]

## KATAI ETXEA (KATAIA) (KATAREKUA)

Bizilagunen ahotan hainbat izen hartzen dituen etxe honek 1833an bukaturiko Bergara-Durango errepidera darama. Herribildurako sarbidea eskaintzen du, ate neoklasikoen moduko arku nagusiaren eta alde bietako gorputz sendoen bidez, Elgetako herribilduko eraikinik adierazgarriena bilakatuz.

Etxearen izenak antzina izan zuen funtzioari egiten dio aipamena, izan ere, Bizkaiarekin mugan egonik, “kate” edo muga gisa baliatzen baitzen fruitu, produktu eta garraioen muga-zergak ordaintzeko.

VII. Eranskinean zabalago azaltzen da Aldundiak 1928an etxe hau erosi zueneko informazioa. Erosketaren unean, bertan bizi ziren agindupeko probientzia-arielen Administratzailea zena eta bi mikelete, eta beheko solairuan zeuden Probintziako Aurrezki Kutxaren Administrazioa eta bulegoa.

Eraikinak hainbat eraldaketa arkitektoniko jasan ditu. Grafikoetan (136-137. orrialdeak) irudikatuko dugu bilakaera hau: 1833 inguruko jatorrizko eraikinaren diseinua (1. irudia); data zehatzik gabeko berreraiketa (2. irudia); 1932ko proiektu batean Aldundiaren esku geratu zenean eraberritu zenekoa, eta kanpoaldetik gaur egun duen itxura eman zitzaionekoa, eta 1937ko berreraikitzea gerrako suntsiketen ondoren (3. irudia). Orain duen barrualdeko egitura 1987ko berriztatzeari dagokio, hau da, herriko Kultur Etxe bilakatzean hartu zuen egiturari.

Kanpoaldea erlaitzaren azpian dauden hiru harmarrik apaintzen dute: Elgetakoa (erdian), Gipuzkoakoa (eskuinean) eta Bizkaiakoa (ezkerrean). Teilatuko bi tximiniak, aldiz, Bergarako armarriak (eskuinean) eta Elorriokoak (ezkerrean) apaintzen dituzte. Apaindura hauek guztiek Bergara-Durango errepidearen eraikuntzan parte hartu zuten herriak eta probintziak omentzen dituzte.




*Gráfico 1* - 1go Irudia
*Casa del Arco.*
*Diseño de Angel Pirala (1892).*
Arco etxea.
Angel Piralaren diseinua.

*Gráfico 2* - 2. Irudia
*Casa del Arco restaurada por la Diputación (1932). Foto de Indalecio. Ojanguren (1933)*
Arco etxea aldundiak zaharberrituta.
Indalecio Ojangurenen argazkia.






3. irudia - *Gráfico 3*
Arco etxea gerra ondoren zaharberrituta
*Casa del Arco restaurada después de la guerra.*

## ***ARQUITECTURA RURAL (LOS CASERÍOS)***

El caserío es un término que designa tanto a la casa solar o institución económica en una sociedad agropecuaria como al edificio o arquitectura de vivienda que la alberga.

Como casa solar es una institución económica o cédula básica de producción familiar, y se puede afirmar que se configuró en el Medioevo, entre los siglos XII y XIII. Y como edificio o modelo arquitectónico es una casa de labranza que surgió en Euskal Herria a finales del siglo XV. Fue una construcción tan expansiva, con variedad de modelos según las épocas y territorios, que en cuatro siglos se construyeron más de cuarenta mil caseríos en los siete territorios de Euskal Herria.

Algo propio de los caseríos vascos es que todos tienen un nombre propio, reconocido por las autoridades y vecinos, y su nombre habitualmente es invariable a través de su historia, a pesar de las posibles remodelaciones del edificio o del cambio de moradores. Ellos son el origen de muchos apellidos vascos. Así desde los siglos X y XI se empieza a consolidar el sistema de identificación de una persona por: el nombre propio o de pila, el patronímico (o derivado de los antecesores) y el toponímico (o casa solar familiar).

Sin duda, en los caseríos el topónimo de origen o utilizado en otra época por la generalidad de la comunidad es un legado cultural, que nos acerca a sus raíces.

Los caseríos de Elgeta, como ocurre en otros lugares, en su topónimo o nombre propio casi siempre tienen referencias de carácter topográfico, vegetal o geológico al paraje en el que se asientan; o reciben el nombre de la producción u oficio del morador o dueño.

Unas veces se refieren al paisaje natural, como Pagatza (*paga* -haya- y *tza* -abundancia-), Larragibel (*larra* -pastizal- y *gibel* -detrás-), Lapurdi (*larra* -pastizal- y *ugari* -abundante-); al paisaje viviente, como Abeletxe (*Abere* -animal- y *etxe* -casa-), Ollakorta (*Oilo* -gallina- y *korta* -cuadra-), Mendrakorta (*Mendre* -pequeña- y *korta* -cuadra-), Ureixa (*Ur* -agua- y *eixa* -abundancia-).

Otras veces se refieren a la posición geográfica en relación al paisaje u otras casas, como Iturbe (*iturri* -fuente- y *be* -debajo-), Altube (*altu* -alto o monte- y *be* -debajo-), Beketxe (*Beko* -de abajo- *etxe* -casa-); o a un lugar significado, como Azurtza (*hezur* -hueso- y *tza* -lugar-) (lugar de enterramiento), Olatza (*Ola* -cabaña- y *tza*-abundancia-), Aranburu (*Aran* -valle- y *buru* -cabeza-).

Es menos frecuente que reciban el nombre del oficio del morador o dueño, como Abadekoa (*Abade* -Abad- y *ko* -lugar-), Felisenekoa (*Felis* -Felix- y *ko* -lugar-); o a la producción desarrollada como Ikatzerre (*Ikatz* -carbón- y *erre* -quema-), Olaegi (*Ola* -ferrería- y *egi* -ladera-).

## LANDA-ARKITEKTURA (BASERRIAK)

Baserria, alde batetik, orube bat da, nezakaritzaz bizi den gizarte bateko instituzio ekonomikoa, eta bestetik, familia baten bizilekua den eraikina.

Baserria orube gisa hartuz gero, instituzio ekonomiko bat edo familia ekoizpeneko zelula bat da, eta baieztatu daiteke Erdi Aroan (XII. eta XIII. mendeen artean) eratu zirela modu honetan. Eraikin bezala hartzen badugu, Euskal Herrian XV. mendearen amaieran sortu zen laborantzarako etxea da. Azkar hedatu zen eraikuntza mota hau garaiaren eta lurraldearen araberako bereizgarriekin. Hala, lau mendetan berrogei mila baserri baino gehiago eraiki ziren Euskal Herriko zazpi lurraldeetan.

Euskal baserrien bereizgarri bat da denek dutela izen berezi bat, agintariek aitortua eta auzolagunek erabilia, eta baserriaren historian zehar aldatu gabe irauten duena berreraiketen edo bertako biztanle aldaketen aurrean. Euskal abizen askoren jatorria ere bada. X. eta XI. mendeetan hasten da finkatzen pertsona bat identifikatzeko sistema, modu honetan: ponte izena, patronimikoa (edo arbasoengandik hartua) eta toponimikoa (edo familia etxearena).

Zalantzarik gabe, bere sustraietara garamatzan kultur ondarea da baserriaren izena, bai jatorrizko toponimoa bai gizartearen gehiengoak beste garai batean baserria izendatzeko erabiltzen zuen izena izan daitekeena.

Elgetako baserri-izenek, beste lekuetan gertatzen den moduan, ia beti dute zerikusia inguruko topografia, landareria edo geologiarekin, edo bertako biztante edo jabeen ekoizpen edo lanbidearekin.

Batzuetan paisaiari egiten diote aipamena, bai paisaia naturalari, Pagatza (*pago* eta *-tza* 'ugaritasuna'), Larragibel (*larre* eta *gibel*) eta Lapurdi (*larre* eta *ugari*) izenek erakusten duten moduan, bai paisaia bizidunari, Abeletxe (*abere* eta *etxe*), Ollakorta (*oilo* eta *korta*), Mendrakorta (*mendre* 'txiki' eta *korta*) eta Ureixa (*ur* eta *-egia*) izenek erakusten dutenez.

Beste batzuetan, aldiz, kokaleku geografikoa adierazten dute paisaiari edo beste etxeei dagokionez, hala nola, Iturbe (*iturri* eta *be*), Altube (*altu* eta *be*) eta Beketxe (*beheko* eta *etxe*) izenek, edo leku garrantzitsu bati dagokionez, Azurtza (*hezur* eta *-tza*), Olatza (*ola* eta *-tza*) eta Aranburu (*aran* eta *buru*) izenetan ikus daitekeenez.

Ez da horren ohikoa bertan bizi denaren edo jabearen izena jartzea, Abadekoa (*abade* eta *-koa*) edo Felisenekoa (*Felis* eta *-enekoa*) izenen kasuan bezala; eta etxean ekoizten zena izendatzen dutenak ere gutxiago dira, Ikatzerre (*ikatz* eta *erre*) eta Olaegi (*ola* eta *hegi*) bezalakoak, alegia.

En el recorrido por los caseríos de Elgeta seguiremos las siguientes anotaciones e imagenes:

- *Número de localización en el mapa, siguiendo este orden de barrios: Aixola, Egotxeaga, Goimendi, Larragibel, Arantzeta, Uriarte, Anzuategi, Izuziaga, Arrota, Asentzio.* (Ver mapa de caseríos en el Anexo XI).

- *Denominación más convencional del caserío, utilizada por los vecinos o moradores de cercanías.*

- *Otras denominaciones linguísticas con los años de referencia.*
  Estas referencias se ciñen a las siguientes fuentes:
  - Año 1448 extraído de la obra "Oñacinos y gamboínos" de Juan Carlos de Guerra.
  - Año 1625 extraído de la obra "Compendio Historial de Guipúzcoa" de Lope de Isasti.
  - Año 1780 extaído del Censo de Elgeta, con el nombre del propietario de cada caserío.
  - Año 1864 extraído del "Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa" recopilado en ese año por la Diputación.
  - Año 1928 extraído del Censo de Elgeta, con los nombres y apellidos de los que en ese momento ostentaban la representación de dichos caseríos.

- *Situación actual de habitabilidad del caserío.* De los 69 caseríos aquí reseñados la relación es de 40 habitados, 17 vacíos y 12 derruídos.

- *Fotografía del caserío.* Podrá resultar que algunas veces no se reconocerá el edificio, pues está derruído o ha sido renovado e incluso derribado y sustituido por otro de nueva construcción.

- *Blasones o escudos de armas en las fachadas de caseríos.* Se muestran los dos existentes entre los caseríos aquí reseñados (Azula y Ojanguren).

Elgetako baserrien ibilbidean ondoko ohar eta irudiak jarraituko ditugu:

• *Mapako kokapen zenbakia, auzoen hurrenkera hau segituz: Aixola, Egotxeaga, Goimendi, Larragibel, Arantzeta, Uriarte, Anzuategi, Izuziaga, Arrota, Asentzio* (Ikus baserrien mapa XI. Eranskinean).

• *Baserriaren ohiko izena, auzolagunek eta bertan bizi direnek erabilia*.

• *Beste izen batzuk, izen horri dagokion urtearekin batera*.
  Iturri hauetakoak dira aipamenak:
  - 1448 urtea, Juan Carlos de Guerraren "Oñacinos y gamboínos" lanetik.
  - 1625 urtea, Lope de Isastiren "Compendio Historial de Guipúzcoa" lanetik.
  - 1780 urtea, Elgetako erroldatik, baserri bakoitzeko jabearen izenarekin.
  - 1864 urtea, Aldundiak urte hartan bildutako "Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa" delakotik
  - 1928 urtea, Elgetako erroldatik, baserri bakoitzaren momentu hartako jabearen izen-abizenekin.

• *Baserriaren gaur egungo egoera*. Hemen azaltzen diren 69 baserrietatik 40tan bizi da jendea, 17 hutsik daude eta 12 eraitsita.

• *Baserriaren argazkia*. Gerta daiteke gaur egungoarekin bat ez etortzea, dela eraitsita edo berrituta dagoelako, dela beste eraikin batek ordezkatu duelako.

• *Baserriko fatxadako armarria*. Hemen azaltzen diren baserrien artetik, bi baserritakoak erakusten dira (Azulakoa eta Ojangurenekoa).

## AIXOLA AUZOA



**1. OLAIKORTA / OILLAKORTA**
(*Olaicorta-andicoa* -1864-)
*Olaicorta allá* -1928- biztanlea / *habitante*:
Ambrosio Ormaechea)
(Biztanleduna / *habitado*).



**2. BEKOERROTA / PANTXINEKUA**
(*Olaicorta-Erdicoa-Errota*)
(*Bekoerrota* -1928- biztanlea / *habitante*:
José María Zubierrementeria).
(Erorita / *Caído*).



**3. ABELETXE**
(*Abeleche*-1780- jabea / *dueño*:
Santa Kruzeko Markesa /*Marqués de Santa Cruz*),
(*Abeleche* -1864),
(*Abeleche* -1928- biztanlea / *habitante*:
José Ramón Aranceta).
(Hutsik / *Vacío*)



**4. AIXOLA GOIKOA**
(*Ariolagaraikoa* -1625-),
(*Arriola arriba* -1928- biztalea / *habitante*:
José Domingo Basauri).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**5. MENDRAKORTA**
(*Mandraracorta* -1625-), (*Mendracorta* -1780- jabea / *dueño*: Eibarko Isasiko monjak / *Monjas de Isasi de Eibar*), (*Mendracorta* -1928- biztanlea / *habitante*: José Antonio Atonasagasti). (Hutsik / *Vacío*)



**6. URBEDEINKATUA / GURGURIOLA / URDINOLA**
(*Gurguriola* -1780- jabea/dueño: Santa Kruzeko Markesa / *Marqués de Santa Cruz*), (*Urbedeincatucúa* -1864-), (*Urbedeincatucoa* -1928- biztanlea / *habitante*: Juan José Ansoategui). (Hutsik / *Vacío*)



**7. FELIZENEKOA / ARRAINDIA**
(*Arreguia*-1780- jabea / *dueño*: Juan Alfonso de Gamarra), (*Arriandia* -1864-), (*Arriandia* -1928- biztanlea / *habitante*: José Arizmendi). (Erorita / *Caído*)



**8. LARROSAKUA**
(*Larrosacoa* -1857-), (*Larrosacoa* -1928- biztanlea / *habitante*: Gregorio Arizmendi). (Hutsik / *Vacío*)



**9. GOZATEGI**
(*Gosetegui* -1857-), (*Gosetegui* -1928- biztanlea / *habitant*e: Andrés Aramburu). (Erorita / *Caído*)



**10. EGUARBITZA / EGOARBITZA**

(*Eguarbiza* -1780- jabea/*dueño*: Santa Kruzeko Markesa/ *Marqués de Santa Cruz*),
(*Eguarbiza* -1864- ),
*Eguarbiza* -1928- biztanlea / *habitante*:
Juan Domingo Olaortua).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**11. ETXEBARRI / ITURBE ETXEBARRI**

(Biztanleduna / *Habitado*)



**12. ITURBE**

(*Iturbe* -1625-),
(*Iturbe* -1780- jabea / *dueño*: José de Murua),
(Iturbe -1864-),
*(Iturbe mayor* -1928- biztanlea / *habitante*:
Melitón Arana).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**13. EGOTXEAGA AURTENGUA**

(*Egoecheaga del medio* -1780- jabea/*dueño*:
Domingo de Elcoro), (*Egotxeaga* -1864-),
(*Egocheaga* -1928- biztanlea / *habitante*:
Dionisio Lamarain).
(Biztanleduna / *Habitado*)



### 14. EGOTXEAGA BARRENENGOA

(*Egoecheaga azpicoa* -1625-), (*Egoecheaga abajo* -1780- jabea / *dueño*: Santa Kruzeko Makesa / *Marqués de Santa Cruz*), (*Egoecheaga bajo*- 1864-), (*Egoecheaga abajo* -1928- biztanleak / *habitantes*: Matías Barrutia eta Pascual Berechinaga).
(Biztanleduna / *Habitado*)



### 15. EGOTXEAGA GOIKUA

(*Egocheaga Garaicoa* -1625-), (*Egocheaga arriba* -1780- jabea / *dueño*: X. Alzuaran), (*Egocheaga arriba* -1928- biztanleak / *habitantes*: Marcos Alzuaran eta Lorenzo Villar).
(Hutsik / *Vacío*)



### 16. TXULOKUA / KORTASAKON

(*Cortasacon* -1928- biztanlea / *habitante*: Atanasio Aranzabal).
(Biztanleduna / *Habitado*)

## GOIMENDI AUZOA



### 17. ARRAOTZ

(*Arrigoz* -1493-), (*Arraoz* -1780- jabea / *dueño*: Gaspar de Irizar), (*Arraocés* -bi etxebizitza / *dos viviendas*- 1864-), (*Arraotz* -1928- biztanleak / *habitantes*: José Martín Arana eta Martín Vergareche).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**18. ARRAOTZ AURRE**

(Biztanleduna / *Habitado*)



**19. AZURTZA**

(*Assurza* -1625-), (*Asurza* -1780- jabea / *dueño*: Bernardo de Egocheaga), (*Azurza* -1864-) (*Azurza mayor* -1928- biztanlea / *habitante*: Francisco Garate).

(Biztanleduna / *Habitado*)



**20. AZURTZAURRE**

(*Azurza menor* -1928- biztanlea / *habitante*: Ramón Ansola).

(Biztanleduna / *Habitado*)



**21. BEIZU**

(*Beicua* -1625-), (*Beizua* -1864-), (*Beisua* -1928- biztanlea/*habitante*: Justo Elcoro-Barrutia).

(Biztanleduna / *Habitado*)



## 22. AZULA

(*Asula* -1625-), (*Asula* -1780- jabea / *dueño*: Nicolas de Egurbide), (*Asula* -1864-), (*Azula* -1928- biztanleak / habitantes: Francisco Elorza eta Juan José Zabaleta). (Hutsik / *Vacío*)
Armarria: sei gunetan banatuta, zeinuz beteta.
*Escudo: articulado en seis espacios con saturación de piezas o signos.*

## LARRAGIBEL AUZOA



## 23. BAZTARRIKA

(*Bazterrica* -1625-),
(*Baztarrica* -1780- jabea / *dueño*:
Valdespinako markesa /*Marqués de Valdespina*)
(*Baztarrica* -1864-),
(*Baztarrica* -1928- biztanlea / *habitante*:
Valentín Iturricastillo).
(Biztanleduna / *Habitado*)



## 24. ABADEKUA/ ABADE

(*Abadecua(s)* -1864-),
(*Abadecoa* -1928- biztanlea / *habitante*:
Juan José Olañeta).
(Biztanleduna / *Habitado*)



## 25. GOIKOETXE

(Erorita / *Caído*)



**26. LARRABILTXO**

(*Larrabillcho* -1864-),
(*Larrabilcho* -1928- biztanlea / *habitante*:
Máximo Aranceta).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**27. LAPURDI AZPIKUA**

(*Lapurdi* -1625-),
(*Lapurdi abajo* -1780- jabea / *dueño*:
Jose Ignacio de Unceta),
(*Lapurdi bekoa* -1928- biztanlea / *habitante*:
José Manuel Zabala).
(Hutsik / *Vacío*)



**28. LAPURDI GOIKUA**

(*Lapurdi arriba* -1780- jabea / *dueño*:
José Manuel de Irizar),
(*Lapurdi* -1864-),
(*Lapurdi arriba* -1928- biztanlea / *habitante*:
Pío Aranceta).
(Erorita / *Caído*)



**29. SAN JUAN**

(*San Juan Chiqui* -1864-),
(*San Juan* -1928- biztanlea / *habitante*:
Lorenzo Iturricastillo).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**30. LARRAGIBEL**

(*Larraguibel* -1625-)
(*Larraguibelgoena* -1780- jabea / *dueño*: Magistral de Vitoria X Baraguren).
(*Larraguibel* -1928- biztanlea / *habitante*: Paulo Lamariano).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**31. LARRABIL / LARRAGIBELBURU**

(*Larrabil* -1864-)
(Biztanleduna / *Habitado*)

## ARANTZETA AUZOA



**32. ANDUTZA**

(*Anduza* -1857-),
(*Anduza* -1928-).
(Erorita / *Caído*)



**33. ARANTZETA NAGUSIA**

(*Aranceta* -1448-), (*Aranzaeta* -1625-),
(*Aranceta mayor* -1780- jabea / *dueño*: Lucas Ignacio de Irazabal),
(*Aranceta* -1864-),
(*Aranceta mayor* -1928- biztanlea / *habitante*: Pedro Basauri).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**34. ARANTZETA ERDIKOA**

(*Aranzaeta* -1625-),
(*Aranceta menor* -1780- jabea / *dueño*:
Manuel de Olaegui),
(*Aranceta menor* -1928- biztanlea / *habitante*:
Elías Ascasibar).
(Hutsik / *Vacío*)





**35. OJANGUREN**

(*Oxanguren* -1448-), (*Oyanguren* -1625-),
(*Ojanguren* -1780- jabea / *dueño*:
X. Ibañez de Ojanguren),
(*Ojangurene* -1864-),
(*Ojanguren* -1928- biztanleak / *habitantes*:
Eulogio Ojanguren eta Lorenzo Arizmendi).
(Biztanleduna / *Habitado*)
*(Escudo: en el espacio un águila alzada y entera, y en la orla o bordura con ocho torrecillas).*
(Armarria: hegaldatutako arrano osoa, eta orla edo ertzean zortzi dorre txiki).



**36. ITURRI**

(*Iturria* -1448-), (*Iturri* -1625-),
(*Iturri de acá* -1780- jabea / *dueño*:
Aldazabalgo oinordekoak / *Herederos de Aldazabal*),
(Iturri -1928- biztanleak / *habitantes*:
Félix Sarasqueta eta Modesto Aranzabal).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**37. ARANTZABAL**

(*Aranzaval* -1625-),
(*Aranzabal* -1780- jabea / *dueño*:
Juan Alfonso de Aranzabal),
(*Aranzabal* -1864-),
(*Aranzabal* -1928- biztanlea / *habitante*:
Juan José Aranzabal).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**38. KASTILLOKUA**

(*Iturricastillo* -1780- jabea / *dueño*:
Francisco Antonio Iturricastillo),
(*Castillocoa*- 1864-),
(*Castillocoa* -1928- biztanlea / *habitante*:
Francisco Iturricastillo).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**39. ZEZEAGA TXIKI**

(*Ceceaga* -1625- )
(*Ceceaga Menor* -1928- biztanlea / *habitante*:
Miguel Uncetabarrenechea).
(Biztanleduna / *Habitado*)



**40. BEKOETXE - BEKETXE**

(Hutsik / *Vacío*)



**41. ZESTO GAINEKUA**
(*Sostoa gañekua* -1625-),
(*Sestoa de Suso* -1780- jabea / *dueño*:
Manuel Domingo de Altube), (*Sostoas* -1864-),
Estas fuerzas, integradas en la IV Brigada de Navarra, estaban concentradas en Bergara-San Juan-Angiozar, al mando del coronel Alonso Vega. La formaban varios tercios de requetés, un batallón de la falange navarra, varios batallones del Regimiento América del Ejercito y las tropas marroquíes del V Tabor de Tetuán; también participaban los italianos de la Brigada Mixta *"Flechas Negras" y sus blindados*, y la escuadrilla de bombarderos y cazas alemanes de la *"Legión Cóndor"*. En total unos 12.700 atacantes rebeldes.

Además contaban con 20 baterías, unos 80 cañones de grueso calibre.

***Fuerzas defensoras republicanas:***

Estas fuerzas se distribuían así: en Azkonabieta con el Bon. Kirikiño (PNV); en Elgeta con una Cia. de UHP (JSU); en Intxortas con el Bon. Martiartu (PNV) y con la Cía. Ametralladoras Saseta (unos 12 gudaris); en Arrota con dos Cias. de Dragones (JSU); en Zabaleta con el Bon. UHP (JSU).

Eran unos 3.500 defensores.

Las pocas piezas de artillería estaban así localizadas: en Karabieta cuatro cañones; en la ermita de S. Urbano (camino de Elorrio) dos obuses; en el cementerio del pueblo dos cañones; en la ermita de S. Salbador cuatro morteros; en el caserío Uriburu dos cañones; en Intxorta cuatro ametralladoras.
Desde el 2 de marzo en el ataque principal de los Intxorta estaba Pablo Beldarrain, comandante del Bon. Martiartu, que ejerció su mando y elaboró en mes y medio algunas estrategias de defensa, aprovechando la configuración del terreno.

Una estrategia consistió en mover las posiciones. A las antiguas trincheras en el camino de Partaitxi, y que los rebeldes denominaban el "parapeto de los toldos" porque aparecían cubiertas por gran número de lonas para proteger a los defensores de la intemperie, se les unieron otras trincheras construidas en una segunda línea,

## INTXORTETAKO AZKEN BORROKAK (1937/04/20tik 1937/04/24ra)

Madril hartzeko saiakerak porrot egin ondoren, matxinoek Iparraldeko gerrari ekin zioten berriro ere.

Apirilaren lehenengo egunetatik Bergara inguruan tropa gehiago bildu eta hainbat kainoi kokatu zituzten han eta hemen Intxorten aurkako behin-betiko erasoaldirako. Dena den, egunetako euriteen eraginez erasoa atzeratu egin zen.

Kontuan hartzeko datua da italiarren hegazkineriaren eta artilleriaren babesa zuten lau erasotzaileko, artilleria eskaseko eta abiaziorik gabeko defendatzaile bakarra zegoela.

**Indar erasotzaile matxinoak:**
Alonso Vegaren agintaritzapean, Bergara-San Juan-Angiozar inguruan bildu ziren Nafarroako IV. Brigada osatzen zuten indar matxinoak. Hainbat errekete tertziok eratzen zuten, eta Nafarroako falangearen batailoi batek, Amerika Errejimenduko zenbait batailoik eta Tetuango V. Taborreko tropa marokoarrek. Halaber, "*Gezi Beltze*n" Brigada Misto italiarrak eta "*Kondor Legio*" alemaniarreko bonbardaketarako eskoadrilak eta beren ehiza-hegazkinek ere eratzen zuten. Orotara 12.700 erasotzaile matxino elkartu ziren.

Gainerakoan, kalibre astuneko 80 kanoik osatutako 20 bateria zituzten.

**Indar errepublikazale defendatzaileak:**

Horrela banatu zituzten indarrak: Azkonabietan Kirikiño Batailoia (EAJ) zegoen, Elgetan UHPren (JSU) Konpainia, Intxortetan Martiartu Batailoia (EAJ) eta Sasetako Metrailadore Konpainia (12 bat gudari), Arrotan Dragoien (JSU) bi konpainia eta Zabaletan UHP (JSU) Batailoia.

Defendatzaileak 3.500 bat ziren.

Artilleria berriz horrela kokatu zuten: Karabietan lau kainoi, San Urbano ermitan (Elorriora bidean) bi obus, herriko hilerrian bi kainoi, San Salbatore ermitan lau mortero, Uriburu baserrian bi kainoi eta Intxortan lau metrailadore.
Pablo Beldarrain, Martiartu Batailoiko komandantea, martxoaren 2an Intxorten aurka egin zuten lehendabiziko erasoalditik zegoen bertan. Hilabete eta erdian defentsarako zenbait estrategia garatu zituen lur eremuaren formaz baliatuz.

Estrategietako bat kokapen aldaketetan oinarritu zen. Partaitxiko bidean zeuden trintxera zaharrei (matxinoek "toldoen parapeto" deitzen zietenak olan pila batez estalita zeudelako defendatzaileak egurats gorritik babesteko) bigarren lerro batean kokatutako trintxera berriak gehitu zitzaizkien bidearen atzealdean eta

detrás y encima del camino, bien disimuladas en el hayedo. Durante la media hora que solía bombardear la aviación enemiga, el cebo más visible eran las antiguas trincheras, y los defensores se retiraban a las nuevas trincheras, y volvían a las antiguas en primera línea, una vez que terminaba el bombardeo y aparecía la infantería rebelde.

Otra estrategia fue la construcción de fortificaciones con técnicas novedosas. Beldarrain diseñó las trincheras en forma de un arco abierto, con un pasillo central de un metro aproximado, y una serie consecutiva de nichos para dos tiradores, y en algunos lugares las conectó con otro ramal con trazado en zig-zag o sinuoso. Además se incrementaron las alambradas de púas y obstáculos de árboles abatidos medio troceados, se hicieron algunas obras de hormigón y mampostería para nidos y refugios de armas pesadas, se sembraron varias minas explosivas por delante de la alambrada del camino de Partaitxi.

El primer ataque comenzó el 20 de abril de 1937 desde las doce del mediodía hasta entrada la noche, y estaba proyectado, como el anterior del 4 de octubre, en tres direcciones, con el frente principal por el collado de Asentzio y dos frentes secundarios por los lados (Ubera y Zabaleta).

Una primera señal fue la aparición de seis aparatos de bombardeo, que descargaron algunas toneladas de bombas, y siguieron otros aparatos en renovadas operaciones, sin posible respuesta de los aviones y antiaéreos inexistentes en el ejército republicano.

Después de más de una hora de bombardeo intenso, dejaron de aparecer, y entonces la infantería enemiga procedió al ataque principal, saliendo de sus posiciones cercanas a la ermita de Asentzio e iniciando el asalto a las trincheras más cercanas de Partaitxi, situadas a unos trescientos metros, y desde las que los defensores les producían numerosas bajas al actuar sobre terreno descubierto.

Un momento especialmente tenso fue cuando algunos atacantes alcanzaron unos muros de piedra a veinte metros de las primeras defensas de Partaitxi.

A ese primer intento frustrado, siguieron casi dos horas de bombardeo y ametrallamiento, y se repetía el fracaso de la infantería al ser contenida cerca de sus puntos de partida, o castigada la avanzadilla por su propia aviación. Así continuó el machaqueo hasta entrada la noche.
Un frente secundario de atacantes con tanquetas ligeras italianas trató de avanzar hacia Elgeta por la zona de la derecha en la subida de Ubera, y ante el hostigamiento de los defensores desde el Azkonabieta y con la carretera previamente obstaculizada, se detuvieron a la altura del caserío Jalotza, a dos kilómetros de Elgeta.

Y el otro frente secundario de atacantes, por el lado opuesto en la zona de la izquierda, que pretendía entrar por los caseríos de Zabaleta y el monte Gaztelumendi, también fue contenido.

gainean, pagadian ondo ezkutatuta. Etsaien hegazkinen bonbardaketak irauten zuen ordu erdian, amurik ikuserrazena trintxera zaharrak zirenez, defendatzaileak trintxera berrietara joaten ziren. Bonbardaketa amaitu eta infanteria matxinoa azaltzen zenean, lehen lerroan zeuden trintxera zaharretara itzultzen ziren defendatzaileak.

Beste estrategia bat gotorlekuak teknika berriekin eraikitzean zetzan. Beldarrainek arku ireki forman diseinatu zituen trintxerak, metro inguruko pasillo nagusi batekin eta bi tiratzailerentzako elkarren segidako horma-hobiekin, eta leku batzuetan, sigi-saga formako beste adar batekin lotu zituen. Horrez gain, alanbre-hesi arantzadun gehiago eta oztopo gisa erabiltzen zituzten zuhaitz enbor zati gehiago jarri zituzten, arma astunak gordetzeko hormigoizko eta manposteriazko babeslekuak eraiki zituzten eta zenbait mina leherkor lurperatu zituzten Partaitxi bideko alanbre-hesiaren aurrean.

Lehenengo erasoa 1937ko apirilaren 20an izan zen. Eguerdiko hamabietan hasi eta gauera arte iraun zuen eta, urriaren 4koa bezala, hiru lekutatik erasotzeko pentsatua zegoen: fronte nagusia Asentzioko muinoan zegoen eta bigarren mailako beste bi fronte jarri ziren bi aldeetan (Uberan eta Zabaletan).

Lehenengo seinaleetako bat bonbardaketarako sei aparaturen agerpena izan zen. Bonba tonak askatu zituzten eta beste aparatu batzuek jarraitu zuten etengabeko operazioetan errepublikazaleen abioi edo antiaereoen erantzun aukerarik gabe.

Ordubete baino gehiago iraun zuen bonbardaketa bizi baten ostean, gelditu, eta infanteria etsaiak erasoaldi nagusiari ekin zion Asentzioko ermitatik hur zituzten kokalekuetatik irtenez eta Partaitxi inguruan zeuden trintxerei eraso eginez. Azken horiek Partaitxitik 300 bat metrora zeuden eta bertatik hil-zauritu asko eragiten zituzten lur irekian.

Une bereziki larria bizi izan zen erasotzaileak Partaitxiko lehen defentsa lerrotik hogei metrora zeuden harresietaraino heldu zirenean.

Huts egindako saiakera horren atzetik ia bi orduz luzatuko zen bonbardaketa eta metrailaketa etorri ziren. Infanteriak porrot egiten zuen behin eta berriz hasierako puntuetatik irtetea galarazten ziotelako edo euren abiazioak berak aurreko taldearen kontra jotzen zuelako. Horrela jarraitu zuten ilundu arte.
Erasotzaileen bigarren mailako fronte bat Uberarako eskuinaldeko igoeratik Elgetarantz joaten saiatu zen tanketa arin italiarrekin. Baina defendatzaileek Azkonabietatik egindako erasoaren eraginez eta errepidea oztopatuta zegoenez, Jalotza baserriaren garaieran geldiarazi zuten fronte erasotzailea, Elgetatik bi kilometrotara, alegia.

Erasotzaileen beste bigarren frontea ezkerraldetik saiatu zen sartzen Zabaletako baserrietatik eta Gaztelumendi menditik joanaz, baina fronte hori ere geldiarazi egin zuten.

Aquel día la lucha fue encarnizada. Y los defensores, con un armamento y munición escasos y con unas condiciones extremadamente difíciles (sin apenas comida y descanso), hicieron fracasar el objetivo de los sublevados.

En esta jornada los defensores sufrieron un centenar de bajas mortales, y los atacantes, según un parte de la IV Brigada, 24 bajas entre los oficiales y 303 entre la tropa, de las que 45 fueron mortales.

Los días 21 y 22 fueron de calma relativa, aunque el tiempo fue favorable para la aviación, que siguió sus continuas pasadas, a las que se unían fuegos de artillería pero menos intensos. La infantería rebelde no hizo reaparición, y aprovechó para relevar a las unidades desgastadas, desalojar los centros sanitarios de vanguardia y reponer municiones.

También los defensores recompusieron refugios, trincheras, alambradas, y les llegaron unos nuevos fusiles más operativos.

El día 23, antes del amanecer, empezaron los intensos bombardeos de la artillería y aviación rebeldes, y su infantería en un número de seis batallones se posicionó, protegida por la oscuridad, en las proximidades de la ermita de Asentzio, y la cercanía de los caseríos Arrota y Zabaleta.

Después de los bombardeos, y pasada una media hora, esta infantería probó en dos ocasiones el asalto, pero fueron contenidos desde el bando republicano por las ametralladoras y la eficacia de los fusiles recién estrenados. Este día el ataque se prolongó hasta el anochecer y sus bajas fueron numerosas.

El día 24 empezó tranquilo y soleado. En la mañana siguieron algunas pasadas de ametrallamiento aéreo y una menor actuación de la artillería. Ello permitía a los defensores reparar las averías en las trincheras y comunicaciones.

La incomunicación entre los defensores era tal que los mandos de los Intxorta no sabían que ya en la mañana se estaba desmoronando el ala derecha con la infiltración enemiga de la I Brigada de Navarra desde Aramaio y Amboto, que le condujo a Memaia y Elorrio.
Sobre las cuatro de la tarde los defensores en los Intxorta se sintieron envueltos de cerca por el ala derecha de su retaguardia, apareciendo los rebeldes por los montes Intxorta y Zabaletamendi.

En pocos minutos se evacuaron precipitadamente las trincheras y algún material, y se canalizó la retirada por la ermita del Salvador y por el arroyo de Aixolaerreka hacia Ermua y Eibar.

Ese día 24 se derrumbaba el frente vasco en los límites entre Bizkaia y Gipuzkoa, entrando las tropas rebeldes en Elgeta, y consiguiendo el primer objetivo para avanzar a la conquista de Bizkaia.

Odoltsua izan zen egun hartako borroka. Defendatzaileak, armamentu eta munizio eskasak eduki arren eta baldintza benetan zailetan egonagatik (ia batere janaririk eta atsedenik gabe), matxinatuen helburua zapuzteko gai izan ziren.

Defendatzaileen artean ehun bat hildako izan ziren eta erasotzaileen aldean, berriz, IV. Brigadaren parte baten arabera, ofizialen artean 24 hil-zauritu egon ziren eta tropan 303, horietatik 45 hildakoak.

Apirilaren 21a eta 22a atseden egunak izan zirela esan daiteke, baina abiazioak hainbat aldiz igarotzen jarraitu zuen eguraldi ona baliatuz. Artilleriako suek ere jarraitu egin zuten, intentsitate baxuagoan izan bazen ere. Infanteria matxinoa ez zen berragertu ordea; ahuldutako unitateak ordezkatu, abangoardiako osasun zentroak hustu eta munizio berriz hornitzeko aprobetxatu zuen aukera.

Defendatzaileek ere babeslekuak, trintxerak eta alanbre-hesiak konpondu zituzten, eta fusil eraginkorragoak heldu zitzaizkien.

23an, egunsentia baino lehen, artilleria eta abiazio matxinoaren bonbardaketa gogorrak hasi ziren. Sei batailoik osatutako infanteria, aldiz, iluntasunaren babespean kokatu zen Asentzio ermitaren inguruan, Arrota eta Zabaleta baserrietatik hurbil.

Bonbardaketen ostean, ordu erdi pasa zenean, infanteriak bi saiakera egin zituen erasorako, baina alde errepublikazaleko metrailadoreek eta fusil berriek geldiarazi egin zituzten. Erasoaldia iluntzera arte luzatu zen egun hartan eta hil-zauritu asko egon ziren.

24ko eguna lasai eta eguzkitsu hasi zen. Goizean aireko metrailaketek jarraitu zuten, baita artilleriaren ekintza txiki batzuk ere. Lasaitasun egoerak trintxeretako eta komunikazioetako matxurak konpontzea ahalbidetu zien defendatzaileei.

Defendatzaileen arteko komunikaziorik eza hain zen handia, ezen Intxortetako agintariek ez baitzekiten eskuin hegala goizetik ari zela erortzen Nafarroako I. Brigada etsaiak Aramaio eta Anbototik sartuz egin zuen infiltrazioaren ondorioz, zeinak Memaia eta Elorriora eraman zituen.
Arratsaldeko laurak aldera Intxortetan zeuden defendatzaileei erretagoardiaren eskuin hegaletik egin zieten eraso Intxorta eta Zabaletamendi mendietatik zetozen matxinoek.

Minutu gutxiren buruan trintxerak eta zenbait material eraman zituzten presaka, eta Salbatore ermitatik eta Aixolaerrekatik atzera egin zuten Ermua eta Eibarrerantz.

24eko egun hartan, tropa matxinoak Elgetan sartzean, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugako euskal frontearen gainbehera etorri zen, Bizkaia hartzeko lehen helburua lortuz.



*Bombardeo sobre Elgeta* / Elgetaren bonbardaketa

## ***LA REPRESIÓN EN LA TOMA DE ELGETA***

El día 23 de abril de 1937 el casco urbano de Elgeta era un amasijo de cascotes, tras sufrir los ataques brutales de la aviación italiana ese día a la mañana y a la tarde. En la iglesia cayeron varias bombas, la escuela estaba destruida, los soportales de la plaza del Ayuntamiento derruidos, casas caídas o incendiadas, todo el resto afectado por la metralla, y la mayoría de la población huida.

El día 24 a las cinco de la tarde las tropas rebeldes entraban en Elgeta, después de siete meses de dura resistencia. En ese momento los mandos rebeldes les dan carta blanca a sus tropas en 48 horas, y empezaron las represalias, sufriendo el pillaje, el asesinato y la violación.

En el caserío Antzuategi Bastarrekoa fueron ejecutadas 7 personas allí refugiadas, entre ellas Jose Bizente Garai Arenaza, su propietario, y los otros seis eran milicianos gudaris de Mondragón y Azpeitia.

También fueron ejecutados otros cuatro vecinos de Elgeta en los días posteriores a la entrada de las tropas rebeldes: Kanuto Ugalde Marcaide (concejal republicano en el Ayuntamiento con 54 años), Dimas AranzetaEtxezarreta (39 años), Hilario AranzetaAranzeta (45 años) y una persona de apellido Arrieta.
En Elgeta se produjeron algunas violaciones de jóvenes de la localidad. El caso más flagrante fue el de Antxoni Telleria Lamarain del caserío Sesto Gainekua. Fue violada y en su presencia ejecutado su padre Pedro Telleria Ascasibar, y herida su madre, Francisca Lamarain Aranzabal, que murió a los diez días.

En memoria de estos vecinos represaliados Bittor Garai, hijo de Jose Bizente Garai, erigió un monolito en 1979, frente a la entrada de la ermita del Salvador.



Elgeta bonbardatuta / *Elgeta bombardeada*

## ERREPRESIOA ELGETA HARTZEKO MOMENTUAN

1937ko apirilaren 23an, italiar abiazioak goiz eta arratsaldez egindako eraso basatien ostean, Elgetako erdigunea guztiz hondatuta zegoen. Elizan hainbat lehergailuk egin zuten eztanda, eskola suntsituta zegoen, Udaletxeko plazako arkupeak eraitsita, etxeak erorita edo suak hartuta, gainerakoa metrailak kaltetuta, eta herritar gehienak ihes eginda.

24an, arratsaldeko bostetan, tropa matxinoak Elgetan sartu ziren zazpi hilabetez luzatu zen erresistentzia gogorraren ostean. Momentu hartan agintari matxinoek baimen osoa eman zieten beren tropei 48 orduz. Orduan hasi ziren errepresaliak, lapurretak, hilketak eta bortxaketak.

Antzuategi Bastarrekoa baserrian 7 pertsona hil zituzten, haien artean Jose Bizente Garai Arenaza, etxeko ugazaba. Beste seiak Arrasateko eta Azpeitiko miliziano gudariak ziren.

Elgetako beste lau bizilagun ere hil zituzten tropak sartu eta ondorengo egunetan: Kanuto Ugalde Marcaide (54 urte zituen udaleko zinegotzi errepublikazalea), Dimas Aranzeta Etxezarreta (39 urte), Hilario Aranzeta Aranzeta (45 urte) eta Arrieta abizeneko herritar bat.
Herriko hainbat gazte bortxatu zituzten. Kasurik agerikoena Sesto Gainekua baserriko Antxoni Telleria Lamaraini egin ziotena izan zen. Bortxatu eta bere aurrean hil zioten aita, Pedro Telleria Ascasibar. Bere ama, Francisca Lamarain Aranzabal, ere zauritu zuten eta handik hamar egunera hil zen.

Zigortutako bizilagun horien oroimenean, Bittor Garaik, Jose Bizente Garairen semeak, monolito bat egin zuen 1979an, Salbatore ermitako sarreraren aurrean.

## *OTROS VECINOS MUERTOS COMO CONSECUENCIA DE ESTA GUERRA*

La relación de vecinos muertos por efecto de la violencia del ejército rebelde es la siguiente (edad, fecha y lugar de muerte, circunstancias):

- Andrés Alberdi Astigarraga (fusilado).
- Martín Alberdi Juldain
- Pablo Ansoategi Zubirrementeria (23 años) (17-05-1937 en Muxica).
- Pedro Ansoategi Zubirrementeria (24-04-1937 fusilado en Elgeta).
- Ángel Aranzeta Aranzeta (42 años) (muerto el 20-04-1937 en bombardeo de Elgeta).
- Julen Aranzeta Lizarralde (18 años) (muerto el 4-04-1937 en el frente de Legutio, combatiendo con el Bon. Loiola).
- Juan Bergaretxe (civil y casado en Elgeta).
- Isabel Birichinaga Garitaonaindia (muerta el 17-11-1936 en Elorrio, combatiendo como miliciana).
- Eugenio Bolinaga Belar (39 años) (muerto el 25-07-1936 en el frente de Oiartzun, combatiendo como miliciano).
- Mateo Bolinaga Tellería (35 años) (muerto el 21-04-1937 en el bombardeo de Zorrotza) (Civil).
- Jacinto Elkoro Aramburu (muerto el 18-09-1936 en el frente de Ventas de Zárate, combatiendo como miliciano).
- Faustino Garitano Askasibar.
- Fausto Irazabal Aranzabal (18 años) (muerto el 28-04-1937 por explosión de una bomba enterrada junto a la casa Torrezar de Elgeta).
- Andresa Iriondo Etxabe (muerta el 02-10-1936 en Elgeta) (madre de Pascual Askasibar Iriondo, muerto en el campo nazi de Wöbelin (1945).
- Jorge Iturricastillo Aranzabal (34 años) (ejecutado el 7-11-1936 en las cercanías de Oiartzun) (ejercía como cura-ecónomo de Marín -Eskoriatza- y de allí fue llevado a la cárcel de Ondarreta-Donostia).
- Ubaldo Lanberri Goizueta (muerto el 4-04-1937 en el frente de Legutio).
- Gregorio Larrañaga Aranzabal (26 años) (Desaparecido desde septiembre de 1936).
- Joaquín Lazkano Igartua.
- Felipe Markiegi (muerto el 13-06-1937 en el frente de Igorre, combatiendo con el Bon. Loiola).
- Francisca Ojanguren Iribekanpos.
- Felipe Tellería (muerto en el frente de Otxandio, combatiendo con el Bon. Loiola).
- Fernando Tellería Altuna (18 años) (muerto en el frente de Otxandio, combatiendo con el Bon. Loiola).
- Luis Tellería Irazabal (muerto en el frente de Albertia).
- Victorio Tellería Irazabal (21 años) (muerto el 30-12-1936 en el frente de Legutio, combatiendo con el Bon. Loiola).
- Eusebio Ugalde Zubimendi "Panederokua" (24 años) (muerto el 4-04-1937 en el frente de Legutio, combatiendo con el Bon. Loiola).
- Lucas Ugalde "Panaderokua" (muerto el 20-04-1936 en el bombardeo de Elgeta).
- Florencio Vitoria Arrieta (muerto el 13-10-1936 en Usartza, combatiendo como miliciano).

## GERRA HONEN ERAGINEZ HILDAKO BESTE BIZILAGUN BATZUK

Honako hau armada matxinoaren indarkeriak eragindako hildako bizilagunen zerrenda da (adina, heriotzaren data eta lekua, egoera):

- Andrés Alberdi Astigarraga (fusilatua).
- Martín Alberdi Juldain
- Pablo Ansoategi Zubirrementeria (23 urte) (1937-05-17an, Muxikan hila).
- Pedro Ansoategi Zubirrementeria (1937-04-24an, Elgetan fusilatua).
- Ángel Aranzeta Aranzeta (42 urte) (1937-04-20an, Elgetako bonbardaketan hila).
- Julen Aranzeta Lizarralde (18 urte) (1937-04-4an hila, Legutioko frontean Loiola batailoiarekin borrokatzen).
- Juan Bergaretxe (Elgetan zibila eta ezkondua).
- Isabel Birichinaga Garitaonaindia (1936-11-17an hila, Elorrion miliziano gisa borrokatzen).
- Eugenio Bolinaga Belar (39 urte) (1936-07-25ean hila, Oiartzungo frontean miliziano gisa borrokatzen).
- Mateo Bolinaga Tellería (35 urte) (1937-04-21ean hila, Zorrotzako bonbardaketan, zibila zen).
- Jacinto Elkoro Aramburu (1936-09-18an hila, Zarateko Bentako frontean miliziano gisa borrokatzen).
- Faustino Garitano Ascasibar.
- Fausto Irazabal Aranzabal (18 urte) (1937-04-28an hila, Elgetako Torrezar etxearen ondoan lurperatutako bonba baten leherketaren ondorioz).
- Andresa Iriondo Etxabe (1936-10-02an Elgetan hila, Pascual Ascasibar Iriondoren ama, Wöbelin-go kontzentrazio-esparru nazian hila 1945ean).
- Jorge Iturricastillo Aranzabal (34 urte) (1936-11-7an, Oiartzun inguruan exekutatua) (Apaiz-ekonomo gisa jarduten zuen Eskoriatzako Marinen eta handik Donostiko Ondarreta kartzelan sartu zuten).
- Ubaldo Lanberri Goizueta (1937-04-4an hila, Legutioko frontean).
- Gregorio Larrañaga Aranzabal (26 urte) (1936ko irailetik desagertua).
- Joaquín Lazkano Igartua.
- Felipe Markiegi (1937-06-13an hila, Igorreko frontean Loiola batailoiarekin borrokatzen).
- Francisca Ojanguren Iribekanpos.
- Felipe Tellería (Otxandioko frontean hila, Loiola batailoiarekin borrokatzen).
- Fernando Tellería Altuna (18 urte) (Otxandioko frontean hila, Loiola batailoiarekin borrokatzen).
- Luis Tellería Irazabal (Albertiako frontean hila).
- Victorio Tellería Irazabal (21 urte) (1936-12-30ean hila, Legutioko frontean Loiola batailoiarekin borrokatzen).
- Eusebio Ugalde Zubimendi “Panaderokua” (24 urte) (1937-04-04an hila, Legutioko frontean Loiola batailoiarekin borrokatzen).
- Lucas Ugalde “Panaderokua” (1936-04-20an hila, Elgetako bonbardaketan).
- Florencio Vitoria Arrieta (1936-10-13an hila, Usartzan miliziano gisa borrokatzen).

A todos ellos se les rindió un homenaje popular el 23 de abril de 2017, coincidiendo con la IV representación escénica de la batalla de los Intxorta.

Con anterioridad, el 28 de enero de 2017, día del Holocausto, se homenajeó también a dos nativos de Elgeta, víctimas de la violencia nazi, grabando en una placa sus nombres en el suelo de la plaza del Ayuntamiento:

- Pascual Ascasibar Iriondo (1903-1945), nacido en el caserío Galarra Erdikoa (Angiozar) e hijo de Andresa Iriondo Echave víctima de la contienda en Elgeta, y muerto en el campo nazi de concentración alemán de Wöbelin.
- Tomás Rebollo Etxaniz (1907-1942), nacido en el núcleo urbano de Elgeta y muerto en el campo nazi de concentración austríaco de Mauthausen.

Otros vecinos de Elgeta murieron combatiendo al lado del ejército rebelde. La única persona elgetarra, asesinada sin juicio previo y por milicianos incontrolados, fue Ruperto Elkoro Arbulu en un pinar de Mallabia (10-08-1936). A él, después de terminada la guerra con la victoria franquista, se le erigió en el paseo Espolon de Elgeta el "Paseo Ruperto Elkoro" y la denominación de la Escuela Estatal.

Además, en memoria de todos los combatientes franquistas muertos se levantó un monolito con la inscripción "A los caídos por Dios y por España". En 1978 por acuerdo municipal se retiró la denominación de ese paseo y se procedió a la demolición de ese monolito, y en 1986 se cambió el nombre de *"Agrupación Escolar Ruperto Elcoro"* por *"Elgetako Herri Eskola"*.

Existía, asimismo, en el alto de Karabieta otro monumento, hoy desaparecido, con esta inscripción: "La IV División Navarra a sus caídos en esta zona. 1936-1939".

## ***ALGUNAS CONSIDERACIONES GENERALES***

Una primera consideración es que la batalla del Elgeta del 4 de Octubre de 1936 desbarató el plan del ejército rebelde de conquistar Bizkaia y alcanzar Bilbao en pocos días. Ante esta resistencia inesperada y la decisión del mando rebelde de concentrar las fuerzas en torno a la toma de Madrid, el frente de Elgeta se estabilizó. En esta primera batalla fue importante la capacidad y temple de Felipe Bediaga, que con el grueso de su Batallón y algunas otras Compañías llegadas oportunamente, defendieron con acierto y valor la línea desde Kortazar hasta Elgeta, y el ataque principal de los ataques rebeldes en los Intxorta. La historia volvía a repetirse, porque, como anteriormente aparece relatado, en este mismo entorno, y en la vertiente que mira hacia Elorrio, se desarrolló el 13 de febrero de 1876 con la segunda guerra carlista otra cruenta batalla.

2017ko apirilaren 23an, Intxortetako borrokaren IV. irudikapen eszenikoaren egunarekin bat eginez, herri omenaldia egin zitzaien bizilagun horiei guztiei.

Bestalde, 2017ko urtarrilaren 28an, Holokaustoaren Egunean, indarkeria naziaren biktima izandako bi elgetar omendu zituzten Udaletxeko Plazako plaka batean. Ondorengo testua dago grabatuta:

- Pascual Ascasibar Iriondo (1903-1945), Galarra Erdikoa baserrian (Angiozar) jaioa eta Andresa Iriondo Echaveren semea, Elgetako borrokaldiko biktima berau, eta Alemaniako Wöbelin kontzentrazio-esparru nazian hila.
- Tomas Rebollo Etxaniz (1907-1942), Elgetako herrigunean jaioa eta Austriako Mauthausen kontzentrazio-esparru nazian hila.

Elgetako beste bizilagun batzuk matxinoen alde borrokatuz hil ziren. Kontrolik gabeko milizianoek epaiketarik gabe hil zuten elgetar bakarra Ruperto Elkoro Arbulu izan zen, Mallabiko pinudi batean (1936-08-10). Frankisten garaipenaren ostean, Elgetako Espolon pasealekuari Paseo Ruperto Elkoro izena jarri zioten, eta Estatuko Eskolak ere bere izena hartu zuen.

Horrez gain, hildako soldadu frankista guztien omenez, monolito bat eraiki zitzaien “A los caídos por Dios y por España”. 1978an, udalbatzaren adostasunarekin, pasealekuaren izendapena eta monolitoa kendu zituzten, eta 1986an *“Agrupación Escolar Ruperto Elcoro”* zena *“Elgetako Herri Eskola”* bihurtu zen.

Karabietako gainean ere beste monumentu bat zegoen, egun ez dagoena eta inskripzio hau zuena: “La IV División Navarra a sus caídos en esta zona. 1936-1939” .

## ZENBAIT GOGOETA OROKOR

Lehenik eta behin, esan beharra dago Elgetako 1936ko urriaren 4ko gudak armada matxinoaren asmoa, hau da, egun gutxiren buruan Bizkaia hartu eta Bilbora heltzeko helburua oztopatu zuela. Espero gabeko erresistentzia horri esker eta beren indarrak Madril inguruan kontzentratzeko agintari matxinoen erabakiaren ondorioz, Elgetako frontea egonkortu egin zen. Lehen bataila horretan garrantzia handia izan zuten, alde batetik, Felipe Bediagaren gaitasunak eta sendotasunak. Bere batailoiaren eta momentu aproposean heldutako beste konpainia batzuen artean, Kortazarretik Elgetarainoko lerroa defendatzen asmatu zuten. Eta beste aldetik, matxinoek Intxortetan egindako erasoaldiaren aurkako eraso nagusia ere garrantzi handikoa izan zen. Historia errepikatzen ari zela zirudien, izan ere, aurrez esan moduan, inguru horretan bertan, Elorriora begira dagoen isurialdean, beste bataila odoltsu bat izan zen bigarren karlistaldian, 1876ko otsailaren 13an.

Una segunda consideración es que, después de esta victoria y estabilizado el frente en Elgeta, se posibilitó la entrada en vigor del Estatuto de Autonomía para Euskadi, que aprobado el 1 de octubre de 1936, pudo constituirse en Gernika el 7 de octubre. Era el primer gobierno vasco autonómico, con gobierno de concentración del conjunto de fuerzas leales a la República, presidido por el lehendakari José Antonio Aguirre del PNV/EAJ. Por la relevante batalla de los Intxorta en ese día a este Estatuto se le conocerá también como el Estatuto de Elgeta.

Una tercera consideración es que las últimas ofensivas de los días 20 al 24 de abril de 1937 tuvieron el mismo resultado militar que la del 4 de octubre del año anterior con el rechazo de los atacantes, pero la posición tuvo que ser abandonada a causa de un movimiento envolvente del enemigo. En los continuados rechazos de estos días es determinante el mando que ejerció Pablo Beldarrain, comandante del Bon. Martiartu, y su anterior ejecución de algunas estrategias de defensa, aprovechando la utilización del terreno.

Una cuarta y cruel consideración es el empleo de nuevas técnicas de destrucción. Los rebeldes fascistas, con la actuacion de la Legión Cóndor alemana y la Aviación Legionaria italiana, atentaron contra la población civil indefensa como castigo y represalia. Sus objetivos de destrucción masiva fueron numerosos y devastadores: Otxandio (22-07-1936), Durango (31-03-37), Elgeta (20 al 23-04-37), Eibar (23 al 26-04-37), Elorrio (24-04-37), Gernika (26-04-37), Mungia (4 al 8-05-37), Galdakao (19-05-37) ...

También se ensayó por parte de los nazis, preparando la II Guerra Mundial, un nuevo elemento bélico: el uso táctico de la aviación con bombardeo continuado de posiciones durante horas para preparar el avance de la infantería. En Elgeta, los defensores desprovistos de armas antiaéreas y aviones de caza, se vieron aislados y reducidos, y cortados sus apoyos logísticos.

Una última consideración es que a esta masacre genocida le siguieron muchos años de silencio y olvido, de mentiras, de miedos y persecuciones como una herencia maldita. Y esta resistencia en los Intxorta dejó constancia de que personas, con diferentes ideas y planteamientos políticos, fueron capaces de defender desde el mismo parapeto la legalidad democrática de la Republica.

Y seguiremos en la lucha por hacer justicia a tanto silencio y olvido. En el mes de noviembre del 2017 el Juzgado nº 4 de Bergara admitia a trámite la querella presentada por el ayuntamiento de Elgeta, por los crímenes del franquismo en la localidad.

Esta admisión a trámite tuvo un gran impacto social favorable en Euskal Herria y en el Estado. Pero a los 38 días un nuevo juez dictó el sobreseimiento de la querella esgrimiendo las dos excusas de siempre: los delitos han prescrito, y además ahí está la Ley de Amnistía de 1977 para perdonar cualquier cosa. Los abogados de la Querella ya han presentado el Recurso correspondiente.

Una vez más, aparece manifiesto el cambio inmediato de juez para echar por tierra la iniciativa, y la demostración de una Judicatura politizada que responde a los intereses regresivos y antidemocráticos del gobierno.

Bigarrenik, garaipen horren ondoren, eta behin Elgetako frontea egonkortu zenean, Euskadiko Estatutu Autonomikoa indarrean jarri zen. Estatutua 1936ko urriaren 1ean onartu eta urriaren 7an eratu zen Gernikan. Historiako lehenengo euskal gobernu autonomikoa zen, Errepublikari leial zitzaizkion alderdiek osatua eta Jose Antonio Agirre jeltzalea lehendakari zuena. Estatutu hori, egun horretan Intxortetan izan zen bataila esanguratsuaren ondorioz, Elgetako Estatutua izenez ere ezagutuko zen.

Hirugarrenik, 1937ko apirilaren 20tik 24ra egindako erasoek urte bat lehenago urriaren 4an izandako batailaren emaitza militar berbera izan zuten; erasotzaileen atzerakada, alegia. Etsaien inguratze mugimendu batek, alabaina, kokalekua uztera behartu zituen. Egun horietako atzera egite jarraituetan zerikusi handia izan zuen Martiartu batailoiko komandante Pablo Beldarrainen agintaritzak eta lur eremuaren erabilera onean oinarritutako bere defentsarako estrategiek.

Laugarrenik, suntsiketarako teknika berrien erabilera ere kontuan izan behar da. Matxino faxistek, Kondor Legio alemaniarraren eta italiar Abiazio Legionarioaren laguntzarekin, babesik gabeko zibilen aurka egin zuten eraso zigor eta errepresalia gisa: Otxandio (1936/07/22), Durango (1937/03/31), Elgeta (1937/04/20-23), Eibar (1937/04/23-26), Elorrio (1937/04/24), Gernika (1937/04/26), Mungia (1937/05/4-8), Galdakao (1937/05/19)...

Gainerakoan, naziek II. Mundu Gerrarako probak egin zituzten gerra-elementu berri batekin: infanteriaren aurrerakada prestatzeko abiazioaren erabilera taktikoa egiten hasi ziren orduak irauten zituen kokalekuen aurkako etengabeko bonbardaketekin. Elgetan defendatzaileak, arma antiaereorik eta ehiza-hegazkinik gabe, isolatuta, murriztuta eta babes logistikoak moztuta aurkitu zuten euren burua.

Azkenik, gogoratu beharra dago sarraski genozida horien ondotik isiltasunez eta ahanzturaz beteriko urte asko etorri zirela; gezur, beldur eta jazarpen urteak, madarikatutako herentzia baten gisara. Intxortetako erresistentzia hark ordea argi erakutsi zuen ideia eta planteamendu politiko oso desberdinetako pertsonak gai izan zirela parapeto beretik defendatzeko Errepublikaren legaltasun demokratikoa.

Gaur egun isiltasunaren eta ahanzturaren aurkako borrokan dihardugu oraindik ere. 2017ko azaroan Bergarako 4. Epaitegiak Elgetako Udalak herriko krimen frankistengatik aurkeztutako kereila izapidetzea onartu zuen.

Onarpen horrek aldeko inpaktu handia izan zuen gizartean, Euskal Herrian zein estatuan; baina handik 38 egunera epaile berri batek kereila artxibatzeko erabakia eman zuen betiko bi aitzakiak erabilita: batetik, delituak preskribatuta daudela, eta bestetik, mota horretako delitu guztiak barkatzen dituen 1977ko Amnistia Legea dagoela. Kereilaren abokatuek dagokien errekurtsoa aurkeztu dute.
Beste behin ere, epailearen bat-bateko aldaketaren eraginez ekimena bertan behera geratu zen eta agerian geratu zen gobernuaren interes atzerakoiei eta antidemokratikoei men egiten dien epailetza politizatua.

- ***José de Abanzabalegui.***
  Abogado de la Real Chancilleria de Valladolid, que en 1776 probó su hidalguía en esta Villa.

- ***Juan de Albistegui.***
  Natural de Angiozar. Secretario de la Suprema Inquisición en Madrid, a mediados del siglo XVIII. Inquisidor general desde 1733.

- ***Lázaro de Albisua.***
  Veedor (Inspector) y Contador de Malaga, Gobernador y Capitán General en Nicaragua (1625).

- ***Martín de Alzuaran.***
  Participó en la batalla de las Navas de Tolosa, en el año 1212.

- ***Juan de Alzuaran.***
  Participó en la toma de Baeza (1227).

- ***Agustín de Ansoategui.***
  Factor y Juez de Comisos de la Real Compañia Gipuzkoana de Caracas.

- ***Juan Bautista de Aramburu.***
  Insigne marino del caserío Sostoa, que donó a la parroquia el triptico flamenco.

- ***Félix Aranzabal.***
  Nació en el caserío Anguleta (Angiozar) en 1918 y murió en Eibar en el año 2006. Acordeonista muy popular, conocido como el "ciego de Angiozar".

- ***Ignacio de Asurza.***
  Capitán en la conquista de Perú y poseedor de muchos bienes.

- ***Ramón de Berraondo.***
  Escritor contemporáneo conocido como Martin de Angiozar.

- ***Pedro de Echebarria.***
  Caballero de Honor de Santiago, Veedor General de Sicilia y de las Galeras de España.

## IV. ERANSKINA: HISTORIARA PASA DIREN ELGETAR EMIGRATZAILE BATZUK

- ***Jose de Abanzabalegui.***
  Valladolideko Chancilleria Errealeko abokatua. Hiribildu honetan frogatu zuen 1776an bere kaparetasuna.

- ***Juan de Albistegui.***
  Angiozarren jaioa. Madrileko Inkisizio Gorenaren idazkaria, XVIII. mendearen erdialdean. 1733tik Inkisidore Nagusia.

- ***Lazaro de Albisua.***
  Malagako Ikuskatzaile eta Kontularia, Nikaraguako Gobernadorea eta Kapitain Nagusia (1625).

- ***Martin de Alzuaran.***
  Tolosako Naben guduan parte hartu zuen 1212an.

- ***Juan de Alzuaran.***
  Baezaren hartzean parte hartu zuen (1227).

- ***Agustin de Ansoategui.***
  Faktorea eta Konfiskazio Epailea Caracaseko Konpainia Erreal Gipuzkoarrean.

- ***Juan Bautista de Aramburu.***
  Sostoa baserriko itsasgizon ospetsua, parrokiari triptiko flandriarra eman ziona.

- ***Felix Aranzabal.***
  Anguleta baserrian (Angiozar) jaio zen 1918an eta Eibarren hil zen 2006an. Oso soinujole ospetsua izan zen, "Angiozarreko itsua" bezala ezagunagoa.

- ***Ignacio de Asurza.***
  Peruko garaipenean kapitaina eta ondasun askoren jabea.

- ***Ramón de Berraondo.***
  Angiozarreko Martin izenez ezagutzen dugun idazle garaikidea.

- ***Pedro de Echebarria.***
  Santiagoko Ohorezko Zalduna, Siziliako eta Espainiako Galeretako Ikuskatzaile Nagusia.

- ***Manuel de Egocheaga (1710-1766)***
  Fue emigrante en Perú y allí murió. Hizo fortuna y dejó ayudas para la iglesia y su pueblo natal de Elgeta (ver nota 32).

- ***Luis de Egurbide Azula y Lamarain (1670-1716)***
  Nació en el caserío Asula. Fue sargento mayor en compañías de varios lugares de Ecuador y Tesorero de la Santa Cruzada en Santafé (Colombia) (o recogedor del impuesto que cobraba el Papa para financiar las cruzadas).

- ***Juan Maria de Eguren y Mugica (1828-1880)***
  Fue maestro de escuela e inspector de educación en las provincias de Gipuzkoa y Araba. Publicó el "Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas" (1867), el "Diccionario manual o vocabulario vasco-castellano para el uso de los vascongados que quieran aprender el castellano" (1868).

- ***Martin Fulgencio Elorza Legaristi (1899-1966)***
  Nació en el caserío Azula. Fue misionero pasionista en el Perú y obispo de Moyobamba (Perú).

- ***Diego de Ibarra (1518-1600)***
  Gobernador y capitán general en la conquista de Nueva Galicia (México). Propietario de la mina de plata de Zacatecas. Caballero de Santiago. Casó con Ana de Velasco, hija de don Luis de Velasco, segundo Virrey de la Nueva España y que entró en Méjico el 5 de diciembre de 1550.

- ***Domingo Iturbe y Altube (1833-1912)***
  Emigrante a Bolivia, poseedor de fortuna y creador del Patronato escolar de Elgeta. (Ver Anexo VI)

- ***Joaquin Iturbe "Santua" (1758-1799)***
  Bandolero que se hizo célebre a finales del siglo XVIII.

- ***Juan Andrés de Lombide.***
  Músico organista y compositor.

- ***Juan de Olaegui.***
  Veedor (Inspector) y Comisario de Cerdaña.

- ***Juan José Olañeta.***
  Nació en Elgeta (09-03-1776). Fue alcalde ordinario de Elgeta y alcalde de la Santa Hermandad de la ciudad de Cuzco.

- ***Manuel de Egocheaga (1710-1766)***
  Perura joan eta han hil zen. Aberastu egin zen eta dirua utzi zuen elizarentzat eta bere sorterriarentzat (ikus 32. oharra).

- ***Luis de Egurbide Azula y Lamarain (1670-1716)***
  Asula baserrian jaio zen. Ekuadorreko hainbat konpainiatako Sarjentu nagusia eta Santafeko (Kolonbia) Gurutzada Santuaren diruzaina izan zen (edo Aita Santuak gurutzadak finantzatzeko kobratzen zituen zergen biltzailea).

- ***Juan Maria de Eguren Mugica (1828-1880)***
  Eskola irakaslea eta hezkuntza inspektorea izan zen Gipuzkoan eta Araban. “Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas” (1867) argitaratu zuen, baita “Diccionario manual o vocabulario vasco-castellano para el uso de los vascongados que quieran aprender el castellano” (1868) ere.

- ***Martin Fulgencio Elorza Legaristi (1899-1966)***
  Azula baserrian jaio zen. Misiolari pasiotarra izan zen Perun eta Mayobambako (Peru) apezpikua.

- ***Diego de Ibarra (1518-1600)***
  Galizia Berriaren (Mexiko) konkistan gobernadore eta kapitain nagusi izan zen. Zacatecaseko zilar meategiaren jabea. Santiagoko Zalduna. Ana de Velascorekin ezkondu zen, Luis de Velasco Jaunaren alabarekin. Velasco Jauna Espainia Berriko bigarren erregeordea zen, Mexikora 1550eko abenduaren 5ean iritsitakoa.

- ***Domingo Iturbe y Altube (1833-1912)***
  Boliviara joana, ondasun handien jabea eta Elgetako eskola patronatuaren sortzailea. (Ikus VI eranskina)

- ***Joaquin Iturbe “Santua” (1758-1799)***
  XVIII. mendearen amaieran ospetsu egin zen bidelapurra.

- ***Juan Andres de Lombide.***
  Musikari organo-jotzailea eta konpositorea.

- ***Juan de Olaegui.***
  Sardiniako Ikuskatzailea eta Komisarioa.

- ***Juan Jose Olañeta.***
  Elgetan jaio zen (1776-03-09). Elgetako alkate arrunta eta Cuzco hiriko Ermandade Santuko alkatea izan zen.

- ***Pedro Antonio Olañeta (1770-1825)***
  General absolutista del siglo XIX que combatió a favor del Imperio Español en América. Murió por heridas a los pocos días de la batalla de Tumusla (Bolivia).

- ***Simón Olañeta Obiaga (Sostoa) (1773-1831)***
  Caballero de la Orden de Carlos III y de la Real Orden Américana de Isabel la Católica. Jefe de las Rentas Reales desde Perú a la Península.

- ***Andrés de Orbe.***
  Oriundo del caserío Orbe de Angiozar. Arzobispo de Valencia (1725) e Inquisidor General (1733).

- ***José Ignacio Recalde (1719-1769)***
  Comerciante y poseedor de gran fortuna con obras benefactoras a la parroquia y al hospital de su pueblo (ver nota 32).

- ***Jazinto Rivas Sanz, "Intxuzabal", "Elgeta" (1905-1964)***
  Fue un reconocido trikitilari por el nivel de ejecución, amplio repertorio y su dedicación a la enseñanza instrumental.

- ***Martin Saez de Ibarra.***
  Inquisidor Apostólico en el reino de Navarra (ver Anexo IX).

- ***María Angela Tellería.***
  Heroína en la lucha contra los franceses.

- ***José Antonio de Ugarte.***
  Nació en Angiozar (1860), fue fraile franciscano y escritor euskérico.

- ***Francisco de Zuloeta.***
  Capitán, benefactor de obras en la parroquia de Elgeta, como la financiación del retablo mayor y el retablo lateral de San Sebastián, púlpito y otras donaciones de objetos de orfebrería y vestimentas.

- ***José Xavier de Zuloeta (1721-1800)***
  Capitán de fragata en la Gran Armada.

- ***Pedro Antonio Olañeta (1770-1825)***
  Amerikan Espainiako Inperioaren alde borrokatu zuen XIX. mendeko jeneral absolutista. Tumuslako (Bolivia) batailaren ondorengo egunetan hil zen zauriengatik.

- ***Simon Olañeta Obiaga (Sostoa) (1773-1831)***
  Karlos III.aren Ordenako eta Isabel Katolikoaren Errege Ordenako Zalduna. Perutik Penintsularako Errege Errentaren burua.

- ***Andres de Orbe.***
  Angiozarreko Orbe baserrian jaioa. Valentziako Artzapezpikua (1725) eta Inkisidore Nagusia (1733).

- ***Jose Ignacio Recalde (1719-1769)***
  Merkataria eta ondasun handien jabea. Bere herriko parrokia eta ospitalea diruz lagundu zituen (ikus 32. oharra).

- ***Jazinto Rivas Sanz, "Intxuzabal", "Elgeta" (1905-1964)***
  Trikitilari ezaguna izan zen bere jotzeko moduagatik, errepertorio zabalagatik eta instrumentuaren irakaskuntzari eskaini zion arduragatik.

- ***Martin Saez de Ibarra.***
  Nafarroako Erreinuko Inkisidore Apostolikoa. (Ikus IX eranskina)

- ***Maria Angela Tellería.***
  Frantziarren kontrako borrokan heroia.

- ***Jose Antonio de Ugarte.***
  Angiozarren jaioa (1860). Fraile frantziskotarra eta euskal idazlea izan zen.

- ***Francisco de Zuloeta.***
  Kapitaina eta Elgetako parrokiako obren ongilea, hala nola, erretaula nagusiaren eta San Sebastianen albo-erretaularen finantzaketarena, pulpituarena eta zilarreko objektuen eta soinekoen dohaintzena, besteak beste.

- ***Jose Xavier de Zuloeta (1721-1800)***
  Armada Handiko fragatako Kapitaina.

## ***ANEXO V: LA INSTRUCCIÓN ESCOLAR EN ELGETA***

En la historia escolar de Gipuzkoa, hasta avanzado el siglo XVII, la alfabetización o adquisición de las habilidades básicas de leer y escribir era una cuestión abandonada y pendiente. De modo que el analfabetismo, sobre todo en áreas rurales, alcanzaba a más de la mitad de la población, y un indicador era la incapacidad de muchas personas, especialmente mujeres, para firmar los diversos documentos judiciales, fiscales o notariales.

Un ejemplo significativo es el censo de Elgeta en 1856, en el que aparecen estos datos de los que no saben firmar y lo hace otro a su ruego: en el núcleo de la villa de Elgeta 107 cabezas de familia (varón o hembra) de un total de 166 unidades familiares; en el barrio de Angiozar 10 de un total de 110 unidades familiares; y en el barrio de Ubera 75 de un total de 99 unidades familiares [(1)].

### ***Las primeras escuelas elementales:***

Las primeras escuelas elementales de Gipuzkoa se integraron en el siglo XVII en lo parroquial y concejil con una instrucción religiosa y de primeras letras. El maestro o maestra, especialmente en las pequeñas localidades, era simplemente una persona de mínima instrucción pero con una reconocida probidad moral. Las personas que ejercían la enseñanza solían alternar esta función con otras tareas, sobre todo del entorno eclesiástico (organista, sacristán, serora o cuidadora de la iglesia).

Esta situación se irá regularizando en el siglo XVIII. Así en 1721 las Juntas Generales de Gipuzkoa acuerdan que "se pusieran maestros de niños en todos los pueblos de su dependencia", y en 1751 inhabilitan a todo analfabeto para cualquier cargo.

No obstante, durante mucho tiempo seguirán sin abordarse tres cuestiones trascendentes: la cercanía de las escuelas a los barrios y caseríos, la incorporación de las mujeres a la escuela y la presencia del euskara, a no ser en el aprendizaje del catecismo.

En 1860 se creó la Inspección de Enseñanza Primaria en Gipuzkoa, con un inspector para toda la provincia. Tenía como funciones principales ejercer una labor de vigilancia y evaluación. En su visita anual el inspector dejaba constancia de las valoraciones sobre el estado de la escuela, los niveles de aprendizaje del alumnado, el uso de materiales pedagógicos y orientaciones para mejorar la práctica educativa.

Nacieron, asimismo, desde 1857 las Juntas Locales de Instrucción, antes Comisiones Locales, en dependencia de las Juntas Provinciales de Gipuzkoa. Estaban constituidas normalmente por el alcalde, el secretario, el párroco y dos o más padres de familia. Tenían como funciones elaborar datos estadísticos de la escuela, controlar los fondos asignados por el municipio y vigilar la vida pública y privada de los enseñantes. Cuando no podía acudir

## V. ERANSKINA: ESKOLATZEA ELGETAN

Alfabetizazioa edo irakurtzeko eta idazteko oinarrizko gaitasunen irakaskuntza, Gipuzkoako eskolatzearen historiari erreparatzen badiogu, XVII. mendearen amaierara arte alde batera utzitako kontua zen. Hori dela eta, populazioaren erdia baino gehiago alfabetatugabea zen, batik bat landa eremuetan.

Horren erakusgarri da pertsona askok –eta bereziki emakumeek– zuten ezintasuna dokumentu judizialak, fiskalak edo notarialak sinatzerakoan. Elgetako 1856ko erroldan azaltzen denez, Elgetako hirigunean bizi ziren 166 familiatatik 107 familiatako buruek (gizon nahiz emakume) ez zekien sinatzen eta beste bati eskatu zioten euren ordez sinatzeko. Angiozar auzoan 110tik 10 familiatan gertatzen zen gauza bera, eta Uberako auzoan 99 familiatatik 75etan (1).

### Oinarrizko lehen eskolak:

Gipuzkoako oinarrizko lehen eskolak XVII. mendean sartu ziren elizaren eta udalaren baitan instrukzio erlijioso baten bidez. Eskola horietako maisu edo maistra, herri txikietan bereziki, gutxieneko hezkuntza zuen pertsona bat izan ohi zen, zintzotasun moralaren ospea zuena. Irakaskuntzan jarduten zuten pertsona horiek beste lan batzuk ere egiten zituzten, gehienak elizarekin zerikusia zutenak (organo-jotzailea, sakristaua, serora edo elizaren zaintzailea).

Egoera hura egonkortuz joan zen XVIII. mendean zehar. Horrela, 1721eko Gipuzkoako Batzar Nagusietan lurraldeko herri guztietan irakaslea jarri behar zela erabaki zen, eta 1751n alfabetatu gabeek edozein kargu izatea galarazi zen.

Alabaina, tarte luzean alde batera utzi ziren garrantzizko hiru kontu: eskoletatik auzo eta baserrietara zegoen distantzia, nesken hezkuntza eta euskararen agerpena (katiximaren irakaskuntzatik kanpo).

1860an Lehen Hezkuntzako Ikuskaritza sortu zen Gipuzkoan eta ikuskatzaile bakarra zegoen probintzia osorako. Zaintza eta ebaluazio lanak egitea izaten zen ikuskatzaileen eginkizun nagusia. Urteroko bisitan ikuskatzaileak eskolaren egoera, ikasleen maila eta material pedagogikoen erabilera ebaluatzen zituen eta irakaskuntza hobetzeko jarraibide batzuk ematen zituen.

Bestetik, 1857an Hezkuntzarako Herri Batzarrak ere sortu ziren, lehen Herri Batzordeak izandakoen lekua hartu zutenak, eta Gipuzkoako Lurralde Batzarren menpekoak ziren. Alkateak, idazkariak, parrokoak eta familiako aita bik edo gehiagok osatu ohi zituzten. Euren betebeharrak eskolaren datu estatistikoak lantzea, udalak emandako funtsak kontrolatzea eta irakasleen bizitza publiko zein pribatua zaintzea izaten zen. Ikuskatzaileak joaterik ez bazuen, eta hiruhilekoaren amaiera bazen, Herri Batzarreko ordezkariek

el inspector y al final del trimestre, algunos representantes de la Junta Local recorrían las escuelas para hacer un simulacro de evaluación y dar su veredicto sobre los resultados del alumnado en gramática, aritmética, historia sagrada, lectura y escritura, con premios incluidos a los más destacados. Con el tiempo se suprimieron estos exámenes, que eran un modo de intervención en el régimen académico de la escuela. En realidad estas Juntas terminaron reduciendo sus atribuciones a las tomas de posesión y ceses de los maestros o maestras.

Desde 1857, con la Ley Moyano de Educación en el reinado de Isabel II, la instrucción primaria era obligatoria y gratuita desde los seis a los nueve años, incorporaba a la mujer, e hizo recaer en los ayuntamientos la construcción, reparación, alquiler y mantenimiento de los edificios, asi como los sueldos de las o los maestros y sus viviendas. Estas decisiones gubernamentales eran cargas económicas excesivas para pequeños municipios, como Elgeta.

Un paso decisivo fue la creación del Ministerio de Instrucción en 1900, y desde el año siguiente los y las enseñantes dependían del Estado y no de los Ayuntamientos, asumiendo y mejorando sus dotaciones económicas. No obstante, seguían los Ayuntamientos contribuyendo con unas retribuciones complementarias al sueldo estatal, materiales, edificios y viviendas de los maestros.

En el AM de Elgeta hay la primera constancia del pago de maestros (2).
En el núcleo de la villa de Elgeta desde 1687 se pagaba anualmente a un maestro, Lorenzo de Ansoategui, 150 reales; se seguía con la misma paga en 1709; en 1756 el pago a Bernardo de Zubia, maestro de esta villa y organista, era la cantidad de 660 reales; y en 1805 se pagaba al maestro 1.000 reales.
En el barrio de Angiozar desde 1691 se pagaba anualmente a un maestro 150 reales; en 1770 se pagaba como maestro a Miguel Ignacio de Zavala, cura beneficiado de su parroquia de San Miguel, la cantidad de 225 reales, y en 1805 la paga del maestro era de 500 reales.

También se conservan en el AME dos libros de las actas de la Junta de Instrucción Municipal desde 1842 hasta 1930. En estos libros aparecen algunos datos de interés: los enseñantes que ejercieron con el año de toma de su posesión, la poca estabilidad del profesorado, el número elevado de alumnos matriculados y su poca asistencia regular a la escuela, los escasos recursos didácticos, el deterioro e insalubridad de los locales escolares. En definitiva, queda constancia de que eran "escasas y reducidas dotaciones las que el municipio destinaba a la instrucción pública".

De su relato se extrae que en 1842 existían en el municipio tres escuelas mixtas, localizadas en el núcleo de la Villa y los barrios de Angiozar y Ubera.

Para 1861 ya funcionaban en el núcleo de la villa dos escuelas elementales, separadas de niños y niñas, y hasta 1893 no se consigue esta duplicidad de aulas en los barrios de Angiozar y Ubera.

El número de alumnos matriculados de 6 a 9 años en cada aula era numeroso, pero se veía reducido por la escasa asistencia a la escuela. Según datos de 1851 los matriculados en cada una de las tres aulas mixtas eran:

bisitatzen zituzten eskolak ebaluazioaren simulazio bat egiteko eta ikasleen emaitzen inguruko epaia emateko gramatikan, aritmetikan, Historia sakratuan eta irakurmen eta idazmenean. Hoberenentzako sariak egoten ziren. Gerora kendu egin zituzten azterketa horiek eskolaren kudeaketa akademikoan eskua sartzen zutelako. Azkenean Batzarraren egitekoak maisu edo maistrei kargua ematera eta kargu uzteetara mugatu ziren.

1857tik, Isabel II.aren erresumako Hezkuntzako Moyano Legearekin, lehen hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa bihurtu zen 6 urtetik 9 urtera, emakumeak ere barnean hartu zituen eta udalen gain utzi zuen eskolen eraikuntza, konponketa, alokairua eta mantenua, baita maistra eta maisuen soldata eta beren etxebizitzen gastua ere. Gobernuaren erabaki horiek Elgeta bezalako udalerri txikiei gehiegizko zama ekonomikoa ekartzen zien.

Pausu garrantzitsua izan zen Hezkuntza Ministerioaren sorrera 1900ean. Handik urtebetera maisu eta maistrak Estatuaren soldatapeko bilakatu ziren udalen soldatapean egoteari utziz, eta euren soldatek hobera egin zuten. Dena dela, udalek ordainsari osagarrien bidez maisu eta maistren soldatak, materialak, eskolak eta etxeak diruz laguntzen jarraitu zuten.

Elgetako Udal Artxiboan azaltzen da lehen aldiz maisuen ordainketen berri [(2)].
Elgetan 1687tik Lorenzo Ansoategui deituriko maisuari urtean 150 erreal ordaintzen zitzaizkion. 1709an soldata bera zuen. 1756an, aldiz, Bernardo Zubia maisu eta organo-jotzaileak 660 erreal irabazten zituen. 1805ean urtean 1.000 erreal irabazten zituen maisuak.
Angiozar auzoan 1691tik 150 erreal irabazten zituen urtean maisuak; 1770an Miguel Ignacio Zavalak, San Migel parrokiako apaiz benefiziodunak, 225 erreal irabazten zituen, eta 1805ean urtean 500 erreal ordaintzen zitzaizkion.

EUAn gordetzen dira 1842tik 1930era arteko Hezkuntzarako Udal Batzarraren bi akta-liburu. Liburu horietan intereseko datu zenbait ageri dira: kargua hartu zuten urtean irakasle aritu zirenak, irakasleriaren egonkortasun txikia, matrikulatutako ikasleen kopuru handia eta beren agertze irregularra, baliabide didaktikoen eskasia, eskolak emateko lokalen egoera txarra... “Laburbilduz, udalak hezkuntza publikora zuzentzen zituen laguntzak urriak eta txikiegiak ziren”.

1842an hiru eskola misto zeuden; hiribilduan bat, Angiozar auzoan bestea eta Uberan azkena.

1861erako dagoeneko bi oinarrizko eskola zeuden hiribilduan, eskola batean neskak zeuden eta bestean mutilak. Angiozar eta Ubera auzoetan, aldiz, 1893ra arte ez zen horrelako bikoiztasunik izan.

6 eta 9 urte bitarteko ikasle matrikulatuen kopurua handia zen ikasgela bakoitzean, baina bertaratze eskasari esker jaisten zen ikasle kopurua. 1851ko datuen arabera, honakoak ziren matrikulatuen kopuruak

en el núcleo de la villa de Elgeta 112 alumnos/as (80 niños y 32 niñas); en Angiozar 93 alumnos/as (66 niños y 27 niñas); en Ubera 62 alumnos/as (36 niños y 26 niñas).

La poca asistencia del alumnado a la escuela no era solo fruto del abandono familiar, sino también la consecuencia de varias causas que la explicaban.
Una era la localización distante de la escuela, de modo que muchos niños y niñas para acudir a ella recorrían largas distancias, en ocasiones de ocho kilómetros de ida y vuelta, por caminos intransitables, sobre todo en invierno, y para comer tenían que ser acogidos por familiares o vecinos del núcleo de la villa o del barrio. Otra eran las infecciones que asolaban a la población infantil, impidiendo la asistencia a los contagiados. Y una tercera causa estaba motivada porque estos menores de edad, ante una pobreza extensiva, se ocupaban por temporadas de trabajos del caserío.

A modo de ejemplo se recoge en una Junta de Instrucción de 1904 estos datos de asistencia y ausencia a la escuela: en el núcleo urbano de Elgeta la escuela de niños de 66 matriculados (14 de ausencia total, 30 de la mitad de días, 9 con asistencia total de días) y la escuela de niñas de 44 matriculadas (4 de ausencia total, 8 de la mitad de los días, 9 con asistencia total de días); en Angiozar la escuela de niños de 41 matriculados (5 de ausencia total, 15 de la mitad de días, 10 con asistencia total de días) y en la escuela de niñas (no hay datos); en Ubera la escuela de niños de 70 matriculados (22 de ausencia total, 20 de la mitad de días, 5 con asistencia total de días) y la escuela de niñas de 44 (8 de ausencia total, 15 de la mitad de los días, 10 con asistencia total de días).

Hay que incidir que al deterioro material de los locales escolares, se unía la precariedad en la dotación económica de los y las maestras, que tenían diferente paga anual según eran propietarios o interinos, o el lugar del municipio:

- En el núcleo de Elgeta 150 reales (año 1700), 600 reales (1750), 1.000 reales (1800), 2.500 reales (1856), 625 pts. (1900), 1.000 pts. (1911), 2.000 pts. (1922).
- En los barrios de Angiozar y Ubera 150 reales (año 1700), 225 reales (1750), 500 reales (1800), 1.700 reales (1856), 275 pts. (1900), 1.000 pts. (1911), 2.000 pts. (1922).

Además, era frecuente que el municipio no dispusiera de ingresos suficientes para abonar el sueldo convenido con los y las maestras al finalizar el mes, y que anualmente se limitase el menaje o material para la labor docente. A ello se unían las muchas quejas de los y las maestras por el estado de las viviendas en que residían, de obligada disposición por los municipios, y las reiteradas peticiones de aumento de sueldos con retribuciones complementarias.

hiru eskola mistoetan: 112 ikasle Elgetan (80 mutil eta 32 neska), 93 Angiozarren (66 mutil eta 27 neska) eta 62 Uberan (36 mutil eta 26 neska).

Ikasleen agertze eskasa ez zen soilik familiaren utzikeriak eragindakoa; beste arrazoi batzuk ere bazeuden. Arrazoietako bat eskolara zuten distantzia izaten zen. Neska-mutil askok eskolara joan ahal izateko bide luzea egin behar izaten zuten –batzuek zortzi kilometroko distantziak ere bai joan-etorrian–, bide igarogaitzetatik, batez ere neguan, eta bazkaltzeko eskolatik gertu bizi ziren familiakoengana edo auzokoengana joan behar izaten ziren. Beste arrazoi bat umeen infekzioak izaten ziren, gaixo zeudenei eskolara joatea galarazten baitzitzaien kutsadurak saihesteko. Azkenik, hirugarren arrazoi bat pobreziak eragindakoa zen, izan ere, ume hauek baserriko lanez ere arduratu behar izaten ziren.

Esate baterako, 1904ko Hezkuntzako Batzar batean eskolara bertaratutakoen datu hauek ageri dira: Elgetako mutilen eskolan 66 ikasle matrikulatu ziren (14 ez ziren agertu, 30 egunen erdietan azaldu ziren eta 9 egunero agertu ziren), nesken artean, berriz, matrikulatutako 44 ikasle zeuden (4 ez ziren bertaratu, 8 egunen erdietan azaldu ziren eta 9 joan ziren eskolara egunero), Angiozarren mutilen eskolan 41 ikasle zeuden matrikulatuta (5 ez ziren azaldu, 15 egunen erdietan joan ziren eta 10 egunero azaldu ziren), Angiozarreko nesken bertaratzeari buruzko daturik ez dago, Uberan 70 mutil zeuden matrikulatuta (22 ez ziren azaldu, 20 egunen erdietan azaldu ziren eta 5 azaldu ziren egunero) eta nesken eskolan 44 ikasle zeuden matrikulatuta (8 izan ziren agertu gabekoak, 15 egunen erdietan agertu zirenak eta 10 egunero joan zirenak).

Azpimarratu beharra dago eskolak emateko lokalak erdi hondatuta egoteaz gain, maisu eta maistrek jasotzen zuten ordainsaria eskasa izaten zela. Jabeak ala bitartekoak izan, eta udalerriaren lekua arabera, maisu eta maistren ordainsaria desberdina izaten zen:

- Elgeta hiribilduan 150 erreal (1700 urtean), 600 erreal (1750ean), 1.000 erreal 1800ean), 2.500 erreal (1856ean), 625 pzta. (1900ean), 1.000 pzta. (1911an) eta 2.000 pzta. (1925ean).
- Angiozar eta Ubera auzoetan 150 erreal (1700ean), 225 erreal (1750ean), 500 erreal (1800ean), 1.700 erreal (1856ean), 275 pzta. (1900ean), 1.000 pzta. (1911an) eta 2.000 pzta. (1922an).

Gainera, sarritan udalak ez zuen izaten maisu eta maistrekin adostutako soldata ordaintzeko nahikoa diru hilaren amaieran, eta ohikoa zen urtero irakasteko hornidura eta materialak gutxitzea. Horri maisu eta maistren kexak gehitu behar zaizkio udalak jartzen zizkien etxebizitzengatik, baita soldataren osagarrien igoera eskaerak ere.

***La Fundación Escolar Domingo Iturbe:***

Con el siglo XX la escolarización en el núcleo de la villa se vio potenciada, durante los primeros veintidos años solo para niños, con la Fundación Escolar Domingo Iturbe, un nativo que volvió de América, y que dotó al Patronato de una cuantiosa donación.

Ya en agosto de 1909 en una sesión municipal se daba cuenta del propósito de Domingo Iturbe de crear una escuela pública y gratuita. En esa misma acta la corporación acepta agradecida la donación fundacional y hace cesión de algunos locales y materiales.

En efecto, se inició la Escuela-Fundación ese mismo año y se constituyó formalmente en 1911 con la denominación de las "Escuelas Cristianas de niños del Sagrado Corazón de Jesús". El objeto de la misma era "proporcionar una instrucción primaria sana y religiosa gratuita a los jóvenes de Elgeta". Así en el reglamento se expresa que "se dará suma preferencia a la educación religiosa, según corresponde a una escuela eminentemente católica y deseo del fundador". Asimismo, se acentúa el carácter particular de la Fundación y el deseo de que "se prohíba terminantemente toda intervención de las autoridades civiles y judiciales, tanto en el régimen interior como en la administración".

Esta Fundación, definida como institución católica, estaba patrocinada por el Obispo de Vitoria, la diócesis de pertenencia en aquel momento, y una Junta de Inspección. Esta estaba constituida por el párroco de Elgeta como presidente, y como vocales el cura de Angiozar, los coadjutores de la iglesia de Elgeta, dos vecinos padres de familia y un representante de la corporación municipal. Las funciones de esta Junta serían las de vigilar el funcionamiento de la escuela, distribuir la renta del capital para el personal y para el material, y hacer cumplir el reglamento tanto sobre las obligaciones de los maestros como en lo relativo al régimen interior de la escuela.

En esta escuela los niños podían ingresar desde los 5 hasta los 15 años, y estaban distribuidos en dos grupos de párvulos y de mayores.

En cuanto a las enseñanzas que debían impartirse, estarán orientadas con "suma preferencia a la educación religiosa" y la compondrán las siguientes materias: en la clase de párvulos se impartiría Doctrina cristiana y nociones de Historia Sagrada, Lectura, Escritura, Principios de Gramática con ejercicios de ortografía, Principios de Aritmética, Nociones de Higiene y Canto; y en la clase de los mayores, además de las citadas asignaturas, se incluyen Nociones de Geometría, Historia de España, Geografía, Nociones de Agricultura y Dibujo. El horario lectivo era de lunes a sábado, desde las 8 a 10.15 de la mañana y de 2 a 4.30 de la tarde.

La primera instalación de la Fundación en 1909 se ubicó en un local renovado del antiguo edificio del Hospital de la Magdalena, que era propiedad, según los espacios ocupados, tanto del Ayuntamiento como de la Parroquia. Aprovechando las dos plantas de este edificio, se habilitó desde el inicio la planta baja para dos aulas, y con el tiempo la planta alta para un aula de parvulario y una vivienda.

**Domingo Iturbe Eskola Fundazioa:**

XX. mendean herriko eskolatzea (mutilena soilik lehen hogeita bi urteetan) indartu egin zen Domingo Iturbe Eskola Fundazioari esker. Domingo Iturbe Ameriketatik itzulitako herritarra zen, Patronatuari dohaintza handi bat egin ziona.

1909ko abuztuan udalaren biltzar batean eskola publiko eta doakoa sortzeko Domingo Iturberen asmoa aipatzen da. Akta horretan bertan udalbatzak fundazioaren dohaintza onartu eta eskertzen du, eta lokal eta material batzuk uzten dizkio.

Hain zuzen, Eskola-Fundazioa urte hartantxe hasi zen eta 1911an osatu zen formalki *"Escuelas Cristianas de niños del Sagrado Corazón de Jesús"* izenarekin. Bere helburua Elgetako gazteei lehen mailako hezkuntza osasuntsu eta erlijiosoa ematea zen. Araudian zehazten zen hezkuntza erlijiosoari erabateko lehentasuna emango zitzaiola, eskola katoliko bati zegokion legez eta fundatzailearen desioa hori zelako.

Fundazioaren izaera berezia ere azpimarratzen zen, eta dela barne-erregimenean dela administrazioan, agintaritza zibil eta judizialen edozein esku-hartze guztiz debekatzeko nahia adierazten zen.

Fundazioak, instituzio katolikoa zenez gero, momentu hartan zegokion elizbarrutiaren babesa zuen, Gasteizko Apezpikuarena, alegia, eta Inspekzio Batzorde batena ere bai. Azken hori Elgetako parrokoak zuzentzen zuen eta Angiozarreko apaizak, Elgetako elizako apaiz lagunkideek, herriko bi familia buruk eta udalbatzako ordezkari batek osatzen zuten. Batzordearen zereginak ziren eskolaren funtzionamendua zaintzea, langileentzako eta materialentzako kapitala banatzea eta araudia betearaztea, bai irakasleen betebeharrei bai eskolaren barne-erregimenari dagokionez.

Eskolan 5 eta 15 urte bitarteko mutilak sar zitezkeen eta adinaren araberako bi taldetan banatuta zeuden txikiak eta handiak.

Eman beharreko jakintzagaiei dagokienez, hezkuntza erlijiosoari erabat loturik zeuden: txikien ikasgelan Doktrina kristaua, Historia Sakratuaren oinarrizko ezagutza, Irakurmena, Idazketa, Gramatikaren hastapenak ortografia ariketekin, Aritmetikaren hastapenak, Higienea eta Kantua ikasten ziren; eta handien ikasgelan, aurreko ikasgai horiez guztiez gain, Geometriaren oinarrizko ezagutza, Espainiako Historia, Geografia, Nekazaritzaren oinarrizko ezagutza eta Marrazketa. Eskolak astelehenetik larunbatera izaten ziren, goizeko 8etatik 10:15 arte eta arratsaldeko ordu 2etatik 4:30ak arte.

Fundazioaren lehenengo lokala Magdalena Ospitalearen eraikin zaharrean eraiki zen, 1909an. Eraikina Udalarena eta Parrokiarena zen. Bere bi solairuez baliatu ziren, eta hasieratik beheko solairuan bi ikasgela egin zituzten. Geroago goiko solairua txikientzako ikasgela bat eta etxebizitza bat egiteko erabili zuten.

En el año 1920 la Fundación inauguró su propio y amplio edificio de unos 960 metros cuadrados de espacio. Tenía una estructura de tres plantas: en el semisotano estaba el frontón; en la planta baja se situaban tres aulas y otras dependencias; y en la planta alta un local de función multiuso, y una vivienda. Este emblemático edificio estuvo abandonado en los últimos años (1995-2012) y terminó derruido para urbanizar la zona con una plaza y aparcamientos, manteniendo el frontón del semisótano y otros espacios exteriores destinados a uso de equipamiento educativo de recreo.




*Cuadro del fundador Domingo Iturbe, conservado en el despacho parroquial. Obra de Pablo Uranga sobre 1922 realizada para el edificio del Patronato. Se puede apreciar, a los lados y arriba, en la izquierda el edificio del Patronato y en la derecha un escudo que incluye el escudo de los Sostoa.*

Domingo Iturbe Fundatzailearen koadroa, parrokiako bulegoan gordea. 1922 inguruan Patronatuaren eraikinerako egindako Pablo Urangaren lana. Ezkerraldean Patronatoaren eraikina nabari daiteke eta eskuinaldean armarri bat, tartean Sostoatarren armarria duena.

Desde el inicio la Escuela-Fundación estuvo bajo la dirección de los Hermanos de la Salle (Hermanos de las Escuelas Cristianas), que componían una pequeña comunidad de tres hermanos, los primeros venidos de Francia y en años siguientes les fueron relevando otros hermanos del interior peninsular, pero siempre con la exigencia fundacional de que alguno supiera “vascuence”. Estos tres primeros hermanos franceses de la Salle fueron: Zacharie Auguste, Zelion y Lupien Bernard (estos dos hermanos consanguíneos).

1920an Fundazioak 960 metro karratuko eraikina ireki zuen. Hiru solairu zituen: semisotoan frontoia zegoen; beheko solairuan hiru ikasgela eta bulegoak zeuden, eta goiko solairuan askotariko zereginetarako lokal bat eta etxebizitza bat. Eraikin ospetsu hori abandonatuta egon zen azken urteetan (1995-2012) eta azkenean eraitsi egin zuten plaza bat eta aparkalekuak egiteko, semisotoko frontoia eta jolasteko kanpoko beste gune batzuk mantenduz.



Fundazioaren eraikina, 1920an eraikia eta 2013an eraitsia.
*Edificio de la Fundación inaugurado en 1920 y derruído en 2013.*

Hasieratik Eskola-Fundazioaren zuzendaritzan Hermanos de la Salleak (Hermanos de las Escuelas Cristianas) egon ziren, hiru anaiak osatutako komunitate txiki bat. Lehenak Frantziatik etorri ziren, eta hurrengo urteetan penintsulako anaiek ordezkatu zituzten, betiere euretariko batek euskaraz jakin behar zuelarik. La Salleko lehenengo anaia frantsesak Zacharie Auguste, Zelion eta Lupien Bernard izan ziren (azkenak odoleko ahaideak).

La repercusión de esta institución queda reflejada en el número total de alumnos de dos clases y año: 74 (1910), 95 (1911), 94 (1913), 97 (1915), 102 (1916), 112 (1917), 125 (1919), 120 (1920), 124 (1921), 117 (1922), 83 (1923), 103 (1924), 88 (1925), 84 (1926), 81 (1927) [3]

Los Hermanos de la Salle permanecieron durante dieciocho años (1909-27), y su labor fue siempre muy reconocida. A su marcha, motivada por las injerencias de la Junta del Patronato, durante dos cursos continuaron la docencia dos maestros seglares (Teófilo Martin y Claudia Elosu). Les siguieron los Hermanos Viatoristas hasta la última guerra (1929-36) (Hermanos Directores: Emiliano García -1929/33- y Fortunato Legaristi -1933/36-). Concluida esta contienda, continuaron la enseñanza otros maestros seglares (1939-1955), pero, pasados dieciséis años, con las rentas de la Fundación no se les podía mantener y abandonaron su labor.

Desde 1931 el Patronato incorporó la instrucción y educación de niñas, y la encargó a una comunidad de monjas (Hijas de la Unión Apostólica), que permanecieron en esta labor hasta julio de 1965.

## ***La creación de la Ikastola:***

Con la marcha de la comunidad de monjas, el edificio de la Fundación quedó vacío, y se creó una Ikastola con la decisiva tutela de la Parroquia. Con este modelo se proyectaba una escuela euskaldun, una pedagogía innovadora y una integración mixta del alumnado. En definitiva, era la defensa de la "cultura vasca" en lucha contra la Dictadura, y que tenía un reflejo amplio en el ámbito de la cultura, con el movimiento de las ikastolas, la música, el arte, el teatro. En aquel momento político este proyecto como tal era ilegal y solo posible en la clandestinidad, pero en este caso estaba respaldado por una escuela de protección eclesial ya en funcionamiento.

En torno al proyecto se organizaron las familias implicadas en una asamblea gobernante y decisoria. Se disponía de locales y se contrataron las tres primeras andereños para iniciar la actividad escolar en el curso 1965/66: Lupe Ibarbia, Itxaro Lizarraga y Mª Pilar Lasarte.

El edificio se estructuró en tres grupos: aula de Párvulos (4-6 años), aula de pequeños de Primaria (7-9 años) y aula de mayores de Primaria (10-12 años).

Como todas las ikastolas nacientes, también la de Elgeta se enfrentaba a múltiples problemas y necesidades, y se pusieron en marcha, además de cuotas, toda una serie de actuaciones para recabar fondos: una taberna, una tómbola, rifas, festivales musicales, loterías, donaciones de tiendas, negocios, empresas... Estas actividades para recabar fondos se convirtieron en acontecimientos locales comunes y habituales.

Instituzioaren eragina bi ikasgelatako ikasleen kopuruan ikus daiteke: 74 (1910), 95 (1911), 94 (1913), 97 (1915), 102 (1916), 112 (1917), 125 (1919), 120 (1920), 124 (1921), 117(1922), 83 (1923), 103 (1924), 88 (1925), 84 (1926), 81 (1927) [3]
Hermanos de la Salleak hemezortzi urtez egon ziren (1909-27) eta beren lana oso aintzatetsia izan zen beti. Udalbatzaren esku-sartzeek eraginda Anaiak joan ostean, maisu sekularrek eskolak ematen jarraitzuten hurrengo bi urteetan (Teofilo Martin eta Claudia Elosuk). Gero Hermanos Viatoristak egon ziren azkeneko gerrak eztanda egin zuen arte (1929-36) (Anaia zuzendariak: Emiliano Garcia, 1929-33, eta Fortunato Legaristi, 1933-36). Gerraren ondoren, beste maisu sekular batzuk egon ziren (1939-1955), baina handik hamasei urtera Fundazioaren errentak ez ziren nahikoa eta beren egitekoak utzi zituzten.

1931tik udalbatza nesken hezkuntzaz arduratu zen eta mojen komunitatearen esku utzi zuen (Hijas de la Unión Apostólica), eta lan horretan jardun zuten 1965eko uztailera arte.

## Ikastolaren sorrera:

Mojen komunitatea joan zenean Fundazioaren eraikina hutsik geratu zen eta Ikastola bat sortu zen Parrokiaren babesarekin. Ikastolak eskola eredu euskalduna zekarren, pedagogia berritzailekoa eta mistoa. Euskal kulturaren defentsa zen Diktaduraren aurka, eta kulturaren alorrean ikastolen mugimenduan garrantzia handia zuten musikak, arteak eta antzerkigintzak. Momentu hartan proiektua legez kanpokoa zen izatez eta klandestinitatean bakarrik zen posible, baina kasu honetan martxan zegoen eskola erlijioso baten babesa zuen.

Proiektuari buruz hitz egiteko biltzar erabakigarri batean elkartu ziren inplikatutako familiak. Bazituzten beharrezko lokalak eta lehen hiru andereñoak 1965/66 ikasturterako: Lupe Ibarbia, Itxaro Lizarraga eta M. Pilar Lasarte.
Eskola hiru taldetan egituratu zen: Eskolaurrea (4-6 urte), Lehen hezkuntzako txikiak (7-9 urte) eta Lehen hezkuntzako handiak (10-12 urte).

Sortzen ari ziren gainerako ikastoletan bezala, Elgetan ere arazo eta behar asko zituzten, eta kuotez gain beste hainbat ekintza jarri ziren martxan fondoak lortzeko: taberna bat, tonbola, zozketak, musika festibalak, loteria, denden, negozioen eta enpresen dohaintzak… Herriko gertaera arrunt eta ohikoak bihurtu ziren dirua lortzeko ekimen horiek.

## ***La permanencia de la Escuela Estatal:***

Al mismo tiempo seguía funcionando la escuela estatal en el antiguo hospital de la Magdalena.

En 1954, por decisión ministerial, se implantó la cartilla escolar y certificado de estudios primarios, en la que debían de anotarse los datos personales y los resultados del historial académico del alumnado. Para ello se establecían unas normas objetivas de evaluación de las materias escolares y de asistencia.
Este certificado no solo era necesario para seguir estudios superiores, sino que era requerido para el ejercicio de los derechos públicos y para la admisión en talleres y empresas. Es indudable que esta medida promovió una vinculación de la familia con la escuela e impulsó la asistencia a las aulas.

Ante el deterioro de los locales, a petición del Ayuntamiento, en 1959 una clase unitaria de niños pasó al edificio de la Fundación Iturbe, que exigió algunas condiciones de materiales y arreglos, y las otras clases de niños y niñas permanecieron en el edificio de la Magdalena.

En 1962 la relación de mayores de 6 años era de dos unitarias de niños (una de 23 y otra de 22 alumnos), se mantiene la de niñas (18 alumnas) y sigue funcionando la escuela privada de las Hijas de la Unión Apostólica (42 alumnos y alumnas). Un total de 105 alumnos y alumnas.

Supuso un avance en cuanto a locales la inauguración, en 1967, de un edificio propio e independiente de la escuela estatal entre la calle Postigo y Maala. La estructura era de dos pisos: en la planta baja funcionaban dos aulas en espacios diferentes, y en la planta alta estaba otra aula y una vivienda de maestros. Este edificio se completó, en 1974 y en un terreno cercano al actual frontón, con una escuela de parvulario de dos aulas. En ese año el número de alumnos era de sesenta de primera enseñanza, con tres enseñantes.

En el siglo XX esta escuela estatal, como en otros lugares, estuvo caracterizada por: un profesorado en su mayoría erdaldun con la acreditación de buena conducta; una metodología autoritaria y tradicional con los objetivos preferentes de adquirir unos conocimientos básicos de lecto-escritura, operaciones matemáticas elementales y algo de geografía-historia; una enseñanza en castellano y con prohibición en algunos períodos de hablar el euskara en el recinto escolar; una organización estructurada en un grupo de pequeños (6-9 años) y un grupo de mayores (10-14 años) de primaria, separados por sexos; una masificación del alumnado en número y diversidad de edades en cada aula. Además, era notorio el abandono del Gobierno Estatal con restricciones económicas, la itinerancia del profesorado y el abstencionismo del alumnado sobre todo en épocas estivales de trabajo en el medio rural.

Esta situación se agudizó después del dominio franquista con la afirmación de los valores patrióticos, encarnados en determinadas excelencias de la cultura y lengua castellanas, y un control riguroso de la formación ideológica (del nacionalismo al nacional-catolicismo).

**Estatuko eskolaren iraupena:**

Estatu eskolak ere martxan jarraitzen zuen Magdalena Ospitale zaharrean.

1954an ministerioaren erabakiz, eskola-kartila eta lehen hezkuntzako ziurtagiriak ezarri ziren. Haietan ikasleen datu pertsonalak eta historial akademikoko emaitzak azaltzen ziren, eta horretarako ikasgaien eta bertaratzearen ebaluaziorako irizpide objektiboak ezarri ziren.
Ziurtagiria goi mailako ikasketak egiteko ez ezik, eskubide publikoak erabiltzeko eta tailer eta enpresetan lan egin ahal izateko beharrezkoa zen. Neurri honek familiak eta eskola hurbildu zituen eta ikasleen bertaratzea bultzatu zuen.

Lokalen hondatze egoera ikusita, Udalaren eskaeraz, 1959an mutilen gela bat Iturbe Fundazioaren eraikinera pasa zen eta Fundazioak material eta konponketa batzuk eskatu zituzten. Beste gelak aldiz Magdalena eraikinean geratu ziren.

1962an 6 urte baino gehiagoko haurren bi ikasgela zeuden (batean 23 ume zeuden eta bestean 22), nesken bat zegoen (18 ikasle) eta Hijas de la Unión Apostólica eskola pribatuak ere jarraitzen zuen (42 neska-mutil). Denera 105 ikasle ziren.

1967an Postigo eta Maala kaleen artean irekitako eskola estatalaren eraikin independenteak aurrerapen handia ekarri zuen lokalen aldetik. Eraikinak bi solairuko egitura zuen: beheko solairuan bi ikasgela zeuden eta goiko solairuan beste ikasgela bat eta irakasleentzako etxebizitza bat zeuden. Eraikina 1974an osatu zen bi gelatako haur-eskola egin zenean gaur egun frontoia dagoen lekutik hurbil. Urte hartan hirurogei ikasle eta hiru irakasle zeuden lehen hezkuntzan.

XX. mendeko estatu eskolen ezaugarri izan ziren: irakasleri nagusiki erdalduna, jokabide onaren ziurtagiriduna; metodologia autoritario eta tradizionala, helburu nagusia zutenak irakurtzen eta idazten eta oinarrizko operazio matematikoak egiten irakastea eta geografia eta historiari buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratzea; hezkuntza gaztelaniaz izatea eta euskara garai batzuetan debekatuta egotea eskolaren esparruan; lehen hezkuntzan txikiak (6-9 urte) eta handiak (10-14) bi taldetan banatuta zituen egituraketa izatea, sexuaren arabera banatuta, eta ikasleriaren masifikazioa eta adin dibertsitatea ikasgela bakoitzean. Bestalde, aipatzeko modukoak dira baita ere Estatuko Gobernuaren murrizketa ekonomikoak, irakasleen ezegonkortasuna (alde batetik bestera ibili behar izaten ziren) eta ikasle baserritarren desagertzea bereziki udarako lan garaian.

Egoera hau larritu egin zen frankismo garaian kultura eta hizkuntza gaztelauaren bikaintasunak nabarmentzen zituzten balore patriotikoen adierazpenekin eta heziketa ideologikoaren kontrol zorrotza (nazionalismotik nazional-katolizismora) ezarri zen.

Dicho esto en general, es justo y necesario recoger el testimonio oral sobre algunos maestros y maestras en el que se valora su dedicación y calidad humana.

(Ver una relación de maestros y maestras que ejercieron en las escuelas estatales del municipio, con fecha de inicio, en la nota 21)

Parece de interés recoger ciertas manifestaciones de enseñantes estatales, encontradas en la búsqueda documental, y que reflejan la penuria económica y el control ideológico.

Uno es Roman Bereciartua, que desde 1886 fue maestro en la escuela de Angiozar, y lo compaginaba con otros oficios como organista y encargado de la Alhóndiga del barrio. En repetidas ocasiones la Inspección y la Junta Local de Enseñanza le conminaron a una dedicación exclusiva a la escuela, pero él siempre aducía su precaria dotación como maestro.

Otro es Mariano López, que ejerció como maestro cinco años desde 1888 en la escuela de niños del núcleo de la villa. Dejó escrita y conservada en AM de Elgeta una breve historia de sus numerosas reivindicaciones laborales y defendiendo siempre la dignidad de la profesión.

Más tarde, en 1931, aparece Eusebio Monje, que ejerció unos años en la escuela de niños del núcleo de la villa. Se convirtió en líder ideológico del grupo republicano-socialista y fue combatido, especialmente por la iglesia, por publicar escritos y promover charlas  en defensa del evolucionismo.

Y termino con dos maestros del núcleo de la villa, Manuela Ochoa de Angiozar y Carlos Campos, que, concluida la última guerra, fueron suspendidos por el franquismo de empleo y sueldo entre otros 146 enseñantes represaliados de Gipuzkoa.

***<u>La unificación de la Ikastola y la Escuela Estatal:</u>***

En el curso 1979/80 se consiguió la unificación de la Ikastola y Escuela Nacional sobre la base de un profesorado euskaldun y un modelo de Ikastola. El primer impulso para esta integración partió de la Ikastola (padres de familia y profesorado), con la colaboración del Ayuntamiento y el Gobierno Vasco. Siguieron muchas reuniones tensas y aclaratorias. El llegar a un acuerdo no fue tarea fácil, sobre todo por las reticencias y prejuicios de un sector de familias de la Escuela Estatal.

Aquella primera unificación se consolidó definitivamente en 1993 con la integración en la red pública, atendiendo a la nueva ley de la Escuela Pública Vasca.

Hau esanda, justua eta beharrezkoa da maisu eta maistra batzuen dedikazioa eta onberatasunari buruzko ahozko lekukotasunak jasotzea.

(Ikus herriko eskola estataletan irakatsi zuten maisu eta maistrei buruzko 21. oharra)

Interesa dute dokumentu bilaketan aurkitutako estatu eskoletako irakasleen adierazpenek, maisu eta maistra hauek jasaten zuten pobrezia eta kontrol ideologikoa erakusten baitute.

Euretako bat Roman Bereciartua izan zen, 1886tik Angiozarreko eskolako maisua zena. Maisu izateaz gain, organo-jotzailea eta auzoko alondegiaren arduraduna ere bazen. Hainbat aldiz ohartarazi zioten Inspekzioak eta Hezkuntzarako Herri Batzordeak irakaskuntzan bakarrik egin behar zuela lan, baina hark beti argudiatzen zuen gutxiegi irabazten zuela maisu gisa.

Beste bat Mariano Lopez zen. 1888an hasi eta bost urtez jardun zuen irakasle herriguneko mutilen eskolan. Elgetako Udal Artxiboan utzi zuen idatzita lan baldintzen hobekuntzak eskatuz berak egindako aldarrikapenen testigantza labur bat, lanbidearen duintasuna defendatuz.

Beranduago, 1931an, Eusebio Monje azaltzen da. Urte batzuk igaro zituen irakasle moduan herriguneko mutilen eskolan. Talde errepublikazale-sozialistaren buru ideologikoa bihurtu zen eta bere kontra azaldu zen eliza eboluzionismoaren aldeko testuak argitaratu eta hitzaldiak emateagatik.

Azkenik, herriguneko beste irakasle batzuk Manuela Ochoa Angiozar eta Carlos Campos izan ziren. Gerra amaitu zenean, lanik eta soldatarik gabe utzi zituen frankismoak, Gipuzkoako beste 146 irakasle errepresaliaturekin egin zuen bezala.

## <u>Ikastolaren eta Estatuko eskolaren bateratzea:</u>

1979/80 ikasturtean Ikastola eta Eskola Nazionala elkartu egin ziren irakasleri euskaldun baten eta Ikastolaren ereduaren oinarrien gainean. Horretarako lehenengo bultzada Ikastolak –bertako familia buruek eta irakasleek osatua– eman zuen Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin. Tentsio handiko biltzarrak izan ziren eta adostasun batera iristea ez zen erraza izan, batez ere Estatuko Eskolako guraso batzuen mesfidantza eta aurreiritziak zirela eta.

1993an, Euskal Eskola Publikoaren lege berria kontuan hartuta, bi eskolen arteko bateratzea behin-betikoa bihurtu zen eta eskolen sare publikoan sartu zen.

Desde 1984 era una necesidad urgente y sentida la construcción de un nuevo centro escolar y se proyectaba sobre el edificio y los terrenos del antiguo Hospital de la Magdalena. Pero parte de los espacios de este edificio eran titularidad o propiedad de la Diócesis, como en una parte del primer piso, que ocupaba la Fundación escolar Iturbe, y en la planta baja, lugar de la capilla-ermita de la Magdalena, que -según la escritura- "es dueña sin título escrito y le corresponde por posesión desde tiempo inmemorial". En esa escritura de septiembre de 1989 el Ayuntamiento hace una permuta de estos espacios para conseguir toda la titularidad del edificio por una casa de propiedad municipal, llamada Abarrategui, en la calle S. Roke nº 18. Con anterioridad esta casa en situación derruida, había sido cedida, adjudicada y transferida al Ayuntamiento por el Patronato para la reconstrucción de dos viviendas de maestros estatales. Era una transferencia en compensación a las obligaciones que tenía el Patronato desde 1931 de satisfacer los alquileres de la Comunidad de Monjas (Hijas de la Unión Apostólica) que ocupaba un espacio municipal en el Hospital. Como se aprecia, el canje se realiza en dos ocasiones y con los mismos inmuebles.

Una vez realizada la permuta y demolido el histórico edificio del Hospital, la nueva escuela se inauguró en el curso 1995/96. Es el actual y amplio edificio escolar de cuatro plantas, con todas las dependencias y servicios requeridos para una moderna y funcional infraestructura escolar. Como patio de recreo y de huerto escolar se utiliza un espacio cercano y el frontón cubierto en el semisotano del edificio de la antigua Fundación.



*Escuela Estatal inaugurada en 1967 y derruída en 2013.*
Estatu eskola, 1967an zabaldua eta 2013an eraitsia.

(1) (AME, legajo 72).
(2) (AME, Libro de Cuentas, legajos 19 y 128)
(3) (Estos datos están extraídos de la obra "Bajo el signo de la educación. 100 años de la Salle en Gipuzkoa", pag. 268).

1984tik premiazko beharra zen ikastetxe berri baten eraikuntza eta Magdalena Ospitalearen eraikin eta lurren gainean eraikiko zela aurreikusten zen. Gune batzuen titulartasuna edo partizipazioa, ordea, elizbarrutiarena zen, izan ere, lehenengo solairua Iturbe Fundazioarena zen, eta beheko solairua, Magdalenako kapila/ermita zegoen lekua, alegia, eskrituren arabera jabetza-titulurik gabe antzinatik zen elizbarrutiarena. Eremu horren guztiaren truk, 1989ko iraileko eskrituran, Udalak San Roke kaleko 18. zenbakiko Abarrategi etxea eman zuen. Etxe hori, ordurako eraitsita zegoena, estatuko maisuentzako bi etxebizitza egiteko eman eta esleitu zizkion Patronatuak Udalari. Transferentzia hori Patronatuak 1931tik Mojen Komunitatearen (hots, udalarena zen Ospitalearen zati batean zeuden Elkartasun Apostolikoko Alaben) alokairuez arduratzeko zuen beharraren ordainetan egin zen. Beraz, bi aldiz egin zen trukea higiezin berberekin.

Trukea egin eta Ospitalearen eraikin historikoa behera bota ondoren, eskola berria 1995/96 ikasturtean ireki zen. Gaur egun dugun lau solairuko ikastetxe handiaz ari gara, eskola moderno eta funtzional baterako beharrezkoak diren sail eta zerbitzu guztiak dituenaz. Jolastokia eta ortua eskolatik hurbil daude eta frontoia Fundazio zaharraren semisoto estalian dago.



1995ean zabaldutako Herri Eskola.
*Herri Eskola inaugurada en 1995.*

(1) EUA, 72. orri-sorta.
(2) EUA, Kontu Liburua, 19. eta 128. orri-sorta.
(3) ("Bajo el signo de la educación. 100 años de la Salle en Gipuzkoa" laneko 268. or.-tik ateratako datuak).

## ***ANEXO VI: EL BENEFACTOR DOMINGO ITURBE***

Dada la utilidad social de la Fundación Escolar del benefactor Domingo Iturbe, parece de obligado reconocimiento indagar en su vida y ascendencia.

Es paradójico que se desveló algo de su meritoria obra, al dedicarle en 1994 el municipio una calle en la villa, y algunas asociaciones estatales de víctimas, con el clamor mediático, se soliviantaron en un primer momento al creer que era en homenaje al histórico etarra "Domingo Iturbe" (Abasolo), que había muerto siete años antes en el exilio.

### ***Los antecedentes familiares de Domingo Iturbe y Altube***:

Domingo Mª Aquilino Iturbe y Altube nació el 4 de enero de 1833 en el caserío Sostoa (Zesto Gainekua) de Elgeta, y murió en su pueblo el 22 de julio de 1912.

Los padres de Domingo fueron Gaspar Antonio Iturbe Ojanguren (1795/†1866), del caserío Iturbe, y Mª Dominica Altube Aguirreveña, nacida en 1803 en el caserío Sostoa (Zesto Gainekua).

Los abuelos paternos fueron Juan Domingo Iturbe Albistegui (†1830) y Mª Angela Chatalina Ojanguren Sagastiguchia (1755/†1816). Casados el 16 de septiembre de 1775, vivieron en el caserío Iturbe. Tuvieron, al menos, dos hijos: Andrés Domingo (mayorazgo) y Gaspar Antonio Iturbe Ojanguren.

Los abuelos maternos fueron José Joaquin Altube Sostoa Aramburu (†1817) y Manuela Aguirreveña Aranceta (1771/†1847). Casados el 9 de noviembre de 1801, vivieron en el caserío Sostoa de su propiedad. Tuvieron dos hijas: Mª Dominica y Mª Josefa Altube Aguirreveña.

Los padres de Domingo, antes de casarse, formalizaron ante escribano las "capitulaciones matrimoniales" (21-02-1822) [1].

En ellas se tomaron estos acuerdos por ambas partes:
Por parte de la novia eran testigos su madre Manuela Aguirreveña, ya viuda, y su tío el escribano Antonio Prudencio de Altube. La madre confirma el testamento de su marido José Joaquín Altube, ya muerto, en el que divide la herencia entre sus dos hijas, Mª Dominica y Mª Josefa. En ese testamento lo sustancial de la herencia integraba los caseríos Sostoa (Zesto Gainekua) y Aramburu, y la mitad de la casa "Ercillakoa" en el núcleo de la villa.

Por parte del novio eran testigos su padre, Juan Domingo Iturbe, y su hermano, Andrés Domingo Iturbe, con su esposa Josefa Antonia de Olañeta. Estos, hermano y cuñada, propietarios del caserío Iturbe, otorgan a Gaspar Antonio en razón a la legítima parte y a otros servicios prestados: 3.000 ducados de dinero en efectivo, tres camas, tres arcas con dos mudas nuevas y vestido, y una mesa con todos sus complementos.

## VI. ERANSKINA: DOMINGO ITURBE ONGILEA

Domingo Iturbe ongilearen Eskola Fundazioaren erabilera soziala ikusita, bere bizitzaren eta jatorriaren inguruko zertzelada batzuk ematea zor diogula esan liteke.

Paradoxikoa dirudi bere obra ezagutarazi zuen arrazoiak. Udalak 1994an kale bat eskaini zionean, biktimen aldeko estatuko zenbait elkarte sumindu egin ziren zazpi urte lehenago erbestean hildako "Domingo Iturbe" (Abasolo) ETAko kide historikoaren omenez zela pentsatu zutelako.

**Domingo Iturbe Altuberen familia aurrekariak:**

Domingo M. Aquilino Iturbe Altube 1833ko urtarrilaren 4ean jaio zen Elgetako Sostoa (Zesto Gainekua) baserrian eta bere herrian hil zen 1912ko uztailaren 22an.

Domingoren gurasoak Iturbe baserriko Gaspar Antonio Iturbe Ojanguren (1795/†1866) eta 1803an jaiotako Sostoa baserriko M. Dominica Altube Aguirreveña izan ziren.

Aitaren aldeko aitona-amonak Juan Domingo Iturbe Albistegui (†1830) eta M. Angela Chatalina Ojanguren Sagastiguchia (1771/†1847) izan ziren. Bi seme izan zituzten gutxienez: Andres Domingo (maiorazkoa) eta Gaspar Antonio Iturbe Ojanguren.

Amaren aldeko aitona-amonak berriz Jose Joaquin Altube Sostoa Aramburu (†1817) eta Manuela Aguirreveña Aranceta (1771/†1847) izan ziren. 1801eko azaroaren 9an ezkondu eta eurena zuten Sostoa baserrian bizi izan ziren. Bi alaba izan zituzten, M. Dominica eta M. Josefa Altube Aguirreveña.

Domingoren gurasoek ezkondu aurretik ezkontza hitzarmenak egin zituzten (1822-02-21) [(1)].

Hitzarmen horretan honakoak zehazten ziren:
Andregaiaren lekukoak bere ama Manuela Aguirreveña, dagoeneko alargundua, eta bere osaba Antonio Prudencio Altube eskribaua izango zirela. Amak bere senarra zenaren testamentua berresten zuen. Beren bi alaben artean banatzen zuen herentzia, M. Dominica eta M. Josefaren artean, alegia. Testamentuaren zatirik mamitsuena Sostoa (Zesto Gainekua) eta Aranburu baserriek eta herriguneko Erzilakoa etxearen erdiak osatzen zuten.

Senargaiaren lekukoak bere aita Juan Domingo Iturbe, anaia Andres Domingo Iturbe eta honen emazte Josefa Antonia Olañeta izan ziren. Azken horiek, Iturbe baserriaren jabeak ziren senargaiaren anaiak eta koinatak, 3.000 dukat eskudirutan, hiru ohe, bi arropa aldagarri berri eta soineko bat zituen kutxa bat eta mahai bat bere osagarri guztiekin eman zizkioten Gaspar Antoniori.

El matrimonio vivirá en el caserío Sostoa (Zesto Gainekua), y se obliga a cuidar y dar sepultura en su momento a la madre viuda, y cuidar a la hermana menor con el reparto de sus derechos de la legítima y otros enseres especificados "al tiempo de su acomodo". Como así ocurrió diez años más tarde al casarse Mª Josefa en Elorrio con Agustin Santos Onagoitia.

En efecto, Gaspar y Dominica se casaron el 9 de diciembre de 1822, vivieron en el caserío Sostoa, donde nacieron estos hijos con los apellidos Iturbe Altube: Victor Juan José (1826/†1860), Mª Valeria (1829/†1843), Hilario Antonio (1831/†1854), Domingo Mª Aquilino (1833/†1912), Juan Lino (nacido en 1838 y muerto a edad temprana), José Ramón (1842/†1868).

Gaspar Antonio, el padre de Domingo, con 71 años y poco antes de morir, establece en el testamento (6-09-1866) sus últimas voluntades a los dos hijos aún vivos, José Ramón y Domingo Mª Aquilino. A José Ramón, que vive y trabaja en el caserío, le transmite el mayorazgo y toda la herencia; y de Domingo dice textualmente que "… en este momento reside en Américas y en la parte de la República de Bolivia, con 33 años, y con él se han gastado antes más de 40.000 reales en estudios, viajes, fletes y demás"(2).

Este hermano heredero, José Ramón, a los dos años morirá soltero con 26 años y sin descendencia, y la herencia integra pasará legítimamente a Domingo.

## ***La vida de Domingo Iturbe y su obra***

Por el testamento paterno referido conocemos que Domingo hizo algún tipo de estudios, antes de emigrar a América, y la familia costeó los gastos del viaje. Con la edad de 17 años figura en el Archivo Municipal la fecha del permiso de pasaporte en Elgeta (23-10-1850). En aquel momento el trayecto más utilizado era Burdeos-Montevideo y se empezó a intensificar el de Burdeos-Buenos Aires.

En América residió en la República de Bolivia, durante al menos treinta años. A su retorno consta un poder especial a favor de D. Enrique Hertzog y Lazcano, su socio en Bolivia, para representar las cien acciones, que tenía en el Consejo de Administración de la Sociedad Anónima "Crédito Hipotecario de Bolivia". Este fue el primer banco hipotecario privado de Bolivia, creado en 1869, con domicilio en la ciudad de La Paz. Tenía como cometido suministrar empréstitos a propietarios de inmuebles y tierras, previa hipoteca de sus bienes (3).

En los últimos años de su vida, permaneciendo soltero, se retiró a su pueblo natal de Elgeta. Al retornar no tenía familia directa (hermanos o sobrinos), y le correspondía por herencia los caseríos de Sostoa (Zesto Gainekua) y Aramburu con los pertenecidos de ambos, y la mitad de la casa Ercillacoa en la calle San Roke. De estas propiedades, antes de morir, vendió (29-11-1911) el caserío Sostoa (Zesto Gainekua) y sus pertenecidos a Pedro Telleria Ascasibar por 29.500 pts. (4); y vendió (29-12-1911) el caserío Aramburu y sus pertenecidos a Cesáreo Loidi Aranzabal por 22.500 pts. (5)

Bikotea Sostoa (Zesto Gainekua) baserrian biziko zen. Ama alarguna zaindu eta hilobiratu beharko zuten, eta ahizpa gazteena ere zaindu beharko zuten ezkondu arte. Hamar urte beranduago, Agustin Santos Onagoitiarekin Elorriora ezkonduko zen eta orduan zegokion herentziaren zatia hartu zuen.

Gaspar eta Dominica 1822ko abenduaren 9an ezkondu ziren, Sostoa baserrian bizi izan ziren eta bertan jaio ziren Iturbe Altube abizenarekin Victor Juan Jose (1826/†1860), M. Valeria (1829/†1843), Hilario Antonio (1831/†1854), Domingo M. Aquilino (1833/†1912), Juan Lino (1838an jaio eta handik gutxira hila) eta Jose Ramon (1842/†1868).

Domingoren aita Gaspar Antoniok 71 urterekin, hil baino zertxobait lehentxeago, testamentuan (1866-09-6) zehaztu zuen bizirik zituzten bi semeen (Jose Ramon eta Domingo M. Aquilinoren) arteko banaketa. Baserrian bizi eta lan egiten zuen Jose Ramoni maiorazkotza eta herentzia guztia ematen zion. Domingori buruz esaten du "momentu honetan 33 urte dituen eta Ameriketan Bolivia aldean bizi den semearekin dagoeneko 40.000 erreal gastatu dituztela ikasketa, bidaia, pleit eta bestelakoetan" [(2)].

Anaia oinordeko hori, Jose Ramon, handik bi urtera hil zen 26 urterekin, ezkongabe eta oinordekorik gabe, eta ondorioz, herentzia guztia Domingoren esku geratu zen.

## Domingo Iturberen bizitza eta bere obra

Aitak idatzitako testamentuari esker jakin dezakegu Domingok nolabaiteko ikasketak egin zituela Ameriketara joan aurretik, eta familiak bidaia gastuak ordaindu zizkiola. Elgetako Udal Artxiboan azaltzen da 17 urterekin eman zioten pasaporteko baimena (1850-10-23). Momentu hartan gehien egiten zen bidea Bordele-Montevideo artekoa zen, baina Bordele-Buenos Aires bidea garrantzia hartzen ari zen.

Amerikan Boliviako Errepublikan igaro zituen hogeita hamar urte gutxienez. Itzuli zenean Boliviako bere sozio Enrike Hertzog Lazkano jaunari eman zizkion ahalordeak Crédito Hipotecario de Bolivia izeneko Sozietate Anonimoko Administrazio-kontseiluan zituen ehun akzioak ordezkatzeko. Boliviako lehenengo hipoteka bankua izan zen, 1869an sortua, eta egoitza La Paz hirian zuen. Higiezinak eta lurrak zituzten jabeei iesapenak jaulkitzeko helburuarekin sortu zen [(3)].

Bere bizitzaren azkeneko urteetan, ezkongabe, bere jaioterrira itzuli zen, Elgetara. Itzuli zenean ez zuen zuzeneko familiarik (ez anaiarik ez ilobarik) eta herentziagatik zegozkion Sostoa (Zesto Gainekua) eta Aranburu baserriak eta bertako ondasunak; baita San Roke kaleko Erzilakoa etxearen erdia ere. Hil aurretik Sostoa baserria eta hango ondasunak saldu zizkion Pedro Telleria Askasibarri 29.500 pezetaren truk (1911-11-29) [(4)]; eta Aranburu baserria eta bertako ondasunak, aldiz, Cesareo Loidi Aranzabali saldu zizkion 22.500 pezetaren trukean (1911-12-29) [(5)].

Por tanto, Domingo Iturbe, además de lo que economizó en América, tenía otras propiedades heredadas o compradas en Elgeta.

Su primera aparición documental en Elgeta es del censo de 1885, viviendo en la calle S. Roke nº 10, y en octubre de 1891 aparece como vocal de la Junta local de Instrucción, permaneciendo en ella algunos años.

En el censo de 1901 ya aparece viviendo en la casa nº 3 de la plaza, que constaba de planta baja, principal, segundo y desván, adquirida por compra. En esa casa aparecen también en su compañía Mª Josefa Padilla Rayzabal, viuda de Rufino Sagastiguchia Berraondo (†1887), y sus hijas Fernanda, Manuela y Rufina.

Domingo en el último testamento (3-07-1912) declara "única y universal heredera a Mª Josefa Padilla Rayzabal en pago a sus muchos servicios tanto en la salud como en la enfermedad". Y en ese mismo documento nombra a Cesáreo Eguren Larrañaga, de condición labrador propietario, como comisario particular para entregar esta herencia e invertir otra parte de ella conforme a las instrucciones verbales recibidas por el testador. Este comisario entregó, al morir Domingo, la herencia correspondiente a Mª Josefa como aparece en una escritura del 29 de octubre de 1912 [(6)].

Domingo dejó al Patronato fundado por él la cuantiosa dotación en aquellos tiempos de 50.000 pts. y con un interés del 4% en deuda perpetua. Este tipo de deuda no permitía nunca la devolución del capital suscrito y sólo se percibían los intereses convenidos. Asi en 1939 la Fundación tenía un capital total de 336.693 pts. al 4%, y sostenía tanto la escuela de niños desde el inicio como la escuela de niñas desde 1931, y había construido un emblemático edificio en 1920.

Siempre surge la curiosidad de tratar de descifrar aquella cantidad inicial traducida al momento actual. Como recurso orientativo, ya que hay otros indicadores a considerar, el solo índice de precios español, según los expertos, se multiplicaría por 420 veces en el siglo XX.

Pero la Fundación de Domingo Iturbe tuvo también sus momentos conflictivos.
Un primer conflicto, con la Fundación ya en marcha y muerto el benefactor, se centró en torno a la persona de Cesáreo Eguren Larrañaga (1855/†1930), casado en 1879 con Mª Josefa Sarasqueta Gorosabel. Vivieron como propietarios en el caserío Martocoa (Ubera). También fue alcalde de Elgeta (1904-10) cuando ya Domingo había retornado de América. Además, fue considerado como "un gran propagandista católico" y sorprende que, en su condición de labrador, recoriera muchos pueblos como un orador tanto político integrando la "Liga Foral Autonomista", como en movilizaciones clericales contra el Gobierno [(7)].

Cesáreo aparece desde el inicio como administrador de Domingo Iturbe después de su retorno de América, y más tarde como queda anticipado, fue nombrado por escritura como el "comisario particular de todas las facultades legales y las especiales de apoderado de la herencia".

Beraz, Ameriketan irabazi zuenaz gain, Domingo Iturbek herentzian hartutako edo erositako beste ondasun batzuk ere bazituen Elgetan bertan.

Elgetako dokumentuetan azaltzen den lehen aldia 1885eko errolda da, eta bertan jartzen duenagatik dakigu San Roke kaleko 10.ean bizi zela garai hartan. 1891ko urrian berriz, Heziketarako Herri Batzarreko kide gisa azaltzen da eta urte batzuk egin zituen batzordekide moduan.

1901eko erroldan plazako 3.ean bizi zela azaltzen da. Etxea erosia zen eta beheko solairua, solairu nagusia, bigarrena eta ganbara zituen. Etxe hartan berarekin batera bizi ziren M. Josefa Padilla Raizabal, Rufino Sagastigutxia Berraondoren (†1887) alarguna, eta haien alaba Fernanda, Manuela eta Rufina.

Domingoren azkeneko testamentuan (1912-07-3) ageri denez, herentzia guztia M. Josefa Padilla Raizabali utzi zion “osasun onean nahiz gaixotasunean emandako zerbitzu guztiengatik”. Dokumentu horretan bertan Cesareo Eguren Larrañaga baserritar ugazaba azaltzen da komisario partikular bezala ahozko jarraibideen arabera herentzia hori eman eta zati bat inbertitzeko. 1912ko urriaren 29ko eskritura batean azaltzen denez, Domingo hil zenean komisarioak M. Josefari eman zion zegokion herentziaren zatia [(6)].

Domingok berak sortutako Patronatuari kantitate handia utzi zion garai hartarako; 50.000 pezeta, hain zuzen, eta %4ko interesarekin betirako zorretan. Horrelako zorrak itzulezinak izaten ziren eta adostutako interesak soilik jasotzea ahalbidetzen zuten. 1939an Fundazioak 336.693 pezetako kapitala zuen %4eko interesarekin. Hasieratik mantendu zuen mutilen eskola eta, 1931tik aurrera, baita nesken eskola ere. Horrez gain, 1920an eraikin enblematiko bat eraiki zuen.

Ohikoa da orduko diru kantitatea gaur egun zenbat izango litzatekeen jakin nahi izatea. Gutxi gorabeherako ideia bat egiteko (izan ere, kontuan hartu beharreko beste adierazle batzuk ere badaude), XX. mendean 420 aldiz biderkatu zen diruaren balioa, adituek diotenez.

Hala ere, Domingo Iturbe Fundazioak garai gatazkatsuak ere izan zituen:
Lehenengo gatazka ongilea hil ondoren eta Fundazioa martxan zegoela gertatu zen. Cesareo Eguren Larrañagak (1855/†1930) eragin zuen. M. Josefa Sarasqueta Gorosabelekin ezkondu zen 1879an eta Martokoa (Ubera) baserrian bizi ziren ugazaba moduan. Elgetako alkatea ere izan zen (1904-10) Domingo Ameriketatik etorri zen garaian. Gainera, propagandista katoliko handia izatearen fama zuen eta, baserritarra izanik harrigarria bada ere, hizlari ibili zen herririk herri, bai mitinlari politiko bezala Liga Foral Autonomista delakoaren barruan bai Gobernuaren aurkako mobilizazio klerikaletan [(7)].

Cesareo hasiera-hasieratik azaltzen da Domingo Iturberen administratzaile gisa Amerikatik itzuli zenetik. Geroago ahalmen legal guztien eta herentziaren ahalmen berezien komisario partikular izendapena jaso zuen eskrituretan.

Al morir Domingo ejerce como depositario o legatario universal de unas instrucciones verbales dadas por el finado. Estas instrucciones verbales y personales con el tiempo crearon recelos y suspicacias.

En efecto, Cesáreo como tal apoderado fue nombrado vocal de la Junta de la Fundación. En mayo de 1917 inició y dirigió las obras del edificio de la Fundación, recabando con su nombre el permiso de obra y el traslado de la piedra desde la cantera de Albistegi, cercana a la ermita de San Urbano. Compró también para el Patronato, en 1928 con su nombre, la casa Abarrategui en la calle S. Roke. Y en otra ocasión aparece entregando de la herencia 400 pts. para la Junta de Beneficencia de la villa.

Con el tiempo su figura es controvertida porque por un lado hay un intento de ser requerido judicialmente por varias corporaciones municipales para que aclare los posibles déposItos dejados por Domingo en beneficio del municipio; y por otro lado se muestra abiertamente enfrentado con la Junta de la Fundación porque dice no cumplir las intenciones del Fundador en beneficio de Elgeta. En un escrito de la Diócesis de Vitoria, que presidía el Patronato, aparece la queja de que esta persona "tan declarada católica" se enfrente a las decisiones eclesiales [(8)].

Un segundo conflicto surgió entre los años 1995-2012 cuando el edificio de la Fundación Domingo Iturbe quedó vacío y en ese período se plantearon varios proyectos para hacerlo funcional y operativo. Siempre una dificultad era recabar la ayuda económica para reconstruir el edificio en función de los distintos planes propuestos, pero en todo momento estuvo presente el contencioso entre el Ayuntamiento y la Diócesis por interpretar la voluntad del Fundador y en consecuencia el dominio de la propiedad.

Por una parte el Ayuntamiento apelaba al documento fundacional, en el que constaba que en el caso de anularse dicha fundación benéfica, el capital dotal remanente se emplearía en beneficio de la Villa de Elgeta. Así aparece en el Documento Fundacional, art. adicional, que "…si la Fundación fuera anulada… el Patronato dispondrá de los intereses del capital dotal, empleándolo en fines similares y en beneficio de la villa de Elgeta".

Además se aducía que ese edificio fue construido por el vecindario en gran parte o bien con la mano de obra o bien con aportaciones en metálico y materiales, y que en la reconstrucción en el año 1939, a causa de la guerra, los vecinos también tuvieron parecidas aportaciones y colaboraciones.

Por otra parte la Diócesis, en este momento ya de Donostia-San Sebastián, que ostentaba desde el inicio el patronazgo y presidencia de la Fundación, ejercía de hecho y de derecho la propiedad y cualquier decisión sobre el edificio. Decimos de derecho porque ya en 1994 su obispo, José Mª Setien, consiguió la adaptación de los estatutos fundacionales y la inmatriculación como patrimonio eclesial, al amparo de la ley del Gobierno Vasco (12/1994).

Por fin, en 2011 el Ayuntamiento y la Diócesis de Donosti-San Sebastián, ésta en condición de propietaria legal, llegaron a un acuerdo para derruir el viejo edificio, que además en ese momento estaba en situación precaria,

Domingo hil zenean ahoz emandako jarraibide batzuen hartzaile edo legatudun unibertsal moduan jardun zuen. Ahozko jarraibide horiek, espero bezala, jendearen artean errezeloak eta mesfidantza sortu zituen.

Ahalduna zen aldetik, Fundazioko Batzarreko kide izendatu zuten. 1917ko maiatzetik Fundazioaren eraikinaren eraikuntza lanak zuzendu zituen eta bere izena erabili zuen lan-baimenak eskuratzeko eta San Roman ermitatik hurbil zegoen Albistegi harrobitik harria eramateko. 1928an bere izenarekin erosi zuen Patronatuarentzat San Roke kaleko Abarrategi etxea eta herentziako 400 pezeta eman zizkion herriko Benefizentzia Batzarrari.

Cesareoren irudia polemikoa bihurtu zen, alde batetik, udaleko zenbait korporaziok epailearen aurrera eraman nahi zutelako Domingok herriari utzitako gordailuak zeintzuk ziren argi zezan eta, bestetik, Fundazioaren Batzarraren kontra azaldu zelako fundatzailearen nahia ez zutela errespetatzen esanez [8].

Bigarren gatazka 1995-2012 urteen artean gertatu zen, Domingo Iturbe Fundazioaren erakina hutsik geratu eta gune erabilgarri eta operatibo bihurtzeko hainbat proiektu proposatu zirenean, izan ere, zailtasunak zeuden proposatutako planen arabera eraikina berreraikitzeko behar ziren laguntza ekonomikoak eskuratzeko eta, horrez gain, liskarrak sortu ziren Udalaren eta elizbarrutiaren artean Fundatzailearen nahia eta ondasunaren jabetza interpretatzerakoan.

Batetik, Udalak fundazio dokumentua apelatzen zuen. Bertan zehazten zen ongintza fundazioa bertan behera geratuz gero, Elgetaren mesedetan erabiliko zela gelditzen zen kapitala. Fundazio Dokumentuko klausala gehigarrian ageri da, hain zuzen, Fundazioa baliogabetuz gero, Patronatuak jasoko zuela kapitala eta antzeko helburuekin eta Elgetaren alde erabili beharko zuela.

Horrez gain, eraikina bizilagunen artean eraiki zutela argudiatzen zuten, bai beren lanarekin bai diruz eta materialez lagunduta, eta gerra osteko 1939ko berreraiketan ere herritarrek lagundu zutela argudiatu zuten.

Beste aldetik, ondasuna legez zegoen Fundazioaren patronatua eta zuzendaritza zuen Donostiako elizbarrutiaren esku, eta eraikinaren inguruko edozein erabaki hartzeko eskubidea ere elizbarrutiarena zen. Legez diogu 1994an Jose M. Setien apezpikuak sortze estatutuak egokitzea eta eraikina elizaren ondare inmatrikulatzea lortu zuelako Eusko Jaurlaritzaren (1994/12) legearen babespean.

2011an azkenean Udala eta Donostiako elizbarrutia (azken hori jabe legal gisa) adostasun batera heldu ziren egoera larrian zegoen eraikin zaharra eraisteko erabakia hartuz eta 175.000 euroko balioa hitzartuz. Hitzarmenean 2013tik aurrera eta hogeita hiru urtetan zehar, Udalak urtero elizbarrutiari 6.000 euro

acordando el valor de 175.000 euros. En ese acuerdo el Ayuntamiento se comprometía a pagar a la Diócesis, desde 2013 y anualmente, seis mil euros durante veintitrés años y en el último pago (2036) deberá abonar la cantidad aún pendiente del contrato de 37.000 euros.

(1) (Ver AHPG-GPAH - 1/1968 (21-02-1822).
(2) (Ver AHPG-GPAH - 1/4518 nº 106).
(3) (Ver AHPG-GPAH - 1/5119 nº 117).
(4) (Ver AHPG-GPAH - 1/5219 nº 430)
(5) (Ver AHPG-GPAH - 1/5219 nº 431)
(6) (Ver AHPG-GPAH - 1/5232 nº 326)
(7) Mitines de Cesáreo Eguren:

A Cesáreo Eguren lo encontramos al menos en dos mítines. Uno en el frontón Astelena (Eibar) integrando como orador en euskera la "Liga Foral Autonomista", que fue un efímero movimiento político (1904-06) creado para reavivar y salvaguardar el sentimiento foral del País Vasco (Revista Bascongada, 22 de abril de 1904).

Y otro mitin en la plaza de toros de Tolosa (14 de mayo de 1910) arengando a la multitud contra las escuelas laicas y contra las limitaciones gubernamentales (Ley del Candado de Canalejas) de nuevas órdenes religiosas.

(Ver imagen en http: //www.euskomedia.org/ImgsAuna/46053301.jpg)

(8) (Ver AME / EUA, legajo 1)

ordainduko zizkiola hitzeman zuen eta azken ordainketan (2036) kontratuan adostutakotik faltako zaizkion 37.000 euro ordaindu beharko dituela.

(1) (Ikus AHPG-GPAH - 1/1968 (1822-02-21)
(2) (Ikus AHPG-GPAH - 1/4518 106. zb.)
(3) (Ikus AHPG-GPAH - 1/5119 117. zb.)
(4) (Ikus AHPG-GPAH - 1/5219 430. zb.)
(5) (Ikus AHPG-GPAH - 1/5219 431. zb.)
(6) (Ikus AHPG-GPAH - 1/5232 326. zb.)
(7) Cesareo Eguren bi mitinetan behintzat ageri zaigu. Behin Eibarreko Astelena pilotalekuan "Liga Foral Autonomista" zeritzonaren barruan, euskarazko hizlari bezala. Mugimendu politiko labur bat izan zen (1904-06), Euskal Herriko sentimendu foruzalea berpiztu eta babesteko sortua (Revista Bascongada, 1904ko apirilaren 22a).
Beste batean, Tolosako zezen plazan agertzen da (1919eko maiatzaren 14an) han bildutako jendetzari eskola laikoen kontra eta gobernuak ordena erlijiosoak mugatzeko ateratako legearen ("Candado de Canalejas" Legearen) aurka sutsu hitz eginez.
(Ikus irudia hemen: http: // www.euskomedia.org/ImgsAuna/46053301.jpg)

(8) (Ikus EUA/AME 1. orri-sorta)

## ***ANEXO VII: LOS CAMINOS QUE LLEGAN A ELGETA***

Elgeta se vió comunicada desde antiguo por caminos, que conducían desde Bergara, Eibar y Mondragon, y por varios tramos o variantes de ellos existe la evidencia de algún ramal o variante del Camino de Santiago.

La red viaria de Gipuzkoa se fue configurando, desde el siglo XI, con la fundación de algunas villas gipuzkoanas. En aquel momento se distinguía entre los caminos domésticos o vecinales, que eran de dominio propio de cada casa o vecindad, y los caminos generales o públicos con o sin titularidad real, que eran "libres para el uso comunal de los vecinos de esta Provincia" (JJGG, 1568).




*Mapa de caminos de Gipuzkoa del siglo XIV* / Mendeko Gipuzkoako bideen mapa

Como aparece ilustrado en estos mapas por Gipuzkoa discurrían dos grandes caminos generales o ejes de comunicación Norte-Sur entre la costa y Alava, camino de Castilla. Estas dos rutas siguen dos valles y se articulan por las nuevas villas: la una va de Arlaban a Bergara y de ahí a Mutriku y Zumaia-Getaria; y la otra discurre de Biozkorna a Legazpi y de ahí atravesaba la cuenca del Oria hasta la costa.

## VII. ERANSKINA: ELGETARA HELTZEN DIREN BIDEAK

Elgeta antzinatik egon da komunikatuta Bergara, Eibar eta Arrasatera zeramaten bideekin eta bide horien zati batzuek Donejakue Bidearen adarren bat osatzen zutela adierazten duten aztarnak daude.

Gipuzkoako bide-sarea XI. mendetik Gipuzkoako udalerri batzuetako fundazioekin eratu zen. Garai hartan etxe- edo auzo-bideen eta bide nagusi edo publikoen arteko bereizketa egiten zen. Lehenak etxearenak edo auzoarenak ziren; bigarrenak, berriz, errege-bide titulartasuna eduki zezaketen eta probintziako edozein bizilagunenek erabil zitzaketen (JJGG, 1568).




XI. mendeko Gipuzkoako bideen mapa / *Mapa de caminos de Gipuzkoa del siglo XI*

Gipuzkoako mapa horietan ikus daitekeen bezala, iparra eta hegoa lotzen zituzten bi bide nagusi zeuden kostaren eta Arabaren artean (Gaztelara bidean). Bi bideek ibar bana jarraitzen zuten; batek Arlabandik Bergarara eta handik Mutriku eta Zumaia-Getariara egiten zuen, eta besteak Biozkornatik Legazpira eta handik Oriaren arroa zeharkatzen zuen kostaraino.

Desde mediados del siglo XVIII se culminó esta planificación viaria en Gipuzkoa con la construcción y financiación del nuevo camino real de coches, que atravesará diagonalmente la Provincia (SO.-NE.) al unir Arlaban con Irun.

El trazado original, planeado por el arquitecto Francisco Ibero, enlazaba Gatzaga con el Valle de Leintz y el alto Deba y, vía Oñati-Legazpi-Zumarraga, llegaba hasta el Goierri. Con posteridad, en 1775, esta vía fue completada por otra más acorde con un trazado para vehículos de cuatro ruedas, la del puerto de Deskarga a Zumarraga.

Pero el tramo San Adrián-Igartza, que atravesaba la sierra de Aizkorri y bajaba por el Alto Oria hasta Beasain, quedaba fuera de esta ordenación y se le adjudicaba la categoría de camino de postas. En Beasain retomaba la vieja vía del Oria y continuaba por Tolosa, pasaba al Urumea por Urnieta hasta Astigarraga, y de Oiartzun llegaba a Irun, cruzando el Bidasoa por Behobia.

Con estos caminos o carreteras generales que llegaban a Irún, se fueron construyendo otros ramales o tránsitos transversales. En Gipuzkoa el ramal de acceso a San Sebastian (1777) que partía de Hernani; los ramales entre Hondarribia-Irun (1763); Bergara-Eibar-Alzola (1785); Alzola-Deba-Mutriku (1790) y Bergara-Elgeta (1785). Las conexiones con Navarra se realizaron entre Tolosa-Lizarza (1793) y con Bizkaia mediante los ramales Mondragón-Elorrio (1779) y Eibar-Ermua (1785).

La mayoría de estos caminos fueron proyectos financiados por deuda pública, por impuestos al consumo que variaban según la cercanía o el provecho respecto del camino, y por la propia Diputación. También se establecieron "cadenas" o puntos en los que se pagaba unos aranceles establecidos por el paso, y quedaron exentos desde 1791 los vecinos del lugar.

Estas "cadenas" estaban diseminadas por puntos de la costa, de estaciones de ferrocarril y de tierra. Los puntos de tierra a principios del siglo XX se localizaban en: Behobia y Endarlaza (Irún), Pagoaga (Hernani), Hurto (Berastegi), Ilarrazu (Lizarza), Zárate (Bedayo o Tolosa), Lizarrusti (Ataun), Etxegarate (Idiazabal), Otzaurte (Cegama), Oñati, San Juan de Artia (Oñati), Arlaban (Salinas), Santa Ageda y Kanpazar (Arrasate), Elgeta, Olarreaga (Eibar), Urkaregi (Elgoibar), Saturraran (Motrico).

## EL CAMINO DE BERGARA A ELGETA [1]

Desde muy antiguo una calzada empedrada, de unos cuatro metros de ancho y que aún se conserva en unos pocos tramos, discurría desde Bergara a Elgeta hacia Bizkaia; después fue conocida como "camino real" y más tarde como "camino Reina Cristina". En paralelo a esta ruta se construyó definitivamente "un camino de coches", que es el trazado de la carretera actual.

XVIII. mendean Gipuzkoako bide plangintza mota hori amaitu zen autoentzako errege-bide berriaren eraikuntzarekin eta finantzaketarekin. Bideak probintzia diagonalki zeharkatu zuen, Arlaban eta Irun lotuaz (SO.-NE.).

Francisco Ibero arkitektoak eginiko jatorrizko bideak Gatzaga Leintz haranarekin eta Debagoienarekin batzen zuen eta, Oñati-Legazpi-Zumarraga bidea hartuz, Goierriraino heltzen zen. Geroago, 1775ean bide hori lau gurpildun ibilgailuentzako bide batekin osatu zen, Deskarga mendatetik Zumarragara doan bidearekin.

Hala ere, San Adrian-Igartza bidea, Aizkorriko mendilerroa zeharkatu eta Oria Garaitik Beasainera jaisten zena, antolaketa horretatik kanpo geratu zen, eta posta bide kategoria ematen zitzaion. Beasainen Oriako bide zaharra hartzen zuen berriz, eta Tolosatik pasata, Urumeara igarotzen zen Urnietatik Astigarragaraino helduz, eta Oiartzunetik Irunera gero, Behobiatik Bidasoara heldu arte.

Irunera iristen ziren bide edo errepide horien adar gehiago eraiki ziren. Gipuzkoan, Hernanin hasi eta Donostiara zihoan adarra (1777); Hondarribia eta Irun arteko adarrak (1763); Bergara-Eibar-Altzola (1785); Altzola-Deba-Mutriku (1790), eta Bergara-Elgeta (1785) eraiki ziren. Nafarroarekiko lotura Tolosa eta Lizartza lotuaz egin zen (1793) eta Bizkaiarekin Arrasate-Elorrio (1779) eta Eibar-Ermua (1785) adarren bidez.

Bide gehienak zor publikoaren bidez eta hurbiltasunaren edo erabileraren arabera aldatzen ziren kontsumo zergen bidez egin ziren eta Diputazioak finantzatu zituen. "Kateak" ere ezarri ziren, hau da, muga-zergak ordaintzeko bidean zehar zeuden puntuak. 1791tik aurrera bizilagunek ez zuten halakorik ordaindu beharko.

Kateak kostako, tren estazioetako eta lurreko hainbat puntutan sakabanatuta zeuden. Lurreko puntuak XX. mendearen hasiera: Behobian eta Endarlazan (Irun), Pagoagan (Hernani), Urton (Berastegi), Ilarratzun (Lizartza), Zaraten (Bedaio edo Tolosa), Lizarrustin (Ataun), Etxegaraten (Idiazabal), Otzaurte (Zegama), Oñatin, San Juan Artian (Oñati), Arlaban (Gatzaga), Santa Agedan eta Kanpazarren (Arrasate), Elgetan, Olarreagan (Eibar), Urkaregin (Elgoibar) eta Saturraranen (Mutriku) zeuden.

## BERGARATIK ELGETARA DOAN BIDEA [1]

Oso antzinako harrizko galtzada zen, lau metroko zabalerakoa. Oraindik zati batzuk mantentzen dira. Bergaratik Elgetara eramaten zuen eta handik Bizkaira. Errege-bide izena eman zioten eta beranduago Kristina Erreginaren bidea izena. Bide horrekiko paraleloan autoentzako bidea eraiki zuten, geroago gaur egungo errepidea bilakatuko zena.

Ya existía, como anticipamos, un ramal de Bergara-Elgeta que fue construido en 1785. Y desde principios del siglo XIX se proyectó a nivel provincial como un camino de coches (vehículos de tracción animal o de motor mecánico), diseñado como una calzada de piedra dura y unos ocho metros de ancho.

En estos años la Provincia de Gipuzkoa estaba al borde de la bancarrota, como consecuencia de las guerras con Francia (Convención e Independencia). Además, la "Caja de caminos", que sustentaba todas las vías construidas con anterioridad, aumentaba progresivamente su mucho déficit acumulado. Lo cierto es que eran muchos los problemas en la reposición y conservación de los caminos, entre ellos: el cese de la natural actividad económica; el territorio quebrado y lluvioso que exigía reparaciones continuadas; la dificultad del cobro de los peajes y el control del fraude de los que aprovechaban senderos y caminos carretiles; el impago de los intereses a los accionistas.

En esta situación la Provincia no tenía dinero para asumir el coste del nuevo proyecto, pero existía una decidida voluntad de ejecutarlo entre las villas afectadas de Bergara, Elgeta y Elorrio. Estas villas unidas forman una empresa privada para la construcción y explotación de este camino de coches. El sello de la empresa representaba tres manos entrelazadas bajo el lema "Irurac bat" y el nombre de la empresa, como consta en los membretes de los oficios, varió en el tiempo: "Dirección del Camino Real Abreviado de Vergara a Durango titulado de la Reina Cristina" (1840-1846), "Empresa Guipuzcoana Vizcaina"(1889-1895), "Empresa del camino titulado de la Reina Cristina de Vergara a Durango" (1906-1911).

Inicialmente la Sociedad de accionistas-prestamistas estaba integrada por capitalistas o hacendados de aquellas tres villas y figuran como primeros apoderados de la Empresa: de Bergara el caballero director, Felipe Mª Azcona y Zuloeta, y como apoderado Joaquín de Irizar y Moya; de Elorrio los apoderados Juan Martin Iragoitia, Juan Bautista de Zugane, Francisco de Ibaeta, Juan Martín de Ibabe; y de Elgeta los apoderados Juan Angel de Angiozar, Juan Martin de Iturbe, Pedro Agustín de Olalde.

El proyecto de esta infraestructura partía desde la caseria Guillengua (crucero de Amillaga) de Bergara y continuaba por Elgeta y Elorrio para llegar hasta la casa Maguna de Durango. El tramo gipuzkoano era de 9'400 km. y el bizkaino de 13'437 Km. Un total de 23 km. que fue repartido en 32 tramos para su construcción.

La carretera en todo su trayecto se concluyó en 1833.

Una vez terminada, en muchos años esta carretera se subvencionó en parte con la Diputación Provincial (8.500 pts. anuales) y en parte con el peaje, que era distinto según el medio de transporte (carruajes, caballerizas), carga de los carros, número de ganados y siempre se penalizaba, por el deterioro de la calzada, los transportes por arrastre o ruedas reforzadas con puntas.

En casi cien años el malestar y la reivindicación para liberar este portazgo fue constante por parte de los concejos y vecinos afectados.

Lehen esan dugun moduan, beraz, bazegoen lehendik Bergara eta Elgeta lotzen zituen adar bat 1785etik, eta XIX. mende hasieratik autoentzako (animaliek bultzatutako ibilgailuentzako edo motor mekaniko bidezkoentzako) ibilbidea egiteko asmoa zegoen. Harri gogorreko eta zortzi metrotako zabalerako galtzada gisa diseinatu zuten.

Urte horietan Gipuzkoako Probintzia porrot egiteko zorian zegoen Frantziaren kontrako gerren eraginez (Konbentzio eta Independentzia gerrak zirela eta). Gainera, lehenago eginiko bide guztiak mantendu zituen "Bideen kutxa"-ren defizita geroz eta handiagoa zen. Bideetan askotariko arazoak sortzen ziren, etengabe bideen berritze eta mantenu lanak oztopatzen zituztenak; besteak beste, jarduera ekonomiko naturalaren etetea, konponketa etengabeak eskatzen zituen lurralde malkartsu eta euritsua, zailtasunak bai bidesariak kobratzeko eta baita mendi-bide eta errepideak baliatzen zituztenen iruzurra kontrolatzeko ere, eta azkenik, akzionistei interesak ez ordaintzea.

Egoera horretan Probintziak ez zuen dirurik proiektu berriaren kostuei aurre egiteko, baina eragiten zien udalerrien artean, hau da, Bergara, Elgeta eta Elorrioren artean proiektua gauzatzeko nahia zegoen. Udalerri horiek batu eta enpresa pribatu bat sortu zuten autoentzako bidea eraiki eta ustiatzeko. Enpresaren zigiluak elkarri lotutako hiru esku ditu "Irurac bat" goiburupean, enpresaren izena, ofizioetako idazpuruetan ageri denez, aldatu egin zen denboran zehar: lehendabizi "Dirección del Camino Real Abreviado de Vergara a Durango titulado de la Reina Cristina" (1840-1846), gero "Empresa Guipuzcoana Vizcaina" (1889-1895) eta ondoren "Empresa del camino titulado de la Reina Cristina de Vergara a Durango" (1906-1911).

Hasieran elkarteko akziodun eta mailegu-emaileak kapitalistak edo hiru udalerri horietako aberatsak ziren, eta enpresaren lehenengo ahaldun bezala ageri ziren: Bergaran, Felipe M. Azcona Zuloeta zuzendaria eta Joaquin Irizar Moya ahalduna; Elorrion, Juan Martin Iragoitia, Juan Bautista Zugane, Francisco Ibaeta eta Juan Martin Ibabe ahaldunak, eta Elgetan, Juan Angel Angiozar, Juan Martin Iturbe eta Pedro Agustin Olalde ahaldunak.

Azpiegitura Bergarako Gillengua etxaldean (Amillagako bidegurutzean) hasten zen eta Elgeta eta Elorrio igaro ostean, Durangoko Maguna etxeraino heltzen zen. Gipuzkoako zatia 9,400 km-takoa zen eta Bizkaikoa 13,437 km-takoa. 32 zati egin ziren denera 23 km osatzen zituen bide hori eraikitzeko.

1833an amaitu zen errepide osoa eraikitzen.

Eraikuntza amaitu ostean, errepidea diruz lagundu zuten Probintziako Diputazioak (8.500 pzta urtean) eta bidesariek. Bidesari horiek handiagoak edo txikiagoak izaten ziren ibilgailuaren arabera (gurdi, zaldi), gurdien pisuaren arabera eta ganadu kopuruaren arabera; gainera, zigortu egiten ziren arraste bidezko ibilgailuak eta puntekin sendotutako gurpilak zituztenak, galtzada hondatzen zutelako.

Udalbatzen eta herritarren ondoeza eta bidesaria liberatzeko aldarria etengabea izan zen.

Por fin, en mayo de 1926 la Diputación de Gipuzkoa compró el tramo provincial de esta carretera a la Empresa propietaria por 55.954 pts.

Y dos años más tarde, por escritura otorgada en 1928, la misma Diputación compró a la Empresa constructora por 12.000 pts. la casa llamada del "Arco o Cadena", que da paso a la carretera en la entrada de Elgeta y cercana a la plaza.

## ***EL CAMINO DE EIBAR A ELGETA***

Varios caminos comunicaban desde antiguo a Eibar y Elgeta, y en 1922 se iniciaron los primeros pasos para construir una carretera. Pero la aprobación del proyecto se prolongó en el tiempo con muchas dificultades para llegar a un acuerdo.

La primera dificultad estuvo en relación a un informe técnico de la Diputación. En él se razonaba la conveniencia del trayecto, dentro del paso obligado por la divisoria de los "Caleros" con el fin de acortar la longitud de este camino y en el límite de la provincia, al par del caserío Otaola-Erdicoa (Eibar).

Al año siguiente, y el tiempo transcurrido nos advierte de la falta de acuerdos, los ayuntamientos de Eibar y Elgeta proponen que este camino se prolongara hasta la plaza Unzaga de Eibar. En ese momento aparecen escritos de grupos de vecinos del municipio de Elgeta en oposición a la construcción de este camino, aduciendo el coste económico del proyecto y el escaso potencial del municipio para afrontar su parte proporcional de inversión. Esta razón fue también aducida para la segregación de los barrios de Angiozar y Ubera, cuyo proyecto no les afectaba de modo directo y sin embargo se veían implicados económicamente.

Superadas estas vicisitudes, en 1924 hay un acuerdo de la Diputación para abordar su construcción, pero hasta cuatro años más tarde siguen sin dar una conformidad los dos ayuntamientos implicados de Elgeta y Eibar.

En 1931 se aprobó un proyecto definitivo, de los tres presentados, y que es la traza actual, partiendo desde la plaza Unzaga de Eibar hasta Elgeta, y se terminó de construir en 1935.

Esta obra supuso una importante inversión para el municipio, imponiendo tributaciones especiales a los vecinos y recibiendo generosas donaciones. Entre ellas las de veintidos vecinos, que renunciaron a percibir un 35% del valor de las indemnizaciones de sus terrenos para dar paso a la nueva carretera, y que supuso un total de 8.500 pts.

La aportación total del Ayuntamiento de Elgeta fue del 35% de la contrata (154.875 pts.). Para cubrirlo se emitieron obligaciones al 4%, que fueron pagadas directamente, o bien se abonaron por suscripciones o en gran parte por cesión de terrenos.

Azkenean 1926ko maiatzean Gipuzkoako Diputazioak probintziatik igarotzen zen zatia erosi zion errepidearen jabe zen enpresari 55.954 pezetaren truk.

Bi urte beranduago, 1928ko eskrituretan ezartzen zenez, Diputazioak enpresa eraikitzaileari 12.000 pzta eman zizkion Katea etxearen trukean, Elgetako sarreran, plazatik hurbil, errepidera ematen zuen etxearen trukean, alegia.

## EIBARRETIK ELGETARA DOAN BIDEA

Eibar eta Elgeta antzinatik zeuden komunikatuta hainbat bideren bidez, eta 1922an eman ziren lehen pausuak errepide bat eraikitzeko. Dena den, adostasun batera heltzeko zailtasunek atzeratu egin zuten proiektuaren onarpena.

Diputazioaren informe tekniko batekin izan zuen zerikusia zailtasunetako batek. Informean bidea karegileen banalerrotik pasatzea komeni zela adierazten zen, batetik, horrela bidearen luzera laburtuko zelako, eta bestetik, probintziako mugen barruan zegoelako, Otaola-Erdikoa (Eibar) baserriaren parean.

Hurrengo urtean ere ez ziren adostasun batera heldu. Orduan, Eibarreko eta Elgetako Udalek bidea Eibarreko Unzaga plazara iristea proposatu zuten, baina Elgetako bizilagunek bidea eraikitzearen aurkako gutunak idatzi zituzten, argudiatuz proiektuaren gastu ekonomikoa handiegia zela eta udalerriak ezingo ziola zegokion inbertsioaren zatiari aurre egin. Arrazoi berbera erabili zen baita ere Angiozar eta Ubera auzoak banatzeko, izan ere, proiektuak zuzenean behintzat ez zien onurarik ekarriko eta, hala ere, ekonomikoki eragiten zien.

Gorabehera horiek gainditu ostean, 1924an, Diputazioan errepidearen eraikuntza adostu bazen ere, inplikatutako udalerriek, hau da, Elgetako eta Eibarreko Udalek ez zuten euren onarpena emango handik lau urtera arte.

1931ean onartu zen azkenean behin-betiko proiektua (aurkeztutako hiru proiektuetariko bat) eta 1935ean bukatu ziren eraikuntza-lanak. Gaur egungo errepidearen ibilbide berbera zen, Eibarreko Unzaga plazatik hasi eta Elgetaraino.

Eraikuntza lanek inbertsio handia eskatu zioten udalerriari eta kostuari aurre egiteko dohaintza oparoekin nahikoa ez, eta zerga bereziak ezarri behar izan zizkien herritarrei. Diru laguntzak eman zituztenen artean, beren lurretan errepidea eraikitzeagatik zegokien %35eko indemnizazioari uko egin zien hogeita bi herritar aipa daitezke; orotara 8.500 pezetako diru kantitatea osatzen zuena.

Elgetako Udalak kontratuaren %35a ordaindu zuen (154.875 pzta.) %4ko intereseko obligazioak jaulkiz, izan zuzenean ordainduta edo izan harpidetze edo lur lagatzeen bidez.

Estas obligaciones eran de 500 pts. cada una y estos son los nombres de los que las suscribieron con el número correspondiente: Martin Telleria (31), Antonia Sagastiguchia (5), Manuela Sagastiguchia (25), Bartolome Elcoro (16), Juan Elcoro (25), Felipe Elcoro (16), Hilario San Pedro y Ignacio Lazcano (19), Cruz Antonio Telleria (10), Vicente Bustinduy (10), Maria Uribarrena (6), Jesusa Segura (16), Eusebio Sarasqueta (4), Valentin Cortaberria (3), Eugenio Elorza (4), Claudia Elosu y Elena Dolora (10).

## ***EL CAMINO DE MONDRAGÓN A ELGETA***

Existía también desde antiguo un camino, que unía Elgeta a su barrio de Angiozar, y por otro ramal del mismo se dirigía a través de Kanpazar a la villa de Mondragón. Se documenta su existencia en 1582 como el camino real que unía ambas villas.

En 1972 se concluyó la carretera Elgeta-Kanpazar, que enlazaba con la de Mondragon-Elorrio, y a su vez en 1984 se amplió en esta carretera, a la altura de Asentzio, un ramal de 3’3 kilómetros que llega a Angiozar. Con mucha anterioridad, en 1890, se había construido el tramo de 4’7 kilómetros, que comunica Angiozar con Bergara.

## ***EL CAMINO DE SANTIAGO POR ELGETA***

Los caminos siempre fueron planeados para el desarrollo del comercio y artesanía, y aprovechados para dar paso a viandantes y peregrinos. Estos peregrinos, numerosos según las épocas, avalan el dicho popular de que “todos los caminos llevan a Compostela”. Y lo que parece evidente es que por los caminos de Elgeta discurrió algún Camino de Santiago.
Así se puede deducir de un estudio de Imanol Sorondo referido a Bergara, en el que se exponen algunos datos objetivos y evidentes: la existencia de iglesias y ermitas que presentan advocaciones y nombres de santos de peregrinación; la existencia de hospedajes y aún asistencia médica; la presencia de muchas ermitas, en tramos muy cortos de un kilómetro; la presencia, según la tradición, de los Templarios en los Monasterios de Oxirondo y Uzarraga, que era una Orden de carácter religioso y benéfico-militar, y tenía como misión vigilar y proteger a los peregrinos [2].

Lo que también resulta evidente es que si algunos caminantes a Santiago de Compostela pasaban por Bergara, la ruta hacia Bizkaia debía transitar naturalmente por Elgeta. Esta afluencia se haria más intensa al constituirse en los siglos XIII y XIV ambas como Villas y en los siglos siguientes.

Hoy se acepta la existencia en el Camino de Santiago de dos rutas principales por Gipuzkoa, la de la Costa y la del Interior, que desde 2015 han sido reconocidas como patrimonio mundial de la UNESCO. Pero hay constancia histórica que estas rutas principales contaban con otras variantes o ramales transversales.

Obligazio bakoitza 500 pezetakoa zen. Obligazioak harpidetu zituztenen izenak eta euren harpidetze zenbakiak dira: Martin Telleria (31), Antonia Sagastiguchia (5), Manuela Sagastiguchia (25), Bartolome Elcoro (16), Juan Elcoro (25), Felipe Elcoro (16), Hilario San Pedro eta Ignacio Lazcano (19), Cruz Antonio Telleria (10), Vicente Bustinduy (10), Maria Uribarrena (6), Jesusa Segura (16), Eusebio Sarasqueta (4), Valentin Cortaberria (3), Eugenio Elorza (4), Claudia Elosu eta Elena Dolora (10).

## ARRASATETIK ELGETARA DOAN BIDEA

Elgeta eta Angiozar auzoa batzen zituen bide bat ere bazegoen aspalditik eta bere adar batetik joanda, Kanpazar zeharkatu eta Arrasateraino heltzen zen. 1582ko agiri batean bi udalerriak lotzen zituen errege-bide gisa azaltzen da.

1972an amaitu zen Elgeta-Kanpazar errepidearen eraikuntza, Arrasate-Elorrio errepidearekin lotzen zena, eta 1984an handitu zen Asentzio inguruan Angiozar auzorainoko 3,3 kilometrotako adar batekin. Askoz ere lehenago, 1890ean, Angiozar eta Bergara batzen zituen 4,7 kilometrotako bidea eraiki zen.

## DONEJAKUE BIDEA ELGETAN ZEHAR

Bideak nagusiki merkataritzaren eta artisautzaren garapenerako eraiki izan badira ere, oinezkoek eta erromesek ere beti baliatu izan dituzte. Erromesen esaerak dioenez, “bide guztiek daramate Konpostelara”, eta antza denez, esaera hori Elgetan ere betetzen da, izan ere, badirudi Donejakuerako bideren bat Elgetatik igarotzen zela.
Ondorio hori atera daiteke behinik behin Imanol Sorondoren Bergarari buruzko ikerketa batetatik. Ikerketan zenbait datu objektibo esanguratsu azaltzen dira; besteak beste, erromesbideetan ohikoak diren santu izenak elizetan eta ermitetan; ostatuak eta laguntza medikoa egotea; kilometro bakarreko bide motzetan ermita asko egotea, eta tradizioak dioenez, Oxirondoko eta Uzarragako Monasterioetan tenplarioak egotea, hau da, erromesak zaintzea eta babestea helburu zuen ordena erlijioso ongintzazko eta militar baten agerpena [2].

Hori horrela izanik, agerikoa dirudi Donejakue Bidea egiten zebiltzan erromes batzuk, Bergaratik igarotzen baziren, Elgetatik ere pasatu beharko zirela Bizkaira joateko. Horrez gain, pentsatzekoa da erromes kopurua handitu egingo zela XIII. eta XIV. mendeetan, bi herriak udalerri bilakatu zirenean, eta baita hurrengo mendeetan ere.

Egun Gipuzkoatik igarotzen diren Donejakue Bidearen bi ibilbide daudela onartzen da, Kostakoa eta Barnealdekoa; gainera, 2015etik UNESCOko munduko ondare dira. Dena dela, ziurtasun historikoz esan daiteke ibilbide nagusi horiek beste saihesbide eta zeharkako adar batzuk ere bazituztela.

La ruta de la Costa, que va desde Bayona a Santiago de Compostela, bordeaba las villas costeras vascas de Gipuzkoa y Bizkaia. Desde antiguo tuvo una doble versión: la ruta de cabotaje por la costa cantábrica y la ruta terrestre, y ambas se completaban en algunos tramos concretos.

En la ruta terrestre una posible variante o ramal empezaría en Astigarribia-Sasiola (Mutriku), seguiría por las laderas del Arno, ermita del Salbador, ermita de Santiago Azurza y los altos de Elgeta, cercanías del caserío Zabaleta con el nombre de "mando-bide" (camino pastoril), Kanpazar y Udala, y se adentraría en Araba por Aramayona o Salinas.

Otra variante o ramal de esta ruta seguiría el antiguo camino de Bergara a Eibar por Basalgo, con otra antigua ermita de Santiago y un caserío conocido ya en el siglo XIV como "Monasterio-bide" (camino al Monasterio de Santa Marina) con todas las características de un lugar de albergue de peregrinos.




*Mapa del Camino de Santiago por Gipuzkoa.*
Gipuzkoako Donejakue Bidearen mapa.

Kostako ibilbidea, Baionatik Santiago de Compostelara doana, Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldeko herrietatik igarotzen da, eta aspalditik du bertsio bikoitza: Kantauriko kostaldetik doan kabotaje ibilbidea, batetik, eta lurreko ibilbidea, bestetik, zati batzuetan elkar osatzen dutelarik.

Lurreko ibilbidearen adar bat Astigarribia-Sasiolan (Mutriku) hasi eta Arnoko magaletik, Salbatoreko ermitatik, Santiago Azurza ermitatik eta Elgetako gainaldetik jarraitzen zuen, ondoren Zabaleta baserri ingurutik, mando-bide izena (artzain-bidea) hartzen zuelarik, eta Kanpazar eta Udalatik segitzen zuen; azkenik, Aramaiotik edo Gatzagatik Araban sartzen zen arte.

Beste adar batek, berriz, Bergaratik Eibarrera Basalgotik zihoan bidea jarraitzen zuen. Bide horretan antzinako Santiago ermita eta XIV. mendean dagoeneko Monasterio-bide izenez ezagutzen zen baserria (Santa Marina Monasteriora zihoana) zeuden, erromesen ostatua izateko ezaugarri guztiak zituena.




Gipuzkoako Donejakue Bidearen mapa.
*Mapa del Camino de Santiago por Gipuzkoa.*

